

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKUS-ENTZUNEZKOAK
eta
ZINEMA
IPAR EUSKAL HERRIAN

IPAR EUSKAL HERRIKO
ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKO ARLOKO
DIAGNOSIA ETA GARAPENERAKO GOMENDIOAK.



NOR

IKERKETA TALDEA
GRUPO DE INVESTIGACIÓN
RESEARCH GROUP

GRAXI IRIGARAI

Bordeleko Unibertsitatea UB;
Euskal Herriko Unibertsitatea EHU

JOSU MARTINEZ

Euskal Herriko Unibertsitatea EHU

PATXI AZPILLAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea EHU

JOSU AMEZAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea EHU

RAMÓN ZALLO

Euskal Herriko Unibertsitatea EHU

IKUS-ENTZUNEZKOAK
eta
ZINEMA
IPAR EUSKAL HERRIAN

aurkibidea

SAR HITZA

7

**I. IPARRALDEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA:
IBILBIDE HISTORIKO BAT**

9

Josu Martinez

- | | |
|---|-----------|
| 1. Iparraldeko euskaldunak atzerriko zineman | 10 |
| 2. Zinegile atzerritarrak Ipar Euskal Herrian | 11 |
| 3. Iparraldeko euskaldunen zinema | 13 |
| 4. Ondorioak | 21 |
-

**II. ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK FRANTZIAN:
ULERMENERAKO GAKO BATZUK**

23

Graxi Irigarai

- | | |
|--|-----------|
| 1. Gure ikerketa eremua: ikus-entzunezkoak eta zinema | 24 |
| 2. Ikus-entzunezkoen zein ekonomia? | 25 |
| 3. Ikus-entzunezkoen eta zinema arloan instituzioek
Frantzia dituzten eskumen publikoak | 33 |
| 4. Ondorioak | 39 |

III. ZINEMAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREA IPAR EUSKAL HERRIAN 41

Graxi Irigarai

1. Autoreak – filmegileak	44
2. Ekoiztetxeak	52
3. Teknikariak	59
4. Euskal filmen banaketa Frantzian (2015-2021)	65
5. Zinemagelak Ipar Euskal Herrian	68
6. Elkarteak	77
7. Lurraldean existitzen diren formakuntzak	79
8. Lurraldeko festibalak	81
9. Tokiko telebistak eta Kanalduderen eginkizun saihestezina	85
10. Irudiarekiko heziketa	89
11. Ondorioak	91

IV. IKUS-ENTZUNEZKO SISTEMAREN EGITURAKETA HEGO EUSKAL HERRIAN ETA HURA SUSTATZEKO LAGUNTZA SISTEMA 93

Patxi Azpillaga

1. Ikus-entzunezko sistemaren egituraketa Hego Euskal Herrian	93
2. Ikus-entzunezko sektorea sustatzeko laguntza sistema Hego Euskal-Herrian	100

V. FINANTZAMENDU PUBLIKOEN EGINKIZUNA FRANTZIAN TOKIKO ETA EUSKARAZKO EKOIZPENETAN 129

Graxi Irigarai

1. Zinemaren Zentro Nazionalaren (CNC) laguntzak	130
2. DRAC Akitania Berria	131
3. Eskualde finantzamenduen tokia Frantzian eta Liburuaren, Zinemaren eta Ikus-entzunezkoen Agentzia (ALCA) Akitania Berrian	132

4. Euro-eskualdea (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euro-eskualdea Lurralde Lankidetzarako Europar Elkartearen LLEE, fr.GECT) zineman eta ikus-entzunezkoetan	136
5. Departamenduen eginkizuna Frantzian eta Pirinio Atlantikoetan	138
6. Tokiko instituzioak: Euskal Hirigune Elkargoa, Euskal Kultur Erakundea eta Euskararen Erakunde Publikoa	141
7. Ondorioak	153

VI. KULTURA INDUSTRIEN GARAPENA **155**

Graxi Irigarai, Ramon Zallo

1. Ikus-entzunezkoak: kultura, ekonomia, digitalizazioa eta komunikazioa	156
2. Ikus-entzunezkoak tokiko sektore kultural eta linguistikoan	157
3. Ondorioak	163

VII. IPAR EUSKAL HERRIKO ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKO ARLOKO DIAGNOSTIKOAREN BILAN OROKORRA ETA GARAPENERAKO GOMENDIOAK **165**

1. Bilan orokorra	165
2. Gomendio estrategikoak. Epe luzerako proiektu baten beharra.	173
3. Epe motzeko gomendioak. Lehentasunezko lau ekintza	182
4. Azken hitza	185

VIII. ITURRIAK **187**

SAR HITZA

Ikerketa honek Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezkoen eta zinemaren egoeraren diagnostika egitea du xede. Ipar Euskal Herrian formakuntza, sorkuntza, ekoizpen, hedapen eta ustiapen arloan diren ikus-entzunezkoetako eta zinemako eragile desberdinak identifikatzea du helburua, ulertuz nola posizionatzen diren lurraldea eta sektorearekiko. Tokiko eta/edo euskarazko ikus-entzunezko sorkuntzaren gaiari interesatzen zaio. 2015 eta 2021 urteen artean Frantzian izan den tokiko eta/edo euskarazko ekoizpena du aztergai.

Ikerketa honen helburu eta oinarriak, 2022ko ekainean izepentu zen Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Akitania Berria/Euskadi/Nafarroa euroeskualea, Akitania-Berriko Liburu, Zinema eta Ikus-entzunezko Agentzia (ALCA), Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Euskal Hirigune Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) eta Euskal Kultur Erakundearen (EKE) arteko ikerketa zeregin baterako lankidetzak hitzarmenean zehaztuak dira.

Ikus-entzunezkoen eta zinemaren ekonomia eta soziologiari buruzko liburuetan oinarrituriko ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboa da baina baita, eta batez ere, terrenoko behatzean eta Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezko eta zinemako profesionalekin ukandako elkarrizketa bideratuetan oinarrituriko alorreko ikerketa ere. Ikerketa honetara daraman hitzarmenaren izenpetzailerik diren instituzioek helaraziriko datuek, politika publikoek lokalki sektorean nola eragiten duten eta tokiko egiturak finantza instituzionalen baitan nola txertatzen diren ulertzea ahalbidetzen dute.

Aitzin solas gisa irakurtzekoa den lehen atal batean, Ipar Euskal Herriko zinemaren historikoa egin ondotik, bigarren atalean, ikus-entzunezkoen eta zinematografiaren frantses sistema agerian ezartzea proposatuko dugu, lokalki zein ondorio duen hobe ikusteko gisan. Frantziako ikus-entzunezkoen eta zinemaren ikuspegi sozial, ekonomiko, kultural eta erregulatzaileak aztertzea beharrezkoa da, interesatzen zaigun lurraldeko sektoreen balizko garapenaren erronkak ulertzeko.

Ondotik, hirugarren atalean, gaiaren muinean sartuko gara Ipar Euskal Herriko sektorearen diagnosiarekin, lokalki sektorea garatu dadin sektoreko profesionalak hautematen dituzten erronken, mugen eta aukeren analisia kualitatiboaren bidez.

Laugarren atalean, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Aldundiko zinema eta ikus-entzunezkoei buruzko politiken eta egituren diagnosis zehatz batek perspektiba emanen die lurraldeko proiektuei.

Bosgarren, ekintza publikoak ikerturiko sektorean duen eragina begiratuko dugu, tokiko instituzio eta/edo eskumen desberdinek zinema eta ikus-entzunezkoen arloan lurraldeari esleitzen dizkion laguntzak aztertuz.

Seigarren atalean, kultura industrien garapenarekin eta numerikoaren inguramenaren eraldaketarekin loturiko erronkei buruzko argitasunak azalera-tuko ditugu, baita testuinguru moderno honetan lurralde kultura politikek duten egitekoari buruzkoak ere.

Bukatzeko, ikerketa honen bilan orokorra eta ondorioak agertuko ditugu politika publikoei dagozkien gomendioak proposatzeko, tokiko ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea garatzeko helburuarekin. Alde batetik, gomendio estrategikoak, epe luzerako politika bat plantan emateko, eta bigarrenik, epe-laburreko lau ekintza proposamen, lehentasunez jorratu beharrekoak.

I. IPARRALDEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA: IBILBIDE HISTORIKO BAT

Josu Martinez

Ikus-entzunezkoak eta Ipar Euskal Herria. Ipar Euskal Herria eta ikus-entzunezkoak. Hara hor, zinemaren lehen urteetatik bertatik planteatu den ekua-zio bateko bi aldagaiak. Ehun urtean, harreman etengabe eta emankorreetan bizi izan dira biak, baina orobat, harreman herren eta zentzu bakarrekoan. Grafikoki esateko: usu, jori eta kondizio profesionaletan izan da "Ikus-entzunezkoetan Ipar Euskal Herria", baina aldi berean, nekez, urri, eta maila artisanalean garatu dira "Ipar Euskal Herrian ikus-entzunezkoak". Leku guti dira munduan, hain txikiak izanik, hainbeste aldiz filmatuak izan, hainbeste egile ospetsu erakarri, eta hainbeste izar esportatu dutenak. Aldiz, guzti honek ez dio deus handirik ekarri euskaldungoaren komunitateari. Ez du zerbitu bertako filmagintza bat garatzeko, ez eta euskaldunentzako filmak ekoizteko baldintzak ezartzeko.

Datozen lerroetan, 1896 eta 2015 urteetan artean, "Iparralde eta ikus-entzunezkoak" harremanak ekoizpen mailan emandakoaren ikuspegi orokorra ematen saiatuko gara, deskriptiboki eta enfoke historiko batetik. Zineman eta telebistan nabarmendutako Iparraldeko euskaldunak izango ditugu lehenik aipagai; segidan, Ipar Euskal Herriaz egindako frantses eta atzerri-tar film ospetsuenak gogoan hartu, eta bukatzeko, Iparraldeko euskaldunek sortutako ekoizpenen historia egingo dugu.

1. | Iparraldeko euskaldunak atzerriko zineman

Hamarkadatan, Iparraldeko euskaldunek ikus-entzunezkoekin izan duten harremanaren zati handiena, norbanako zenbaitek Euskal Herriatik kanpo garatutako ibilbide arrakastatsuak ezaugarritu du. Oraindik, ikus-entzunezkoetara dedikatu nahi duen jendeak kanpora joan behar baldin badu gehiengotan, garai batez, ezinbesteko baldintza zen. Hala ere, Euskal Herrian sortutako zenbait pertsonak, garrantzia handiko filmografia garatu dute, bai Frantzian, bai nazioarteko mailan.

Lehenetarik bat, Baionan sortutako Henry Roussel aktorea dugu (Baiona, 1875-Paris, 1946). Historiako lehen euskal filmegile profesionala dateke Roussel, segur aski, zinema mutuaren lehen garaietatik hasi baitzen zuzendari, eta 1913an aktore gisa debutatu eta gero, 1918tik aurrera (*Un homme passa*), hamarnaka film zuzendu zituen Parisen, Louis Delluc, Jean Epstein edo eta Rene Clair bezalako egile ezagunen belaunaldiko kide bihurtuz. *Violettes Imperiales* da haren lanik ezagunena. Beronen bi bertsiio egin zituen (1924an eta 1932an), lehena mutua eta bigarrena soinuduna.

Hamarkada bat beranduago hasita, Rousellek baino are karrera oparoagoa egin zuen Harry D'Abbadie D'Arrast baigorriarrak (Buenos Aires, 1897-Baigorri, 1968), Etxauziako seme eta Antoine D'Abbadie euskal mezenaren iloba ttikiak. Parisetik kanpo, Hollywood-era joan zen D'Arrast, eta bertan, Charles Chaplinen gidoilari eta laguntzaile jardun zuen, besteak beste, *A woman of Paris* (1923) eta *The Gold Rush* (1925) maisulanetan. Ondotik, zuzendari gisa plantatu eta arrakasta ederra erdietsi zuen mundu mailan, besteak beste, Oscar sarietara izendatua izan zelarik 1930an, *Laughter* filmarengatik. Hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan dozena bat film zuzendu zituen, Estatu Batuetan, Alemanian eta Espainian (BORAU, 1990).

Ondoko urteetako frantses zinemako aurpegi ezagunetarik bi, Euskal Herrian sortuak izan ziren. Pierre Richard-Willm baionarrak, kasurako, *Le Comte de Monte-Cristo* ezagunean Edmundo Dantesen rola jokatzuz arrakasta gaitza lortu zuen, eta 30ko hamarkadatik 50ekora, andana bat film protagonizatu zituen; gehiengotan, galai ederraren azalean sartuz. Emazteen artean berriz, Martine Carol biarritzarra, garaiko mito erotiko nagusienetarik izan zen Frantzian, Brigitte Bardot agertu arte segurik. Rosellini, Aldrich, Gance eta beste zuzendari handi ainitzekin lan egin zuen Carolek, eta besteak beste, Max Ophuls alemaniarren *Lola Montes* ezagunean (1955) protagonista izan zen. Monte-Carloko hotel batean hilik atzaman zuen haren laugarren senarrak.

Genero musikalean, Luis Mariano eta André Dassary euskal herritarrek ere popularitate handia ezagutu zuten urte haietan. Ibilbide ezberdina ukanik ere (Mariano Irunen sortu zuen, eta Espainian ere aritu zen bitartean, Dassaryk fama handiena Petainen aldeko "Marechal nous voila" kantuekin lortu zuen) antzeko proiektuetan ari izan ziren biak, komedia musikal arinetan, eta biek ala biek, euskaldunen irudi folklorizatuaren eraikuntza arketipikoari aurpegia jarri zioten.

Arrunt bestelakoa da, bai estiloz eta bai mailaz, Loleh eta Yannick Bellon ahizpen kasua. Surrealisten argazkilaria Denise Bellonen alaba biak, Biarritzen sortu ziren eta banguardiako giro ezkertiarrean hazi zituen amak. Loleh Be-

Ilon, teatro eta zinemako gidoilari gisa, eta batez ere, aktorea gisa aritu zen. Bere gailur artistikoa, Jacques Beckerren *Casque D'Or* filman jokaturako papera izan zen (1952) baina beste zenbait lanetan ere presentzia garrantzitsua izan zuen, tartean, bere ahizparen hainbat filmetan. Yannick Bellon, justuki, zinemagile gisa nabarmendu zen beherahala, *Goemons* labor dokumentalarekin 1948an Venezian saritua izan zenetik. Emazteekin eta feminismoarekin erotik engaiatutako filmografia osatu zuen geroztik, eta nazioarte mailako prestigioa lortu zuen hamarkadatan zehar, gaur egun oraindik irauten duena. Denbora guzti horretan, hainbat sari irabazi ditu, hala nola, 1974ko Donostiako Zinemaldiko Urrezko maskorra, *La femme de Jean* lanarengatik (ROLDAN LARRETA, 2003).

Beste aktore prestigiotsu bat, Michel Etcheverry donibandarra izan zen. Comedie Françaiseko kide sonatua, teatroaz landa, zineman ere andana bat filmetan hartu zuen parte hamarkada luzeetan, Georges Franju, Luis Buñuel edo eta Claude Chabrol bezalako egileekin, besteak beste. Bestalde, 80ko hamarkadan, André Madré-ren alargunak *Gure Sor Lekua*-ren frantsesezko bertso bat muntatu zuelarik, berak egin zuen dokumentalaren *off* ahotsa.

Gidoilarien alorrean, Pierre Apesteguy eta Jacques Celhay izan ziren, XX. mende erditsu hartan profesionalki aritu ziren euskal herritarretako bi. Lehenak, nobelagile gisa hartu zuen fama, baina zinemagintzan ere ibili zen, ez bakarrik gidoigile gisa, aurrerago ikusiko dugunez. Celhayk aldiz, punta puntako lanik ez zuen sinatu, baina bai ordea, arrakasta lortu zuten hainbat film, bai zineman eta bai telebistan. Harena da, esaterako, 60ko hamarkadan oso ezaguna egin zen *Gorri le Diable* seriea, alegiazko euskal kontrabandista bat protagonista zuena. Gaur eguneko artean, Thomas Bidegain xiberotarra da Frantziako gidoilaririk mirestuenetakoa; bereziki, Jacques Audiard-en filmentzat idatzi dituen gidoiengatik. Horrez gain baina, berriki errealizadore gisa ere debutatu du, kritika onak jasoz.

Azken urteotan, ainitz dira zinemara dedikatutako euskal herritarrak, eta langintza gero eta ezberdinagoetan, gainera. Produkzioan, esaterako, Philippe Arrizabalaga, eta bereziki, François Etchegaray nabarmendu dira. Azken honek, Eric Rohmer handiaren azken zazpi filmak ekoitzi zituen, zinegilearen eskuin eskua bilakatuz. Aktoreen artean, Mehdi Nebbou, Christian Abart, Pauline Delpech (sortzez Bidegaray) edo eta Bernard Blancanek beren bidea egitea lortu dute, eta zuzendarien artean, baita Gael Mocaër, Xabi Molia, eta Safy Nebbou¹ baionarrek, Sandi Louit donibandarrak, Thomas Bidegain xiberotarrak eta Miguel Courtois zokoarrak, besteak beste.

2. Zinegile atzerritarrak Ipar Euskal Herrian

Zinemaren asmaketaren garaietatik bertatik ugari izan ziren Ipar Euskal Herriera filmatzera etorritako zinegile ospetsuak, eta tendentzia hori, aroz aro mantendu zen XX. mende osoan. Hala, txoko gutxi dira munduan, hain ttiki izanik, hainbeste aldiz eta hain zinegile handiek erretratatuak izan direnak.

¹ Industria frantsesean dozena erdi film luze zuzendu aurretik, Nebbou-k euskarazko bi film labor osatu zituen duela hamabost urte inguru, hegoaldeko aktoreekin. *Bertzea* (2001) eta *Lepokoa* (2003).

Ez hori bakarrik. Zinemak aurrerapen tekniko bat garatzen zuelarik, usu gertatu zen, askak berria probatzera Euskal Herrira jitea zinegile eta ekoiztetxeak. Hala, historiako lehen filmetako bat, Biarritzen filmatu zuten Lumiere anaiek (*Le Rochers de la Vierge*, 1897). Frantziako lehen dokumental soinu-duna ere, euskaldunen lurraldeaz ekoizti zuen Gaumont ekoiztetxeak (Maurice Champreux zuzendutako *Au pays des Basques*, 1930). Hamarkada berean, Louis Lumierek "cinema en relief" 3D teknika asmatu zuenean, *Euskadi* (René Le Hennaff, 1936) dokumentala ondu zuen Pathé-Cinemak, eta 50eko hamarkadan, Europan telebistaren hedatzearen hasmenta sasoian, bere lehen bi erreportajeentzat Euskal Herria aukeratu zuen Orson Wellesek.

Horiek bezala, XX mende osoan, dozenaka dokumental burutu zituzten euskaldunei buruz Frantziatik, Ingalaterratik, Alemaniatik, Suediatik, Estatu Batuetatik, Georgiatik eta beste hamaika lekutatik etorritako zinegileek². Gehienek, arestian aipatu imaginario hori hartu zuten ardatz, dela bere osotasunean, edo dela beronen elementu fetitxeren bat (dantza, pilota, kantua, kontrabandoa, emigrazioa...). Haietarik batzuk bakarrik aipatzearen, honakoak zerrenda genitzake: *Au Pays des Basques* (Maurice Champreux, 1930), *Im Baskenlande* (H. Körösi, 1931), *Euskadi* (René Le Haff, 1936), *Im lande der Basken* (Herbest Brieger, 1944) *Der Basken* (daturik ez); *Das Volk der Basken* (daturik ez), *Basques and their Country* (Raymond Bricon-Walt Disney, 1955), *The Basque Countries* (Orson Welles, 1955), *The Basque Pelote* (Orson Welles, 1955) *Le curé basque de Gréciette* (Hubert Knapp, 1958), *Euskal Herrian* (E. Naillon, 1959) *Retour aux Pyrénées* (Jean Faurez, 1960), *Basque River* (Matthew Nathan, 1960), *Le Pays Basque: quelques uns qui parlent le basque* (1974), *Euskadi été 1982* (Otar Ioselliani, 1982), *Pays Basque* (David, Pritchard, 1987), *Hitza hitz, parole de basque* (Enrique Colina, 2010), *Hitz egin. Faire la parole* (Eugene Green, 2015).

Maleruski, haietako asko, oraindik galdutzat ematen dira, eta garaiko prentsa eta dokumentuengatik bakarrik dugu haien berri. Ikusgai ditugunen artean ordea, antzekotasun nabariak dira. Balirudike, euskaldunei buruz eraikitzen duten diskurtsoa, -alegia, Pirinioen eta Kantauri itsasoaren artean kantatu dantzatu eta pilotan jokatzeko duen jatorri misteriotsuko herri exotikoaren irudia-, gehiago dela aurreiritzietan oinarritua, lurraldean ikusitakoaren fruitu baino. Bestela esateko, balirudike, zinegileok, euskaldunei buruzko literatura erromantikoa ongi ikasita iritsi zirela errodejera, eta aurretik pentsatuta zuten horixe besterik ez filmatzea deliberatu zutela. Liburuetan eta pinturatan ezagututako mundu mitikoa erretratatzera etorri zirela, eta ez, beren begiekin deskubritzera, desagertzeaz zegoen eta odolhusten ari zen herria. Horregatik, kasurik gehienetan, beren begirada azalekoa da. Superfiziala. Turistarena (MARTINEZ, 2016).

Fizikioaren alorrean, berdin, askorako eman du Pirinioetako indioen imaginarioak. Eta hor ere, hainbat dira frantses zineman Euskal Herrian edo Euskal Herriaz agertutako filmak. Dokumentaletan bezala, ordea, euskal mito edo klixe batzuk gai hartu eta trama arinen eta pertsonaje eskematikoen bidez egituratutako lanak dira gehienak. "Salbaia onak" bihurtu ziren, hala, euskaldunak; zibilizatu gabeko frantses atzeratu baina bihotz onekoak. Frantzia osoan hedatuko zen euskaldunen irudi hau konfiguratzeko, azkarki lagundu zuen fizikiozko zinemak. Irudi folklorizatua, esan gabe doa. Ez bada karikatuzatua.

² 50eko hamarkadatik aurrera, dokumental zenbait telebistarako ekoizti ziren, zinema saletarako barik.

Halako kanpo begiradaz ekoizitako filmen artean, ondokoak aipa litezke, besteak beste. *Une nocte basque* (1918), *Gachoucha, fille basque* (1921), *Le Chemin d'Ernoa* (Louis Delluc handiak zuzendua, 1921), "Ramuntcho"-ren lau bertzio ezberdin (Lehena, Jacques de Baroncellik zuzendua, 1919; bigarrena, 1938an Rene Barberis-ek, hirugarrena 1948an Pierre Schoendoerfferrek eta laugarrena, libreena, *Le Mariage de Ramuntcho* izenpean, 1947an Max de Vaucorbeilek zuzendua), Luis Mariano protagonista zuten pare bat komedia musikal, *L'athlète aux mains nues* (1951ean Iholdin filmatua, Mixel Garikoitzen bizitzari buruz), *Les Mains Liées* (Aita Lhanderen nobela batean oinarritutakoa, 1956), eta telebistarako egindakoen artean, oixtion aipatutako "Gorri le Diable" seriea (1968), edo *Le Refugié* dokufizkio berezia (Danielle Hunebellek 1966an ekoiztia, eta beltz errefuxiatu bat Euskal Herrira ailegatzean bertokoek egiten dioten harrera kontatzen duena).

Begirada sakonago luzatu nahian, 90ko hamarkada hondarrean eta 2000koaren hastapenean, Jean Pierre Grasset errealizatzaileak lau dokumental (*Zazpiak Bat, Bat-bi, Hatsa eta Ama*) eta fikziozko film luze bat mustu zituen: *Lokarri* (2001). Sorlekutik alde egin nahi duen pilotari baten eta euskal kulturak liluratu duen paristar neska baten arteko maitasuna kontatzen zuen Hegoaldeko Basque Films ekoiztetxearen koprodukzioa ukan zuen lan honek, eta aktore frantsesekin batera, euskal kulturako kulturgile zenbaiten bigarren mailako partehartzea zuen (Mixel Etxekopar, Eñaut Etxamendi, Filipe Oihanburu, Maddi Oihenart eta zenbait pelotari besteak beste).

Berriki, *Mission Pays Basque* izeneko komedia arin bat estreinatu da Frantzia osoko zinemetan, euskaldungoari buruzko aspaldiko topiko horiek terrorismoaren klixearekin nahastuz, estereotipo regionaletan oinarritutako barre erreza xekatzeko duena, Espainian *Ocho Apellidos Vascos* arrakastatsua bezala.

Film guztietan, egilearen jatorria eta garaiko testuingurua gora behera, euskaldunen irudi estereotipatu eta folkloriko bat ematen da. Kanpotik pentsatua eta euskaldunen egiazko errealitatearekin eta kezkekin zerikusi gutxi duena. Alta, hor dago paradoxa, ikus-entzunezkoaren indarrak eta imaginario horren hedapen masiboak, lortu egin dute, azkenean, zenbait euskaldunek ere bere egitea haietaz proiektatzen den irudia. "Museo bizidun" bihurtu dira, Zulaikak esango lukeenez (1994). Beren errepresentazioaren errepresentazio.

3. | Iparraldeko euskaldunen zinema

Izan dira, beraz, ikus-entzunezkoetan ibili diren euskaldunak. Eta ikus-entzunezkoak ere, usu ibili da Euskal Herrian. Haatik, Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezkoak, are gutiago euskal filmografiarik, ez da esistitu orain arte. Euskal kulturaren egoera minorizatuak esplikatu lezake gabezia hau, neurri batean. Baina ez bakarrik. Egoera sozial eta politikoak berdina izanik, beste espresio bide batzuek -gehiago edo gutiago- garatzea lortu dute XX mendeko osoan eta XXI. mendeko hastapenean (kantagintzak, antzerkiak, teatroak edo are eta komunikabideek). Zein da, beraz, Iparraldean mende luzez bertoko filmografiarik ez sortzeko arrazoia? Ikus-entzunezkoen izaera industrialak da, dudarik gabe, gakoa.

Hegoaldeko historiak erakusten duen bezala, Euskal Herrian ikus-entzunezkoak sortzea soilik da posible, horretarako baldintzak garatuko dituen egituraketa juridiko eta administratibo azkar bat plantan ematen denean. Hala-kerik izan ez den sasoietan (autonomia estaturik gabeko urte luzeetan, hots), amateurismoan sortutako ekoizpen heroiko batzuetara mugatu dira ekoizpenak Hegoaldean. Ber gisan, Iparraldean ere, halakoxeak ditugu filmak egiteko burutu izan diren saiakerak; amateurak, idealistak eta isolatuak.

a) Esperientzia arraro bat

II. Mundu Gerlaren ondoko urteetan, euskal zinemaren historia errotik aldatzeko punduan izan zen Ipar Euskal Herrian. Lekuko jende ezagun batzuek, iduriz, Hegoaldeko errefuxiatu batzuk lagun zituztela, ekoiztetxe bat sortu zuten Saran: Euzko Films. Alta, enpresak ez zuen luze iraun eta egitasmoak bizi laburra izan zuen.

Jadanik lerrootan agertua zaigun Pierre Apesteguy idazle eta gidoilaria izan zen Euzko Film-en zuzendari teknikoa, eta zuzendari orokorra berriz, Paul Dutournier euskalzale ezaguna; handik gutxira Sarako auzapez bilakatuko zena. Dutournier-ek rol tipi bat jokatu zuen 1937an Saran filmatu zen **Ramuntcho** filman (René Barberis-ek zuzendutako bertsioan), eta akaso, esperientzia hartatik heldu zitzaion zinemagintzarako grina.

Pentsatzekoa da, ekintzaileok, abentura abiarazteko sos kantitate eder bat atzeman zutela nonbait. Izan ere, Pariseko Champs Elisées-etan bulego bat ireki zuten, eta Euzko Films, frantses industriako ekoiztetxe gisa jardun zen martxan egon zen urte laburretan. Hiru film komertzial ekoitzi zituen: 1948an, Pierre Apesteguyk idatzitako **Les souvenirs ne sont pas à vendre** (Robert Hennion-ek zuzendua) eta **Les eaux troubles** (Henry Calef-ek zuzendua) melodrama frantsesak, eta 1949an, turismoari begira burututako **Au Pays Basque avec Luis Mariano** (Apesteguy-k berak zuzendua). Tituluok ikusirik, iduri du, frantses publikoari begirako proiektua zutela jomuga. Frantses zinema egin gura zutela, alegia. Hala ere, ikertzekoa da gaia; bereziki, proiektuan parte hartzen omen zuten Hegoaldeko errefuxiatu abertzaleen paperari dagokionez.

Enpresa itxi aurretik, Euzko Films enpresak Ilbarritzeko gaztelua (Bidarten) erosi eta bertan zinema estudio bat muntatu nahi izan zuen, nolabaiteko "euskal hollywood" bat sortuz. 1984an Dutournier-ek Jose Maria Unsain historialariari esan zionez, Mexikon bizi ziren euskaldun dirudun batzuk proiektuaz interesa zitezen lortu zuten, baina azken mementoan, atzera egin zuten eta sosik gabe, ezin izan zuten egitasmoa gauzatu (UNSAIN, 1985).

b) Gure Sor Lekua

Ipar Euskal Herrian sekula egin den filmarik garrantzitsuenetakoa, 1956an Hazparden estreinatu zen **Gure Sor Lekua** dugu, André Madré-k ekoitzi eta zuzendua, Jean Elizalde **Zerbitzari** apezaren gidoiarekin. Alde batetik, historiako euskarazko filmarik zaharrena delako. Bestetik, amateurismoz, auzolan dosi handi batekin eta Madré-ren ekimen pertsonal eta idealista hutsetik sortua izan arren, ordu eta Erdiko kalitate ederreko lana delako; egileak frantses armadan koronel postua izateari esker, baldintza tekniko onetan egina.

Ume-umetatik sorlekutik urrun ibilia baitzen, herrimina zeukan Madré abiadoreak eta 50eko hamarkadan, Parisen bizi zela, errefuxiatu abertzaleekin kurutzatu eta sentimendu hori diasporako beste euskaldunekin partekatzean euskal film bat egiteko ideia etorri zitzaion.

Gerora idatzitakoei eta prentsan argitaratutakoei erreparatuz gero, ez dirudi "Gure Sor Lekua" burutzean bere xede nagusia euskara zinemara ekartzea zenik (Madré, 1953; Duhour, 1956; Lahina, 1956). Euskararen aldeko ekintza bat burutzea baino, Madré-k zuen helburua, (diasporako euskaldunak gogoan) **euskal film** bat osatzea zen: goitik behera euskalduna izango zen film bat. Estreinaldirako gonbidapenetan eta prentsan erabili zen espresioa baliatuz: "%100 basque" ("Premiere Mondiale du film Sor-lekua entierement en basque", 1956).

Madré-rentzat, bere lana funtsean hiru elementurengatik zen **euskal filma**: Euskal Herriaz eta euskaraz ari zelako (edukiarengatik), euskaldun batek egina zelako (egilearen begiradarengatik) eta euskaldunentzako egina zelako (ikusleen begiradarengatik). Hala uler daiteke "Gure Sor Lekua"-ren hizkuntza (bai hitzez, bai idatziz) euskara izatea.

Edukiaz gain, egileak ere euskalduna behar zuen, filma **%100 basque** izateko. Eta hori, Madré-ren aburuz, **begiradak** ematen zuen. 1953ko ekainean **Zer-bitzari**-ri gutun batean ziotsanez, eskas zituen Euskal Herria **barne begirada** batekin erakutsiko luketen filmak. Sutan jartzen zuten **kanpo begirada** batez egindakoek:

» "Vivant depuis longtemps loin du Pays Basque, je sais tout le plaisir que j'éprouve à voir de temps en temps sur un écran un paysage ou une scène de chez nous. Mais je sais aussi les colères que je rentre devant les films idiots ou ratés que l'on projette, qu'ils soient payés par le syndicat d'initiative ou les plages pour les réclames, ou qu'ils soient tournés par des cinéastes qui ne connaissent rien du Pays Basque ou qui sont simplement de mauvais opérateurs" (MADRÉ, 1953).

Haren arabera beraz, Euskal Herriari buruzko filmek, euskaldunek ikusteko baziren, "barne begirada" bat eskatzen zuten. Euskaldun baten begirada. Eta horretantxe saiatu nahi zuen.

Azkenik, Madré-ren ustez, xede zuen ikuslegoak egingo zuen filma han edo hemengo. Egilearen eta ikuslearen begiradek bat egiteak borobilduko zuen filmaren nongotasuna. Errodajea bukatzen ari zela, 1955ean "Peut on réaliser un film basque?" izenburupean Pariseko Euskalzaleen Biltzarrean egindako konferentzian, hala zioen: "Zoin ekei edo molde hauta? Zertarako eginen den, edo norendako: hortan da ihardespina. Ze xederentzat egiten den! Kanpotiarrentzat balin bada, ez da hain minbera izaiterik. Egiaren orde, iduripena hola aise, hura gogoan, han iretsiko dute lorian" (B.D., 1955).

Emaizta ordu eta erdiko koloreko dokumental amateurra izan zen; garaiko Iparraldeko **euskaldun fededun** ereduko herritar baten bizitza kontatzen zuena, jaiotzatik ehorzketaraino, urratsez urrats.

Harrigarria badirudi ere, **Gure Sor Lekua** munduko hainbat lekutan ikusi ahal izan zen zenbait urtez, beti ere zirkuitu komertzialetik kanpo, lekuko euskal komunitateek antolatutako gaualdi berezietan (San Franciscon, Parisen, Da-

karren...). Euskal Herrian ere, 1956 eta 1957 artean, badakigu, bederen, Hazparnen, Baionan, Uztaritzen, Azkainen, Beskoitzen eta Aiherran proiektatu zela, gehienetan herrietako gazteria giristinoak (Eskualdun Gazteria eta antzeko taldeek) antolaturik (MARTINEZ, 2015).

c| Zinema amateurraren zabaltzea

Madré-k *Gure Sor Lekua* burutu zuen garaian, 16 mm-tan filmatzeko kama-
rek zabalpen handia lortu zuten, eta horrek, merketu eta erreztu egin zuen
bestelako proiektuen filmaketa. Aldi berean, kamara askoz arinagoak asma-
tu zituzten urte haietan, txikiagoak eta eramangarriagoak, eta horrek, filma-
keta esperimetal eta amateurren ugaltze handi bat ahalbidetu zuen.

Zinema egiteko modu berriak sortu ziren munduko leku ezberdinetan. *Free
Cinema* sortu zen Erresuma Batuan, *Cinema Direct*-a Quebec-en... Ipar Eus-
kal Herrian, egoera ez zen hortaratu, baina hala ere, filmaketa amateurren
ugaritze bat eman zen.

Uztaritzen errefuxiatuta bizi zen Ynchausti familiak, esaterako, hainbat film
errodatu zituen euskal gaiei buruz. 1948an, Eusko Ikaskuntzak Biarritzen an-
tolatutako VII. Kongresua filmatu zuen, eta 1954an Baionan antolatutakoa;
euskal kulturaren biziraupenarentzat garrantzi handikoak izan ziren hitzor-
duak, biak ala biak. Herrietako jaiak, pilota partidak, uso ihizia eta beste zen-
bait herri usaia ere hartu zituen Ynchausti sendiak, 16 mm-ko Bell& Howell
kamera batekin. Filmaketa guzti horiek, muntatuketarik eta titulurik gabe
daudenak, Ynchausti familiaren etxean kontserbatu dira, duela hiru urte
EHUko NOR taldeak berreskuratu dituen arte, numerizazioan lagunduz eta
Euskadiko Filmategian kontserbatuaraziz.

1957ko euskal prentsan irakur daitekeenez, bestalde, *Hegaluzia* izeneko film
bat ari zen filmatzen Robert de Fontaine, Donibane eta Ziburuko arrantza-
leen hegaluzearen kanpainei buruz (garai hartan, Dakar aldera joaiten hasi
berriak ziren) eta oro har, itsasgizon bizitzaz ("Filma berri bat", 1957). Haren
berririk ordea, ez da orainokoan. Badakigu ere, herriko jendearen lekuko-
tzei esker, sasoi hartan, Hoztan izan ziren toberak filmatu egin zituztela, film
amateur bat burutuz. Maleruski, haren arrastoa ere galdua da.

Urte haietan, bestalde, zinema salak ainitz hedatu ziren; eta barnekaldeko
hainbat herri txikitan ere filmak ikusteko aukera zabaldu zen. Gehienetan,
elizari lotutako lokaletan izaten zen; patronaje-en geletan, edo parropiaren
saletan. Urte luzeetan zinemagintzarekiko uzkur eta mesfidati agertu ziren
apezek, zazpigarren artearen indarrari ezin aurre eginez, beren gain hartzea
erabaki zuten. Haien eskuetatik pasako zen, hala, ikusleek kontsumituko zu-
tena, modu horretan, kontrol sozialari eutsiz.

Elizaren gerizan, herrietako zinemotan, film komertzialen aurretik, eta Fran-
tzia mailako "Les actualités" ondotik, herri bizitzari buruzko filmaketa labu-
rrak pasatzen hasi ziren urteotan. Usu, lekuko elkarte katolikoetako gazteek
filmaketa, bertoko gertaerak erakusten zituzten, nolabaiteko "berri-emaile"
gisa; behi lasterrak, pilota partidak, prozesioak, merkatu egunak, medikuak
erositako auto berriaren irudiak.... Badakigu, bederen, Hazparnen eta Dona-
paulen izaten zirela halakoak.

d| Pantaila txikian euskaraz

16 mmko filmen garaiaren eta bideoaren agerpeneran artean, telebistaren asmakuntzak ere, ekarri zuen, Ipar Euskal Herrian euskaldunek eta euskaldunentzako pentsatutako filmak sortzeko zirrikitu bat. Ez alferrik, telebistarako lehenengo euskarazko saioak (dokumental laburrak ere deitu ahal zaie, beldurrik gabe), France3 katerako Maite Barnetxe bidarraitarrak burutu zituen, Hegoaldean ETB sortu baino 15 urte lehenago. Euskarazko zinemaren lehen urratsak (*Gure Sor Lekua*-rekin) Iparraldean eman ziren ber, euskarazko telebistarenak ere, hala gertatu ziren.

1971ko urriaren 4an, arratsaldeko 18:30etan puntuan, Mattin bertsolaria agertu zen Ipar Euskal Herriko etxeetako telebistetan. Laneko arropekin, Ahetzeko bere etxaldearen pentze batean zutik, ezker eskua gurdi batean zuela ondorengo bertsoa kantatu zuen:

» “Telebistan e hasi zauzkigu eskuaraz emankizunak
lan hortarako etorri zaizkit gizon batzuk jakintsunak
izate hortaz poztu zaitezte adiskide ta lagunak
bihotz erditik agurtzen ditut beira dauden eskualdunak”.

Horiexek dira telebistaren historiako lehen euskarazko emankizuneko has-tapeneko berbak. Euskarak telebistan leku (txiki) bat lortu zueneko lehen agurra. Soinua zineman entzun zen lehen aldia, *The Jazz Singer* filman izan baldin bazen, esan genezake, pantailako txikiko gure *Jazz Singerra*, Mattin izan zela. Handik goiti, makinatxo bat aldiz agertuko zen berriz Mattin, garai-ko euskal kulturako beste pertsonaia inportante gehienak bezala, bi asterik behin, larunbat eguerditan emititzen zen hamabost minutuko erreporta-jean.

Telebista 1957 hondarrean iritsia zen Akitaniara, Brouillac-en (Bordele kanpoaldean) emisore bat ezarri zelarik. Alta, emeki emeki sartu zen “leiho txikia” euskaldunen etxeetan. 1971an, Aquitaine-Bordeaux estazioaren emisioen barnean, euskarazko saio labur batzuk emititzeko bidea ireki zen. Jacques Chaban-Delmas lehen ministroak iragarritako zabalpenen ondotik, Michel Inchauspé diputatu garaztarrak Asanblean eskatu eta lortu zuen euskarazko emankizunentzako baimena, eta hala, Bordeleko zentroak proiektua mar-txan jarri zuen, beti ere, kontrol pean. Bordeleko unibertsitatean euskara katedra zuen Jean Haritschelar irakaslea, ekimenaren “erantzule moral” izen-datu zuten, eta 1970ko irailean argitaratutako aurre-informe batean, eman-kizunetan pilotari, herri kirolei eta euskarazko teatroari leku berezia ematea gomendatu zen (CHEVAL, 2005).

Frantses irratian euskarazko emisioez arduratzen zen Maite Barnetche kaze-taria hautatu zuten euskarazko saio berriaren zuzendari, baina gainontzeko lan guztiak, grabaketa egunetan Bordeletik etortzen zen lau teknikariz osa-tutako ekipa batek eramaten zituen. Hastapenean, Barnetche-k ez zuenez ikus-entzunezko lengoaiaren ezagutzarik, errealizadore bat jarri zioten on-doan eta haren laguntzarekin osatu zituen lehen saioak; ofizioa ikasi zuen arte.

Urte haietan, orotara 300 bat emanaldi emititu ziren, orotara 75 ordu inguru, eta Ipar Euskal Herriko bizitza kulturalaren ikus-entzunezko lekukotza bizia bihurtu zen emankizuna, Patricio Guzmanek zinema dokumentalari ematen dion zentzuan (2013), euskaldunen *familia albuma*.

Haren heina, itsasoan tanta batenaren pareko zen. 1978an, *FR3 Aquitaine*-ren urte osoko aktibitatearen %4 baino ez zuten suposatzen. Eta edukiz ere mugatua zen "Eskual Herria orai eta gero". Politikaren beldur, emankizuna martxan jartzeko baldintzetako bat, aktualitateko gairik ez ikutzea izan zen hasieratik (Gasteiz, 1979; Arbelbide, 2002). Alta, zenbait kasutan, aktualitatea nahi eta nahi ez agertu zen. Esaterako, ikastolei zenbait saio osorik eskaini zitzaizkien. Gainontzekoan, kultur gertaerek (antzerkiek, pastoralek, kantaldiek, bertso saioek, literaturak), tradizioaren ikuspegitik begiratutako errealitate sozialek (arrantza, laborantza...), herri eta bailaretako historiak edo eta aiton-amonen lekukotzek bete zituzten ordu gehienak. Zentzu horretan, harribitxia da Barnetxek urtez urte sortu zuen irudi funtsa. Kasu askotan, ikus-entzunezko lekukotza bakarra. Etxahun Iruri, Xalbador, Mattin eta Xanpun bertsolariak; Pantxoa eta Peio, Niko Etxart, Maite Idirin, Errobi, Ortziken, Zazpiribai, Erramun Martikorena, Etxamendi ta Larralde, Estitxu eta Eltzegor musika taldeak; Piarres Lafitte, Telesforo Monzon, Piarres Larzabal, Roger Idiart, Piarres Xarriton, Louis Dassance, Jean Haristchelar eta Txomin Peillen kultur gizonak; Dongaitz, Durruty, Gaby, Lemoine eta Boudon pilotariak; lehen ikastoletako haur, guraso eta irakasleak... guzti horiek eta gehiago, behin eta berriz agertzen dira urte haietako ikuskizunetan, euskal kulturaren familia album paregabea osatuz.

e| 70 eta 80ko hamarkadetako filmak

70eko eta 80ko hamarkadetan, telebistan Maite Barnetxek bide egiten zuen bitartean, zinemaren teknikek beste jauzi bat egin zuten medioen "demokratizaziorantz". Super8 formatuko kamaren eta bideokamara domestikoaren sorrera eta zabalpen masiboak, milaka pertsonaren esku jarri zuen filmaketak egiteko ahala, sekula lehenago ez bezala. Bestalde, Euskal Herrian bizi zen egoera politiko zapartatsuak, mugimendu kulturalaren azkartzea ekarri zuen hainbat arlotan, eta horrek ere, izan zuen oihartzunik ikus-entzunezkoen sorkuntzan.

Hegoaldean ekoizitako hainbat dokumentaletan, Iparraldea filmatua izan zen. Kasu batzutan, atzerritarrenetik sobera bereizten ez zen begirada folkloriko hutsez ("Ama Lur" ezagunean bertan, urrunago joan gabe). Beste kasu batzuetan ordea, lekuko errealitateak sakon aztertu nahia ageri da. *Ikuska* dokumental sailean (1978-1984), esaterako, argi ikusten da hori. Antton Ezeizaren koordinaziopean, hegoaldeko hogeitaz hamar errealizadorek egindako hogeitaz hamar dokumentalek osatzen duten euskarazko seriea izan zen *Ikuska*, kalitate tekniko bikainekoa, eta bertako bi film iparraldeko gaiei buruz ondu ziren: lehena, Donibane Lohitzuneko arrantzaz, eta bigarrena, barnealdeko artzaintzaz. Biak, Antton Ezeizak zuzendu zituen eta ohiko ikuspegi bukolikotik ateraz, arrantzaleen eta artzainen eguneroko arazoak zituzten ardatz, ikuspegi sozial batetik. Errealizadorea eta ekoizleak hegoaldekoak izan arren, filmotan, lekuko hainbat jendek kolaboratu zuen, maila tekniko zein artistikoan; besteak beste Kristiane Etxaluz, Jose Goitia, Marzel Etxehandi, eta Jokin Apalategi eta Joxe Manuel Pagoaga.

Beste proiektu interesgarri bat, *Xalbador gaztain kormutxa* da (1981), Juan Miguel Gutierrez erreteriar dokumentalgile amateurrarena. Super-8 formatuan eta medio izugarri urriekin burutua izan arren (bukaerako kredituak, esaterako, folio xuritan eskuz idatzita agertzen dira) oso lan txukuna eta duina izan zen. Bertan, Joxe Mari Aranalde eta Emile Larreren interbentzio txiki batzuk ikusiko ditugu, baina film osoan pisu nagusia, Xalbadorren ger-

tukoek eramaten zuten: haren familiak eta lagun bertsolariek. Gutierrezen hitzetan (2014): “Xalbador hila zen eta ez genuen haren irudi bakar bat ere; ez kantuan, ez artzain lanetan ez eta etxean; audio grabazio batzuk baino ez genituen, eta argazki zaharren bat. Horregatik, harengana eta haren mundu poetikora hurbiltzeko modurik egokiena gertukoei erreparatzea izango zela pentsatu nuen; eta lehen-lehenik emazte Leoniri, bertsolaria zen seme Mixeli, eta alaba Henrietteri”.

Filmak nahiko zabalpen ona izan zuen, zirkuito komertzialetatik kanpo erakutsi zela kontuan hartuz. Hurrengo urteko Urepeleko omenaldian estreinatzen zen, eta ondoren, hainbat kultur etxe eta elkartetan. GUTIERREZ (2014): “Emanaldiak egiten zirenean, geuk eramaten genuen guztia; proiektorea, soinu-ekipoa.... Gonbidatzen gintuztenek lokala eta maindire zuria jartzen zuten, ez besterik”.

80ko hamarkadan, bertako jendeek egindako beste bi laburmetrai ageri zaizkigu; estiloz eta aurrekontuz, arras ezberdinak. Batetik, 1983an, Kristiane Etxaluzek burututako **Zuraren adarra** film poetiko esperimentalak, eta bestetik, 1986an Koxe Alberdik zuzendutako **Pitxu, alfer haundia** animaziozko laburmetraia.

Etxaluzen lana, 50 minutuko “bideo antropopoetikoa” zen, Pauen sortu zen OREP (Office Régional d’Education Populaire) erakundeak ekoitzia. Kámara, soinua eta muntaia, Paueko teknikalari batek hartu zituen bere gain, eta auzolan izpirituan, lagun andana bat parte hartuarazi zuen Etxaluzek, aktore eta bestelako lanetan. Haren asmoa, osoki euskaraz pentsatutako hiru film burutzea zen: lehena arbolari (zurari) buruz, eta hortik aurrerakoak, ibaiari (urari) eta haizeari (aireari) dedikatuak. Horrekin, egilearen esanetan, elementuok euskal kosmogoniam zuten paperaz gogoetatu nahi zuten, euskal imaginario kolektiboan bilaketa lan bat eginez. Alta, azkenean, lehen filma baino ez zuen burutu (ETXALUZ, 2017).

Dozena erdi bat aldiz pasatu zen “Zuraren adarra” Iparraldean, herri ezberdinetako Euskal Kultur Asteetan, eta emazteen aldeko gualdi batzuetan. Horrez gain, 1983ko Donostiako Zinemaldian parte hartu zuen; bideoarte sekzio baten barnean. Maleruski, esistitzen zen kopia bakarra, galdu egin zuen duela 10 urte inguru, Baigorri, uholdeek eramanik.

Pitxu, alfer haundia, bestelako lana da. Standard komertzialen baitan burututako ekoizpena izan zen, Euskal Herriko Kultur Zentroaren, CNCren³ eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ukan zuena, besteak beste. Pitxuren herri kondairatik abiatuta, 11 minutuko marrazki bizidun ederra sortu zuen Koxe Alberdi errenteriarrak, kolaboratzaile talde ederraz inguratuta: Argitxu Kantero, Itxaro Borda, Mikel Antza, Peio Berhokoirigoin, Pantxoa Etxegoin... Gonzalo Etxebarria artista izan zen paisaialaria, eta Michel Portalek egin zuen musika.

f| Bideoaren garaia

90eko hamarkadaren sarrerak, Hegoaldean, euskal zinemarentzako, hamabost urte iraun zuen lehortearen hasiera ekarri zuen. Iparraldean ere, beraz, ezinbestean, hutsune hori nabaritu, eta aurreko urteetan pilatutako energia eta esperientziak eten bat izan zuten. Haatik, sasoi hartan, denborarekin

gako bihurtuko den egitasmo bat sortu zen: Aldudarrak Bideo proiektua.

Aldudarrak kultur elkartearen adar bezala sortua, 1997an abiatu zen Aldudarrak Bideo, barnekaldean ikus-entzunezkoen bidez euskara bultzatzeko xedearekin, lekuko euskaltzale batzuen eta ikus-entzunezko ikasketak egin berri beren lanbidea etxetik hurbil eraiki nahi zuten gazte batzuen elkarlanetik (CARRERE, 2017). Filosofia herrikoi eta parte hartzaile batekin, aski fite hasi ziren bideoak ekoizten, eta 1999an, beren lehen dokumentala burutu zuten: Mikel Erramuzperen *Sorlekua utziz geroz*, Ximun Carrere eta Nicole Alixek errealizatuta.

Geroztik, “Kanaldude Herri Telebista” bihurtuta, gertuko informazioa jorrazten duten bideo eta emankizunez gain, beste hainbat dokumental ekoitzi dituzte.

Urteak joan ahala, interneten bideoak hedatzeak, telebista klasikoko kate batzuetan bere edukientzat leku bat egiteak (TVPI eta Hamaikan, besteak beste) eta enpresaren egonkortze eta azkartzeak, Aldudarrak bideo, Iparraldeko ikus-entzunezko ekosistemaren aktore nagusietakoa bilakatu dute.

g| Gaur egunerako bidean

Urteen poderioz, emeki emeki, dinamika berriak sortu dira lurraldean eta horiei esker, gaur egun, ikus-entzunezkoen inguruko ekosistema bat osatzeko lehen urratsetan egon gaitezke. Hasteko, Hegoaldean baino askoz maila apalagoan bada ere, Iparraldean ere, sortzaile belaunaldi baten arribatzea senditu daitekeelako azken urteotan. Gauzak egiteko gogoia duten eta kasu gehienetan, euskaraz filmatzeko gai diren jendeak dira; orain arte, beharrez, maila amateurrean mugitu behar izan dutenak oro har. Horien artean aipa litezke Eñaut Castagnet, Ximun Fuchs, Eki Pagoaga, Iban Rusiñol, Maia Iribarne, Itziar Leemans, Miriam Aizager, Peio Cachenaute, Titika Recalt, edo eta, Euskal Herritik kanpo bizi arren bertako gaiak jorraztu dituzten Elsa Oliarj, Maiana Bidegain eta Sylvie Garat. Eskura zituzten ahalak ikusirik, kasu batzuetan sortzaileek lortutakoa ez da txikia izan. Hala, 2012an *Xora* estreinatu zuen Peio Cachenaute-ek, Iparraldeko lehen fikziozko euskal film luzea, eta bestalde, 2017an, lehen aldiz, Iparraldeko film luze bat ikusten ahal izan da Donostiako Zinemaldian: Ximun Fuchs eta Eñaut Castagnet-ek frantsesez filmatutako *Non* (ez).

4. | Ondorioak

Ipar Euskal Herria eta ikus-entzunezkoen arteko harreman historikoari begiratuta konstatatu daitekeen lehen gauza da Iparralde ikus-entzunezkoetarako lurralde oso erakargarria eta potentzialtasun handikoa izan dela historikoki. Artista handi asko esportatzeaz gain, Ipar Euskal Herria, hainbat aldiz aitzindari izan dela ikus-entzunezkoen historian; hala nola, historiako lehen filmeen eszenatoki gisa (*Le Rocher de la Vierge*, 1896) edo aurrerapen teknikoen probaleku gisa (Lehen film soinuduna - *Au Pays des Basques*, 1930-, 3Dko lehen filmaketen, - *Euskadi, 1936*-, edo telebistako lehen erreportajeak, - *The Basque Countries*, 1955-). Eta aitzindaritzaz hori, euskal ikus-entzunezko historian ere eraman izan duela; besteak beste, historiako euskarazko lehen filma (*Gure Sor Lekua*) eta euskarazko lehen telebista-saioa (*Euskal Herria orai eta gero*) Iparraldean ekoitzi baiziren, Hegoaldean baino lehenago. Horrekin batera ordea, argiki ikusi dugu, aroz aro, ezinezkoa izan dela Ipar Euskal Herrian bertoko filmagintza bat sortzea, eta horrek, talentuen erbesteratzeaz gain, amateur mailako zenbait saiotara mugatu duela orain arteko filmografia.

Jorratu ditugun gaiak zehazkiago tratatuz, lehenik esan daiteke, historiako aro guztietan, ikus-entzunezkoen goi mailan lan egin duten andana bat Iparraldeko euskaldun agertu zaizkigula, eta tendentzia areagotuz, gaur egun, gero eta ugariagoak eta anitzagoak direla mundu horretan sartzen direnak. Profil eta bide arras ezberdinak dituzte denek, baina, ezaugarri amankomun bat ere badute: deserrotzea. Lerrootan aipatu ditugun pertsonalitate guztiek sorlekutik joan behar izan dute beren profesioa gauzatzeko.

Bigarrenik, esan daiteke, ugariak direla, hala dokumentalean nola fikzioan, Ipar Euskal Herriko gaiak hartu dituzten atzerriko ekoizpenak. Haietako gehienetan, egilearen jatorria eta garaiko testuingurua edozein izanik ere, euskaldunen irudi hertsia, partzial, estereotipatu eta folkloriko bat eman da, aurrejuzkuetan oinarritua, eta tokiko errealitatearekin zerikusi gutxi duena.

Bukatzeko, lekuan bertan ekoiztako filmeei dagokienez, baldintza kaxkarretan egindako lan amateur, idealista eta isolatuak baino ez ditugu aurkitzen, zinemaren hasmentatik gaurdaino. 70eko hamarkadatik aurrera, telebistaren eta bideogintzaren sorrerak, euskaldunek ikus-entzunezkoak ekoitzi eta kontsumitu ahal izatea erraztu zuten, Maite Barnetxeren telebistarako dokumentalen eta Aldudarrak Bideo-ren esperientzia interesgarriek erakusten duten bezala, baina halere, ez da aski izan anbizio artistikoko obrak garatu ahal izateko baldintzak sortu eta filmagintza jarraitu bati bide emateko. Hala, baitezpadakoa ageri da, horretarako, egituraketa juridiko eta administratibo azkar bat plantan ematea.

II. ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK FRANTZIAN: ULERMENERAKO GAKO BATZUK

Graxi Irigarai

Ondoko lerroek, Frantziako ikus-entzunezkoen eta zinema arloko sistema-
ren lerro nagusiak aipatuko dituzte. Ulertu behar da, ikus-entzunezkoak edo
zinema aipatzea ez dela soilik ekoizpena eta sorkuntza kontutan hartzea.
Ekosistema oso batez ari gara, aldatzen den merkatu bat, lanbide eta tre-
betasun anitzak, erraz bikoizten eta hedatzen diren ekoizpenak digitaliza-
zioa dela medio, produktu internazional egiten dituen, hedapenerako bide
et euskarri asko... Bere bilakaerak garapen teknikoekin zerikusia duela ere
kontutan hartu behar da. Azpimarratu beharra da baita ere, sektore kultural
honek, Frantzian, Estatuaren interes berezi bat jasotzen duela. Horregatik,
sostengu honen mekanikeria osoa neurtzea ere garrantzitsua da.

1. Gure ikerketa eremua: ikus-entzunezkoak eta zinema

Ikuspuntuen arabera (teknikoa, kulturala edo instituzionala) ikus-entzunezkoen definizioa desberdina izan daiteke. "Ikus-entzunezko" terminoak irudia eta soinua baliatzen dituzten teknika guztiak barne har ditzake, baina telebista (ikus-entzunezkoa) eta zinema kontrajartzeko ere balia daiteke. Gure ikerketa eremua definitzeko Zinemaren Zentro Nazionalaren (CNC) esku hartze eremuan oinarrituko gara, hots, zinema eta "irudi animatuak"⁴.

Telebistaren, irriariaren, irudi ekoizpenaren, soinuaren inguruko lanbideen eta ikus-entzunezkoen eremuko hedapen formatuen eta euskarri gero eta gehiagoren arteko lotura ukazina da (telebista, irratia, zinema, Internet...). Telebista eta irriari dagokionez adibidez, profesionalak (kazetariak, teknikariak...) elkar gurutza daitezkeen bi masa hedabide dira, baina "irriariaren ekonomia telebistarenaren biziki desberdina da eta ez du zerikusirik zinemarenarekin" (LE DIBERDER, 2019). Gero eta gehiago, edukiak hedapen euskarri desberdinetan aurkitu ditzakegu baita ere (irradi emankizunak sare soziale-tan ere entzun daitezke, adibidez).

Gure ikerketan, batez ere ikus-entzunezko eta zinemaren sektoreko ikuspegi kultural eta sortzaileak interesatzen gaitu. Zinema artea ere bada. Objektu kultural gisa ere kontsideratu behar da eta haren dimentsio sortzailea kontuan hartu.

Ondoko lerroetan deskribatzen den ikus-entzunezkoen sistemak, partikulariki zinema eta telebista barne hartzen ditu: ikus-entzunezkoen bi zutabe, frantziar arautegian ongi bereziak, elkarrengandik hurbildu direnak baina forma aldetik biderkatu direnak, bereziki digitalizazioarekin eta Interneten demokratizazioarekin. Halere, bi eremu horiek hurbilekoak dira, telebistak, hedatzaile izateaz gain filmen lehen finantzatzaileak baitira ere.

Digitalizazioak eta Internetek ekarri duten aldaketa nagusietako bat, ikus-entzunezkoen hedapenerako moldeen biderkatzea da: svod zerbitzua (Netflix, Amazon), bideo plataformak (YouTube), sare sozialak, agregatzaileak⁵, erreperatze eskaintzak, Interneteko sarbide hornitzaileen boxen eskaintzak... Gazteenen kasuan, forma berri horiek beti izan dira ikus-entzunezkoen eskaintzaren baitakoak baina, funtsean, ikus-entzunezko ekoizpenen ohiko kontsumitzeko moldeak (lehenago zinemari eta telebistari mugatuak) iraultzen dituzte eta, ondorioz, hauen ekonomia ere (LE DIBERDER 2019).

Enpleguari dagokionez, ikus-entzunezko terminoak lehenago definituak ziren mugak hausten ditu. Afdas-arentzako⁶ adibidez, ikus-entzunezkoa 4 aktibitate eremu haundik osatzen dute: telebista hedapena, irradi hedapena, irudi eta soinu zerbitzu teknikoak eta ikus-entzunezko eta zinema ekoizpena. Lanbideen ikuspegitik beraz, mugak ez dira osoki molde berean definituak. Berriz aipatuko dugu.

⁴ CNCaren definizioak ekonomia partikularra duen bideo jokoaren arloa ere barne hartzen du. Maila horretan ere, zubiak sortzea gertatzen da, bereziki baimenei dagokionez (elkarren ekinbidez inspiratuz) baina bien kasuan ere zati ttipi batez ari gara.

⁵ *Agregatzaile* bat handitasun edo jario anitz bakar batean biltzen dituen entitatea da.

⁶ Afdas kulturaren, sortzaile industriaren, hedabideen, kominkazioaren, telekomunikazioen, kirolaren, turismoaren, aisialdiaren eta dibertimenduaren sektoreetako eskumenen operadorea da (OPCO). Artista-autoreen formakuntza funtsaren antolakunde kudeatzailea da.

Sektorea lurraldetik ulertzeko, frantses sistema ongi ulertzea beharrezkoa da, ikuspegi ekonomikotik ere. Finantzamendu bideak identifikatzen jakin behar da, sistemaren mekanismoa eta erronkak ulertzeko. Baina, ikuspegi sozial eta kulturalak gaineratuz, baita sektorea kudeatzen duten organismoak identifikatuz, gaur egungo egoera zein den argitzen da.

Ikertzen den eremuak ezaugarri propioak ditu. Sektore kulturala da baina industriala ere. Erran bezala, numerizazioak ikus-entzunezkoen kontsumoa eraldatu du. Ondoko lerroek sistema hobeki ulertzen lagunduko dute.

2. | Ikus-entzunezkoen zein ekonomia⁷?

a) Sektorearen diruztatze iturriak

Ikus-entzunezkoen ekonomia diruztatze anitzen gain da eta, eskaintza biderkatu bada ere (bai eduki aldetik bai eta hedatzeko moldeen aldetik ere), finantzaketa iturrien egonkortzea egiaztatzen da.

Frantzian, ikus-entzunezkoek 4 diru iturri nagusi dituzte:

- **etxeko gastuak:** 11.716 milioi euro xahutzen dira ikus-entzunezkoen programetan (bideoak, zinemagelak, telebista, ekipamendua, ekarpenak, bideo jokoak⁸),
- **esportatzeak (nazioarteko salmentak):** 642,4 milioi euro (ikus-entzunezkoen programetan eta filma zinematografikoetan 2018an),
- **publizitateak ere diruztatzen ditu ikus-entzunezkoak.** Le Diberderren arabera (2019), telebistako eta zinemako publizitateek (sailaren barne gastua diren trailerrak izan ezik) 3,4 miliar euro ekarri zuten 2018an.
- **zerga bidez finantzaturiko estatuaren laguntzak:** 600 milioi euro (kreditu fiskala, ekoizpen zinematografikorako eskualde laguntzak, 2009az geroztik estatuaren aitzinkontuaren ekarpena France Télévisióni...)

CNCtik datozen sostengu fondoak ezin dira maila horretan jarri. Izan ere, sistemaren baitako beharturiko aurrezkiak dira eta ez dira beste entitate publikoak alimentatzen dituzten ohiko zerga sistemen bitartez osatzen. CNCaren funtzionamendua berriz aipatuko dugu, ondoko lerroetan. (LE DIBERDER, 2019).

Sistema horretan beraz, merkatuaren lekua garrantzitsua da eta eskaeraren araberran erantzuten jakin behar da. Hala ere, Estatuaren laguntzak garrantzitsuak dira.

7 Alain LE DIBERDERek 2019an La Découvertekin argitaratu liburuan ekartzen dituen datuetan eta CNCak urtero argitaratzen dituen bilanetan oinarrituko gara Frantziako sektore honen lerro kuantitatibo handiak agertzeko. Joëlle FARCÿren "Et pourtant ils tournent... Économie du cinéma à l'ère numérique" k ere lagunduko gaitu.

8 CNCren 2019ko bilana

b) Ikus-entzunezkoen programak

Frantzian filmak eta ikus-entzunezkoen programak ekoizten dira. Baina zertaz ari gara zehazki? Zinema eta telebista bi aktibitate dira, "zaharrak, desberdinak, ongi antolatu eta egituratuak". Frantses berezitasunetako bat "zinema beste ikus-entzunezkoen ekoizpenetik ongi bereizten dituen arautegi zehatza finkatu izana da".⁹

Teorian, 4.000 ikus-entzunezkoen ekoizpen enpresa daude Frantzian (merkatu bi aldiz handiagoa duen Erresuma Batuan 500 dira). Sektorea frantses aktibitateko nomenklaturako 5911A et B adarretan bildua da (NAF kodea). Enpresa horietarik asko Parisen direla ere azpimarratu beharra da.

Ekoizpena generoaren eta hedapen formatuaren arabera bereizten da:

- **Fikzioen ekoizpena (serieak, telefilma unitarioak):** zinema-erekiko hurbiltasuna agerikoa da baina ez maila ekonomikoan. Film egileen, aktoreen eta gidoilarien ibilbideak batean zein bestean gerta daitezke. 2017an 800 milioi euroko negozio zenbatekoa zuen. Fikzioak, arloaren laurdena baino gehiago dira, kateek gastuen %60 frantses programa berrietan emanik eta laguntzen ¼ CNCaren eskutik jinik. Autoreak SACDak ordezkatzen ditu. 2012ra arte frantziar esportazioak 20 milioi eurokoak ziren, baina egun zifra hori hirukoiztu da. 2017an 63 milioi eurokoa zen.
- **Dokumentalak:** 400 milioi euro 2017an. Fikzioak bezain beste laguntza eskuratzen dute (80 milioi). Autoreak SCAMak ordezkatzen ditu.
- **jario emankizunen ekoizleek** (telebistako errealitate, talk-show, barietate, joko) miliar bat euroko negozio zifra aldarrikatzen dute. Ekonomikoki, arloko adar handiena da. CNCaren laguntzarik kasik eskuratzen ez duen aktibitatea da. Esportazioak "formatu" moldean egiten dira bereziki eta guti dira, urteko 20 milioi euro soilik. Sindikatu profesionala SPECTa da.
- **Telebistarako animazio filmak:** fikzioaren azpi generoa da, ekonomia eta teknika desberdineekin. 2017an 280 milioi euro ziren, CNCaren 58 milioi euroko laguntzarekin. 2017an, esportazioak 75 milioi eurokoak ziren, hau da, CNCak telebista kateen manaketentzat edo sektoreari laguntza automatiko gisa esleitzen diona baino gehiago.
- **ikusgarri bizen prestazioak (kirola, kontzertuak, antzerkia, dantza):** kate batzuek hartzen duten engaiamenduaz edo CSArekin duten hitzarmenaz mintzo gara¹⁰. Bereziak diren enpresa batzuek ekoizten dituzte, CNCak laguntzen ditu eta 120 milioi euroko pisua du (zuzeneko emanaldiak eta beste kontuan hartu gabe).
- **Magazinak:** estatutu berezia dute. Usu jario emankizun gisa kontsideratuak dira. Parte ttipi bat lagundua da eta 30 milioi euroren sortzaile da.
- **Ekoizpen instituzionala:** are zehaztasun gutiago duen eremua da. Enpresako, formakuntza edo sustapen filma izena hartzen dute eta gehienetan ez dute banatzailearik. Arlo emankorra da baina opako eta heterogeneoa. Dokumental itxura duten filmetatik hasi eta fitxategi

⁹ Le Diberder, A. (2019). *La nouvelle économie de l'audiovisuel*. (La Découverte).

¹⁰ Beherago ikus CSAren definizioa.

numeriko soilera doa, talk-showetatik iraganez. Laguntzarik eskuratzeko ez duen eta teknikari parte handi bat enplegatzen duen arloa da. Iragarkien ekoizpenak 5911B adarreko ekoizpen instituzionalaren baitakoak dira.

- Berriak diren osagaietako bat **bideo plataformentzako sortzen diren bideoak dira**, gehienik YouTubentzako. YouTuberrak ekoizpen sozietate profesionaletan sartzen ari dira emeki emeki.

Alor desberdin horien arteko mugak ez dira hermetikoak. Adibidez, informazioari doakionez, bide asko daude: telebistako berrietara zuzenduriko erreportajeetatik hasi, magazinetatik pasa eta dokumentaletaraino. Oro har, magazinaren eta erreportajearen arteko muga porotsua da.

2016an lanpostu eremu osoak (5911A, B eta Z adarra) 28.500 lanaldi osoren balioak ordezkatzen zuen (telebista kateen barne emankizunen ekoizpena gehituz bikoiztu behar dena, bereziki informazioa eta erreportajea).

Betiere Le Diberderren aburuz, eremua enpresekiko eta laguntzak eskuratzeko dituen ekoizpenarekiko egonkorra da. "Egonkortasun hirukoitza" aipatzen du: ekoizturiko oren bolumenean, arlozko banaketan eta aitzinkontuen postuan (xahutze mota).

Informazioa bestalde da, gehienetan erredakzioaren barne zereginetan sartzen baita, etengabeko informazioaren arribatzearekin erabilpenaren aldaketa ekarri duena (ekoizpenaren eta kontsumoarena).

HEbB-arekin formatuen aldaketa ere heldu da (iraupen mailan ere): luzaz ekoizpenaren iraupena telebistako egitarauak finkatu baititu. HEbBaren garatzearekin aldaketak izan dira Serieen gertaldien iraupena adibidez biziki aldakorak da (eta gertaldi batetik bestera alda daiteke).

c| Irudien kontsumoa Frantzian

Ikusi dugu, ikus-entzunezkoen ekoizpen mota asko bada (eta geroz eta gehiago). Duela hogeitun urte ikus-entzunezkoa zinemari eta telebistari mugatzen zitzaizolarik, gaur egun hedapen euskarri ugari bada, irudien kontsumoa konplexifikatzen duena.

Zaharrena eta klasikoena zinema gela da. Pandemia aitzin, ikusle kopurua egonkorra zen, 2019an errekor urtea izanik, 213 milioi sartzerekin. Pandemia ondoko garai hauetan eta osasun neurriekin loturiko kultura guneen hesteen ondotik, zinemek jendea erakartzeko zailtasunak dituzte. Aitzinetik jadanik identifikatua zen joera kezagarrietako batek, aniztasunaren gaia azalerratu zuen, sartzeak film zehatz batzuetan geroz eta gehiago kontzentratzen baitziren. Izan ere, gero berriz aipatuko dugu, zinema gelak bizirik irautea ahalbidetzen duten arrakasta uneak dituzte baina, film gehienek, ikusleak galtzen dituzte.

Kontsumitzeko molde berriekin **bideo fisikoaren merkatua** aldiz (DBD, Blue Ray) hondoratu da. 2018an merkatuak 2004ko haren balioaren 3/4a galdu zuen (garaian gailurrean zen). Bideo fisikoaren merkatutik **eskaera bidezko bideoaren** merkatura pasa gara, 2019an bideoaren merkatuaren %72,1 zen.

2010etik goiti egonkortzen eta 2018tik aitzina apaltzen hasi zen **telebista kateen audientziaren apaltzearen** lekuko gara ere. Halere, pantailen aitzinean pasatzen dugun denbora ez da gutitzen. Gisa horretan, telebista zuzenean begiratzen genuen sistematik hautuzko telebista emankizunak edo **bideo eta svod plataformak kontsumitzera pasa gara.**

Kontsumitzeko molde berriak agertu dira: binge watchinga, erreprodukzioa, baina baita legez kanpoko kopia ere.

Molde berri horiek gutxiestekoak ez diren aldaketak sortu ditu: ikus-entzunezkoen kontsumoaren nazioartekotzea. Mundu osoko edukiak eskuragarri dira.

Hertziaz hartzaileak aldiz (nazio mailako arautegi sinplea ahalbidetzen zuena) etxeen laurdena baizik ez ditu hunkitzen. TNTarekin pribilegio hori 2005ean desagertu zen. Gaur egun telebista eskuratzeko hamar bat molde dira¹¹.

2019an, ordaintzen den EbBaren (Eskaera bidezko Bideoa) merkatua 1.053,4 M€-tan estimatu zuen CNCak, 2018arekiko %38,2-ko progresioa agertuz. 2017az geroztik, harpidetzazko EbBaren (HEbB) negozio zenbatekoa, berehala ordaintzen den EbBaren negozio zenbateko baino handiagoa da. 2019an HEbBak EbBaren merkatuaren %77,2a bereganatu zuen (2018an %66,5). 2021ean, 2020 urtearekiko, Frantziako ordaintzen den EbBaren merkatuak %11,9ko hazkuntza jarraitu zuen. 1.746,6 M€-tan estimatua den merkatua da, Frantzian Netflix nagusitzen da.

Zifre hauek, irudien kontsumoaren aldaketak erakusten dizkigute eta beraz hedapen bideen aldaketak. Aldaketa hauek, ikus-entzunezkoen eta zinemaren finantzamenduan ere ondorioak dituzte.

d| **Hedatzaileak: telebista kateetatik HebB-ra, finantzatzeko betebeharra eta bidea**

Hedatzaileak, tradizionalki telebistak direnak, behartuak dira filmen hedatzaera eta finantzatzaera, filmen ekoizpenean ezinbesteko rola betetz. Hedapen bideen ugaritzearekin, finantzamendu bideen biderkatzea ere agertzen zaigu.

Telebistek ekoizpen zinematografikoaren diruztatzean duten parte frantses ekimeneko filmen kostuaren %36,6koa da eta ekoizten dituzten fikzioen %70ekoa. Kateek ikus-entzunezko ekoizpena eta zinema sustengatzeko duten gaitasuna ttipitu da halere. Haien negozio zenbatekoaren apaltze orokortuak zinemaren inbertitzeko bolumenean zuzenki eragiten du¹².

Netflix bezalako eragile berriak alternatiba gisa ager daitezke. Egun, plataformek, gutienez haien Frantziako negozio zifraren %20a sorkuntza finantzatzera bideratzeko betebeharra dute, horren %80a ikus-entzunezkoetara bideratuz eta %20a zinemara. Betebehar horren %75a frantses adierazpide

¹¹ LE DIBERDER Alain, *La nouvelle économie de l'audiovisuel*, La Découverte, 2019

¹² Kultura, hezkuntza eta komunikazioaren batzordearen izenean finantza lege proiektuaz AURKEZTURIKO IRITZIA, 2019ko ASANBLADA NAZIONALAK ONARTUA, IV TOMOA HEDABIDEEN 3. Faszikulua, LIBURUA ETA KULTURA INDUSTRIAK: LIBURUA ETA KULTURA INDUSTRIAK Françoise LABORDE Senatari anderearen eskutik.

originaletara bideratu behar dute¹³. Netflixek kontratua du SACD, SCAM eta Sacem autore sozietateekin ere.

Telebista kate baten diru sartzeak ez dira ikusle kopuruaren menpe, haatik, bereganatuko dituen ikusle kopuruaren arabera, publizitateko diru gehiago edo gutiago eskuratuko du. Publizitatearen merkatua ere eraldatua izan da, Google, Facebook edo YouTubeen agertzearekin adibidez. Digitalak biziki fite menperatu du publizitatearen merkatua (LE DIBERDER, 2019). Eskatera bidezko bideo zerbitzua eskaintzen duten plataformen diru sartzeak harpidetzekin egiten dira.

Telebista kateetan eta irudiak kontsumitzeko molde berrietan gertatu diren aldaketa ekonomiko, politiko eta kulturalak ikus-entzunezkoen ekosistemaren funtzionamendua nahastera datoz eta hartan kate komertzialek publizitatearen merkatuan haien lehiakide direnek betetzen ez duten eginkizuna betetzen dute (Facebook eta Googlek ez dute ikus-entzunezko eta zinemaren ekoizpenean parte hartzen).

Nahiz eta irudiak kontsumitzeko moldeetan aldaketak izan diren, kontsumoa goratzen da. Hedatzaileek, garai modernoetara etengabe egokitu behar dute baina ikus-entzunezko zein zinemako obren finantzatzaile ezinbestekoak dira.

e| Zinemaren ekonomia: desberdin eta konplexua

Jadanik aipatu dugu, Frantziak ikus-entzunezko obrak zinemako obretatik bereizten ditu. Zinemari dagokionez 5911C "Zinemarako filma ekoizpenak" adarra da.

Zinematografiko izena ematen zaio Frantzian ustiatzeko onarpen zigilua eskuratu duen obra bati edo haren jatorrizko herrian ustiatze zinematografiko komertzialerako baliatua izan den atzerriko obra bati. Obra batzuek frantses adierazpeneko obra (fr. EOF) edo europar obra estatutua ere eskura dezakete. EOF izendapena frantsesetik edo Frantzian baliatzen den eskualde hizkuntzan osoki edo nagusiki eginak diren obrek eskuratzen dute¹⁴.

Malrauxek zinema "arte eta industria" gisa izendatzen zuen. Zinema zinematogelari lotua da baina haren finantzaketa haren lehiakideen menpekota da. 2010az geroztik, telebistarekin eta orain bideoa eta galdearekiko eskaintzarekin, zinemagelatan ikusgai ez diren filmen biderkatzea gertatzen da.

Frantzian, Canneseko 2017ko festibalean Netflixen 2 filma onartu izanak eskandalua eragin zuen. Alta, hedatzaileen eta ospea eskuratzen ari diren serieen arteko konkurrentzia egoeran gaude jadanik. Ikusten ari garen testuinguruaren araberrako bilakaerarekin "zinemaren frantses eredu" dudana emana da.

Frantzia zinema herria dela badakigu eta beste herriak haren ereduaren jelos dira usu. Ez da alta merkaturik handiena. Mundu mailan, bi merkatu gotorrenak India eta Amerikako Estatu Batuak dira (1995ean mundu mailako diru

¹³ *Plataformek frantses sorkuntzan 300 milioi euro arte nola xahutu beharko dute.* (2021, abenduaren 9^a). <https://www.lesechos.fr/tech-medias/medias/comment-les-plateformes-vont-devoir-depenser-jusqua-300-millions-deuros-dans-la-creation-francaise-1371264>

¹⁴ www.csa.fr "Qu'est-ce qu'une oeuvre cinématographique et audiovisuelle ?" - Le CSA et l'Hadopi deviennent l'Arcom

sartzeen %73a ordezkaten zuten, 2014ean %54a). Asiak, orokorrean, %60 ordezkaten du eta ehuneko hori ez da mugitzen¹⁵. Oro har, mundu mailan, zinemagelen ekonomia geldirik da. European, herri gehienetan, zinemagelen hantatzearen gorakada ikusi ahal izan dugu azken urteetan (2020 aitzin). Hala izan da Frantziaren, Erresuma Batuaren edo Alemaniaren kasuan. Haatik, biztanleko emanaldi kopurua apaltzen da, Frantzia eta Erresuma Batuan izan ezik. Estatu Batuarrentzako ekoizpena emendatzen da eta merkatua aldatu da (eta Txinari eta EbBari begira da ere).

Frantziako egoera zertan da salbuespenezkoa beraz?

- Zinemagela sare bakarra: 6000 pantailako eskaintza osatzen duten 2.000 zinema.
- Europako hantatze maila gorena (2009az geroztik erregularki urteko 200 milioi sartze baino gehiago).
- Frantses filmen parte bat azken sartzeen %40koa da (Europako beste herrietan, nazio mailako parte %20 ingurukoa da).
- Filmeko ekoizpen biziki handia (2018an 300 film).
- Aktore eta musikari populakuntza biziki handia eta ezagutua.
- Festibal sarea.
- Zinema zaletasun handia: herrikoia eta elitista, eta zinemaren presentzia handia bigarren mailako irakaskuntzan
- Instituzio sistema trinko eta koherentea: CNCtik zinemateketara, filmeko Artxiboetatik Femisera.
- Sistema legal eta arauzkoa, babeslea dena eta adostasun politiko zabal eta jarraikia duena (LE DIBERDER, 2019).

Film frantsesen ekoizpenaren finantzatzea salbuespen kulturalaren muina da.

Telebista kateek zinema finantzatzeko betebeharra dute, lehenago aipatu bezala:

- 1986ko legea aplikatzeko dekretua: doako telebista kateentzat negozio zenbatekoaren %3,2a eta filmak hedatzen dituzten ordain peko kateentzat negozio zenbatekoaren %12,5a europar filmeko ekoizpenari bideratzeko betebeharra. Gutieneko bat barne hartzen duen betebeharra da. Gehiengo ere izan dezake (2018an, Canal+ek urteko 180 milioi euroko gehienezkoa eskuratu zuen).
- telebista kateek hedatu behar dituzten frantses adierazpide originaleko filmeko gutienekoa %40koa da.
- azkenik, kateek, printzipioz ikus-entzunezko emankizunak finantzatzen dituen baina parte bat zinemara "lerratzten" duen CNCaren sustengu kontuari ekarpena egin behar diote.

Praktikan, filma baten finantzatze txostenerako telebista baten laguntza xerkatzen da lehenbizi.

¹⁵ Pandemia aitzineko datuak

Ondotik, aitzin adostasun batean oinarriturik, eskas den finantzatzea berez doa (beherago aipatuko dugu):

- Laguntza publikoak: CNCa eta lurralde kolektibitateak (2018an aitzin-kontuaren %5,4 bataz beste).
- Finantzamendu sozietateak: Sofica adibidez (ikus beherago)
- Banatzaile bat edota saltzaile internazional bat: ko-ekoizpeneko ekarpena gutieneko bermearen forma pean abibidez.

Ikus-entzunezkoen sistema audientziaren apaltzearen, publizitate-merkatuaren giltzatzearen eta konkurrentziaren (Internet) ondorioz iraulirik, telebistatik jiniko diru gutiago da. Aitzinkontu handiko film gutiago da ere baina film kopuru bera ekoizten da (LE DIBERDER, 2019).

f| Enplegua ikus-entzunezkoetan, Afdasen datuak¹⁶

2018an ikus-entzunezkoetako lanbideen ikuskaritzak frantses ikus-entzunezkoen egoeraren argazki osoa agertu zuen. Ikerketa horrek 210.000 langile eta 9.800 enpresa biltzen dituen sektorea aztertzen zuen¹⁷. Audiensen¹⁸ datuetan oinarriturik egina izan zen eta arloa osatzen duten lau aktibitate sektoreen berezitasunak ulertzea ahalbidetzen du.

Afdasak ez du CNCak definituriko ikus-entzunezkoen sektorea ikertu soilik (irudi animatuak barne), ikus-entzunezko ekoizpena eta zinema, irudi eta soinuaren zerbitzu teknikoa, irrati-hedapena eta telebista-hedapena ere kontuan hartzen baititu. Arautegiak sektore bakoitza zedarritzen badu ere, lanbideek elkar gurutzatzen dute.

Ikerketatik ondorio batzuk ateratzen dira.

- **Kultura industria ikus-entzunezkoen ekoizpenak eta zinemak menperatzen dute** egitura ttipien %73a bilduz. Ikerketak, edukien ekoizpen mailako frantses kultura aniztasunaren markagarria ikusten du, baina baita ekonomia ahula duen sektore bat ere. Enpresa Biziki Ttipiek (EBT) frantses enpresen %75a ordezkatzen duten artean, ikus-entzunezko enpresen %95a EBTak dira.
- **Enpresen metatze handia Île-de-Francen eta eskualde Poloitant gertatzen da:** ikus-entzunezkoen 9.816 egituretatik 6.000 baino gehiagok Île-de-Francen dute haien egoitza soziala. Beste egiturak Auvernia-Rodano-Alpeak, Proventza-Alpeak-Kosta Urdina, Frantzia Garaia, Okzitania eta Akitania Berrian metatzen dira hein handi batean.
- **Emazte baino gizon gehiago, baina parekidetasunetik hurbil koadroen artean:** Frantziako populazio aktiboan gizonen %52a eta emazteen %48a da, ikus-entzunezkoetan emazteen ehuneko pixka bat apalagoa da (%41). Emazteak gizonak baino gutiago badira ere, proportzionalki koadro postuetara gizonak baino gehiago heltzen

¹⁶ L'audiovisuel en France : un portrait statistique inédit des entreprises, des salariés et des métiers — Afdas www.afdas.com

¹⁷ Lehenago, ekonomia aztertzerakoan 4000 enpresaz hitz egin dugu. Azaldu bezala, Afdas-ak ikus-entzunezkoaren definizio zabalago bat hartzen du, Le Diberder-ena baino.

¹⁸ Audiens irabazteko xederik gabeko babes sozialerako taldea da, kulturaren, komunikazioaren eta hedabideen sektorean berezitu

dira, koadroen %39a emazteak baitira. Ikusiko dugu hala ere, antzeko parekidetasun hori ez dela agertzen sorkuntza mailako postu garrantzitsuenetan.

- **Langile gazteak:** ikus-entzunezkoen arloko langileen batz besteko adina 37,8koa da, Frantziako populazio aktiboarena 39,4a den artean. Langileen %50 inguruk 35 urte baino gutiago du.
- **Gehien hedatua den kontratua Ohiko Lan Kontratu Mugatua (OLKM, fr. CDDU)¹⁹ da:** ikus-entzunezkoa proiektuka funtzionatzen duenez, ikus-entzunezkoetako 207.625 langileen gehiengoak OLKMa du (%67). Besteei dagokionez, %22a lan kontratu mugagabea da, %9a lan kontratu mugatua eta %2a independente gisa.
- **Gaitasun anitzeko langileak:** sektorearen arabera, OLKMan diren ikus-entzunezkoetako langileen %32 eta %82 artean beste arlo batzuetan edo beste sektore batzuetan enplegatzen dira urtean zehar. Mugikortasun handi hori, sektore eta ingurumen desberdinetan beste lanbide batean aritzen ahal diren langileen gaitasun anitzaren bidez espikatzen da.

g| Autoreak eta autore eskubideak

Frantses zuzenbideak obra bat norbanako baten jabetza dela dio (zuzenbide estatu amerikarrek *copyrightarekin* gertatzen ez den bezala, honek entitate abstraktuarena dela kontsideratzen baitu, hots, ekoizlearena). Definizio hori, lanbideen antolakuntzan duen lekua, dituen eskubideak eta haren aitortza soziala ulertzeko funtsezkoa da [Gauthier eta Vezyroglou, 2013]. Frantses zuzenbidean, filma kolaboraziozko obra gisa aitortzen da, gidoiaren, solasaldien, egokitzapenaren, filmerako espreski sorturiko musikaren egileak eta filma egilea obraren ustezko egilekide gisa hartuz (L.113-7 art.). Alderantziz, Estatu Batuetan, filmak *works made for hire* gisa hartzen dira, hau da, manatuak diren obrak, zeinak ustiatzeko eskubideak, eskubide ekonomikoaren, copyrightaren, jabe den babeslearenak diren (ekoizlea) eta ez autorearenak.

Autoreak, hastapen batean, ekoizpen sozietateak ordaintzen ditu, fikzio egileen kasuan SACDak eta dokumentalenean SCAMak, ustiapenaren arabera.

Autoreen estatutua zehazkiago begiratzea interesgarria litzateke, bereziki gidoilariena. Ikerketa bat baino gehiago haien lan baldintzak, estatus soziala eta generoa aztertzen du, 2019an SCADak eta CNCak "Filmen eta serieen idazketa Frantzian" izenburupean argitaratu zuena bezala adibidez, zeinetan batzbestean emazte gidoilariak gutiago ordainduak direla agertzen den. 2019ko Racine Txostenak egileek (gidoilariak barne) Frantzian atzematen dituzten oztupoak aski molde zehatzean aipatzen ditu, azpimarratuz zein prekaritatean ari diren lanean.

¹⁹ Lan kontratu mugatua « ohiko » izaera gehitzen zaiona. Ikuskizuneko artista, langile eta teknikariak, izaeraz denbora baterako den iraupen mugatuko kontratuen bidez, lanaldia eta geldialdia aldizkatzen duten langileak dira. Usaian "intermitente" izena ematen zaie (haatik ez da ez estatutu bat ez lanbide bat), lan kontratu mugatua edo lan kontratu mugagabea duten ikus-entzunezkoetako eta zuzeneko ikusgarrietako langile permanenteekin konparatzean.

3. **Ikus-entzunezkoen eta zinema arloan instituzioek Frantzian dituzten eskumen publikoak**

Frantzian, biztanleriak (ikus-entzunezkoen zerga) eta botere publikoek ekoizpen artistikoan inbertitzeko tradizioa bada. Horrek zinemarekiko atxikimendua azaltzen du eta beraz kulturaren ekonomia ikuspegi publikotik erai-kia da. Halere, Joëlle Farchyk (2011) azaltzen digu esku hartzerako neurri nagusiek diru laguntza itxura dutela baina Estatuarena aitzinkontukoa ez den finantzamendutik heldu direla. Baliabideen esleitze politika batez mintzo gara. Finantzatze moldea, lehenago ikusi ahal izan dugun bezala, merkatuaren emaitzekin lotua da eta horrek kultura industrietara bideratzen diren diru mailako ahal handiak esplikatzeko dituzte.

Frantses sustenguaren originaltasuna 1946an erakunde publiko bat sortu izanari lotua da: Zinematografiaren Zentro Nazionala, Zinemaren eta iruditegi animatuaren Zentro Nazionala (CNC) bilakatu zena, baina Estatuaren esku hartzea ez da eremu horretan soilik gertatzen. Antolakunde batzuek sektoreko legeak eta arauak finkatzen dituzte eta finantzamendu publikoen iturriak lurraldeak sektorean inplikatzearekin biderkatu dira.

Azkenik, tresna fiskal desberdinak daude, zeinetatik batzuk (Sofica bezala) Frantzian proposatuak, garrantzia handia duten.

a) Estatuaren adierazpidea hedabideen, ikus-entzunezkoen eta zinemaren eremuan, adibide batzuk

- DGMICa (fr. La direction générale des médias et des industries culturelles – eus. Hedabideen eta kultura industrien zuzendaritza orokorra): kultura eta komunikazio ministerioaren baitan, hedabideen eta kultura industrien zuzendaritza orokorrak hedabideen aniztasunaren, publizitatearen industriaren, bide elektronikotik egiten diren komunikazio publikoko zerbitzu guzien, industria fonografikoaren, liburuaren eta irakurketaren eta kultura ekonomiaren garapena alde Estatuak duen politika finkatzen, koordinatzen eta neurtzen du.
- Arcoma (lehengo CSA eta Hadopi): CSA ikus-entzunezkoa erregulatzeko frantses autoritate publikoa zen. Autoritate independentea, haren egitekoa, profesionalekin hitzarturik, publikoaren zerbitzuko ziren ikus-entzunezko hedabideak (irradiak, telebista eta eskaera bidezko bideo zerbitzuak) eta sareko plataforma batzuen edukia erregularizatzea zen. Horrek erran nahi du, ikus-entzunezkoen sektorea erregularizatze eskumena eman dion Estatuaren izenean ari dela. Arcoma, gaur egun, ikus-entzunezkoetako eta digitaleko komunikazioa erregulatzen duen autoritate da, ikus-entzunezkoen goi kontseiluaren (CSA) eta Interneten obren hedatzeko eta eskubideak babesteko goi autoritatearen (Hadopi) arteko bateratzearen ondorioz sorturikoa²⁰.
- DRACak (kultura gaietarako eskualde zuzendaritzak): Kultura gaietarako eskualde zuzendaritzak (DRAC), eskualde Prefeten kontrolpean

²⁰ Zer da CSA? – CSA eta Hadopi Arcom bilakatzen dira <https://www.csa.fr/Informer/Qu-est-ce-que-le-CSA>

eta departamenduko prefeten autoritate funtzionalaren pean emanak (haien eskumeneakoak diren funtzioentzako), Estatuaren kultura politika eskualdean plantan ezartzea haren gain duen Kultura gaietarako eskualde zuzendaria haien buru dutela, Kultura ministerioko zerbitzu deskontzentratua dira. Kultura gaietarako eskualde zuzendari-itzek Kultura ministerioaren politikak eskualdean plantan emateko ardura dute, beste eragileekin antolaturik edo hauen sustenguz (lurralde kolektibitateak, herriarteko elkarlanerako erakunde publikoak eta elkarteak)²¹.

Akitania Berrian, berriz aipatuko dugu, DRAC Akitania Berriak eskualdean eta hura osatzen duten departamenduetan Estatuaren kultura politika gidatzeko ardura du, bereziki ondoko eremuetan:

- ondarearen ezagutzan, babestean, kontserbatzean eta baliotzatzean
 - arkitekturaren sustapenean
 - sorkuntza eta hedapen artistikoaren sustenguan, hauen aldaera guzietan
 - liburuaren eta irakurketaren garapenean
 - hezkuntza artistiko eta kulturalean eta jakitateen transmisioan
 - kultura aniztasunaren sustapenean eta publiko hartzaileen zabalkundeetan
 - kultura ekonomien eta kultura industrien garapenean
 - frantsesaren eta Frantziako hizkuntzen garapenean²²
- **Fémisa** (irudi eta soinuaren lanbideen goi mailako eskola nazionala) Kultura Ministerioarena den eskola publiko handia da. Zinemaren eta iruditegi animatuaren Zentro Nazionalak (CNC) finantzatzen du. Paris Sciences et Lettres unibertsitatearen partalier da, zeinak goi mailako irakaskuntzako eta ikerketako hogeitabat irakaskuntza erakunde handi biltzen dituen (Goi Mailako Eskola Normala, Paris-Dauphine Unibertsitatea, Frantziako Kolegioa, Mines ParisTech, Art Ederren Goi Mailako Eskola Nazionala, Arte Dramatikoetako Goi Mailako Kontserbatorio Nazionala...)²³.
 - **Irudiarekiko heziketa:** Frantziak, ministerio desberdinen (Hezkuntza Nazionalaren eta Gazteriaren, laborantza eta irakaskuntzaren eta Kulturaren arduradunak, CNCa) eta lurralde kolektibitateekin elkarlanean, zinemarekiko eta irudiekiko hezkuntzarako politika indartsua du, bereziki eskola denborari eskaintzen zaizkion hiru baliabideren bidez: "Ecole et cinéma", "Collège au cinéma" eta "Lycéens et apprentis au cinéma", zeinek helburu gisa ikasle kopuru ahal bezain handiak kultura eta idazketa zinematografikoa eskuragarri izatea duten, lurralde guzien arteko berdintasuna gauzatzeko borondatearen baitan.

²¹ Zer egiten du DRACak? (culture.gouv.fr)

²² <https://www.prefectures-regions.gouv.fr/bourgogne-franche-comte/Region-et-institutions/L-action-de-l-Etat/Culture-et-patrimoine/Culture-et-patrimoine/Quelles-sont-les-missions-d-une-DRAC>

²³ Aurkezpen orokorra – Femisa <https://www.femis.fr/presentation-generale>

Ikasturte osoan zehar, nahi duten ikastetxeek haur hezkuntzako lehen urtetik aitzina eta bigarren maila finitu arteko ikasleak zinemageletan antolaturiko proiektzioen bidez gutienez hiru obra zinematografiko deskubritzera eramaten dituzte.

Proiektaturiko obrak film bilduma batetik hartuak dira eta ikasleen adinaren eta filmen kalitate zinematografikoaren arabera hautatuak. Film horiek irakasleak eta kultura partzuerrek eramaniko segimendu pedagogikoa dute, kultura zinematografikoaren oinarriak barneratzeko helburuarekin. Parte hartzen duten irakasleek formakuntzak eskuragarri dituzte (analisi filmiko edo tematikoak, ikusmolde kulturalak, tailer praktikoak, etab.) eta baita baliabide pedagogikoak ere. Hiru baliabide horiek Frantzian dagoen irudiekiko heziketa politikako ekintza nagusiak dira eta, hunkituak diren ikasle kopurua dela medio, hezkuntza artistiko eta kulturalerako hiru baliabide nazional garrantzitsuenak dira²⁴.

Baliabide horien plantan ezartzea instituzioen eta alorraren arteko elkarlanean datza:

- Zinemagelek eta hauen ordezkariak baliabide horien harrera eta segimendua bermatzen dute;
- Lurraldeetan heziketa artistiko eta kulturalaren arduraren Hezkuntza Nazionaleko eta nekazaritza irakaskuntzako ordezkariak irudiekiko heziketarako ekintzak plantan ezartzeko baliabide eta tresnak eskaintzen dituzte, bereziki formakuntza haien eskuragarri ezarriz (aitzin ikustaldi egunak barne);
- Lurralde kolektibitateak eta DRACak baliabide horien eramaile diren tokiko koordinaketak finantzatzen dituzte;
- Koordinaketa nazionala CNCak edo egitura partzuer batek (Passeurs d'Images elkarteak) bermatzen du. Lurralde bakoitzean, partzuerrek ikasleak ikusiko dituzten filmak hautatzen dituzte, urte guziz aberastenen eta adin tarte bakoitzari egokitzen den bilduman oinarrituz²⁵.

Beherago ikusiko dugu baliabide horiek nola koordinatzen diren interesatzen zaigun lurraldean, Ipar Euskal Herrian.

b) Zinemaren eta iruditegi animatuaren Zentro Nazionala (CNC)

Zinemaren eta iruditegi animatuaren Zentro Nazionala Kultura ministerioaren autoritatepean den erakunde publikoa da. Zinema laguntzeko lehen legea 1948an egin zen industria zinematografikoaren aldeko funtsarekin, ondotik, garatu eta zabalduko zena, 1986an "ikus-entzunezko programen diru mailako sustengurako kontua" bilakatzeko, bi sail zehaztuz: zinema eta programen industria. Kontuak, "Zinema, ikus-entzunezkoak eta multimedia sustengatzeko funtsa" bilakatuko zenak, zinemarentzako 300.55M€, ikus-entzunezkoentzako 271.74M€, Zeharkako baliabideentzako 93.86M€ eta plan numerikoarentzako 18.8M€ esleitu zituen 2017an²⁶.

²⁴ Passeurs d'images "Ma classe au cinéma. Ecole au cinéma. Collège au cinéma. Lycéens et apprentis au cinéma" www.passeursdimages.fr

²⁵ *Ibid.*

²⁶ Le fonds de soutien cinéma – audiovisuel – multimédia du CNC en 2017 | CNC

CNCak zinemaren aldeko inguramena sortzen laguntzen duten antolakundeen finantzatzean ere parte hartzen du, hots, Femis, Unifrance, la Cinémathèque, Canneseko Festibala... bezalako antolakundeak (FARCHY, 2011).

Sistemaren printzipioa dira, sartzeen prezioan ezartzen den zergak elikatzen duen derrigorrezko aurrezkiaren ekarpena, frantses enpresen abantailarako soilik eskuratzen diren funtsa gehienen birbanaketa eta diru sartze gehigarri hori berriz inbertitzea (filma berri baten ekoizpenean ekoiztetxeari dagokionez eta zinemagelan ustiatzaileari dagokionez) (FARCHY, 2011). Sustengu kontuaren sortzea sartzeen prezioan hartzen den "zerga berezi gehigarritik" dator. Jadanik aipatu ditugun zerga forma hartzen duten hedatzaileen ekarpenak gehitzen dira, baita bideo fisiko zein telematikoen salmenta eta alokatzearen gaineko zerga ere.

CNCak sail guzian esku hartzen du: gidoietara, ekoizpenera, banaketara, ustiaketara, industria teknikoetara, esportaziora, bideoetara edo hedabide berrietara zuzenduriko ehun bat laguntza. Laguntzak molde automatikoan edo selektiboan onartuak dira. Sustengu automatikoak konkurrentziari eta nazioartekotzeari buru egiten ahalko lioketen taldeen sortzea faboratzea du xede, sustengu selektiboa aldiz kultura politikaren funtsa da: eskaintzaren eta aniztasunaren mantentzea.

Luzaz laguntzen sistematik baztertua, banatzaileek sustengurako eskubide berdintsua eskuratu zuten 1978an (FARCHY, 2011).

CNCaren politika eta lana lerro gutitan aurkeztea zaila litzateke baina, oroitaz dezagun, 2021eko azaroaren 1az geroztik filmaren batzorde nazionala den Film France erakargarritasunaren zerbitzua sortu zuen CNCan sartu zela. Film Francek filmaren batzordeen sarea biltzen du eta Frantzia filmaketak eta ekoizpen-ondokoa sustatzea da haren egitekoa. Atzerriko ekoizpenei dagokionez, Film France lehen informazio iturria da filmaketa bat prestatzen delarik eta txostenen eta nazioarteko zerga fiskalerako eskaeren ebaluaketa bermatzen du. Filmaren batzordeen sareak (edo filmaketen harrera bulegoak) lurraldean egiten diren filmaketen laguntza eta tokiko baliabideen baliatze hobea bermatzen ditu: teknikari eta artistak, filmaketa guneak, zerbitzu hornitzaileak²⁷. Biarno Euskal Herriko Filmaren Agentzia honen baitakoa da.

c) Lurralde kolektibitateak

CNCak lurralde kolektibitateekin eta kultura gaietarako eskualde zuzendaritzekin (DRAC) zinematografia eta ikus-entzunezkoen elkarlanerako hitzarmenak sinatzen ditu. Hitzarmenek CNCaren 1 €-ko eta kolektibitatearen 2 €-ko baliabideak barne hartu dituzte. Hitzarmen horiek lau atal barne hartzen dituzte:

- Idazketarako, garapenerako, ekoizpen zinematografiko eta ikus-entzunezkoetarako laguntzak, eta baita filmaketaren harrera CNCaren gehigarri posible batekin;
- hedapen kulturala, hezkuntza artistikoa (irudiarekiko heziketa baliabidea gorago zehaztua dena) eta publikoen garapena, Lurralde kolektibitateak,

²⁷ www.filmfrance.net Service de l'attractivité | CNC / Film France : Réseau de commissions du film

DRACek eta, nazio edo nazioarte mailako interesa duten festibal batzuen kasuan, CNCaren kredituek finantzatzen dituztenak. CNCak, 2014az geroztik, kolektibitateak diruz ere laguntzen ditu hauek sustengatzen dituzten obren hedapenean;

- Ustiapen zinematografikoa. Izenpetzaileek politika koordinatua eraman dezakete zinemagelen sustenguaren baitan;
- Eskualdeek baita departamenduek eta CNCak ere nagusiki finantzatzen duten ondare zinematografikoa, bereziki eskualdeetako mediatekei ekartzen zaien sustenguaren bidez, obren digitalizatzearen eta ondare zinematografikoaren balioztatzeari dagokiona. Lurralde kolektibitateek, zinemako eta ikus-entzunezkoetako profesionalei zerbitzu mota desberdinen inguruko urrikako laguntza eskaintzen dieten filmaketen harrera bulegoak (edo "filmaren batzordeak") ia osoki finantzatzen dituzte.

2014-2016 epealdiko Estatuaren / CNCaren / eskualdeen arteko hiru urteko hitzarmenek 41 lurralde kolektibitate hunkitzen zituzten: - 25 eskualde; - 14 departamendu; - bi hiri: Estrasburgoko Euro-metropolia eta Pariseko Hiria. Eskualdeak hitzarmen horien eragile nagusi gisa agertzen dira, haien funtsa propioekin zuzenean finantzatzen duten zinemaren aldeko inbertsio garrantzitsuarekin²⁸. Eskualdeek, Departamenduek, hiri batzuek eta metropoliek osatzen duten finantzatze publikoko sistema hori CNCarekin elkarlanean plantan emana da. Urte guziz Ciclic Centre-Val de Loirek frantses lurralde kolektibitateek (eskualdeak, departamenduak, euro-metropoliak, metropoliak, hiriak) ikus-entzunezkoetako eta zinematografiako sorkuntzaren alde proposatzen dituzten arau eta laguntzak zerrendatzen ditu.

2016ko urtarrilaren 1eko lurralde erreformaren iragarpenak eta lurralde metropolitanoan 22 eskualdetik 13ra pasatzeak inbertsioen apaltzearen, funtsen espezializatzearen eta engeaiaturiko kolektibitateen, bereziki departamenduen, gibelera egitearen beldurra sortu zuen, baina 2016ko eta 2017ko zifrek erakutsi zuten ororen buru lurralde kolektibitateek zinema eta ikus-entzunezkoen alde inbertituriko sumak emendatu zirela.

d| Laguntza fiskalak²⁹, adibide batzuk

Frantzian, ekoizpenen finantzamenduari dagokionez, ikus-entzunezkoetarako eta zinemarako zuzenduak diren laguntza fiskalak edo inbertsiorako tresna saihestezinak existitzen dira. Hartzen duten forman eta duten garrantzian sartu gabe, hara hemen nagusiak:

Zinema kreditu fiskala (CIC): zinema kreditu fiskala ekoizpenerako finantza sustengua eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten filmi aplikatu daiek, baliabideak berezkoak dituen ezaugarri gehigarriez osatua. Frantzian gertatzen diren filmaketen lokalizatzeko tresna, sustengu ekonomikorako mekanismoa eta aniztasun kulturalerako faktore bat osatzen du aldi berean.

²⁸ Kulturaren, hezkuntzaren eta komunikazioaren (1) izenean finantzen buruzko lege proiektuari buruz AURKEZTURIKO IRITZIA, ASANBLADA NAZIONALAK 2019rako ONARTUA, IV TOMOA 3 MEDIAS faszikulua, LIBURU ETA INDUSTRIA KULTURALAK: LIBURU ETA INDUSTRIA KULTURALAK Françoise LABORDE andere senatariaren eskutik

²⁹ Kulturaren, hezkuntzaren eta komunikazioaren (1) izenean finantzen buruzko lege proiektuari buruz AURKEZTURIKO IRITZIA, ASANBLADA NAZIONALAK 2019rako ONARTUA, IV TOMOA 3 MEDIAS faszikulua, LIBURU ETA INDUSTRIA KULTURALAK: LIBURU ETA INDUSTRIA KULTURALAK Françoise LABORDE andere senatariaren eskutik

Ekoizpen sozietateei, baldintza batzuen pean, zergetatik ekoizpen zinematografikoari loturiko gastu batzuk kentzea ahalbidetzen die³⁰.

Ikus-entzunezko kreditu fiskala (CIA): ikus-entzunezko kreditu fiskalak zergetatik ikus-entzunezko ekoizpenari loturiko gastu batzuen kentzea ahalbidetzen die enpresei. 2016ko urtarrilaz geroztik, fikzio eta animaziozko obren kasuan, hautagarri diren gastuen %25ekoaren heinekoa izan daiteke eta %20koa obra dokumentalen kasuan. Ekoizpenaren minutuko kostuaren arabera muga desberdinak daude³¹.

Nazioarteko kreditu fiskala (CII): Europar Batzordeak 2009an baimendua, nazioarteko kreditu fiskala ekoizpena atzerriko sozietate batek abiatu duen eta fabrikatzea parte batean edo osoki Frantzia gertatzen den obra zinematografikoei dagokie, baita ikus-entzunezko obrei ere. Hautagai diren obrek CNCaren onspena eskuratu behar dute, kulturarekiko, ondarearekiko eta frantses lurraldearekiko duten lotura balioztatzen duen puntukako barmo batean oinarriturik. Kreditu fiskala obraren ekoizpen exekutiboa gauzatzeko duen Frantzia finkaturiko enpresari esleitzen zaio³².

Industria zinematografikoko eta ikus-entzunezkoetako finantzamendurako Sozietateak (SOFICA): 1985ean baimenduak, industria zinematografikoko eta ikus-entzunezkoetako Finantzamendurako sozietateak inbertsiorako sozietateak dira zeinek, mozkin zergako apaltze baten truk, partikularren dirua biltzen duten. Ondotik ekoizpen zinematografikoan eta ikus-entzunezkoetan inbertitzen dute, elkarrekin finantzaturiko obren diru sartzeak eskuratzeko eskubideen truk. Sustengu publikoaren eta telebista kateen inbertsioaren baitezpadako osagarri, baliabideak, frantses iniziatibako filmen faboretan biltzen den zenbatekoaren %90a engaiatuz, kultura aniztasuna faboratzen du eta sorkuntza independenteen eta egile gazteen filmen finantzamenduan parte hartzen.

Urte guziz, ekonomia ministerioak hamar bat SOFICari onesten du eta proiektu baten garapenean eta ekoizpenean esku hartzeko baimena ematen. Ekoizpen sozietateen azpi-kapitalizatzeari buru egiteko, SOFICAK garapenean gehiago inbertitu dezaten akuilatuak izan dira, ekoizpenarekiko %40tik %48ra emendatu den abantaila fiskal baten bidez. 2017an aplikatzeko 2016ko abenduaren 29ko legeak apaltze fiskalaren tasa %48ra pasa zuen SOFICA bakoitzaren parte ordainketarekin irekitzen zen apaltze fiskala, inbertsiorako sozietateen gain zen dibertsifikazio betebeharren ordainez. 2018 urteari dagokion xahutze fiskala 30,3 M€-tan finkatu zen, hots, 2017 urteko zenbateko berean, 63M€, ko bilketari dagokiona³³.

³⁰ *Ibid.*

³¹ 2019rako finantza lege proiektua : Hedabideak, liburua eta industria kulturalak : Liburua eta industria kulturalak (senat.fr)

³² 2019rako finantza lege proiektua : Hedabideak, liburua eta industria kulturalak : Liburua eta industria kulturalak (senat.fr)

³³ 2019rako finantza lege proiektua : Hedabideak, liburua eta industria kulturalak : Liburua eta industria kulturalak (senat.fr)

4. | Ondorioak

Frantzian ikus-entzunezkoa eta zinema arloak bereziak eta arautuak dira arras. Hemen sistemaren parte batzuk aipatu nahi izan ditugu, arloaren berezitasunak agerian uzteko. Ez dugu haatik bere osotasunean xeheki erran ahal izan. "Ikus-entzunezkoa" terminologia telebistari lotzen zaio, telebistarako fikzioak (serieak, telesailak), dokumentalak, jarioko emankizunak, telebistarako animazioak, ikusgarri edo kirol hartzeak... kontutan hartuz. "Zinema" haatik zinema gelei zuzenduriko ekoizpenei deitzen zaie, kalitate eta aurrekontu handiagoko fikzio eta animazioei edo ikuspegi artistikoa oraindik gehiago garatzen duten dokumentalei. Nahiz eta ekoizpen bideak eta medioak desberdinak izan daitezkeen, gaur egun, obra era ezberdin askotan heldzen zaio ikusleari, batez ere hedapen forma berrien sortze eta demokratizazioarekin : VOD salmenta alde batetik baina batez ere svod plataformen indartzearekin esate baterako. Azken hauek telebista zein zinemaren funtzionamendu tradizionalak zapartatu dituzte, ber-asmatzera bultzatuz. Luzaz hedatze bideak (telebista ala zinemak) formatuan zein aurrekontuan eragina zuelarik (luzea, 52 minutuko dokumentala, laburra, seriea), plataformek formatuen aniztasuna ere ukan dute ondoriotzat (aurrekontu handiko serieak, luzera ezberdinetako aleak...). Ikusleak ordutegi berezi batean ikus zezakeen obra, gaur egun edonondik edonoiz eskuragarri duelarik. Horri gehitzen ahal zaio "edonongo" obrak ikus ditzakeela : telebistek haien programazioan leku berezi bat egin behar ziotelarik Frantziako edo Europako obrei, plataformek mundu guziko ekoizpenak eskuragarri uzten dituzte. Bada, zentzu horretan, ikus-entzunezkoen kontsumoaren internazionalizazio bat.

Hala ere, Frantzian, finantzamendu bideek logika berdina ukaiten jarraitzen dute. Lehenik, hedatzaile oro Frantzian egiten dituen irabazien parte bat Frantziako sorkuntzaren ordainketan inbertitzera behartua du. Logika horrek oraindik dirau eta plataformek ere ordainketa sistema horretan parte hartzera behartuak dira. Frantzia ezaguna da zinemari ekartzen dion babesarengatik eta ekosistema indartsu bat plantan eman du, CNCren figuraren inguruan, Frantziako ekoizpena azkartzeko xedearekin. Horrela, formakuntza sostengatzen jarraitzen du (horren lekuko Femis eskola delarik), aldeko ekosistema oso bat pentsatzen du (festibalak, zinematekak...), zinema gela kopuru azkar bat mantentzen lortu du lurralde osoan Europako ikusle-kopuru gorenarekin eta aniztasuna bermatuz (**Art et Essai** programazioak sostengatuz), zine-zaletasun azkarra segurtatzen du irudi-heziketarako tresnen bitartez, proiektuak lantzeko parada ematen du (intermitentzia sistemaren bitartez) eta ekoizpen kopuru handia du, laguntza publikoez gain, fiskalki ere bideak erraztuz.

Erran daiteke beraz Frantziak filmak sortzeko eta ekoizteko testuinguru egokia ematen duela baina bide horrek badu "dominaren beste aldea": film anitz ekoizten da Frantzian, ondotik nazioarteko konkurrentzian sartu beharko dutenak eta zaila da oihan horretan bere bidea egitea. Ekonomistek sistema "oligopolio mugatu" (STIGELR, 1968) bezala identifikatzen dute arloa, zeinetan firma handiek leku anitz duten eta leku pixka bat uzten dieten firma independentei. Arloa, biziki paristarra dela ere erran daiteke, enpresa handiak eta gehienak han kokatzen baitira. Horrek lurraldearekiko (eta lurraldetako kultura eta hizkuntzekiko) urruntasuna ere azkartzen du, neurri txiki batean orekatzen joaten bada ere Eskualdetako laguntzak martxan eman direnez geroz. Nahiz eta Frantziaren sistema azkarra izan ikus-entzunezko eta zinema arloan, lurraldeetatik, lurraldeko ikuspegiekin sortzea beraz ez da hain simple.

III. ZINEMAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREA IPAR EUSKAL HERRIAN

Graxi Irigarai

Zaila da Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezkoen sektorearen argazki homogeneoa ateratzea. Aldaketa betean den sektorea da, biziki arautua, baina inguru porotsuak ukan ditzakeena.

Enpleguari dagokionez, jadanik azpimarratu dugun bezala, ikus-entzunezkoek proiektuka funtzionatzen dute. Frantzian, kontratu zabalduena OLKM da ("ohiko" izaera gehitzen zaion lan kontratu mugatua; artistak, ikusgarrietako langile eta teknikariak, izaeraz aldi baterako den iraupen mugatuko kontratuen bidez lanaldia eta geldialdia aldizkatzen dituzten langileak dira)³⁴. Profesional gehienak "gaitasun anitzekoak" dira eta, sektorearen arabera, OLKMan diren ikus-entzunezkoetako langileen %32 eta %82a artean, beste arlo batzuetan edo arloko beste sektore batzuetan enplegatzen dira urtean zehar³⁵. Historikoki, eta gaur egun oraindik, biziki paristarra den sektorea da, telebista kate eta ekoizpen sozietate gehienak han kokatuak baitira. Haatik, eskualde kateen biderkatzeak eta Eskualdeetako laguntzen agertzeak hein bateko deszentralizazioa ahalbidetu du.

Merkataritza eta Industria Ganbararen (MIG) zifren arabera, interesatzen zaizkigun aktibitate sailtako enpresa anitzek haien egoitza soziala Euskal Hiri-gune Elkargoan dute. 2022ko apirilean MIGaren datuek 165911C "Zinemarako filmen ekoizpena" adarreko 16 enpresa, 5911A "Telebistako emankizunen ekoizpena" adarreko 49 enpresa, 5911B "Film instituzional eta publizitate filmen ekoizpena" adarreko 33 enpresa, 5912Z "Film zinematografikoen, bideoen eta telebistako emankizunen ekoizpen-ondokoa" adarreko 10 enpresa, enpresarik ez 5913A "film zinematografikoen banaketa" adarrean, 5913B "Bideo argitaratzea" adarreko 4 enpresa eta 5914Z "Film zinematografikoen proiektzioa" adarreko 5 enpresa agertzen zituzten.

³⁴ Intermitentziaz mintzatzea ohikoa da.

³⁵ Ikus-entzunezkoa Frantzian: enpresen, langileen eta lanbideen estatistika argazkia – Afdas Ikus-entzunezkoetako lanbideen ikuskaritzako datuak – Ikus-entzunezkoaren CPNEF / Afdas / Audiens

Halere, datu horiek argazki ez zehatza, ez xuxena eta desegokia agertzen dute. Ondorioz, ez gara horietan oinarrituko sektorearen analisia egiteko. AL-CAk eramaniko ikerketaren beha egon beharko da lurraldeko sektorearen ikuspegi makro-ekonomikoa ukaiteko.

Alorreko behaketak behin baino gehiagotan erakutsi du Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezkoen egungo egituraketak ez duela sektorearen irakurketa sinple eta zatikatua egitea ahalbidetzen. Argiki esateko, ez da lurraldean finkaturiko "industria" zinematografikorik, proiektu kultural desberdinen garapena ahalbidetzen duten gaitasun anitzak baizik, azken urteetan biderkatu diren ikus-entzunezkoetako proiektuekin, bereziki ikus-entzunezko eta zinematografia sorkuntzekin, ikus daitekeen bezala.

Alorreko behaketak EHEaren garapen Zuzendaritzak eginiko garapen ekonomikoaren analisiarekin bat egiten du³⁶. Lurraldean joera bikoitza dugu: alde batetik, Ipar Euskal Herrian saila garatzeko eta sorkuntza sustatu eta/edo birkokatze helburuarekin (Zukugailua, profesionalen arteko elkartearen sortzearekin agerikoa dena) tokiko sorkuntza eta zinemaren sektorearen egituraketa profesionala sustatu nahi duten tokiko iniziatibak (Gastibeltza Filmak, Disnosc...) eta, bestetik, paraleloki, jadanik existitzen diren egitura eta profesionalak lurraldean finkatzeko mugimendua.

Gisa horretan, azken urteetan, lurraldean gaitasunen emendatzea badela ohartzen gara, bai sorkuntzari dagokionez baina bereziki ekoizpenei dagokionez: ekoizpen egituren sortzea, plantan diren egituren sendotzea (COM Kanaldude / Eskualdea), profesionalen saretzea eta egituraketa (Zukugailua profesionalen elkartearen sortzearekin) ikusten dugu beraz. Gaitasunen emendatze horrekin, tokiko proiektu eta profesionalak, saileko egitura klasikoekin (sektorean esku hartzen duten instituzioak, festibalak, sare profesionalak...) eazugupena ahalbidetzen dute eta ikus-entzunezkoetarako eta zinemarako diren diru laguntza klasikoak eskuratzen hasten dira. Tokiko profesionalizatze hori berria eta gaztea da, frantses metropolietan edo Euskal Autonomia Erkidegoan presente diren sormen eta ekoizpen indarretik urrun. Berriz aipatuko dugu ondoko lerroetan ere. Aldi berean Biarritzeko herria eta ikerketa taldearen arteko eginiko bilkura batek ontzat eman zuen zinemarekiko erakargarritasuna handitzen ari dela eta frantses egituren finkatze mugimendu bat badela dioen ideia.

Azkenik, Ipar Euskal Herria filmaketarako harrera lurraldea da oraindik ere. Agence du Film 64ek adibidez, Pirinio Atlantikoetan 210 filmaketa egun lagundu zituen 2021ean, geniena Euskal Herrian. Zenbaki hori biziki garrantzitsua da lurraldearen neurria kontuan hartzen bada, baina baita departamentu mailako sustengu funtsik ez dela kontuan hartzen bada ere. CNCaren arabera, tokiko kolektibitateek film batean, fikzio batean edo dokumental batean inbertitzen duten euro bakoitzak 6.6 €-ko zuzeneko ondorio ekonomikoa (ordainketa, gastu teknikoak eta filmaketa) eta turismo mailako 1 € (aterpetzea, ostalaritza, aisialdia, garraioa) ekartzen ditu: hots 7.6 €-ko zenbakekoa. "Zuzeneko ondorio ekonomikoek haratago, Frantzian filmaturiko irudien eragina gure lurraldeen garapen turistikorako akuilu ikaragarria da. Kreditu fiskalei esker, Frantzia filmaketetarako lurralde bikaina izatea da hel-

³⁶ NOR / EHE ikerketa Taldeko 2022ko martxoaren 1eko bilkura

burua”, adierazi zuen Frédérique Bredinek 2018an, Zinemaren eta iruditegi animatuaren Zentro Nazionaleko (CNC) Lehendakari zelarik³⁷.

Testuinguru orokorra pausaturik, Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorearen diagnosis finkatzea eskas zaigu eta, gisa horretan, formakuntza, sorkuntza, banaketa, hedapen eta ustiapen mailan ikerturiko eremuko eragileak nor diren, haien lana zein den eta lurraldeko, eskualdeko eta mugaz haraindiko paisaia ekonomiko, sozial eta kulturalean nola kokatzen diren zehaztea.

Ondorioz, ondoko lerroak Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezkoetako eta zinemako eragileak aurkezteko baliatuko ditugu. Ez da lurraldeko sektoreko profesional guzien zerrenda zehatza, bereziki Zukugailua saretik identifikatuak izan diren pertsona batzuen baizik, eta baita profesionalekin eginiko alorreko ikerketaren eta instituzio publiko desberdinek eskura emaniko datuen bidez identifikaturikoak ere.

Sektoreko profesionalekin elkarrizketa batzuk egin dira, sektorean eta lurraldean sorkuntzaren, ekoizpenaren (teknikariak barne), hedapenaren (banaketa eta ustiaketa) eta formakuntzaren (eta irudiarekiko heziketaren) alorrean ikusten dituzten mugak eta aukerak identifikatzeko helburuarekin.

Elkarrizketak erdi bideratuak izan dira eta ondokoa zehaztea xerkatzen zen:

- sektoreko profesionalak nor diren,
- nola lan egiten duten,
- haien ibilbidea zein den,
- haien proiektuak zein diren,
- zeren beharra duten gauzatu daitezten,
- Euskal Herrian beharrezko baliabideak dituzten edo kanpoan atzematen dituzten,
- haien lanbidean lurraldearekiko (eta mugaz haraindikoarekiko) zer harreman duten,
- euskaraz eta euskarazko proiektuetan lan egiten ote duten.

Xede publikoa ondoko moldean definitua izan da: zinemako eta ikus-entzunezkoetako profesionala (alor horretan ikasketak egin dituen eta/edo gutenez film bateko esperientzia duena), Ipar Euskal Herrian bizi eta lan egiten duena edo Ipar Euskal Herrikoa dena eta euskaraz lan egiten duena.

Irizpide horiek betetzen dituzten hogeit hamar profesional galdekatu dira gorago finkaturiko koadroaren baitan, baina helburu bera zuten eta irizpide malguagoak jarraikiz eginiko beste hamar bat elkarrizketa informalek ere ondoko emaitzara iristea ahalbidetu dute.

Gisa horretan, lurraldeko ikus-entzunezkoetako eta zinemako eragile, operadore eta proiektu desberdinak aurkeztuko ditugu, autoreetatik hasi eta festibaletaraino. Azpimarratzekoa da aktore eta antzezleak ikerketa eremu honetatik kanpo direla.

³⁷ Tournage et tourisme : de nouvelles opportunités pour les territoires | CNC

1. | Autoreak – filmegileak

Galdekatuak izan diren autore eta filmegileak Ipar Euskal Herrian bizi diren edo jatorria Ipar Euskal Herrian duten pertsonak dira, zinema eta ikus-entzunezkoen arloan formakuntza dutenak eta jadanik gutienez Euskal Herrian edo euskaraz film bat (genero desberdinekoa) egin dutenak.

Elkarrizketa gidaren helburua da:

- galdekatuak direnen ibilbide profesionala identifikatzea,
- abian diren proiektuak identifikatzea,
- haien proiektuak lurraldearekiko eta euskararekiko duen harremana identifikatzea,
- haien proiektuaren gauzatzean atzeman dituzten aukera eta mugak (bereziki haien lanbidearekin, lurraldearekin eta hizkuntzarekin loturik) identifikatzea,
- haien proiektuen gauzatzean instituzioekiko duten harremana identifikatzea.

a) Elkarrizketaturiko pertsonen zerrenda eta aurkezpena

Itziar Leemans: 1983an Donibane Lohizunen sortua, argazkilaria, gidoilaria eta filmegilea. Toulouseko Mirail Unibertsitatean (Frantzia) Historiako lizentziatura egin ondoren, Itziar Leemans Kubara joan zen eta han San Antonio de Los Bañoseko Zinema eta Telebistako Nazioarteko Eskolako diploma eskuratu zuen 2012an. Argazkilaritza zuzendari gisa bi film labur egin zituen: *El Castillo* eta *Awari*, eta baita fikziozko bi film labur ere: *Tropico de Siberia* eta *Medusa*. 2014an haren lehen film luze dokumentala egin zuen: *Parque Lenin*, Moskuko Festibalean (2016ko maiatza) dokumental luzemetraia onenaren saria jaso zuena. *Bainera* fikziozko laburra ere errealizatu zuen (2018an *Gure oroitzapenak* obra kolektiboarentzako). Une honetan ekoizpen-ondokoan den *Olatuak* dokumentala errealizatzen ari da, 2022an *Ximinoa* fikziozko film laburra errealizatuko du eta euskarazko *Agurra* fikziozko film luzea idazten ari da.

Eñaut Castagnet: 1986an Biarritzen sortua, Andoaingo zinema eta bideo Eskolako (ESCIVI) ikus-entzunezko errealizazio eta ikusgarrietako diploma eskuratu zuen 2011 eta 2013 artean. Ondotik Pixel sozietatearentzat lan egin zuen, Biarritzen Eny Prod ikus-entzunezko komunikazio egitura sortu zuen arte. 2017an, Ximun et Manex Fuchsekin batera *NON* fikziozko film luzea errealizatu zuen (Aldudarrak Bideok, Le Petit Théâtre de Paine eta Derrière le Hublok ekoiztua) eta, ondotik, *Nire eguneroko maitea* fikziozko film laburra. Berrikiago, Geuretik Sortua programaren bidez Udalbiltzaren laguntza eskuratu zuen, zeinak *Muga* fikziozko film laburra idatzi eta egitea ahalbidetu zion. Dokumental bat baino gehiagoren argazkian ere izan da, Thomas Lacosten *L'hypothèse démocratique* filman adibidez (2021). Gastibeltza Filmak ekoizpen eta banaketa etxearen sortzaileetatik bat da.

Jean Larregaray: 1993an Donapaleun sortua, Baiona-Biarritzeko Ikus-entzunezkoen Soinu opzioko Goi Mailako Teknikari Brebeta (GMTB, fr. BTS) pasa zuen eta 2019an FEMISeko diploma eskuratu. Fikziozko film labur batzuk idatzi eta errealizatu zituen, *Le Passage* 2018an (Grenobleko Court en Plein

Air festibalerako hautatua), *Le Déluge* (2019), *Faux Départ* 2019an. Gaur egun Parisen bizi da eta han kirol emanaldietarako soinu ingeniari lanetan ari da eta fikziozko proiektuak garatzen ditu.

Maia Iribarne: 1995ean Baionan sortua, Aretxabaletako Mondragon Unibertsitatean ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen eta, ondotik, Bartzelonako Arte Ederretara (arte bisuala eta hezkuntza ikastera) joan zen. Diploma eskuratu ondoren, La Source-Iturria elkartearantzako lan egin zuen (zailtasunetan diren haur eta gazteei eta hauen senideei zuzentzen zaien eta adierazpide artistikoaren bidez gizarte eta heziketarako bokazioa duen interes orokorreko elkartea). Ondotik Lussaseko Dokumental-egile Master 2ari buruz itzultzea deliberatu zuen eta hartan *Le jour qui vient* dokumentala errealizatu zuen besteak beste. 2020an "Sormen Beka DA!" saria eskuratu zuen (Durangoko liburu eta disko azokakoa) eta horrek gaur egun ekoizpen-ondokoa den *Bañolet* seriea egitea ahalbidetu zion.

Elsa Oliarj-Ines: 1988an La Bauren sortua, Xiberoa eta Paris artean bizi da. Letretan eta Zineman lizentziatua (Paris), Sorkuntza dokumentaleko masterra eskuan dokumental batzuk egin zituen Xiberoan, *Dans leur jeunesse il y a du passé* (2014) edo *Les airs sauvages (Basahaiedak)* (2017). Azken zortzi urte hauetan *Nortasunak* serie dokumentalean lanean ari da, zeinean haurrak aisialdi denboran segitzen dituen.

Carmen Echeverria: 1997an Baionan sortua, Senperekoa da. 15 urte zituenetik zineman aritu nahi zuela zekien. Bordeaux Montaigne unibertsitatean Zinema eta ikus-entzunezkoen lizentzia eskuratu zuen eta, ondotik, Artea eta Lanbide Artistikoak Masterra pasa zuen Madrilan. 2022an *Oihartzunak* haren lehen fikziozko laburra errealizatu du, Améthyste Filmsek ekoiztu duena.

Ximun Fuchs: 1974an Bordelen sortua, gaur egun Donibane Lohizunen bizi da. Bordeaux Montaigne unibertsitatean Antzerkia eta Zinema ikasketak egin zituen. Petit Théâtre de Pain konpainiaren sortzaileetatik bat da eta baita, berriki, euskarazko sorkuntza eta hezkuntza artistikora dedikatzen den Axut! Konpainiarena ere. Aktore, antzezle, dramaturgo eta eszena zuzendari lanetan ibilbide aberats eta anitza du. Zinemaren arloan aktore lanetan ibili da film batzuetan, *NON* fikziozko luzearen idazketan eta errealizazioan parte hartu zuen (2018) eta baita *Nire eguneroko maitea* fikziozko laburraren errealizazioan ere (2021). Gaur egun *Baratze bat* fikziozko luzea idazten ari da. Gastibeltza Filmak ekoizpen eta banaketa etxearen sortzaileetako bat da ere.

b| Elkarrizketen emaitzak

(a) Galdekatuak izan direnen formakuntza, ibilbideak, proiektuak eta egoera profesionala

Ikus-entzunezkoetan eta zineman formaturiko profesionalak:

Elkarrizketek agertu dute galdekatuak izan diren pertsonak ibilbide biziki desberdinak izan dituztela, ikus-entzunezkoekin eta zinemarekin loturiko formakuntza anitzekin Frantzian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainian edota Kuban. Batzuk Lussas, Fémis edo Kubako zinema Eskola bezalako ospe handiko formakuntza eskoletatik pasa dira.

Prekarietatea eta gaitasun aniztasuna

Oro har, tokiko autoreek atzematen dituzten problematikak Frantzia mailako autore gehienek dituzten berak dira.

- autoreen ordainketaren gaia toki guzietan sentsiblea den gaia da. Gehienek, haien proiektuak medio gutirekin eta ordainsari apalarekin gauzatu direla azpimarratzen dute.
- elkarrizketek arlo horretako lan prekarietatea agertzen dute: Ipar Euskal Herrian arlo horretan soilik lan egiten duten autore biziki guti dela ohartzen gara. Gehienetan haien proiektuaren autore eta filmegile dira. Gaitasun anizkoitzak dituzte, izan ikus-entzunezkoetan zein beste arlo artistikoan (antzerkia edo musikan adibidez).

Galdekaturiko pertsona batek dio:

» “Duela bi urte, nire errealitatea izugarri gogorra zen. (...) Dena aldatu da intermitentzia lortu eta gero eta dena aldatu da Eusko Jaurlaritzaren idazketarako diru-laguntza jaso eta gero. Lortzen bada diru kopuru bat banatzen dena sostengatzeko idazkera, euskaraz, beharbada hori Iparraldetik gauza ona izaten ahal litzateke. (...) Etapa zailena da, ez? Gehienetan idazten duzu baina sosik ez da proiekturako. Behar dituzu testuak aski onak dirua sarrarazteko baina testu onen idazteko behar dituzu hilabete batzuk, denbora behar duzu eta iruditzen zait Eusko Jaurlaritzaren laguntza hori beharrezkoa dela eta Iparraldean ez da existitzen. Bada Bordelen baina nahasia da, ez da bakarrik – ez da batere euskarazko proiektuen laguntzeko”.

Galdekaturiko beste bat, haren lanbidea aipatzen duelarik, “one man crew”-ez (pertsona bakar batez osaturiko ekipa) mintzo da. Batez ere film instituzional eta publizitarioak ekoizten ditu eta, ahal izan duelarik, filmak errealizatu edo idatzi ditu. Beste ofizio kidegoetako elkarrizketek agertzen dutenez, lurraldean bizi diren beste filmegile batzuk komunikazioaz eta publizitateaz bizi dira eta haien dokumental gehienak hein handi batean haiek berek ekoizten dituzte (ik. **Kestu** beherago).

Galdekaturiko beste batek aldiz errealizazioaz bizi dela dio, baina guzia hark bakarrik edo “familian” eginez, aitzinkontu biziki apaleko filmak egiten dituela azpimarratuz.

Beste bat musikaz eta ikus-entzunezko proiektuez bizi da.

» “Baina bi gauzak (*ulertu musika eta ikus-entzunezkoak) biziki maite ditut beraz zinez horretan atzematen dut ene oreka, deia pertsonalki, aktibitate mailan baina gero kontzentrazio mailan, zaila da. Momentuan xantza gehiago ukan dut pagatua izateko (* musikan) zineman baino. Beraz horri esker naiz bizi ere. Hola segitzen badu hobe eta hola zineman egiten ahalko ditut ere motibatzen nauten proiektuak... ez dakit. Beharbada sobera utopikoa da”.

(b) Hizkuntzarekiko harremana: hautuak, mugak, aukerak eta erronkak

Galdekaturiko pertsona gehienek euskarazko proiektuak dituzte edo ukan dituzte. Euskaraz sortzen duten autore euskaldunentzako, hizkuntza sorkuntzaren zerbitzura den baliabidea da. Lehenik eta behin, kontatu nahi duten historiaren zerbitzuko den hautu artistikoa da. Hizkuntza ez da ez muga gisa ez aukera gisa ikusia. Azpituluei esker film bat mundu guzian ikus daitekeenaren ideia argia eta partekatua da.

» “XXXX filmean ez dakit zendako euskaraz egiten dudan baina betidanik entzun ditut ene buruan pertsonaiak euskaraz hitz egiten. Gero bitxi egiten zait ere bai justifikatzea puntu hori. Ene dossierretan ez dut justifikatzen. Frantses batek ez du justifikatzen frantsesez egiten duelarik film bat, ez? Beraz nire pertsonaiak ikusten ditut eta entzuten ditut eta betidanik euskaraz ari dira. Ez dut beste esplikapenik. Ez dut arazorik ere ez, egiteko filmak gazteleraz ala frantsesez”

» “Ez dut arazorik ikusten (*euskaraz sortzea). Nik begiratzen ditut txekiar filmak eta baldin badira azpidatziak eni berdin zait. Ene ustez legitimoa da hori pentsatzea (* oztopo bat izan daitekeela) baina enetzat ez da egiaztatua. Historia ona baldin bada euskaraz izatea, edo ez du deus aldatzen, edo “c’est un plus” (plus bat da).

Nik ikusten ditut Asiako pelikulak, gaiak biziki Asiatikoak dira eta hunkitzen nau beste molde batez”. (...) “Ez dut ene burua moztu nahi. Ezin da traba izan”. (...)

» “Abantaila, oztopo... Pixka bat berdin zait. Azkenean... Ez dakit nola erran... gure istorioak kontatu nahi baditugu, gure hizkuntzarekin, gure kulturarekin, gure guziarekin kontatu behar dira”.

» “Hizkuntza bat eremu bat da, espazio bat da, bere iruditegi propioekin. Eta hau zeharkatzea plazer bat da. Eta gauzak ez dira berdin erraiten hizkuntza batean edo bestean”.

Hizkuntzarekiko iritzi argia ukanik ere, memento batean denek defenditu behar izan dute haien hautu linguistikoa. Gisa berean, haien ibilbidean zehar egin hautuekiko balio jujamendu ezkorrak argiki adieraziak izan zaizkie (linguistikoa edo lurraldearekiko lekuaz), gordinki batzuetan. Euskarazko film batekin banatzaile bat atzematea zaila denaren ideia orokorra edo festibalek eta hedatzaileek filma “eskualdeko” atalean sailkatzeko arriskua usu agertzen diren gaiak dira (Euskal Herrikan kanpo baia baita Euskal Herrian ere). Autoreek hautu hori tokiko publikoa soilik hunkitzeko egiten ez badute ere, azken hauen aburuz, beste mintzakideek filmen zabalkunderako balizko mugak ikusteko joera lukete.

» “Ekoizlearen lehen proiektua zen, ez zakien sobera euskaraz egin behar zenez. Entseatu nintzen konbentzitzen, ez zela bisibilitate gutiagorik eta justu Kanalduderen laguntza ukan nuen beraz egin zen”.

» “Anitz kexatu gira (*ekoizlearekin, euskaraz egin nahi baitzuen) eta erran diot nola ikusten nuen eta erraiten zuen, « c’est illisible les sous-titres tout le long comme ça » (azpitulua film

osoan zehar irakurtezina da) eta egia errateko akigarri zen. Denbora iragan da, frantsesez idatzi dut, eta ez nuen filma lortzen. Eta momentu batean, ene muntatzailea frantsesa da, eta beretako ere euskaraz hobeki zen. Biak ados ginen. Arra hasi gara euskaraz eta horrela filma atzeman dugu. Eta ene produktoreak ikusi duelarik, galdera ez da pausatu”.

Urrunago

» “Eta han (*festibal batean) bazen CNC-ko idazketa laguntzako pertsona bat, zuzendaria edo... ez dakit nor zen. Eta hartu zuen ene proiektua eta erran zuen “Encore un film sur les Basques !” (“berriz ere euskaldunei buruzko film bat!”). Eta pentsatu nuen: ez du irakurri, ez da batere “un film sur les Basques” (“Euskaldunei buruzko film bat”). Musika eta tradizioari buruz da. Ez da batere Euskal Herriari buruz. Et dans les Aides à l’écriture du CNC, c’est pas le sujet qui compte (Eta CNCaren Idazketarako laguntzetan, gaia ez da kontuan hartzen dena).

Denetan bada gauza bat zerraturik dena. Zu hemen gelditzen zira eta ez zira ateratzen”.

Kategorizatze hori alde ezberdinetakoa izan daitekeela ikusten du berak eta frantsesez egin nahi izan duelarik, Ipar Euskal Herriko solaskideengandik mugatua sentitu da hizkuntzaren aldetik.

» “Uste dut badirela bi gauza horiek ene bizian. Hemengo Euskaldunak pentsatzen dutenak filmak egiten ditudala besteendako eta kanpokoek pentsatzen dutenak filmak egiten ditudala Euskaldunendako. Ene bigarren filma, (*Iparraldeko ekitaldi batean) ez zuten erakutsi nahi zeren eta erraiten zuten : « N.E. (*pertsonaia bat) frantsesez ari delarik, guretako ez da posible, zendako frantsesez ari da? ». Ene aita eta amek ez zuten euskara ematen, nire anai-arrebekin ere frantsesez ari gara gure etxeko hizkuntza frantsesa baita, eta nire anaiak zituen elkarrizketak antolatzen eta frantsesez mintzatzen zen N.E.rekin eta zenbaite-tan euskaraz. Eta hartu duena filmean frantsesez da. Baina beste momentu batzuetan M.E.ekin mintzatzen delarik edo M.rekin euskaraz mintzatzen gara. Eta hizkuntza hori sartzen da zenbaite-tan.

Hizkuntza lehena sartzen dute eta ez proiektua iduritzen zait. Enetako sobera zerratzen dute ikuspegia”.

Beste batek dio:

» “Bazen zinema erakasle bat erran zuen, euskal zinema “c’est un cinéma qui sent les pieds” (“oin usaina duen zinema da”). Eta aurreiritzi hori behar da pasa. Zailtasuna da ere aurreiritzien pasatzea eta behar dugu zuritu. Gure hizkuntza eta iruditegia behar dugu zuritu zentsura horien baimena pasatu ahal izateko, dirua ukaiteko eta egiteko gure zinema”. (...) “Itzuli behar da etengabe gure lana zineman. Txosten guziak bi hiru hizkuntzetan egin behar dira. Gidoia itzuli behar da. Lana biderkatzen du eta lan hori ez da ordaindua. Berez euskaraz sortzeak emekitzen du prozesua”.

Beste batek:

- » “Film festibalera joan ginelarik pitch baten egitera, Nokaren programaren barne, ariketa bezala hitz egin nuen banatzaile internazional batekin, Bordelen dagoena (izena ahantzi dut) eta erran zidan frantsesez “Non, mais laisse tomber, un film en langue basque c’est invendable” (“ahantzi, euskarazko film bat salezina da”).

Eta ez da batere egia eta ez du zentzurik. Begiratzen ditugu Ukrainiako filmak haien hizkuntzan eginak, mundu guzikoak eta haien hizkuntzan beti eta azpidatziak egiten dira eta kitto. Baina bai, muga bat bada, zeren eta saltzaile batzuek ez dute ongi ikusten baina filmak ez ditut egiten pentsatuz salmentari”.

Beste batek:

- » “Par rapport à la langue et faire des films ici, c’est ça qui est compliqué. C’est déjà compliqué de faire un film qui soit vu mais si tu écris un film en langue basque, qui n’est pas distribué, tu vas mettre deux ans à écrire un scénario, ce ne sera pas financé... c’est compliqué. C’est pas comme en Espagne où j’ai l’impression que la relation aux langues est différente. Les institutions sont plus grandes : je vois Eitb qui met énormément d’argent sur des films d’époque. A mon sens c’est la problématique d’Iparralde qui est une problématique très politique : la place des langues régionales en France qui n’est pas si affirmée que ça³⁸”.

Euskara aukera gisa:

Halere, euskara abantaila ere izan daitekeela ohartzen gara, bereziki laguntzak edo sustengua eskuratzeko edo mugaz beste aldeko operadoreekin egon daitezkeen harreman profesioaletan.

Lehenik eta behin, euskaraz mintzo diren pertsonentzako³⁹ Euskal Autonomia Erkidegoko formakuntzetarako sarbidea izan daiteke (Andoain edo Arrasate) eta euskararen ezagutzak taldeen osaketan (filmaketak, ekoizpen-ondokoak) ere nabaritzen den mugaz haraindiko harreman naturalagoa ahalbidetzen du adibidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko idazketarako laguntzak edota idazketa erresidentziek ere haien eragina dute. Galdekatuak izan diren bi pertsonak adibidez **Nokaren** idazketa erresidentzian parte hartu zuten. Beste bik Eusko Jaurlaritzaren idazketarako 15.000 euroko laguntza eskuratu zuten. Beste batek, euskarazko fikziozko film labur baten egiteko Udalbiltzak esleituriko Geuretik Sortua baliabideko 25.000 euro jaso zuen.

³⁸ “Hizkuntzari eta filmak hemen egiteari dagokionez, hori da konplikatua dena. Berez jendeak ikusiko duen film bat egitea konplikatua da, baina euskarazko film bat idazten baduzu, ez dena banatua izanen, gidoia idazteko bi urte emanen dituzu, ez da finantzatua izanen... konplikatua da. Ez da Espainian bezala, non, ene iduriko, hizkuntzekiko harreman desberdina duten. Instituzioak handiagoak dira: Eitb-k film historikoentzako diru anitz ezartzen duela ikusten dut. Ene ustez Iparraldeko problematika da, problematika biziki politikoa: eskualde hizkuntzen tokia Frantzian ez da uste bezain handia”.

³⁹ Espainolez mintzo direnentzat ere aukera izan daiteke baina gure kasuan euskara da ikertu dena

(c) Lurraldearekiko harremana: hautuak, mugak, aukerak eta erronkak

Lurraldean, galdekatuak izan diren guziek Kanaldude baliabide gisa argiki identifikatu dute, haien proiektuentzako sustengu gisa.

» “Kanaldude bezalako tresna bat ikusten dudalarik, bikaina atzematen dut eskaintzen ahal duten guzia material eta espazio aldetik”.

» “Eta bietan lan egin dut Kanalduderekin. Haiekin lehenago egin nuen gauza anitz eta enetako beti inportantea izan da hemengoekin lan egitea, Parisen bizi bainaiz. Bi zangoak hola ditut, Parisen eta hemen, eta beti ukaitea hemengo etxe bat, hemen lan egiteko eta ez baizik Parisetik hona so egin. Beraz ene lehen bi filmak Pariseko etxe bat eta Kanalduderekin egin ditut”.

Batek baino gehiagok azpimarratzen du ere profesionalen sare baten beharra, idazketari eskainiriko espazio baten beharra eta zentzu horretan doan laguntza ukateko beharra. Zukugailuak eramaniko lana, Hemendik eta Kirikoketa bezalako erresidentziak eta Zinema Zubiak⁴⁰ proiektua aipatzen eta estimatzen dituzte.

» “Jadanik, diskusio aboro (*gehiago) hemen eta kanpoko jendeen artean. Hor ikusi dut Ximunen emaila Donostiako Zubier buruz eta espero dut joaten ahalko naizela. Holako gauzak, c’est génial (bikaina dira)”

» “Errango nuke estrukturak, adibidez Zukugailua bezalako egonaldiak, atope garatu behar direla. Zinez bide berriak ideki zaizkit. Adibidez, filmaren lehen asistentea han (* Zukugailuaren egonaldi batean) ezagutu dut. Hori atope! Ongi ibiltzen da. Sareak egiteko biziki garrantzitsua da”.

Zinemagelak edo zinemagelen kudeatzaileak ere baliabide gisa identifikatuak izan dira: Atalante, Le Sélect eta Xabi Garat edota Jérôme Alkhat izenak aipatu dira (ik. elkarrizketa ustiatzaileekin).

Azkenik, lurraldeak berezkoa duen kultura dinamika ere azpimarratua da:

» “Posible ikusten dut bereziki hemengo dinamikei esker. Hor ikusten du xxxx seria horri esker egin dela, lagun kolektiboek esker, herriko dinamikei esker eta mugitzeko usaia duten jendeek esker. Alde horretatik kristoren dinamika eta usaia existitzen dira eta laguntzen dute ahal gutirekin ere egiteko”.

(d) Instituzioekiko harreman urruneko eta mesfidatia

Iraganiko elkarrizketa desberdinetan, orokorrean, tokiko autoreak mekanismo instituzionaletatik aski urrun direla sendi da. Ezezagutza hori mesfidantzan bilaka daiteke eta baita haien lanareriko kontsiderazio eskasaren ustean ere.

⁴⁰ Ikus Zukugailuaren ekintzak

Batek dio:

- » “Ez dut batere menperatzen arlo hori (*arlo instituzionala). Ez naiz sekulan egon mahai inguru batean eta nola erabakitzen duten eta holako gauzak ez dakit baina interesa litzateke jakitea zergatik ez ziren hartua izan. Jakin gabe guk irudikatzen dugu korbatadun anitz erranez hor bada diru bat egiteko, hor bada lurraldeko publizitatea egiteko. (...) Beharbada tronpatzen naiz, ez dudalako ezagutzen. Nik hola ikusten dut. Aurkezten baduzu eta eman duzularik, denbora eta hori... txostena egiteko, bon, bederen ez bazara hartua, jakin behar da zendako”.

Beste batek:

- » “Ez dakit nola banatzen duten haien aurrekontua, ez dakit non diren beren lehentasunak, baina zinema garatzeko zerbait egitea beharrezkoa liteke, zerbait pizteko, baina ez dakit nola ibiltzen diren instituzio haiek. Pixka bat “ignorantea” naiz”.

Beste batek:

- » “Nahiz eta diru pribatua sartu, hala ere diru publiko asko mugitzen da, Frantzian hasteko, eta dena da edo Parisetik edo Akitaniatik. Orduan irakurketa hortik egiten da. Iparraldeko film batek posible du Iparraldean pentsatua izatea baldin eta pasatzen baditu Bordele edo Pariseko filtroak: beraz kultura eta pentsamendua. (...) Guk ez dugu gure zinema egiten ahal ez bada baldintza biziki txarretan. (...) “Hemengo ikuspuntua nahi bada garatu, behar da inbertitu seriooki”.
- » “Gero orokorrean biziki sortzen ari den kultura bat da. Ez da hainbeste usaiarik horretan ahalak emateko edo, instituzioen (* ulertu lekuko erakundeak) partetik bada ezjakintasun bat holako proiektuak sustengatzeko, ez dakit, ahal eskas bat. Hortan segur ez dela jadanik martxan den zerbait”.

ALCA da autoreentzako lehen erreferente instituzionala, noski. EKE ere solaskide bezala identifikatzen dute. Batzuek tokiko instituzioek lagundu dituztela ere azaltzen dute, baina zeharkako bideetatik, zinema edo ikus-entzunezkoen laguntzetatik aparte. 12 eta 25 urte arteko gazteen elkarteak haien proiektu kulturean laguntzeko antolakunde baten-gandik bi aldiz 2.000 euro jaso izana aipatzen du batek. EKE ere identifikatua da, bereziki audio dokumentalen sorkuntzan laguntzeko⁴¹.

c| Kontuan hartu beharreko beste autore eta filmegile batzuk

Ikusitako autore eta filmegileen zerrendak ez ditu Ipar Euskal Herriko autore eta filmegile guziak biltzen. Lurraldeko operadoreen laguntza desberdinak (tekniko eta finantzeroak) begiratu, lurraldean beste hamar bat proiektu abian direla egiazta genezake. Adibidez, 2021/2022an autoreei eskainiriko idazketarako erresidentzia proposatzen duen Zukugailua elkarteak genero desberdineko film proiektuak proposatzen dituzten beste autore batzuk

⁴¹ Informazio hori, ez da autoreekin eginiko elkarrizketetatik heldu, baizik eta beste lanbideetan eginikoetatik

identifikatzea ahalbidetzen digu: Andoni Betbederen *Ageriko sekretua* (fikziozko laburmetraia) edo Sabina Hourcaden eta Lucien Franciniren *Maina* (iraupen ertaineko dokumentala) bezalakoak.

Ipar Euskal Herriko egiturei / pertsonei / proiektuei onarturiko laguntzei buruzko ALCAREN datuek, Euskal Herriko autore edo proiektu batzuk agerian utzi dituzte, besteak beste *Sur les traces de Telesforo Monzon* izeneko dokumentalaren idazketarako 5.000 euroko laguntza eskuratu duen Anne De Galzain edota *Figures bleues* animaziozko filmaren idazketa eta garapenerako 35.000 € eskuratu dituen Disnosc ekoizpen sozietateko buru den Biarritzeko Nathan Otaño (ik. beherago ekoizleak), 5.000 euroko laguntza eskuratu dituen Larresoron bizi den Loïc Legranden *Le cycle de la bouteille* fikziozko luzemetraia, Biarritzen bizi den eta Pariseko ekoiztetxe batekin lan egin duen Mona Converten *Un Pays en flammes* dokumental luzemetraia edota Iban Rusiñolen *Kantuen Kontrabandista* seriea. Gisa berean, Kanalduderen inbertsioek Franck Herrieta den eta La Fidèle Productionek ekoiztu duen *The dodgers* (Next Station) edo Lander Garroren *Tipularen sehaska kanta* (dokumental luzemetraia, Gastibeltza Filmakek ekoiztua) proiektuak argitan ezartzen dituzte. Interesgarria da beraz datuak biltzen segitzea.

2. | Ekoiztetxeak

Euskal Hirigune Elkargoko MIGaren (CCI) webgunean 5911C “Zinemarako filmen ekoizpena” adarrean, 11 enpresa ditugu, hauetarik 9 egoitza sozialak eta 2 bigarren egoitzak dira. Haatik, konpainiaz konpainia begiratu, enpresak eskas direla ohartzen gara (5911A adarrean huts baten ondorioz sailkatuak). Zaila da beraz datu horietan oinarritzea. Gisa horretan, ikerketa hau burutzeko, zuzenean argiki identifikatuak diren lurraldeko sozietateen zerrenda helarazi digun ALCAREkin lan egitea nahiago izan dugu. Diagnostiko honetarako, identifikaturiko sozietate desberdinekin harremanetan sartu gara, hauetatik hiru lehenago definituriko elkarrizketa erdi bideratuen baitan. Besteekin elkarrizketa informala egin dira.

a) ALCAREN identifikaturiko ekoizpen egiturak⁴²

La Fidèle production eta Jokin Etxeberria: La Fidèle production 2014an sortu zen eta Ziburun kokatua den ekoizpen sozietatea da (5911C). Mugaz haraindiko eta euskarazko ko-ekoizpeneko perspektiban kokatzen da bereziki.

Pablo Agueroren *Akelarre* (euskara/gaztelera) (2020), Lara Izagirreraren *Nora* (%90 euskara) (2020), Asier Altuna eta Telmo Esnalen *Agur Etxebeste* (euskara) (2019), Telmo Esnalen *Dantza* (mutua) (2018) filmen ekoizpenean parte hartu du, adibidez. 2021ean, Media Attack, Belarri Studio eta Maelstrom Studiorekin elkarlanean, *Jokari* filma ekoiztu zuen. 2020ko lehen konfinamenduaren testuinguruan eta honekin lotura eginez filmaturiko fikzioa da. Jokin Etxeberria J.O.K. Films ekoiztetxearen zuzendari nagusia da eta Eitberrekin lan egin du, besteak beste. Videoplugger nazioarteko saltzaileak France

⁴² Emmanuel Feuliék partekaturiko datuak

3 Nouvelle Aquitaineri saldu dion **Punto koma** euskarazko web seriea ekoizten du. Euskarazko edukia duen Muak.eus webgunea ere garatzen du.

Gastibeltza Filmak Senperen kokatua den ekoizpen eta banaketa sozietatea da (5911C), Ipar Euskal Herrian euskal zinema garatzeko asmoz Ximun Fuchsek, Eñaut Castagnetek, Manex Fuchsek, Josu Martinezek eta Katti Pocheluk sortua. Sortu zenetik hamar bat film ekoiztu, ko-ekoiztu eta banatu du ekoizpen sozietatea 2018an hasi zen ko-ekoizpena egiten, Thomas Lacosten **L'hypothèse démocratique** proiektuarekin edota Adabaki Ekoizpenarekin (Bilboko ekoizpen sozietatea) **Gure oroitzapenak** izeneko laburrez osaturik film kolektiboarekin bat eginez. Ondotik, Baigorriin filmaturiko Josu Martinezen fikzio laburrak ekoiztu zituen, betiere Adabaki Ekoizpenarekin: **Anti** 2020an eta **Subandila** 2021ean. 2021ean, serie horretako **Hitzak** laugarren filma ekoiztu zuen, bakarrik aldi horretan, Udalbiltzaren Geuretik sortuak programari esker. 2021ean Ximun Fuchs, Manex Fuchs eta Eñaut Castagnetek **Nire eguneroko maitea** fikziozko laburra eta Eñaut Castagnetek **Muga** ere ekoiztu zituen, azken hau ere Udalbiltzaren Geuretik sortuak baliabidearen laguntzaz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Irusoin eta Mirokutana ekoizpen sozietateekin Ander Iriarteren **Karpeta Urdinak** (lehenago **Le son du crack**) dokumentalaren ko-ekoizpena egin zuen, eta baita Lander Garroren **Tipularen sehaska kanta** dokumentala ere. Gaur egun Asier Altunaren **Karme** fikziozko luzearen ko-ekoizpeneko proiektuan lan egiten ari da eta baita Itziar Leemansen proiektuetan ere: **Ximinoa** laburmetraia et **Agurra** fikziozko luze-metraia. Sozietatea, Ipar Euskal Herriko zinemagelei mugaz beste aldean ekoizturiko filmak eskaintzen dizkien banaketa sozietatea da ere.

Kestu production: bideo ekoizpen sozietatea da, dokumentalen ekoizpenean, filmaketan eta ekoizpen-ondokoan eta film instituzionaletan eta kamera anitzeko bideo filmaketetan berezitua. Jatorrian, 2011n Biarritzeko René Cassineko GMTB formakuntzan elkarrekin ziren lagun talde batek sortu zuen elkarte da Kestu. 2016an, Kestu elkarte Parisen kokaturiko SAS bat bilakatu zen. Euskal Herrian finkatu ziren gero, eskualdeko proiektuetan parte hartzeko xedez. Kolektiboa ikus-entzunezkoei loturiko ofizio kidego anitzez osatzen da. Iban Rusiñolen euskarazko **Kantuen Kontrabandista** magazinaren ko-ekoizpena egin dute besteak beste.

Disnosc 2020an sortu zen eta Angelun (EHEaren Arkinova enpresa mintegian) kokatua den animaziozko zinema estudioa da. Heldu gazte eta helduentzako den eskuz marrazturiko animazio pikturiko errealistan berezitua da. Fabrice eta Nathan Otañok sorturiko sozietatea da. Fabrice Datatik⁴³ heldu da eta haren seme Nathane Gobelinsen ikasi zuen (2017an diplomatua) eta animaziozko filmen diseinatzaile eta egilea da. Elkarrekin Euskal Herrian animazio estudio bat sortzea erabaki eta planifikatu zuten. Haien proiektuak hiru ardatz nagusi ditu:

- estudioa eta film fabrika,
- haien animaziozko film/serie proiektuen garapena,
- Synosc: animazio estudio baten baitan ekoizpen kudeaketarako tres-

⁴³ Chief data officera, edo CDOa edo estrategia digitaleko zuzendaria dataren espezialista da. Eskura dituen datu guztiak bildu eta aztertzea da haren funtzioa, enpresaren erabilpen eta antolakuntza estrategikoarentzako beharrezkoak diren datu egokienak biltzeko.

na digitalen sortzea (teknologia baliatu kudeaketa etikoa egiteko eta inpaktu ekologikoa menderatzeko) ekoizpen automatizatuaren segimendurako⁴⁴.

Damned Films (Yohann Cornu) 2011n Parisen sortu zen banaketa eta ekoiztetxea da. Hastapenean banaketa sozietatea zen. 2014an ESMAN (SARL) bilakatu zen eta 2015ean ekoizpen aktibitatea abiatu zuen. 2019az geroztik egoitza soziala Baionan kokatua du eta Parisen gelditu den banaketarako langile bat du. Ondorioz, oinarritzko aktibitatea zinemageletarako film luzeen banaketa da eta filmak ekoizteko indarra egiten du, bereziki banatzen dituen filmen autoreena. Atzerriko fikzioak banatzen ditu batez ere eta nazioarteko ko-ekoizpenean aritzen da. Halere, proiektuen arabera, film frantsesetan ekoizle arduradun izatea gertatzen da, Audrey Estrougoren **A la folie** filmarekin bezala (2020). Gisa berean, genero desberdineko filmetan lan egin dezake. Gaur egun Baionan kokatua, Yohann Cornuk Euskal Herriko beste profesionalak ezagutzeko gogo bizia du.

Rue de la sardine 2015ean sortu zen eta Azkaraten du egoitza soziala. Marie Lesay ekoizleak dio erregulari Euskal Herrian dela baina Lotan (Okzitania) bizi da. Ekoizten dituen filmak Frantzia osoan egiten dira eta, beraz, ez Euskal Herrian⁴⁵ bereziki. Fikziozko laburrak ekoizten ditu batez ere, baina dokumental laburrak ekoizten dituztenekin partzuer ezarri da. Fikziozko luze bat ere garatzen ari da.

Tell me Films: Tell me Films sozietatea haren sortzaile eta kudeatzaile den Laurent Alaryk zuzentzen du nagusiki. Sozietate honen aktibitate nagusia sorkuntza dokumentalen ekoizpenean datza, eta egoitza soziala Angelun kokatua du. Laurent Alaryk familia lotura du Euskal Herriarekin, Biarritzen zuelako familiako etxea. Parisen kazetaritza ikasi zuen eta ondotik, ikus-entzunezko ekoizpenaren munduan sartu zen 2005ean. 2007an beste batzuekin partzuer ezarri zen eta film instituzionalak eta publizitate filmak ekoiztea aktibitate nagusi gisa zuen Caporal Films sortu zuen. Azken sozietate hau utzi zuen, Eric Jarnorekin Tell me films sortzeko. Gaur egun Laurent Alary Euskal Herrian bizi da, bere partzuerra Normandian, sozietateak bigarren mailako egoitza duen lekuan, bizi den artean. Haren proiektuen artean, Cinéma du Réel festibalean Louis Marcorelles Frantses institutuaren saria eskuratu zuen Marie Daulten **Chronique de la terre volée** (2021 – 91') aipa genezake.

b) Ekoizleekin elkarrizketak

ALCAk lurraldean aktibo diren ekoizpen egitura batzuk identifikatu ditu: Kestu, Gastibeltza Filmak, La Fidèle, Rue de la sardine, Disnosc, Damned, Tell me films. Ekoiztetxe horiek desberdinak dira bakoitzaren egituraketari eta helburuei dagionez (euskara, mugaz haraindikoarekiko harremana, estatusa, generoa, esperientzia). Elkarrizketa informalak egin badira ere, Kestu, Gastibeltza Filmak eta La Fidèle izan dira elkarrizketa bideratuen baitan galdetuak izan direnak, biziki goiz identifikatuak izan baitziren, bereziki euskarazko filmak ekoiztu edo ko-ekoiztu dituztelako.

- Resturen ordezkari gisa Marjory Ott: 1984an sortua, jatorriz Essonekoa da

⁴⁴ gertatzen dena zaintzen eta proiektuen bilakaeraren berri ematen duen programa bat.

⁴⁵ E-mail bidezko elkarrizketa 2022ko martxoaren 24 eta 25ean

eta Biarritzen bizi da. Bruselako zinema eskolan idazketa eta muntaketa sailean ikasi zuen (IADn) eta Louvre erakustokiaren baitako ekoizpen enpresa batean lan egin, hartan, 3 urtez, dokumental ekoizpena eginez. Ondotik Euskal Herrian lan xerka aritu zen eta gaur egun lan kontratu mugagabea Kestuko langile da ekoizpen arduradun postuan.

- Gastibeltza Filmak ordezkaritza gisa Katti Pochelu: 1984an Baionan sortu eta Hazparnen bizi da. Merkaturatze teknikan Teknologia Unibertsitate Diploma eskuratu zuen Baionan eta Enpresa zientzietan Nazioarteko Unibertsitate Ikasketen diploma Iruñean. Hogeitabat urtez elkarte munduko kultura gertaldien arloan lan egin zuen, bereziki Zinegin festibaleko eta EHZ festibaleko lantaldeen baitan. Molde pertsonalean, produktu kulturalen hedapen arduradun du eta, ondotik, hizkuntza politikako misio kargudun izan da. 2018an, beste 4 partzuerekin Gastibeltza Filmak sortu zuen zeinean ekoizpenaren arduradun duen.
- La Fidèle production ordezkaritza gisa Jokin Etxeberria: 1979an Donibanen Lohizunen sortua, merkataritza Teknologia Unibertsitate Diploma eta antzerkiko lizentzia ditu. Ziburun bizi da. 2016an emankizunak eta bideoak ekoizten zituen J.O.K. films sortu zuen Bilbon (lehenago Maijok izena zuena). 2007an **Burp** emankizuna ekoiztu zuen. Eitbko Txiloe telebista emankizunean aurkezle lanetan ere aritu izan da. 2014an, Ipar Euskal Herria itzuli zelarik, La Fidèle production sortu zuen Urruñan, zinema proiektuak garatzeko asmoz. Gehienbat euskarazko edukiekin lan egiten du.

(a) Proiektuak eta diru iturriak

Lurraldeko ekoizpen sozietate desberdinak, orokorrean egituraketa eta linea editorial desberdinak dituzten egitura heterogenoak dira eta, ondorioz, proiektuak garatzeko oztopo eta aukerak eremu desberdinetan atzematen dituztenak.

Galdekatuak izan diren hiru ekoizpen sozietateak aski gazteak dira eta haien proiektuak iturri desberdinen bidez diruztatzen dituzte. Batek adibidez, haren ekoizpen gehienak auto-finantzatzeko zituen (berezi film instituzionalen ekoizpenari esker), baina ekoizpen arduradun bat egiturara heltzeak finantzamendu klasikoetara jotzeko parada ematen die (telebista kateen xerkatzea, finantzamendu publikoa, salmenta...). Kanalduderekin ko-ekoizturiko serie batean, ekoiztetxeak ALCAren eta CNCaren laguntza eskuratu zuen.

Beste ekoiztetxe bat bezala, sozietatea finantzamendu parte hartzailez baliatzen da (crowdfunding) haren proiektuak gauzatzeko. Ekoizle batek azaltzen du ere, normalki zineman esku hartzen ez duten edo guti esku hartzen duten egitura pribatuei edo publikoei esleitzen zaizkien laguntzak eskuratu izana, tokiko enpresen mezenasgoa, herriko etxe baten, elkartearen, fundazioaren, Leader Montagne basque baliabidearen (EHEarena) bezala. Filmaketa leku edo moldearen edo aipatzen diren gaien arabera iturri desberdinak beraz. Emeki-emeki ekoiztetxeak teknikoki indartzen dira eta finantzamendu klasikoagoak eskuratzen dituzte (ALCA, CNC) edo Euro-eskualde mailako proiektuekin bat egiten du ere. Azkenak ere proiektuen arabera partzuer desberdinak xerkatzen dituela azaltzen du, finantzabide klasikoek gain. Azaltzen

du ere, ekoiztetxearekin, euskarazko fikzioen ko-ekoizpenak egiten dituela batez ere. Horretan ere, finantzamendu klasikoak xerkatzeaz gain diru emaille pribatuekin ere lan egiten duela azaltzen du.

Adibide bezala, web serien sorkuntzarako Next Station Club proiektua aipa dezakegu, J.O.K filmsek eramaten duena, Media Attack eta Mon-dragon Unibertsitatea, Tabakalera, Eiken, Develop Euskal Autonomia Erkidegoko beste partzuer batzuekin, baina baita Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin ere.

(b) Ekoizpen sozietateen harremanak lurraldean

Hemen ohartaraztekoa da Kanaldude hiru sozietateentzako erreferentziako partzuerra dela laguntza mailan, izan teknikoa edo beste. Zukugailua elkarte eta haren ekintza ere behin baino gehiagotan azpimarratu da. Hiru ekoizpen sozietateak Akitania Berriko eta Euskal Herriko paisaia klasikoan finkatzen ari direla eta haien lanbide kideen eta tokiko instituzioen edo zinema eta ikus-entzunezkoetan eskuduntza dutenen aitortza dutela dirudi.

(c) Mugaz haraindikoarekiko harremana

Galdekatuak izan diren hiru sozietateek Euskal Autonomia Erkidegoko egitura profesionalekin harreman jarraikiak dituzte, bereziki ko-ekoizpenari dagokionez, batez ere euskarazko proiektuetan. Bi ekoizle euskaldunen kasuan, harremana erregularra da eta maila guzietan gertatzen da (instituzionala, ko-ekoizpena, teknikoa, artistikoa). Hizkuntzaren ezagutza argiki abantaila gisa agertzen da hiruentzako (ezagutzen ez delarik frustrazioa da oztopoa baino gehiago). Hiruek ere mugaz beste aldeko teknikariengana eta existitzen diren baliabideetara jotzen dute.

Orain arte, ko-ekoizpenak Euskal Autonomia Erkidegoko ekimeneko ekoizpenean parte hartzea ahalbidetu du eta horretan Iparraldeko ekoizpen sozietateak biziki galdeginak dira. Proiektuen hautua dute beraz. Haatik, tokiko sorkuntzak (Ipar Euskal Herriko ekimenekoak) faboratzeko tresnak eskas direla diote.

» "Guk dugun abantaila nagusia da koprodukzioak egiteko Hego Euskal Herriko produktoreekin guti garelako Iparraldean momentuan, ez delako garatua izan. Bi ekoizle gara beraz badugu proiektuak hautatzeko parada, anitzek xerkatzen baitituzte partaideak frantses estadaoan eta gure abantaila da, euskaraz ari garenez, erreki komunikatzen ahal dugula egiteko nazioartekoak deitzen dituzten proiektu horiek. Uste dut hori dugula indarra".

Ko-ekoizpenek halere (are gehiago proiektuak euskaraz direlarik) itzulpen fresa handiak sortzen dituzte, batez ere proiektuak euskaraz direlarik.

(d) Euskararen tokia proiektuetan

Euskarazko proiektuen tratamenduari dagokionez, hizkuntzaren gaiak proiektuen trataerari buruzko anibalentzia agerian uzten du, bereziki, euskarazko proiektuekiko aurreiritzien existentzian. Gai horrekiko beldurra dago, ez dena bortxaz egiaztatzen praktikan.

Batek azaltzen du, gai horrek beren euskarazko seriearen kasuan eragin ezkorra ukanen zuenaren beldur zela, alta finantzamendu publikoak eskuratu zituen (Akitania Berria, CNC), hiru telebisten laguntza (Kanaldude, Eitb, France 3 Nouvelle-Aquitaine) eta film horrekiko beste filmentzako baino ilusio gehiago piztu zela ohartu zen: "Seriarentzako Facebook orri bat sortu genuen gaia 2 astez aipatzeko asmoz. Ez dugu sekulan hainbeste segitzailerik ukan".

Beste bi ekoizleek (euskara hutseko proiektuetan ia eskusiboki lan egiten dutenak) gaiarekiko ikuspegi neurtuagoa dute. Haien ere – autoreek adierazten zuten bezala - ikusten dute irakurleek eta finantzatzaileek, haien proiektuak ez ulertzeko arriskua badela eta haien aburuz, euskarari ez zaio aski baliorik ematen.

» "Euskarak dakarren abantaila hurbiltasuna da (*ulertu Hegoaldearekiko). Mugarik ez dut ikusten... ah sorkuntzetan, bai. Guk ez dugu oraino ukan mugarik alde horretarik frantses finantzamenduetatik, baina proposatzen ditugun gaiekin eta segur-aski ere hizkuntzarekin lotua da, ikusten dugu aztertzen dituzten batzordeak gure errealitateetatik biziki urrun direla eta ez dituztela sobera ulertzen gure proiektuak. Aski mugatua da haien begirada gure proiektuei buruz".

» "Hemen badira tresnak baina hitz egiten badugu proiektu bat euskaraz egiteaz, beste zerbait da. Egiten badituzu proiektu batzuk frantsesez, sartzan zira Frantziaren konpetentzian edo... Eta hor alde batetik, ukan behar duzu proiektu on bat - baina zernahi gisaz beti ona izan behar du proiektuak. Baina egiten baduzu proiektu bat euskaraz, zerbait oso berria da, beraz zailtasun bat da. Ari dira pixka bat ulertzen zer den, baina adibidez telebistan, film batentzat, telebistak... ez dugu telebistarik. Hemen saltzaile batek saltzen badu... Hegoaldean saltzen ahal duzu Netflien proiektu bat euskaraz. Hemen ezin duzu. Ez dute kontsideratuko film bat euskaraz. Hizkuntzaren normalizazioak Hegoaldean eta Iparraldean, ez du ezer ikustekorik".

(e) Instituzioekiko harremana

Jadanik esan dugu, hiru ekoizpen sozietateak zinema eta ikus-entzunezkoen inguruan lan egiten duten egitura klasikoekin harremanetan dira. Egitura horien laguntza teknikoek, bereziki ALCArenak, balorazio positiboa dute elkarrizketetan.

» "Moi je suis super agréablement surprise. En Nouvelle Aquitaine en tous les cas, il y a vraiment un accompagnement génial. On a un référent à ALCA qui est super disponible, qui nous aide"⁴⁶

Halere, biziki urruneko bezala ikusten dituzte tokiko edo hizkuntza mailako kezkez mintzo garelarik.

Ekoiztetxe hauentzako Euro-eskualdearen proiektu deialdia ere erreferentea da, haien egiturentzako txosten astunak direla estimatzen badute ere.

⁴⁶ "Ni baikorki harrিতua naiz. Akitania Berrian hasteko, laguntza bikaina dugu. Laguntzen gaituen ALCAko erreferente bat dugu, biziki presente dena guretako"

Haatik, tokiko instituzioek ez diete, orain arte, ekoizpen mailako galdeei erantzun. Ipar Euskal Herrian, ikus-entzunezko eta zinema gaierako erreferente instituzional argi bat izatea eskas da. Laguntza batzuk aparte esleitu zaizkie baina, hedapenarekin edo hezkuntzari loturiko proiektuekin. Zinemari dagokionez tokiko kultura politiketan ildo garbi bat behar dela azpimarratua da.

Galdekaturiko bi sozietatek lurraldean film anitz filmatzen direla eta horrek lagunduak diren filmekiko eta film horiek zabaltzen duten irudiarekiko kolektibitateen ardurari buruzko kezka sortzen dutela ere azpimarratu dute. Gure gizartean irudiak duen pisua agerian emana da eta baita Euskal Herriak dekoratu lan soila betetzen duenaren ideia ere. Alta lurraldetik egiazko ikuspegi artistikoa garatu beharko litzatekeela behin eta berriz agertzen da egin diren elkarrizketetan (ekoizleeekin zein autoreekin, teknikariek, telebistekin...). Problematika horrekiko tokiko instituzioen posizionamendu eza ere ohartarazia da.

» “Gauzak hasiak dira mugitzen baina ez dugu oraindik emaitzarik ikusi, instituzioak behar dira mobilizatu alor horren garatzeko eta emaitzeko posibilitatea hemen filmak egiteko, eman ez zinez indar berezi bat euskal sorkuntzari, kanpoko filmaketak errezebitzeari baino gehiago”.

» “Gu hasi garelarik hori genuen ikusten batez ere. Hemen ez zela deus produzitzen. Bazen ekoiztetxe bat koprodukzioak egiten zituenak baina ez zen Iparraldeko sorkuntzarik sustengatua. Eta gero hortaz gain, kanpoko ekoizpenak direla errezebitzen eta egiten dituztela haien saltsak Euskal Herriari buruz”.

Ekoizleen iduriko bada Akitania Berria eta Frantzia, egitura asko haien proiektuen finantzatzen laguntzeko. Koprodukzioa abantaila dute. Baina, konturatzen dira euskara ez dela bereziki lagundua arloa, Frantziako erakundeetan. Ez da, ez eta ere, euskaraz den Eitb-ren heineko telebista katerik eta finantzamendu plana muntatzea zailtzen du horrek. Kanalduderen laguntza balio handiko bezala kalifikatzen dute eskas hori doi bat estaltzen badu ere, ez du ahal handirik zinema garatzeko.

c| **Beste ekoiztetxeekin eginiko elkarrizketa informalei buruzko hitz batzuk**

Lehenago azaldu bezala, ALCaK identifikaturiko lurraldeko beste sozietate batzuekin elkarrizketa informalagoak egin dira, bereziki Tell me Filmseko Laurent Alaryekin, Damnedeko Yohann Cornurekin eta Disnosceko Fabrice eta Nathan Otañorekin. Profesional horien ibilbide desberdinak eta lantzen dituzten genero desberdinak kontuan harturik, berriz ere zaila da ekoizpen mailan dauden beharren argazki homogenea egitea. Ideia bat baino gehiago aipa daiteke halere. Sozietate batzuek zinema eta ikus-entzunezkoei dagozkien finantzamendu klasikoekin sistemak barneratu dituztela egiazta genezake (telebisten finantzamendua, eskualdearena, CNCrena etab.) (ik. V – FINANTZAMENDU PUBLIKOEN EGINKIZUNA FRANTZIAN TOKIKO ETA EUSKARAZKO EKOIZPENETAN). Lantzen duten generoaren, esperientziaren eta finantzamendu horiek barneratzeko gaitasunaren arabera, mugaz haraindikoa ere harremana apalagoa da. Ekoizpen sozietate horietako

batzuek taldeen harrerari buruzko kezka dute. Disnoscen kasua da adibidez, animaziozko film proiektuen ekoizpeneko etapa batzuetan, aldi berean teknikari andana bati harrera egin behar baitio. Beste batzuen kasua ere izan daiteke, filmaketa delarik edo ekoizpen-ondokoetan. Azkenik, berriz ere profesionalen sarearen gaia mahaineratua da. Elkar topatzeko eta elkar eza-gutzeko beharra ere behin eta berriz adierazia da.

3. | **Teknikariak**

Lanbide eta gaitasun anitzak dira teknikarietan, beraz talde homogeen gisa mintzatzea ez da egokia. Film Francen datu baseak Pirinio-Atlantikoetan, lanbide desberdineko laurogei teknikari baino gehiago zerrendatu ditu ("bizitegi nagusia" edo "bigarren bizitegia" departamenduan dutenak): kameralari, errejidore, jantziteria-arduradun, beztitzaile, ekoizpen zuzendari, elektrikari, dekoratzaile-buru, operadore-buru, zinemako ile-apaintzaile laguntzaile, errealizazio laguntzaile, muntatzaile... Gisa horretan, zehaztea zaila den eremu heterogeenoa da, lana proiektuaren arabera aldatzen baita. Lurrean zenbat teknikarik lan egiten duen (bertan bizi baina kanpoko ekoizpenentzat lan egin dezakete). Sailak zenbat enplegu ordezkatzen duen zinez esatea ezinezkoa da.

Halere, Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezko eta zinemako profesionalen osatua den Zukugailua elkartearen baitan presente diren teknikariak galdekatu ditugu. Izan ere, elkartearen dute presentzia aztertzea interesgarria dirudi. Baltsan ezartze teknikorako eta saretzeko proiektu baten ekarle dira, baina Euskal Herrian zinemak eta sorkuntzak dute lekuaren esperientziatzeko ikuskerak eta ikuspegia ere ekartzen dituzte.

a) **Zukugailuako⁴⁷ kide diren teknikariak:**

Laurent Dufreche: 1968an Donibane Lohizunen sortua, mutatzaile-buru eta ekoizpen-ondoko gainbegirale. René Cassineko ikus-entzunezkoen GMTBaren jabe, Madrilgo film laborategi batean lan egin zuen (Madrid Films) zein muntatzaile lanetan aritu zen besteak beste. Ondotik, independente gisa Tv eta TV2-rentzako lanean aritu zen Espainian. ECAMen irakasle lanetan ibili zen ere (Madrilen). Haren lan ibilbide gehiena han eginik, 2013an Euskal Herrira itzuli zen muntatzaile-buru lanetan aritzeko, bereziki euskal (eta euskarazko) ekoizpenetan, hauen artean Aitor Arregiren eta Jon Garaño *Handia* (2017), zeinarentzako muntaketako Goya saria eskuratu zuen, Koldo Almandozen *Oreina* (2018), Telmo Esnaletan *Dantza* (2018), Igor Legarretaren *Ilargi guztiak* (2020) filmetan. Dokumentalak ere errealizatu ditu baina, funtsean, muntatzaile-burua da. Ekoizpen-ondoko zuzendaritzan aritzeko gero eta gehiagotan deitzen dute.

Myriam Ayaçguer: 1972an Maulen sortua, Hendaian bizi da eta *Paroles de bandits* (2019), *Dans ma tête du rond-point* (2015), *Commune présence* (2008) edo, berrikiago, Itziar Leemansen dokumentaleko *Olatuak* bezalako

⁴⁷ Ikus beheago elkartearen aurkezpena

sorkuntza dokumentalerako muntatzaile-burua da. Sorkuntza dokumental batzuk ere errealizatu ditu eta baita *Ni nüzü* (2013) edo *La dramatique impossible* (2018) audio dokumentalak ere, azken honentzako SCAMeko⁴⁸ "soinu aurkikuntza" saria eskuratuz. ARTegia, filmen eta soinu dokumentalen ekoizpenerako eta horretan aritu nahi dutenak laguntzeko elkarte sortu zuen. Bordeleko 3IS zinema eskolan kurtsoak ematen ditu ere.

Loïc Villot: soinu ingeniaria, 1983an sortu zen Savoia Garaian. Hastapen batean matematika eta fisika ikasten hasi zen, Bruselako INSAS zinema eskolan sartzen finitzeko, eta haren lan ibilbidea Belgikako ekoizpen tailer batean hasi zuen. Independente gisa ere proiektu kultural anitzetan lan egin du (zuzeneko ikusgarria, opera, musika albumak grabatu ditu) baina haren ofizioa dokumentala da. Nagusiki soinu hartzean eta ekoizpen-ondokoan aritzen da. Euskal Herrira 2016an iritsi zen. 3IS eskolan kurtsoak ematen ditu ere.

b) Elkarrizketen emaitzak

(a) Elkarrizketaturiko teknikarien ibilbideak

Elkarrizketaturiko teknikariak eskola desberdinetan formatu dira (Biarritzeko ikus-entzunezkoen GMTB, Madril, Belgika, Paris, Valenciennes). Lanbide eta genero desberdinetan lan egiten dute. Esklusiboki zinemarako edo dokumentu ekoizpenerako lan egiten badute, Ipar Euskal Herriko proiektuetan denbora guti pasatzen dute (Lauren Dufreche Euskal Autonomia Erkidegoko proiektuetan anitz aritzen da, Myryam Ayçaguer Akitaniako proiektuetan, Loïc Viliotek Belgikak sortu duen sareari esker lan egiten segitzen du). Profesionalak, normalki, genero batean berezituak direla zehaztu behar da (fikzioa, sorkuntza dokumentala etab.) eta genero horietan finkaturiko sare eta zirkuituen bidez lan egiten dute.

Galdekaturiko batek eskualde laguntzen eta eskualdean xahutzeko laguntzen agertzearekin aldaketa bat sumatu du. Lehen, lan guzira Parisen zen eta egun eskualdean direlako haiengana jotzea gertatzen da.

Galdekatuek zinema formakuntza kurtsoak edo irudiarekiko heziketa tailerrak ematen dituzte.

(b) Lurraldean sumatzen diren behar eta perspektibak

Materiala eta trebetasun teknikoak:

Lanbidearen eta lantzen dituzten film motaren arabera, lurraldeko behar teknikoaren pertzepzioa desberdina da. Haatik, Ipar Euskal Herrian tresna teknikoaren eskasia handia dela esan daiteke, eskasia hori Hego Euskal Herriatik hein batean arintzen bada ere.

Ekoizpen gehientzako Hego Euskal Herria teknikoki ongi hornitua dela dirudi. Kuantitatiboki erantzun behar delarik lurraldea mugatua dela eta ekoizpenak hiriburuei buruz itzuli behar direla dirudi (Madril edo Paris).

⁴⁸ Ikus-entzunezkoetako autoreen gizarte zibila

Galdekatua izan den pertsona batek mugaz beste aldeko egoera aipatzen du berriz:

» “Quand le cinéma est passé au digital, ça a permis une expansion technique. On peut le faire d’un petit peu partout. Après il y a des savoir-faire qui sont là ou qui sont pas là. Par exemple sur ma partie : le montage. On sait faire, plus ou moins. On fait. Le son : on a pas mal de personnes maintenant qui font. Un moment donné on a pu manquer de studio. Par exemple, on faisait le son ici et on partait faire le mixe à Barcelone ou Madrid. Même partie pour l’étalonnage. Ici, on a des studios. Il n’y a pas de studio d’étalonnage. Souvent on peut être amené à partir. Le pire, je pense, c’est les effets spéciaux. Dans tous ces domaines : le son, même les effets spéciaux, ce qui demande un peu de machines et de personnels, il y a un peu moins. Il y a des gens avec des savoir-faire, mais ils sont un peu isolés”.⁴⁹

Beste batek Ipar Euskal Herriko egoera aipatzen du:

» “Il manque des choses. En fait, il manque tout sur le territoire. Il n’y a rien. Quand je suis arrivé au Pays Basque, j’avais encore des casseroles de films derrière moi que je devais finir. Là, j’ai cherché. Moi, j’étais dans un studio. Je louais le studio dans lequel je travaillais. J’avais du matériel qu’on avait acheté à plusieurs et je suis arrivé là, j’ai cherché un studio et j’ai pas trouvé. Le seul studio qu’il y avait de disponible, c’était du côté espagnol, à Saint Sébastien, mais du côté français de la frontière, il y a rien qui existait. Il y avait des petits studios de musique, il y en a pas mal, mais des studios de post-production audiovisuelle, ça n’existe pas. On m’a proposé Bordeaux. »(...) « Donc, je te dis, pour répondre à ta question, il y a tout à faire. Je pense qu’il y a vraiment pas grand chose. En tout cas du côté nord. Je te dis dans le dans le sud, de l’autre côté de la frontière, il y a des outils qui existent, il y a des studios, etcetera. Je ne les connais pas. J’ai un espagnol très approximatif et je ne parle pas basque”⁵⁰.

Halere, tokiko teknikarien sare bat plantan ezartzeak (behar bada Zukugailuaren bidez) materialean zentzuz hornitzeko parada emanen lukeela uste dute. Ekoizpen-ondoko estudioetan gastu handiak egiteari buruzko arriskuaz ohartarazten dute adibidez. Aitzinkontu apaleko zinema egiten dutenentzako, horrelako estudioak garestiegi

⁴⁹ “Zinema digitalera pasa delarik, hedatze teknikoak gertatu da. Denetan pixka bat denetarik egin daiteke. Ondotik lekuan diren edo ez diren trebetasunak daude. Ene eremuan, muntaketan, adibidez. Egiten dakigu, guti gorabehera. Egiten dugu. Soinua: orain, soinuan ari den jende franko bada. Garai batean estudioak eskas ziren. Adibidez, soinua hemen egiten zen eta nahasketak Bartzelonan edo Madrilen. Gauza bera koloreztatzearentzat. Ez da koloreztatze estudioirik. Usu hemendik joan behar izaten dugu. Txarrena, ene ustez, efektu bereziak dira. Arlo guzietan: soinuan, efektu berezietan ere, makineria eta langileak izatea behar dituztenak, gutiago bada. Trebetasuna duten langileak badira baina pixka bat isolatuak dira”.

⁵⁰ “Gauzak eskas dira. Izan ere, lurraldean denetarik eskas da. Ez da deus ere. Euskal Herrira iritsi nintzelarik bukatu behar nituen filmen lana nirekin ekarri nituen. Xerkatu nuen, lehenago estudio batean nintzen, lanerako baliatzen nuen estudioa alokatzen nuen. Anitzen artean erosi genuen materiala nuen eta orduan iritsi nintzen, estudio bat xerkatu nuen baina ez nuen atzeman. Libre zen estudio bakarra hegoaldean zen, Donostian, baina mugaren alde honetan ez zegoen deus. Musika estudio ttipiak zeuden, franko dira, baina ikus-entzunezkoetako ekoizpen-ondoko estudioirik ez da. Bordelera joatea proposatu didate” (...) “Beraz, zure galderari erantzuteko, dena dugu egiteko. Gauza

dira. Ekoizpen handientzat soilik eskuragarri izan ohi dira. Gune partekatuen eredia pentsatu behar dela uste dute, behar bada jadanik lurraldean diren azpiegiturretan bermatuz, baina gehiago baltsan ematearen ideia inguruan.

Hasteko galdekaturiko batek argiki ekartzen eta garatzen duen ideia da:

» “Donc je pense qu’il faut aller dans des dynamiques qui sont des dynamiques alternatives sur les territoires pour pouvoir recréer ça. Pour moi, ça nécessite de l’inventivité, de la mise en relation, de la mutualisation d’outils, etc. Et c’est pour ça, que le projet de Zukugailua est né, dans le désir de croiser les acteurs.» (...)

« Donc, par exemple, dans mon cas, moi j’ai un petit studio ici - j’imagine que c’est une de tes questions après. Mon petit studio est dans le Béarn pour l’instant, parce que j’ai une petite maison familiale là-bas et que c’était facile d’y poser mes affaires. Et que je fais pas que de la post-production, donc pour le coup, investir dans un gros studio dans le schéma politique dans lequel on est là, qui est un schéma encore très centralisé et ce qu’on est en train de développer, c’est tout neuf, c’est dangereux parce que ça coûte énormément d’argent et c’est pas du tout dans mon intention. J’ai pas du tout envie de créer un gros studio à gérer et de devoir faire quelque chose qui ne m’intéresse pas, juste pour pouvoir rentabiliser les locaux”. (...)

“En Belgique, il y a énormément de choses qui se passent en petites structures, donc on fait des allers-retours, on travaille dans des petits studios qui ont des petits volumes, donc du matériel moins coûteux, souvent avec des aides publiques (mais ça, c’est propre à développement de la politique culturelle belge). Et puis, on fait des allers-retours dans les salles de cinémas ou dans les salles de visionnage pour affiner le travail correctement. Donc, c’est un moyen d’aller dans le bon cycle de production, pour avoir le temps de travail et d’avoir quand même quelque chose avec la certitude d’un travail qualitatif, qui sera évidemment pas aussi bon que d’être dans ce grand studio tout le temps, mais qui permet d’avoir un bon résultat avec une bonne vue de ce qui va passer au cinéma”. (...)

“Pour le coup, c’est un vrai avantage parce qu’il y a déjà des infrastructures qui sont ici, les cinémas sont de bonne qualité et s’ils ne sont pas de bonne qualité, c’est l’occasion aussi de les améliorer, d’avoir une double activité et de s’installer là”. (...)

“Au-delà de ça, il y a aussi une possibilité de faire de l’éducation populaire, donc de faire des ateliers, de présentation, d’éveil, avec des jeunes ou moins jeunes, de montage son, mixage, d’éta-lonnage, il y a beaucoup beaucoup de choses, de synergies qui sont possibles à fabriquer avec les outils qui sont déjà existants. Et d’autant plus dans nos zones à nous qui sont des zones où il y a des outils culturels qui sont pas utilisés, qui ont pas une vocation de rendement sur du 24h sur 24, donc c’est intéressant à développer à mon sens.”⁵¹

guti dela pentsatzen dut. Iparraldean bederen. Esaten dizut, hegoaldean, mugaren beste aldean, badira tresnak, estudioak eta abar. Ez ditut ezagutzen. Ene gaztelera biziki mugatua da eta ez dakit euskaraz”.

⁵¹ “Hori sortu ahal izateko, lurraldeetan dinamika alternatiboetarako buruz joan behar dela uste dut. Ene ustez, harremanetan ezartzearen, tresnen baltsan ematearen eta abarren asmatzea. Eta horregatik Zukugailuaren proiektua arloko eragileak gurutzatzeko sortu da)” (...)

“Beraz, ene kasuan adibidez, estudio ttipi bat dut hemen – zure ondoko galderetako bat dela

» (c) Lurraldearekiko ikuspegia

Teknikarientzat eskualdean gauzak egitea posible dela dirudi, eskualdeko laguntzen agertzeari esker baina baita lurralde dinamikari esker.

» “Filmen arloan, zinema edo ikus-entzuneke arloan edo telebistaren arloan, uste dut orain, esplikatzen nizun bezala, bai. Momentu batez Parisen behar zinen bizitu lan egiteko, sortzeko eta nahi duzuna. Orain ez. Batere. Zerbait aldatu da; avec les aides régionales qui sont devenues importantes (garrantzitsuak bilakatu diren eskualde laguntzekin)”.

» “Je vois beaucoup de dynamisme, clairement, parce qu’il y a des gens qui travaillent depuis l’Iparralde. J’ai l’impression que ça commence. C’est un travail qu’y a depuis plusieurs années, mais ça commence à porter ses films. Ça a commencé avec la distribution plutôt. Il y avait une nécessité pour les films en Hegoalde de toucher un certain public, ça pouvait intéresser. Maintenant il y a des structures de production qui sont en place et qui commencent à faire des choses”⁵²

» “Je pense que c’est un des territoires qui peut être une pièce maîtresse dans le fait de re-développer un vrai potentiel productif au sein de son territoire, parce que c’est un territoire qui est encore très ancré dans sa culture, qui a une culture très, très vivante, une culture forte et donc pour le coup, un réseau de solidarité qui est très grand, lié à cette culture. Et pour moi, ça c’est le gage d’une d’un bon développement, d’une économie qui serait une économie alternative de production”.⁵³

(d) Euskara proiektuetan

pentsatzen dut. Ene estudio ttipia Biarnon da oraingoz, han familia etxe ttipi bat baitut eta errazagoa baitzen ene aferak han uztea. Ekoizpen-ondokoa egiten dut eta, beraz, biziki zentralizatua den eta oraindik garatzen ari den egungo eskema politikoan estudio handi batean inbertitzea arriskutsua da, kostu biziki handia duelako eta ez da batere ene asmoa. Ez dut batere kudeatu beharko dudana estudio handi bat sortzeko gogorik, ondotik lokala errentagarri izan dadin interesatzen ez nauen zerbait egin behar izatea”. (...)

“Belgikan gauza anitz gertatzen da egitura ttipietan eta, ondorioz, joan-jinak egiten dira, tamaina ttipia duten estudio ttipiekin lan egiten da, material merkearekin beraz, usu laguntza publikoekin (baina hori belgiar politika kulturalaren berariazkoa da”. Eta zinemetara edo ikuskatze geletara joan-jinak egiten dira, lana ongi fintzeko. Ekoizpenaren zikloaren zentzu onean joateko moldea da, lanerako denbora ukateko eta, halere, lan kualitatiboaren segurtamena ukateko, ez dena estudio handi batean uneoro egotea bezain ona izanen baina emaitza on bat ukatea ahalbidetuko duena, zinemaren proiektatuko denaren ikuspegi ona ukatearekin)”. (...)

“Beraz, egiazko abantaila da, jadanik hori diren azpiegiturak baitaude hemen. Zinemak kalitate onekoak dira, eta ez badira kalitate onekoak hobetzeko aukera ere bada, aktibitate bikoitza ukateko eta bertan instalatzeko aukera”.(...)

“Horretaz haratago, hezkuntza herrikoia egiteko parada ere bada, aurkezpen, iratzartze tailerrak, gazteekin eta ez hain gazteekin, soinu muntaketa, nahasketa, koloreztatze tailerrak, anitz bada egiteko, jadanik badiren tresnekin fabrikatzea posible diren sinergiak. Hare gehiago gure eremuetan, baliatuak ez diren tresna kulturalak dituzten eremuak direnak, zeinetan ez den 24 orneko errentagarritasunerako bokaziorik. Beraz, ene ustez interesgarria da garatzea”.

⁵² “Dinamismo anitz ikusten dut, argiki, Iparraldetik lan egiten duen jendea baita. Hasten denaren irudipena dut. Duela urte batzuk abiatuak dira eta baina filmak agertzen hasten dira. Banaketarekin hasi zen. Hegoaldeko filmentzako publiko jakin bat hunkitzeko beharra bazen, interesgarri izan zitekeen. Orain, ekoizpenerako egiturak plantan dira eta gauzak egiten hasten dira”.

⁵³ “Pentsatzen dut haren lurraldearen potentzial ekoizlea berriz garatzeko lanean pieza nagusi bat izan daitekeela, kultura horretan oraindik biziki errotua den lurraldea baita, oso bizirik den kultura baitu, kultura indartsua eta, beraz, kultura horri loturiko elkartasunezko sare zabala. Eta niretzat, hori da garapen on baten bermea, ekoizpen alternatiba bat litzatekeen ekonomia baten bermea”.

Galdekaturiko teknikarientzat hizkuntza ez da oztopo gisa agertzen eta lurraldeko proiektuetan kalitatean igotzen hasteko beharra ikusten dute.

» “Ez dut inoiz sentitu bazela muga bat hizkuntzari buruz - gero ulertzen dut euskaraz idazten dutenek edo batzuek bai, erranen dizute muga hori sentitzen dutela - baina niretzat da gehiago ez dela aski profesionala edo aski ongi idatzia. (...)

Eta gero filmendako, nik ez dut sekulan sentitu. Gehiago zen gaizki idatzia dela. Hori bai.

Gaiari buruz izaten ahal da baita ere: estatu mailan interesik sortzen ez duena”.

Jadanik existitzen diren baliabideak eskuratzeko helburuz, behar den kalitatera iristeko sektorearen eta idazketaren profesionalizazioa lagundu behar denaren ideia ere agertu da (laguntzak idazketan, esperimentatze guneetan, sorkuntzaren prozesu osoan...).

Teknikarien baitan ere, tokiko sorkuntzarentzako irekidura kulturalaren beharraren ideia agertu da.

» “Nik uste dut idaztea lagundu behar dela gehiago, “le cinéma émergent”, que ce soit parce que c’est des jeunes, que ce soit en euskara (agertzen ari den zinema, izan gazteak direlako edo izan euskaraz delako, lagundu behar dela gehiago). Profesional batera ekartzeko.

(...) Ez da egin behar ber dispositiboak hemen doblatu baina gehiago lagundu beste horietan sartzeko. Edo laguntza edo formakuntza bat beharrezkoa baldin bada, formakuntza horren ordaintzea. Uste dut aberasgarri dela besteetara joatea, beste eskualdeko jendeekin hitz egitea eta dena”.

» “Une culture, ça se développe quand elle rentre en interaction avec d’autres cultures. En fait, si tu restes en circuit fermé, la culture se perd elle aussi, elle se meurt. En fait, elle se meurt avec les gens, avec la transformation, et elle se meurt d’elle-même aussi. Donc il faut qu’elle se confronte à d’autres cultures. Par contre, il faut la considérer pleinement comme une culture vivante et motrice. Je pense qu’il faut pousser à l’inventif et s’écarter un petit peu du schémas classique. Et je pense que c’est le seul moyen de faire”⁵⁴.

c) Ipar Euskal Herriko beste teknikari batzuk

Ipar Euskal Herrian bizi den eta ekoizpen frantsesetan lan egiten duen edo tokiko eta euskarazkoetan lan egin duen teknikari anitz bada, erran dugu. Lehenago esan bezala, batzuk filmaren agentziaren datu-basean agertzen dira.

Tokiko teknikarien formakuntzan (soinu, irudi, kudeaketa) Biarritzeko Goi

⁵⁴ “Kultura bat beste kultura batzuekin interakzioan sartzen delarik garatzen da. Zirkuitu hetsian gelditzen bazara kultura ere galtzen da, hiltzen da. Jendearekin hiltzen da, eraldaketarekin, eta berez ere hiltzen da. Beraz, beste kultura batzuekin parekatu behar da. Haatik, bizi den eta motorea den kultura oso gisa hartu behar da. Asmamenaren bidetik akuilatu behar da eta eskema klasikoetatik pixak bat urrundu. Egiteko bide bakarra dela uste dute”.

Mailako Teknikari Brebetak eragin handia duela ohartzen gara. GMTBak ikasleak telebistara formatzeko bokazioa du eta horrek hiri handietara, gehien bat Parisera, lanera joanarazten ditu, nahiz eta formakuntzatik atera diren batzuk zineman berezitzen diren. Anne Sophie Bion adibidez Getariako muntatzaile frantsesa da Michel Hazanaviciusen **The Artist** filman egin duen lanagatik ezaguna (zeinari esker muntaketa onenaren Cesarrerako, muntaketa onenaren British Academy Film Awardeko eta muntaketa onenaren Oscarrerako izendatua izan zen) eta GMTBtik pasa da. Baionako Laurence Larre, GMTBaren ondotik Fémiseko muntaketa sailetik pasa zen. Eugène Greenen **Atarrabi eta Mikelats** filma muntatu zuen (2021).

Adibide anitz bada eta Agence du film 64ek burutzen duen zerrendatze lan horrekin jarraitu behar da.

4. **Euskal filmen banaketa Frantzian (2015-2021)**

Gaur arte, euskal filmen hedapena eta banaketa mugaz beste aldetik datozen ekoizpenari buruz itzulia izan da. Zinemaren industria Euskal Autonomia Erkidegoan agertu eta berehala, hemengo aldean film horiek Iparraldean nola erakutsi zitezkeenaren galdera pausatu zen, bereziki tokiko profesionalen eta partikulari zinemagelen partetik. Bi ikerketa egin ziren orduan (profesionalak hausnarketa horretan laguntzen dituen Euskal Kultur Erakundeak bultzaturik bereziki): lehena Ramuntxo Garbisuk burutu zuen 2014an eta ondoko titulua du: **“Euskal zinemaren existentzia(k) Euskal Herrian eta haratago (II): Banaketarako egitura baten modelizazio ekonomikoa Ipar Euskal Herrian”**. Lurraldeko eragile desberdinek film horiek erakusteko duten nahia aipatzen zuen eta aitzinkontuko estrategia baten plantan ezartzea proposatzen zuen filmak banatu ahal izateko (tokiko banaketa soilaren bideragarritasun eskasaz jadanik jabetua baitzen). Caline Oscabyrena den 2014ko beste txostenak, **“Euskal zinemaren banaketa Frantzian: behar eta perspektibak”** izenekoa eta EKEk bultzatua, euskal zinemak frantses lurraldean topatzen zituen oztopo eta aukerak aipatzen zituen eta Atalantek Aitor Merinoren **Asier eta Biok** dokumentalarekin abian emaniko banaketa proiektu pilotua aztertzen zuen. Esperimentazio horrek, Cinéma et Cultures elkarteak eraman zuen eta EKEk sustengatu zuen Gabarra Films proiektuari bide eman zion. 2014az geroztik Gabarra Filmsek hamaika film banatu ditu Ipar Euskal Herrian eta Frantzian, besteak beste Pablo Maloren **Lasa eta Zabala** (2015), Asier Altunaren **Amama** (2016), Koldo Almandozen **Oreina** (2018), Aitor Arregiren eta Jon Garañoren **Handia** (2018), Telmo Esnalaren **Dantzak** (2019), Fermin Muguruzaren **Black is Beltza** (2019) baina baita Elsa Oliarj-Inesen **Dans leur jeunesse il y a du passé**, Gorka Bilbaoren **Jai Alai Blues, Kale Begiak** (euskal laburmetriak) edota Juanba Berasategiren **Nur eta herensugearen tenplua** animaziozko filma ere. 2020tik aitzina Cinéma et Culturek eramaniko banaketa aktibitatea gelditzen dela dirudi, Atalante zinemaren baitan euskal zinemaren hedapen aktibitate handiagoari lekua uzteko.

2018an, Gastibeltza Filmak ekoizpen eta banaketa sozietatea sortu zen mu-

garen iparraldean euskal zinema garatzeko helburuarekin, jadanik aipatu dugun bezala. Gastibeltzak harreman pribilegiatua du Hegoaldeko ekoizpen sozietateekin, bereziki haren ekoizle estatusarengatik, eta horrek banatzailer gisa Ipar Euskal Herriko zinemagelei film desberdinak eskaintzeko parada ematen dio. 3 urtez genero desberdineko 11 film luze proposatu ditu (2020 eta 2021 urteen artean zinemagelak 10 hilabetez hetsiak izan direla kontuan hartuz): **Gure oroitzapenak** film kolektiboa 2018an, Josu Martinezen **Jainkoak ez dit barkatzen** 2018an, Oier Aranzabalen **Margolaria** 2019an, Fernando Barnuesen **Soinujolearen semea** 2019an, Ben Sharrocken **Pikadero** 2019an, Imanol Zinkunegi eta Joseba Ponceren **Lur et Amets** 2020an, Lander Garroren **Bi urte, lau hilabete eta egun bat** 2020an, Josu Martinez eta Txaber Larreategiren **Caminho Longe** 2021ean, Lara Izagirreren **Nora** 2021ean, Miguela Angem Llamas eta Amaia Merinoren **Non dago Mikel?** 2021ean eta Imanol Rayoren **Hil kanpaiak** 2021ean.

Atalantek eramaten zuen aktibitatea tokiko instituzio desberdinez sustengatua zen. Gastibeltzak aldiz ez du inolako laguntza publikorik jasotzen lan horrengatik. Haren enpresa estatutuak (eta ez elkarte Cinéma et Cultures bezala) eta banaketaren izaera komertzialak azaltzen du instituzioek proiektu horretan laguntzeko duten ezintasuna. Alta, Ramuntxo Garbisuk edo Celine Oscabyk aurkezten zuten bezala, soilik tokikoa den banaketa ez da ekonomikoki bideragarri proiektuaren eramaile diren egiturentzako.

Lurraldean eramaniko urtetako esperimentazioaren ondotik, non zinema-geletan film gero eta gehiago eta eskuragarriago izan diren, aktibitatearen finantza orekaren gaia beti bezain presente da eta horrek prekario bilakatzen du.

Esperientzia eta egituraketa jakina duten banaketa sozietate frantses batzuek halere beste film batzuk banatu dituzte: Dulac distributionek 2021ean, Frantzia osoan arrakasta handia eskuratu duen Pablo Agueroren **Akelarre** filmaren kasua da adibidez (ko-ekoizpen espainiar, argentinar eta frantseza, frantses aldeari dagokionez La Fidèle Production Ipar Euskal Herriatik eta Tita Production Britainiatik). Eugène Greenen **Atarrabi eta Mikelatsekin** ere hala izan da, euskarazko filma izanik ere osoki frantses ekoizpena da eta 2021ean UFO Distributionek banatu zuen. Gaur egun film horiek EbB gisa eskuragarri dira.

Ko-ekoizpenak, eta are gehiago ekoizlea Ipar Euskal Herrian delarik, tokiko (eta Frantziako) banaketarako estrategia bat aitzinetik bermatzea ahalbidetu dezakeela ere, erran beharra da.

a| Frantzian banaturiko film batzuen ibilbidea

2015az geroztik Frantzian banatu diren euskal film gehienak Gabarra filmsek eta Gastibeltza Filmak banatu dituzte. Gabarra filmsek horietako batzuk Frantziako hiri batzuetara eraman ditu: **Amama** 26 zinemagelatan proiektatu zen (20 Akitania Berrian), **Handia** berriz berrogeita hamar ingurutan. Gastibeltza Filmak ia eskusiboki Ipar Euskal Herriko zinemagelekin lan egin du. Onodok zenbakiak zuhurtasun handiz hartzeak dira, izan ere ikusle kopuruak ez baitu filmaren eskaintza kontuan hartzen (proiektzio batzuetarako soilik programatua izan den, aste batzuez ikusgai egon den etab.).

FILMA	FILMEGILE	EKOIZPEN SOZ.	URTEA	BANAKETA. SOZ.	IKUSLE GELETAN FR ¹	IKUSLE GELETAN ES ²
AMAMA (fikzioa)	Asier Altuna	Txintxua Films	2015	Gabarra	10.768	56.054
KALEBEGIAK (dokumentala)	Kolektiboa	Moriarti produkzioak	2016	Gabarra	Komunikatu Gabea	2.437
HANDIA (fikzioa)	Aitor Arregi, Jon Garaño	Moriarti produkzioak	2017	Gabarra	8.288	168.930
JAI ALAI BLUES (dokumentala)	Gorka Bilbao	Berde produkzioak	2016	Gabarra	1.012	2.343
NUR ETA HERENSUGEAREN TENPLUA (animazioa)	Juanba Bera-sategi	Lotura	2017	Gabarra	KG	12.263
SOINUJOLEAREN SEMEA (fikzioa)	Fernando Bernués	Abra Ekoizpenak	2018	Gastibeltza	1.049	16.437
OREINA (fikzioa)	Koldo Almandoz	Txintxua Films	2018	Gabarra	1.105	16.437
GURE OROITZAPENAK (fikzioa, laburrak)	Kolektiboa	Adabaki, Gastibeltza	2018	Gastibeltza	951	92
Black is beltza (animazioa)	Fermin Migu-ruza	Setmàgic Audiovi-sual, Talka Records & Films	2018	Gabarra	1.410	20.482
Dantza (fikzioa)	Telmo Esnal	Txintxua Films	2018	Gabarra	5.759	50.224
JAINKOAK EZ DIT BARKATZEN (dokumentala)	Josu Martinez	Tentazioa	2019	Gastibeltza	737	x
LUR ETA AMETS (animazioa)	Imanol Zinku-negi, Joseba Ponce	Lotura Films	2020	Gastibeltza	2.701	9.571
BI URTE, LAU HILABETE ETA EGUN BAT (dokumentala)	Lander Garro	Izar Films	2020	Gastibeltza	537	4.316
CAMINHO LONGE (dokumentala)	Josu Martineez	Adabaki, Gastibeltza	2020	Gastibeltza	658	1.171
ARELARRE (fikzioa)	Pablo Aguero	Lamia, Kowalski, Tita, La Fidèle...	2021	Sophie Dulac	54.229 ³	52.803
ATARRABI ETA MIRELATS (fikzioa)	Eugène Green	Noodles, Les films du fleuve, Kafard	2021	UFO	4.007 ⁴	Ez da atera
NORA (FICTION)	Lara Izagirre	Garriza, La Fidèle	2020	Gastibeltza	834	14.786
NON DAGO MIKEL? (DOCUMENTAIRE)	Miguél Angel Llamas, Amaia Merino	Izar Films	2020	Gastibeltza	763	KG

¹ Iturria banatzaileak

² Iturria <https://lumiere.obs.coe.int/>

³ Iturria <https://lumiere.obs.coe.int/>

⁴ Iturria <https://lumiere.obs.coe.int/>

b| Euskal filmen banaketaren mugak lurraldean eta Frantzian

Alorreko ikerketak (Gastibeltza Filmak banaketa esperientziaren ondorio) baina baita Atalanteko Simon Blondeaurekin ukandako elkarrizketa batzuek euskal zinemaren banaketa aktibitatearen mugez ohartzea ahalbidetzen digute. Ikusi dugu, banaketa aktibitatea guziz komertziala da. Atera behar den lehen ondorioa da Ipar Euskal Herrian euskal filmak soilik banatzea ez dela aktibitate jasangarria. Usu, eta bereziki fikzioaren kasuan, filmak EAEn ekoiztuak direlarik, nazioartean ustiatzeko eskubideak (Frantziako lurralderako barne) nazioarteko saltzaile batek erosten ditu. Filma banatu ahal izateko, banatzaileak eskubide horiek erosi behar ditu. Gastibeltza Filmak edo Gabarra bezalako egiturentzako, eskubide horiek garestiegiak dira. Horregatik, EAEn ekoizturiko euskarazko fikzioek Ipar Euskal Herrira iristeko zailtasunak dituzte oraindik ere.

Banaketaren aktibitatea ez da instituzioen partetik sustengatua CNCaren eskutik izan ezik. Haatik, laguntza horiek eskuratu ahal izateko inbertsio han-

diak edo estatu mailako banaketa aktibitate jarraikiak justifikatu behar dira. EKEk Gabarra lagundu zuen aktibitate horretan baina laguntza hori ez zen betikotu.

Publikoak Ipar Euskal Herrian ateratzen diren filmak preziatu ohi ditu baina ibilbide biziki mugatua dute. Epe batez zinemageletan ateratzen dira baina gutitan iristen dira beste hedapen baliabideetara, eta horrek hauen bizi iraupena mugatzen du. "Zineskola" edo "Collège au cinéma" bezalako baliabideek filmaren bizia iraunaraztea ahalbidetzen dute halere, nahiz eta banatzailearentzat diru sartze apala izan.

Ustiaketa eskubideak gero eta goizago saltzen dira (hedatzaile bati, banatzaile bati, nazioarteko saltzaile bati), usu gidoiaren arabera. Salmenta horiek filmaren ekoizpeneko diru mailako muntaketan parte hartzen dute.

Zentzu horretan, filmen Frantziako ikuspenarentzat ko-ekoizpena onuragarri dela dirudi. Izan ere, film batek proiektuan aski goiz sartzen den ekoizle bat duelarik Frantzian, Frantziarentzako eskubideak nazioarteko salmentatik baztertuak izan daitezke. Aldi berean, errazagoa da gisa horretan estatu mailako banatzaile bat lehenago atzematea.

5. Zinemagelak Ipar Euskal Herrian

a) Lurraldeko zinemagelen aurkezpena

Zinemagelen sare sendo eta dinamikoa dago lurraldean, autore, arte eta entsegu eta orotariko zinema proposatzen duten 11 zinema independenterekin:

- Baionako Atalante zinema (Cinéma et Cultures Elkarteak): hiru zinemagela ostatu eta jatetxearekin, autore eta Arte eta Entsegu zinema baizik ez du programatzen, Gabarra banaketa proiektua eta "Ecole au cinéma" baliabideak koordinatzen ditu. Objectif 64 zinemagelen sareko eta Cinéma Indépendants de Nouvelle Aquitaine CINA elkarteko kide da.
- Biarritzeko Le Royal Zinema (3 zinemagela): 2021ean Etoiles Cinémas sare paristarrak berriz hartu zuen, autore eta Arte eta Entsegu zineman biziki zentratua dena. Zinemak "**Art-et-essai**" 3 label ditu eta baita Europa Cinémas labela ere. Jatetxea ukanen duen arraberritze proiektua du.
- Urruñako Itsas Mendi zinema: parrokia-gela bakarra, Arte eta Entsegu, molde independentean programatua, autore zinema soilik programatzen du. Berriki elkarbizitzarako gun bat antolatu dute. Bigarren gela bat irekitzeko xedea dute. CINA sarearen baitakoak dira.
- Hendaia Les Variétés Zinema: gela bakarra, herriak kudeatzen duena, Cinévasioneko kide, Entente Saint Louisek programatzen du, orotariko egitaraua.
- Getariako Getarienea Zinema: 2020an irekia, gela bakarra, autore zinema soilik programatzen du, Cinévasioneko kide, Entente Saint Louisek programatzen du.

Aktibitate anitzeko GRAAC proiektua dute, tailerrekin baina baita profesionalentzako gune batekin ere, bereziki muntaketarako. CINA sareko kide da.

- Hazparneko Haritz Barne zinema: herriko zinemagela bakarra, elkarte kudeaketakoa, Cinévasion elkarteko kide, Entente Saint Louisek programatzen du, orotariko egitaraua.
- Donibane Garaziko Le Vauban zinema: parrokia-gela bakarra, Garazikus elkarteak kudeatua, Cinévasion elkarteko kide, Entente Saint Louisek programatzen du, orotariko egitaraua. CINA sareko kide.
- Mauleko Maule Baitha Zinema: herriko bi zinemagela, elkarte kudeaketakoa, Cinévasion elkarteko kide, Entente Saint Louisek programatzen du.
- Donapaleuko Saint Louis Zinema: bi gela, baliatze mixtoa (EHEako kultura egitaraua), ostatu xokoa, Argitze elkarteak kudeatua, Cinévasion elkarteko kide, Entente Saint Louisek programatzen du. Jérôme Alkhatek Entente Saint Louis elkartearantzako lan egiten du (COM1 écran ESMarekin) eta Argitzeko lehendakaria da. Zinema CINA sareko kide da.
- Donibane Lohizuneko Le Sélect Zinema: herriko 5 zinemagela, programaketa mistoa, ostatu/jatetxe eskaintza du, Xabi Garaten Ecrans Luziens ESMaren kudeaketa pribatua, Entente Saint Louisek programatzen du (Xabi Garatek kudeatua ere), orotariko egitaraua. Zinema CINA sareko kide da.

Lurraldean bi zinema komertzial ere daude baina hauei buruz guti dakigu.

- Baionako CGR gela anitzeko zinema
- Angeluko Monciné gela anitzeko zinema

IPAR EUSKAL HERRIKO ZINEMAK ZENBAIT ZENBAKITAN

Zinema	Pantailak	Jarlekuak	Ikusleak 2020	Ikusleak 2019	Ikusleak 2018
MONCINE	7	1.095	72.003	265.965	262.463
MEGA CGR CENTRE	7	1.096	62.203	226.341	224.189
L'ATALANTE (eta L'Autre)	3	400	57.794	120.527	83.797
ROYAL	3	458	32.177	99.823	80.179
AIGLON	1	110	3.803	13.907	11.656
GETARI ENEA	1	128	3.980		
HARITZ BARNE	1	193	5.246	14.212	6.807
VARIETES	1	324	6.244	16.318	15.395
MAULE BAITHA	2	416	6.602	20.999	19.113
LE SELECT	5	775	87.912	250.009	234.834
LE VAUBAN	1	300	7.525	20.804	17.394
SAINT LOUIS	2	496	11.593	30.333	26.020
ITSAS MENDI	1	229	7.708	18.303	19.379

b) Galdekaturiko pertsonen zerrenda eta aurkezpena

- Xabi Garat, 1978an Baionan sortua eta Donibane Lohizunen bizi, zinemagelen ustiatzaile eta programatzaile da. Ecrans Luzienen kudeatzailea da (Le Sélect zinema) Entente Saint Louiseko programatzaile eta Cinévasion elkarteko lehendakaria. Bere burasoek zinema anitz kudeatzen zituztenez, ttipitatik horretan murgildua izan da eta Donibane Lohizuneko zinemaren kudeaketa hartu zuen Enpresa Kudeaketa GMTBa eskuratu eta berehala. Haren aita, Jean Mari Garat, erretretara joan zelarik programaketa ere haren gain hartu zuen.
- Jérôme Alkhat 1979an Pauen sortu zen eta Donapaleun bizi da. Letretako ikasketak egin zituen eta Donapaleuko mediatekan lanean hasi zen gazte enpleguan. 2005ean, kontratua finitzean, Cinévasion elkarrekin kontratatu zuen filmen kopien garraioaz arduratzeko, "Collège au cinéma" baliabidea eta Ciné'toile (Kontseilu Orokorrak antolaturiko kanpoko zinema saioak) koordinatzeko eta Cinévasion sareko zinemagelen animazioa egiteko. Donapaleuko zinema kudeatzen duen Argitze elkartean sartu zen garaian, eta lehendakaria da gaur egn. Ondotik SARL COM'UN ECRAN enpresa sortu zuen, Entente Saint Louisentzat lan egiten duena, programazioa eginez eta zinemagelei zerbitzuak eskainiz.
- Sylvie Larroque 1976an Baionan sortu zen, bertan bizi da eta Baionako Atalante zinemako zuzendaritza partekatzen du, programaketaz eta animazioaz arduratzeaz gain. Pauen goi mailako ikasketetarako prestakuntza egin ondoren, Parisen Zinema lizentziatura egin zuen, bereziki bitartekaritza interesaturik. Proiektu kulturaletako zuzendaritzako Goi mailako ikasketa berezituen diploma atera zuen, kultura bitartekaritzako zinema eta irudia sailean. Pantineko Le Ciné 104en lan egin zuen, hastapenean langile ikasle gisa film laburren festibal baterako eta, ondotik, 6 urtez programatzaile gisa gazte enplegu kontratu batekin. 2006an Baionara itzuli zen gaur egun betetzen duen postua hartzeko.
- Maé Thomas, 1992an Pikardiako Compèignen sortua, Cinévasion elkarteko langilea da (ik. II-6- Elkarteak) zinema bitartekari postuan. Gazteei zuzenduriko tailerrak eskaintzen ditu, geletan animazioak koordinatzen ditu, Collège au cinéma koordinatzen du ere eta Cinévasion Topaketak antolatzen ditu. Argitze elkartean bolondres lanetan ere aritzen da. Besançon-en komunikazioko Teknologiako Unibertsitate Diploma pasa ondoren, lan ibilbidea operadore gisa hasi zuen. Gero kultura bitartekaritza lizentzia profesionala pasa zuen, aldi berean egungo musikako ikastaro bat eginez. Azkenik zinemaren hautua egin zuen eta Cinévasionek kontratatu zuen Eskualdeak %75ean laguntzen duen bitartekaritza lanpostua ireki zelarik.
- Christelle Vassot (Getarienea Zinema), Cambridgen marketinga ikasi zuen eta, ondotik, ekitaldien arloan lan egin zuen, bereziki Baionako Black and Basque festibalaren antolaketan (2011-2014). 2020ko otsailean ateak ireki zuen Getarienea zinemaren hastapenean murgildu zen. Bolondres gisa buru belarri ari da hartan.

c| Elkarrizketen emaitza

(a) Profesionalak eta zinemagelak Ipar Euskal Herrian

Galdekaturiko pertsonen ibilbideak biziki desberdinak dira (literatura, komunikazioa, marketinga, enpresa kudeaketa) baina zinemarekiko pasioak gidatzen ditu.

Lurraldean zinemagela anitz bada, azpiegituragatik, haien kokagune den lurraldeagatik (baserrialde/hiri), kudeaketa eta funtzionamenduagatik (pribatua/elkartekoa/herrikoa), duten eskaintzagatik (orotarikoa/autore zinema), programaketa hautuagatik eta sareak, biziki desberdinak direnak.

Ipar Euskal Herriko gela independente anitz Cinévasion elkarteko kide dira (8/11). 8 gela horiek orotariko programaketa eskaintzen dute eta autore filmentzako ahal bezain bat leku atxikitzeko lan egiten duen Entente Saint Louisek programatzen ditu.

» “Dans cette programmation-là c’est un vrai casse-tête d’arriver à se battre pour laisser de la place pour les films d’auteur. Pas « laisser la place », la place, on la laisse facilement, mais c’est plus les distributeurs de films américains ou les gros français, ce qu’on appelle le blockbuster ou major nous donnent les films en sortie nationale sans qu’ils nous imposent des conditions qui ne sont pas tenables. Les conditions, ça va être trop de séances chaque semaine qui fait que ça nous empêche de garder des séances pour des films plus fragiles”

» “Aujourd’hui le gros du travail de négociation, ça va être justement de garder cette diversité pour nous, pour les spectateurs, et bien évidemment aussi pour les distributeurs de films fragiles qui eux ont besoin aussi de salles et d’exposition”.⁵⁵

Nahiz eta soilik autore zinema proposatu, Getariena zinemagela Entente Saint-Louis-k du ere programatzen.

Biarritzeko Le Royal zinemari dagokionez, Pariseko Etoile Cinémak programatzen du.

Itsas Mendi eta Atalantek, autore zinemari eskusiboki itzulia den haien programaketa propioa egiten dute.

(b) Gelen beharrak eta erronkak gaur egun

Zinemageletako profesional desberdinekin ukandako elkarrizketak 2020 eta 2021 artean egin ziren. Zinemagelak hilabete luzez hetsiak izan ziren pandemia garaian eta, nahiz eta hori guti agertu elkarrizketetan, zinemagelen egungo erronka nagusia publikoa itzultzea da (beziki autore zinemaren kasuan).

⁵⁵ “Programaketa horretan zinezko buru haustea da autore filmei lekua uzteko borrokatzea. Ez “lekua uztea”, lekua aise uzten zaie, baina film amerikarren edo film frantses handien banatzaileek, blockbuster edo “major” deitzen ditugunek, estatu mailan ateratzen diren filmak eman diezazkiguten da behar dena, jasagarriak ez diren baldintzak inposatu gabe. Baldintza jasan ezinak dira, asteroko emanaldi gehiegi, filma ahulagoentzako emanaldiak mantentzeko oztopoa dena.

“Egun negoziazioaren lanketa handiena, hain zuzen ere guretzako, ikuslearentzako aniztasun hori mantentzea izanen da, eta noski gelak eta erakuslehoak behar dituzten film ahulen banatzaileentzako ere”.

Haatik, pandemia aitzin egin ziren egiaztatzeetako bat indartu da pandemia ondoren: gero eta gehiagotan arrakasta film guti batzuen inguruan gertatzen da eta hantatze mailako sorpresak geroz eta arraroagoak dira. Gelen bitartekaritza eta animazioa, bereziki publiko gazteari zuzendua dena, sekula ez bezala gelen problematikaren bihotzean da.

Sorkuntza gaztearen laguntzeko misioa haien eskumeneko gisa identifikatzen dute galdekatuak profesionalak. Galdekatutako zinemek, animazioak antolatzen dituzte proiektuak laguntzeko, gai ezberdinen inguruko debateak antolatuz, film egileak edo ekipak gonbidatuz.

Azkenik, gaur egun gela bat ustiatzeko moldea desberdina dela ohar-tarazten da. Afera ez da gehiago zinemagela edo programazio bat kudeatzea. Bizileku bat bilakatu behar da, gelaren baitakoa den edo eratzikia zaion ostatu edo jatetxe baten kudeaketarekin adibidez. Eskaintza hibridoa ere izan daiteke: Saint Louis eremua edo Maule-Baitha beste ekimen kulturei harrera egiteko gune gisa baliatuak dira adibidez.

Gela bakarreko zinemen kasuan, eskaintza dibertsifikatzea zailagoa da, gaur egun aniztasun hori baitezpadakoa delarik. Hor ere, gela batetik bi gelara pasatzea berebiziko erronka izan daiteke zinema batzuentzat. Lurraldean saretze hori mantentzea ere haien kezken baitakoa da.

» “Les recettes ne sont pas assez importantes (*comprendre les recettes l’entente de programmation qui sont issues des entrées) (...) Mais en même temps on ne peut pas lâcher toutes ces salles-là. Je pense que la survie du cinéma en milieu rural passe par justement des circuits de programmation, par la mutualisation des idées, donc de la programmation, des animations et même un peu de centrales d’achat de temps en temps aussi. On baisse des coups sur certains achats grâce à la mutualisation. Et c’est indispensable qu’on maintienne toutes les salles ouvertes sur le territoire, aussi bien au Pays basque qu’en Nouvelle Aquitaine, enfin un peu partout”.⁵⁶

(c) Euskal zinema eta lurraldearekiko eta mugaz haraindikoarekiko harremana

Zinemagela independenteek aspaldi egin zuten euskal zinema hedatzeko hautua. Gela hauen borondatea da ere. Gabarra edo Gastibeltza Filmak banaketa egituren agertzearekin orain arte egin den lana positiboki baloratzen dute. Halere, haurrentzako eskaintza eskasia azpimarratzen dute.

Galdekatua izan den pertsona batek azaltzen du:

» “On peut dire déjà que grâce à l’arrivée du numérique a il y a quelques années, grâce à des distributeurs de films en euska-

⁵⁶ “Diru sartzek ez dira aski handiak (*ulertu programatze lanatik datozen diru sartzek, filmen sartzek araberakoak direnak) (...) Baina aldi berean ezin ditugu gela horiek abandonatu. Justuki, baserrialdeko zinemaren biziraupena programaketa zirkuituetatik, ideien eta, beraz, programen baltsan ezartzetik, animaziotik eta, noizean behin ere, eroste zentraletatik pasatzen dela uste dut. Baltsan ezartzeari esker erosketa batzuen kostua apaltzen da. Eta lurraldean zinemagela guztiak irekirik mantentzea baitezpadakoa da, izan Euskal Herrian zein Akitania Berrian, hots, denetan”.

ra et grâce à la proximité et à la force de l'Hegoalde, on accède à des films en euskara et ça c'est génial et c'est une vraie belle avancée parce que si on revient à 10, 12 ans ou 15ans en arrière, on les comptait sur les doigts de la mains, les films qu'on passait en euskara. Donc voilà, il y a une facilité plus importante pour accéder aux films et, très clairement, on le voit, plus on va passer de films en euskara plus la clientèle s'étoffera aussi". (...) "La place du Cinéma basque a une vraie importance pour nous et en même temps ça rejoint notre politique de programmation. C'est indispensable de proposer des films en euskara au même titre que quand on va passer des films en d'autres langues, mais là encore plus parce que c'est fait par les gens du territoire donc ça aide toute une filière et ça peut amener à ce que la filière soit encore plus développée. Donc, si on peut permettre que les créateurs ou les cinéastes ou les techniciens puissent vivre au Pays Basque de leur métier, ne pas être obligé de partir à Paris ou de l'autre côté, je pense qu'on a aussi un rôle à jouer maintenant, toujours avec notre problématique d'offre énorme qu'il y a en France, de films, qui fait que la bagarre entre distributeurs des majors, c'est un enjeu encore plus important pour ces films-là".⁵⁷

Azken esaldi horrek "blockbusters" eta "major"en banaketari egiten dio erreferentzia. Banatzaile handiak zorrotzak dira programazioari begira eta zinema gelei asteko proiektzio kopuru minimo bat inposatzen diete. Ondorioz, zailago da film txikiagoen programatzea, baina gelek eskaintzaren aniztasun baten alde egiten dute lan.

Beste batek dio:

» "Dans la mesure où, déjà en soi, par rapport à l'identité de la salle, le fait de défendre aussi, de travailler sur une diversité, de cinéma, de genre, de langue, etc, de nationalité, ça paraît une évidence que ça implique aussi d'intégrer le cinéma basque et la langue basque. C'est un cinéma qui s'inscrit sur un territoire. Donc, cette question du lien au territoire et à la langue, c'est quelque chose qu'on a travaillé assez tôt en terme de diffusion. Avant même de décider la création de Gabarra Films il y avait déjà quand même pas mal de films qui passaient dans notre cinéma et donc Gabarra Films, c'est venu quand même aussi renforcer ça avec la partie distribution parce que ça répondait, à l'époque en tout cas, à un vrai manque sur le territoire, de voir qu'il y avait des films qui sortaient de l'autre côté (*comprendre de l'autre côté de la frontière), qui étaient repérés dans des festivals et qui n'avaient pas de vie ici. Et donc, je pense que ça a contribué à notre échelle à la visibilité de ce cinéma-là notamment par tout le travail de

⁵⁷ "Jadanik erran genezake orain dela urte batzuk digitalaren arribatzeari esker, euskarazko filmen banatzaile batzuei esker eta Hegoaldearen hurbiltasunari eta indarrari esker euskarazko filmak eskuragarri direla, eta hori bikaina eta aitzina urrats ederra da, zeren eta 10, 12, 15 urte gibelera egiten badugu, proiektatzen genituen euskarazko filmak esku bakarrean konta genitzakeen. Hara beraz, filmak eskuratzeko erraztasun handiagoa da eta, argiki ikusten dugu, gero eta euskarazko film gehiago hedatzearekin bezeria ere sendotuko da". (...) "Euskal zinemaren tokiak garrantzia handia du guretzat eta aldi berean gure programaketa politikarekin bat egiten du. Euskarazko filmak eskaintzea baitezpadakoa da, beste hizkuntzetako filmak pasatzea bezala, baina kasu honetan are baitezpadakoago da lurraldeko jendeak eginikoak baitira eta beraz arlo oso bat laguntzen dugu eta arlo hori are gehiago garatzera eramán dezake. Ondorioz, sortzaileak, zinemagileak edo teknikariak haien ofizioaz Euskal Herrian bizi daitezzen eta Parisera edo beste aldera joatera behartuak izan ez izatea ahalbidetu bagenezake, uste dut horretan funtzio bat bete behar dugula, betiere Frantzian baden filmen eskaintza zabalaren problematikarekin, "majorren" banatzaileen arteko borroka gero eta erronka handiagoan bilakatzen duena filma horientzat".

sous-titrages, de circulation de DCP, de tournées d'équipe depuis *Asier eta Biok*. Je crois que c'était le premier. Après il y a eu le succès de *Amama*, après il y a eu *Lasa eta Zabala; Handia* évidemment".⁵⁸

Arrakasta gehiago edo gutiago duten filmak daude baina ikusleak baikorki erantzun ohi du eta zinemagelek aski positiboki baloratzen dute film horien agerraraztea.

Galdekaturiko pertsona batek egiaztatzen du:

» "Mais à priori, c'est pas seulement la question de la langue qui touche, je pense. On l'a vu que ça été difficile pour le film d'Eugène Green (*parle du film *Atarrabi et Mikelats*) qui est pourtant tourné en langue basque, qui est complètement imprégné de la culture, de la mythologie basque et qui a fait peu d'entrées en salle parce que c'est un cinéma d'auteur assez pointu contrairement aux *Sorcières d'Akelarre* qui arrive à un moment donné, qui porte des thèmes historiques, féministe etc. font qu'il y a eu quand même un gros engouement sur le film. Il y a une sortie aussi de *Nora* dans la foulée. Il y avait beaucoup de propositions et peut être la question qu'on pourrait se poser, c'est est-ce que sur ces 3 films il y en avait presque trop de propositions en même temps, est-ce qu'il y a trop de propositions ou est-ce que tout ça, ça se nourrit ?

En ce qui concerne *Nora* par exemple, je pense que le film, c'était une plus petite sortie, forcément, en termes aussi de moyens, que *Akelarre* mais comme je t'avais dit aussi au téléphone, si on regarde le rapport entrées/séances était quand même pas mal quoi. Ça n'a pas été un énorme succès, mais en terme de bouche à oreille, de retour du public sur le film, c'est un film qui n'a pas trop mal fonctionné, on pourrait dire.

Et puis après, c'est là que je fais la distinction aussi - même si j'aime pas forcément la faire - entre fiction/documentaire. Les documentaires, c'est plutôt des films qu'on va accompagner par un débat etc, et sur les documentaires, c'est sûr qu'il y a en général une forte curiosité, que ce soit sur *Bi urte* (*Comprendre *Bi urte, lau hilabete eta egun bat*) qu'on avait passé ou sur *Non dago Mikel?*, ou sur *L'Hypothèse démocratique* - même si là c'est autre chose, c'est pas un film en langue basque même si la langue est là c'est plutôt la question basque qui est présente. On voit qu'il y a un fort intérêt quand même sur ce territoire pour ces questions-là.⁵⁹

⁵⁸ "Gelaren nortasunaren arabera, zinema, genero, hizkuntza edo nazionalitate aniztasunarekin jadanik lan egiten den neurrian, euskal zinema eta euskara integratzea begi bistakoa zen. Lurralde baten baitan finkatzen den zinema da. Ondorioz, hedapenari dagokionez, lurraldearekiko eta hizkuntzarekiko loturari buruzko galdera, aski goiz lantzen dugun zerbait da. Gabarra films sortzea erabaki baino lehenago, gure zineman pasatzen ziren film franko halere eta beraz Gabarra Films banaketaren alor hori sendotzeko agertu zen garai hartan, garaian lurraldean zen zinezko hutsune bati erantzuten baitzion... beste aldean (*ulertu mugaren beste aldean) festibaletan izendatuak ziren eta hemen ibilbiderik ez zuten filmak ateratzen zirela ikusteak, gure mailan zinema horren ikuspena lagundu dugula uste dut, bereziki, *Asier eta Bioken* garaitik -lehen a izan zela uste dut - azpigitulatzeko, DCPen zirkulatze, talde biren lanarekin. Ondotik Amamaren arrakasta heldu zen, ondotik *Lasa eta Zabala; Handia* noski".

⁵⁹ "Baina ez du hizkuntzaren gaiak soilik hunkitzen, uste dut. Eugène Greenen filmarekin (**Atarrabi eta Mikelats* filmaz ari) zaila izan dela ikusi dugu denek, alta euskaraz filmatua da, euskal kulturaren eta euskal mitologian oinarritua, eta zinemageletan sartze guti izan du - *Akelarre* ez bezala - autore zinema aski zorrotza baita. *Akelarre* une jakin batean heldu zen, gai historikoaren, feminismoaren eta abarren ekarle da eta horrek filmarekiko lilura handia sorrarazi zuen. Berehala *Nora* ateratu zen, beraz eskaintza zabala zen eta gure buruari pausa geniezaiokkeen galdera da, 3 film

Beste batek dio:

» “Alors, moi je fais des moyennes sur chaque projet qu’on fait, et je regarde un petit peu le nombre de spectateurs par salle et les films en euskara ou qui parlent des sujets locaux sont des films qui marchent très bien, comparés à d’autres. Là, sûr *Non dago Mikel?*, je crois qu’on est à plus d’une cinquantaine de spectateurs où en moyenne, on peut être sur les débats classiques entre trente et quarante spectateurs”⁶⁰.

Beste batek dio:

» “Les salles sont en demande de ce cinéma-là, on veut qu’il soit considéré comme n’importe quel autre cinéma et malgré les progrès il y a encore un manque par rapport à ça. Soit en financement public, pour acheter les droits soit en privé. Tout le travail qui a été fait ces dernières années s’est concrétisé par la création des deux structures mais c’est encore fragile et il faut poursuivre ce travail. Si on ne veut pas retomber dans les défauts des années précédentes, il faut poursuivre ce travail là. (...) « il faut une prise de conscience de la part des institutions du travail qui a été fait, de ce qu’il y a à faire, le fait qu’on est encore limité. On a une école qui veut montrer un film à leurs enfants et on est limité. On peut leur proposer 20 films en français mais en basque on est limité.”⁶¹

Zinemagela independenteak haien lurraldean biziki errotuak eta zinemako profesionaleri irekiak direla ere ohartarazi behar da. Erraz, laneko proiektzioak egitea ahalbidetzen dute adibidez. Gelek hurbiltasuneko, animazio eta tailer lana egiten dute, eskoletan edo eskolaz kanpoko denboran. Bitartekari batek Cinévasionekin lan egiten du eta tailer desberdinak proposatzen, mashup mahaia bezalako adibidez, baina zinemagelen animazio eta bira guziak koordinatzen ditu ere. Atalantek partzuergoak eta proiektuak biderkatzen ditu: Cassineko zinema sailarekin, Baionako arte eskolarekin etab. Batzuek

horiekin ez ote zen eskaintza gehiegi aldi berean? Eskaintza gehiegi da? Edo hori dena elikatzen ote da?

Norari dagokionez adibidez, Akelarre baino film ttipiagoa zela uste dut, nahitaez, baliabideei begiratuz ere, baina telefonoan esan nizun bezala sartzee/emanaldi erlazioa begiratzen badugu, emaitza ez zen batere txarra. Arrakasta ez da ikaragarria izan, baina ahoz ahozkoa edo publikoaren filmarekiko oharrak kontuan hartuz, aski ongi ibili dela esan daiteke.

Eta gero, horretan fikzioa/dokumentala bereizketa egiten dut, hori egitea biziki gustuko ez badut ere. Dokumentalak ondotik eztabaida bat izanen duten filmak dira eta dokumentalekin kuriositate handia sortzen da. Proiektatu genituen Bi urte (* Ulertu Bi urte, laur hilabete eta egun bat filma) edo *Non dago Mikel?* filmekin bezala. L’Hypothèse démocratiquekin ere gertatu da, nahiz eta honekin desberdina izan ez baita euskarazko film bat, hizkuntza hor izanik ere, euskal gaia da presente dena, baina lurralde honetan horiekiko interes handia dela agerikoa da”.

⁶⁰ “Nik gauzatzen dugun proiektu guzien batzuek besteak beste egiten dut eta geletako ikusle kopurua aztertzen dut, eta euskarazko filmek edo tokiko gaiak aipatzen dituzten filmek, beste batzuen ondoan, biziki erantzun ona jasotzen dute. *Non dago Mikel?* filmarekin berrogeita hamar ikusle baino gehiagotan gaude proiektzioa, eztabaida klasikoetan batzuek beste hogeita hamar eta berrogei ikusletan izanen garelarik”.

⁶¹ “Hegoaldearekiko hurbiltasuna indargune harrigarria da. Belaunaldi zaharberritzea ere gertatu da eta, elkarrekin lan egiteko gaitasuna handiagoa dela uste dut, inizatiba eta gogo berriekin. Gero Zukugailua ere horretarako dago baina egia da orain arte faltan bota dezakedana da lurraldean, ustiaketako jendeaz kanpo, ez jende gehiago ezagutzea. Filmegile batzuk ezagutzen ditut baina ez anitz... Beraz egia da Zukugailuak hori ekarriko duela”. Zinemagelak zinema mota horren galdean dira, beste zinema oro gisa onartua izan dadin nahi da eta, aitzinamenduak izanik ere, horrekiko eskasia bada oraindik. Izan eskubideak erosteko finantzamendu publikoan edo izan pribatuan. Azken urteetan egin den lan guzia bi egituren sortzearekin gauzatu da, baina oraindik ahultasun egoeran gara eta lan horrekin segitu behar da. Aitzineko urteetako akats beretan ez badugu erori nahi, lan horrekin segitu behar da”. (...) “Instituzioak burutu den lanaz, egitekoa denaz eta oraindik mugatuak gaudenaz ohartu behar dira. Haurrei film bat ikusarazi nahi dien eskola bat egon daiteke eta mugatuak gara. Frantsesezko 20 film proposa genitzake baina euskaraz mugatuak gara”.

EAEko egitura batzuekin harreman bereziak mantentzen dituzte. Le Sélect zinemak Euskal Filmotekak proposaturiko zikloak programatzen ditu urtero. Atalantek harreman anitz garatu ditu Gabarrari esker. Hurbiltasuneko kulturaz zerbitzua ere bermatzen dute, bereziki baserrialdean.

Ustiatzaileek ere berariaz lurraldearena den dinamika positiboki baloratzen dute:

» “On en a discuté avec d’autres coordinateurs de France de Collège au cinéma, on a un territoire assez exceptionnel, aussi bien par son dynamisme déjà en général, le tissu de salles que l’on a, l’organisation que l’on a quand même entre tous... ça fonctionne bien et par rapport à l’euskara, langue régionale, - parce que c’est un peu ce qui se dit ailleurs - mais si on compare avec d’autres langues régionales, on est sur un territoire hyper dynamique, hyper structuré, avec beaucoup d’opérateurs qui, mine de rien, se connaissent et aiment travailler ensemble, et, j’ai l’impression, aiment travailler ensemble pour aller dans la même direction. J’ai pas l’impression qu’il y ait l’intention de vouloir se mettre en avant. C’est les projets qui sont mis en avant et pas les structures. Et je crois qu’on a un territoire génial pour ça.

La proximité avec l’Hegoalde, c’est une force hallucinante aussi. Il y a un renouvellement de génération aussi qui s’est fait, et qui a, je trouve plus de capacité à travailler ensemble, avec des nouvelles initiatives, de nouvelles envies. Après Zukugailu est là pour ça mais c’est vrai que jusqu’à présent, ce que je peux regretter, c’est de ne pas connaître beaucoup de personnes sur le territoire autre que dans l’exploitation. Si, quelques réalisateurs qu’on connaissait, mais pas tant que ça... Donc c’est vrai que Zukugailu va amener ça”.⁶²

(d) Instituzioekiko harremana

Zinemagelen diru mailako berariazko laguntzaile instituzional eta teknikoa CNCa da. CNCak, zinemaren maila eta trantsizio etapa desberdinetan laguntzen ditu zinemagelak, bereziki digitalera pasatu zelarik bezala edo, berrikiago, Covid-19arekin loturiko krisi garaian. CNCak Arte eta Entsegu programaketan ere bereziki sustengatzen ditu. Frantzia hainbeste zinemagela baldin bada CNCaren laguntza horri esker dela uste da.

Beste instituzioek (Eskualdea, DRAC, Departamendua, EHEa) irudiarekiko heziketan edo hedapenean (Topaketak, Festibalak) esku hartzen dute batez ere. Bitartekaritzari dagokionez, Maé Thomasek, adibidez,

⁶² “Horretaz jabetua nintzen, baina argiago ikusi nuen Frantziako, Collège au cinémako beste koordinatzaile batzuekin aipatzean, lurralde aski ohiz kanpokoan bizi gara, izan haren dinamika orokorragatik, dugun gelen ehunagatik, gure artean dugun antolakuntzagatik... eta eskualde hizkuntza den euskararekiko ongi martxan da – kanpoan esaten dena baita – baina beste eskualde hizkuntzekin konparatzen badugu, lurralde biziki dinamikoan, biziki egituratuan gara, elkar ezagutzen duten eta elkarrekin lan egitea gustuko duten operadore anitzekin eta zentzu berean joateko elkarrekin lan egitea maite dutela uste dut. Ez dut irudipenik lehen planoan agertzeko xederik denik. Proiektuak dira lehen planoan emanak eta ez egiturak. Eta horretarako lurralde bikainean garela uste dut. Hegoaldearekiko hurbiltasuna indargune harrigarria da. Belaunaldi zaharberritzea ere gertatu da eta, elkarrekin lan egiteko gaitasuna handiagoa dela uste dut, inizatiba eta gogo berriekin. Gero Zukugailua ere horretarako dago baina egia da orain arte faltan bota dezakedana da lurraldean, ustiahetako jendeaz kanpo, ez jende gehiago ezagutzea. Filmegile batzuk ezagutzen ditut baina ez anitz... Beraz egia da Zukugailuak hori ekarriko duela”.

Akitania Berriak %75ean diruztatzen duen bitartekari lanpostua du.

EKEk euskarazko filmen emanaldietan laguntzen ditu, aitzin agerraldien edo filmegileen biren eta zine-eztabaidetako itzulpenetan.

6. | **Elkarteak**

Aipatu ditugun pertsona eta/edo egitura batzuk elkarte ezberdinen kide dira. Elkarte hauen ezagutzea garrantzitsua da, lurraldeko profesionalen saretea ulertzeko.

Zukugailua

Zukugailua 2020an Ipar Euskal Herriko zinema sektoreko 14 profesionalak sortu zuten elkarte da, ikus-entzunezko obren somen eta hedapen kate osoa ordezkatzen dutenak. Arloaren garapena akuilatzea ahalbidetuko zuen egitura bat sortzeko beharraren inguruan elkartu ziren. Elkarte honen helburua, sorkuntza gazteari eta obren sustapenari sinergiazko, baliabideetarako, formakuntzarako eta sustengurako espazioa eskaintzea da.

Zukugailua energia berri batetik sortu zen beraz, urte batzuren buruan lurraldean ekonomikoki egituratua eta aktiboa izanen zen saila lortzen ikusteko helburuarekin, Euro-eskualdearen baitan Ipar Euskal Herria ekimen zinematografikoko lur bilakatuz.

Zukugailuaren helburuak dira:

- zinema independentearen garapena, ekoizpena eta hedapena faboratzea eta, bereziki, euskaraz delarik.
- zinemagile berrien sustengatzea, profesional sareetan sartzeko espazioak sortuz eta proiektuak lagunduz.
- kultura zinematografikoarekiko sentsibilizatzea honek dituen aspektu desberdinenetan, bereziki publiko gaztearen baitan.

2020-2021ean ekintza batzuk plantan eman zituzten:

- Hemendik erresidentzia: autore gazteentzako hiru eguneko erresidentzia Akitania-Berriko eta Euskal Herriko sorkuntza zinematografiko gaztea sustatzeko bokazioa duen erresidentzia da, bereziki mugaz haraindiko proiektuen bidez. Erresidentziak fikziozko/dokumental film labur/film luze proiektua garatu dezaten proposatzen die gazteei. Euskarazko sorkuntzek lehentasuna dute.
- Kirikoketa idazketarako erresidentzia: EKEarekin, Pirinio Atlantikoetako departamenduarekin eta EHEarekin elkarlanean, bi aldiz bi asteko gidoi idazketarako erresidentzia hori Ipar Euskal Herriko autoreei (baina baita Akitania Berrikoei ere) eskaintzen zaie eta euskarazko proiektuak lehenesten ditu. Genero guzientzako, Pariseko gidoilari baten bi asteko laguntza eskaintzen du. 2021ean 8 pertsonak laguntza hori baliatu ahal izan zuten, bi dokumentalek, euskarazko fikzio luze batek, euskarazko bi film laburrek, fikzio luze eleanitz batek eta frantsesezko fikzio luze batek.

- Zinema zubiak: elkar ezagutzeko eta proiektuak molde arinagoan eta sistematikoki elkarrekin eramateko helburuz, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euro-eskualdeak laguntzen duen eta Zukugailua eta profesional nafarren NAPAR elkarte eta EAEko ekoizleen Ibaia elkarte batzen dituen proiektua da. Elkar topo egiteko uneak antolatu dira Euskal Herriko zinemaren ekimen handi guzietan (Zinemaldia, Zinebi, Punto de Vista etab.).
- Zukugailuak gazteentzako eskola denboraz kanpoko zinema tailerrak eskaintzen ditu.
- Azkenik, Zukugailuak "Pantailak Euskaraz" manifestua izenpetu zuen, Euskal Herriko pantailetan euskararen presentzia izatearen alde.

Cinévasion

Cinévasion elkarte 1996an sortu zen eta departamenduko 9 zinema elkartzen ditu. Zine eztabaidak, publiko gazteentzako animazioak, kontzertuak, errealizadoreekin topaketak... bezalako ekimen zinematografikoak antolatzen ditu, elkarteko kide diren zinema independenteen sustapena eta animazioa egitea duelarik helburu. Cinévasion "Collège au Cinéma" baliabidearen departamenduko koordinatzailea da ere. Irakasleen eta zinemaren ustiatzaileei zuzenduriko formakuntza egunak antolatzen dira urtean zehar, bakoitzari filmen aitzinean izpiritu kritikoa garatzea ahalbidetzeko, ikasleei transmititzeko tresna guztiak ukan ditzaten. 2021/2022 ikasturtean, "Collège au cinéma"-n 4. film bat proposatzen dute dispositiboan parte hartzen duten kolegioei, euskaraz.

Elkartek animazio anitz proposatzen ditu haren sareko zinemagela desberdinentzako, publiko berria ezagutzeko eta baserrialdeko herriko biziarentzako baitezpadakoak diren kultura gunek biziartzeko xedez. Zinematik urrundu den publikoarentzako bitartekaritza emeki-emeki garatzea da haren asmoa.

Urte guzian zehar, elkarteko kide diren zinemageletan tokikoek errealizaturiko dokumentalak proiektatzen eta laguntzen dira. Zinemageletan hurbiltasuneko, tokiko eta euskarazko zinemaren hedapen lana eramaten du elkartek⁶³.

Departamenduko Zinema elkarte honek 9 Zinemagela independente biltzen ditu, Arte eta Entseguan sailkatuak: Arudy, Kanbo, Hazparne, Hendaia, Maule, Donibane Lohizune, Getaria eta Donibane Garazi. Gehienak Euskal Herrian kokatuak dira.

CINA sarea

Akitania Berriko lurraldeetan Arte eta Entsegu eta hurbiltasunezko 3 eskualde zinema elkarteren bateratzeak eta sortua, CINAK (Akitania Berriko Zinema Independenteak fr. Cinémas Indépendants de Nouvelle-Aquitaine) Arte eta Entsegu zinema haren aniztasunean defendatzeko eta ustiaketa profesionalak laguntzeko eginkizuna hartu du bere gain. 2021ean 147 kide biltzen zituen (139 establimendu zine-

matografiko eta 8 sare), hots, Eskualdeko arte eta entsegu zinemen %75a. Zinema hauek hurbiltasuneko kultura zerbitzua dira, publiko guzientzako kulturaren eskuragarritasun errazaren berme eta lurraldeetatik hurbil direnak. Departamenduko 8 elkarte federatzen ditu: ACPG (33), Cinépassion 16, Cinépassion 24, Ecrans 47, Du Cinéma Plein Mon Cartable (40) eta noski Objectid ciné 64 eta Cinévasion.

Elkartearen helburua da, Akitania-Berriko geletan zinemaren sustapena eta hedapena faboratzea, lehentasunez arte eta entsegua, kide diren zinemen animazioan parte hartzea eta lurralde saretzearen mantentzean eta garapenean parte hartzea, bereziki botere publikoekin eta ingurumen profesionalarekin eramaniko elkarriketaren bidez. Zinemaren arloan, sustapenerako, animaziorako, hedapenerako eta publiko desberdinei zuzenduriko ekitaldien antolaketarako ekintzak eramaten ditu. ALCArekin lan egiten du bereziki, honek laguntzen dituen proiektuak hedatzen⁶⁴.

Ipar Euskal Herriko zinemagelen ordezkari bat ere ez da Administrazio Kontseiluko kide, nahiz eta kide diren.

Objectif ciné 64

Elkarte hau Cinévasion elkartearen baliokidea da (azken honen zati-keta batetik sortu zen) eta departamenduko Biarnoko gelak biltzen ditu batez ere. 8 gela dira honen kide eta Ipar Euskal Herriari Atalante zinemak soilik ordezkatzeko. Haatik, zinema horrek elkartearen eta elkartearekin guti lan egiten duela dirudi. Animaziozko filmaren festival bat antolatzen du, besteak beste.

7. | Lurraldean existitzen diren formakuntzak

Biarritzeko ikus-entzunezkoen GMTB

René Cassineko GMTBa saila 1985ean ireki zen. 2006az geroztik Biarritzen kokatua da, ikus-entzunezkoetako lanbideen formakuntzari soilik eskainiriko eraikin batean. Gisa horretan, eskualde telebista batetik hurbil den lan profesionalerako koadroan aritzea ahalbidetzen die ikasleei. Puntako tresna pedagogiko hori Irudia eta Soinua poloaren baitan sartzen da formakuntza jarraikia eskainiz, bereziki Ikus-entzunezkoen Institutu Nazionalak ontzat ematen duen soinu ustiaketa Teknikari formakuntza.

GMTBak Baionako René Cassini lotua jarraitzen du.

Mila ikasle baino gehiago formatuak izan dira jadanik René Cassin Lizeoko ikus-entzunezkoen GMTBan. Haien webgunearen arabera, %90a baino gehiago ikus-entzunezkoetako profesionalak dira gaur egun. Irakaskuntza taldea hamabost permanente inguruk osatzen

dute. Horri kanpoko esku hartzaileak gehitu behar zaizkio. Talde pedagogiko horrek komunikazioko lanbide berrietan formatzeko lan egiten du ere. Baionako eta Euskal Herriko IUTak (Teknologia Unibertsitate Institutua) ematen duen Multimedia Komunikazio Profesional Lizentziako ibilbidean jadanik inplikaturik da.

René Cassin Lizeoko ikus-entzunezkoen GNTBak hiru opzio eskaintzen ditu:

- ekipamenduen ingeniari eta ustiaketa teknikak: opzio honek urtean 24 leku ditu oinarritzko formakuntza klasikoan eta 9 leku aldizkako formakuntzan (aprendiz kontratua).
- muntaketa eta ekoizpen-ondoko lanbideak: opzio honek 12 leku ditu oinarritzko formakuntza klasikoan eta 4 leku aldizkako formakuntzan (aprendiz kontratua).
- soinuaren lanbideak: opzio honek 12 leku ditu.

Ikus-entzunezkoetan GMTBak oinarritzko formakuntza eta aldizkako eskaintzen ditu, ekitaldiei eta proiektu pedagogikoei egokitzeko berezitasuna duen agendaren arabera. Ikasleek balia dezaketen barne-tegia du⁶⁵.

Irakaslea eta GMTBaren koordinatzaile den Beñat Labordekin egin elkarriketak GMTBaren aspektu batzuk agerian uzten ditu. Alde bate-tik selektibitatea: 48 leku dituen formakuntza klasikorako 2.500 galde jasotzen dutela esplikatzen du. Haren ustez, ratio klasikoa da mota bereko Frantziako GMTBetan.

Bestalde, GMTBa eta geroko ikasleen segimendua sistematizatu ez bada ere, koordinatzaileak ongi ezagutzen ditu eta haien ibilbidea jarraitzen du. GMTBko ikasleak telebista eta irratirako formatuak direla eta beraz, ondotik, haien lana Parisen izan ohi dela azpimarratzen du. Halere, ikasleen Euskal Herrira itzultzeko gogoaz ohartu da, bereziki Parisen urte batzuk pasa eta gero. Azken urteetan joera hori areagotu dela estimatzen du eta belaunaldi berri bat **"itzultzen"** ikusten du. Lurraldean enplegu eskasa izatearen beldur da halere. Presente zen eta elkarrekin bizi eta lan egiten zekien belaunaldi zahar bat zegoela iruditzen zaio: Aldudarrak Bideo edo errugbi partiden emanaldien inguruko lana aipatzen ditu. Belaunaldi berri hori iristearekin tokiko enpleguaren merkatua tirabiratsuagoa izateaz beldur da. Belaunaldi berri horren baitan Azkainen finkatua den Kestuko kideak identifikatzen ditu adibidez (elkarriketa egin zelarik Azkainen ziren).

Baionako Arte Eskola

Rocailleseko Goi Mailako Arte Eskolaren eta Euskal Hirigune Elkargoko Arte Eskolaren arteko bilkuratik sortua, Euskal Herriko Goi Mailako Arte Eskola (fr. ESAPB) elkarlan kulturalerako establimendu publikoa da, Euskal Hirigune Elkargoko zerbitzua eta Kultura ministerioaren tutoretza pean dena.

Goi mailako irakaskuntza artistikoaren sare nazionalean onetsiak diren formakuntzak eskaintzen ditu:

⁶⁵ <http://www.audiovisuel-cassin.com/>

- Arte Diploma Nazionalera (Arte opzioa) daraman 1. arte ziklo bat, lizentzia gradua ematen duen Baxoa+3;
- arte goi mailako eskoletarako prestakuntza klaseak.

Bestalde, publiko orori irekiriko plastika praktika amaturreko tailerrak proposatzen ditu eta hezkuntza artistiko eta kulturaleko baliabide batean engaiatu da: PAC (Proiektu Artistiko eta Kulturalak) klaseak eta "Ecole au cinéma" zeinentzako departamendu koordinaketa bermatu zuen 2020ra arte (gaur egun Atalantek egiten duena⁶⁶).

Baionako René Cassin lizeoko zinema opzioa

Baionako René Cassin lizeoak bigarrenetik aitzina zinema opzioa eskaintzen du, asteko 2 orenekin 2.ean, 1.ean eta Terminalean. Zinemaren eta ikus-entzunezkoen estetikaren eta historiaren azterketa barne hartzen ditu, filmen analisisen bidez, festibaletara joanez edo profesionalekin elkartzuz, bideoaren praktika gidioen idazketaren, filmaketaren eta muntaketaren bidez 2.etik goiti eta laburmetraia kolektiboaren eta indibidualen errealizazioaren bidez.

8. | Lurreko festibalak

Neurri eta dirdira desberdineko festibalak daude lurraldean.

Zinegin festibala

Zinegin festibala, 2012an Hazparneko Eihartzea kultura elkarteak eta Ttattola Gaztetxeak antolatu zuten lehen aldiko Hazparneko Haritz Barne zinemarekin elkarlanean, lehenago identifikatu dugun eskasiari buru egiteko: Ipar Euskal Herrian euskal filmak ikusteko ezintasuna. Izan ere, festibal horren helburua euskaldunei filmak haien hizkuntzan ikusteko parada ematea da. Geroztik, festibalak urtean 4 egunez genero guzietako (fikzio, dokumental animazio) filmaz osaturiko egitaraua eskaintzen du.

Garaian, Eihartzea elkarteak Hazparneko Lurrekoak laguntzen zuen eta diru laguntza hori Euskal Hirigune Elkargoaren esku gelditu zen. 2019an 6.000 euroko laguntza eskuratu zuen. 2019a arte EKEk ere diruz laguntzen zuen. 2021ean, diru laguntza publikoak eskuratzeko zailtasunen aitzinean, elkarteak dohaintzarako deialdi kanpaina bat abian eman zuen diru mailako autonomiara iristeko.

Izan ere Zineginek izpiritu herrikoia atxiki nahi du eta proiektuaren eramaileak bolondresak dira. Haatik, festibalen sare klasikoetatik kanpo egotea oztopo bat izan daiteke, bereziki Frantzia kategorian gogoko festibaletan agertzeko gogoz diren filmen eskuratzeko. 2017an antolatzaileek arazo horren berri eman zuten **Handia** bezalako filmak programatzeko ezintasuna esplikatzeko.

Azken bi urtetan aldiz Lekeitioko ZineBilera Festibalarekin elkarlanean ari dira. 2021ean gaualdi bateratua egitea proposatu zuten, aldi be-

⁶⁶ ESAPB - eu Euskal Herriko Goi Mailako Arte Eskola - ESAPB <https://bab-art.fr/portail/index.html>

rean, *Non dago Mikel?* filmaren hedapenarekin eta eztabaida partekatuekin (Lekeition eta Hazparnen gertatu zen zuzeneko emanaldiarekin).

Rencontres sur les Docks, Baionako Atalante zinemaren festibala

2004an abiatua, Rencontres sur les Docks festibala sorkuntzaren inguruko hitzordu garrantzitsua da Atalante kudeatzen duen Cinéma et Cultures elkartearentzat. 4 egunez proiektzioak eta animazioak antolatzen ditu, orokorrean autore zinemaren inguruan eta, zehazkiago, dokumental zinemaren inguruan. Konpetiziorik gabeko ekitaldia da, deskubritzearen eta elkarbizitzaren printzipioan oinarritua dena. Lan kontratu mugagabearen diren 2 langile, lan kontratu mugatuan den beste bat eta 20 bolondres lanean aritzen dira ekitaldia ongi doala segurtatzeko.

2021ean 1.316 ikuslek parte hartu zuen ekimenean⁶⁷. Urte batzuk dira festibalak euskal eta euskarazko zinemaren inguruan ardatz sendoa garatzen duela, sorkuntza gaztearen bizitasuna agerraraziz eta, lurraldeko kultura eragileekin batera, sailaren agerpenean eta honen profesionalizatzean parte hartuz. 2021ean, Zukugailua elkartearekin eta GazteFilm festibalarekin Hemendik erresidentzia antolatu zuen, Akitania Berria-Nafarroa-Euskadi euro-Eskualdeko 8 zinegile gazteri profesionalen biltzar baten aitzinean haien proiektua aurkeztea ahalbidetu zien pitching erresidentzia ttipia (ik. Zukugailua elkarte). Rencontres sur les Docks euskal zinemarentzako aitzin-agerraldia egiteko parada da (frantses lurralde administratiboan).

Kontzertuentzako edo mahai inguruentzako aukera da ere. 2021ean adibidez, "Emazteen tokia euskal zineman" izenburuko euskarazko mahai inguru batek Hemen kolektiboari – (Frantzia Collectif 50/50en baliokidea) – hitza eman zion eta honek emazteak zineman eta ikus-entzunezkoen industrian sustatzeko burutzen dituen ekintzen aurkezpena egin zuen.

Urte guzietan, haien programaketak euskal filmak barne hartzen ditu. 2015ean Pablo Maloren *Lasa eta Zabala* eta Jon Garañoren eta Jose Mari Goenagaren *Loreak* fikziozko luzeak programatu ziren, 2019an Gorka Bilbaoren *Jai Alai Blues* eta Ben Sharrocken *Pikadero*, 2017an Bego Zubia Gallastegiren *Sagardoa bidegile* dokumentala, euskal film labur multzo bat⁶⁸ eta Koldo Almandozen *Sinfonia Phantasma* cine-kontzertua, 2018an Elsa Oliaj-Inese *Basahaideak* eta Myriam Aïçagueren *La Dramatique impossible* (audio dokumentala), 2020an Lander Garroren *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentala edota, 2021ean, Lara Izagirreraren *Nora* eta Pablo Agueroren *Akelarre*⁶⁹.

FIPA FIPADOC bilakatzen da⁷⁰

Ikus-entzunezko programen nazioarteko festibala Michel Mitranik sortu zuen 1987an, lehenik Cannesen, gero Nizan eta azkenik, 1996an, Biarritzen kokatu zen. Mota eta genero desberdineko telebista pro-

⁶⁷ Rencontres sur les Docks (culture-nouvelle-aquitaine.fr)

⁶⁸ Courts métrages basques — Institut culturel basque (eke.eus)

⁶⁹ Larunbatean Itziar Leemans errealizatzailearen bi dokumental, Boca ciega eta Paraque Lenin ere programatuak ziren.

⁷⁰ Garaiko iragarkia

gramei eskainia (fikzio, serie, sorkuntza dokumental, erreportaje, musika, ikusgarri, transmedia) 2019an, FIPA, FIPADOC bilakatu zen dokumentaletan soilik kontzentratzeko. Festibalak zazpi eguneko iraupena du, proiektioekin, aitzin agerraldiekin, topaketekin. Publiko zabalari, profesionaleri eta ikasleei eskainiriko 100 luzemetraia inguru dira eta 30.000 sartzeko inguru egiten da. Festibala 170 film inguruko hautaketaz osatua da (luzemetraiak eta laburmetraiak, obra digitalak). Hautaketa hori bi partetan banatua da: lehiaketa 9 sailekin eta 15 sarirekin, hauen artean 4 Sari Handi: Nazioarteko dokumentalaren saria (Akitania Berriaren dohaintza), Dokumental nazionalaren saria, Musika dokumentalaren saria eta Inpaktu dokumentalaren saria. Profesionalentzako festibala da ere (zine-egileak, ekoizleak, banatzaileak...) haientzako egin den egitarauarekin: agertzen ari diren proiektu eta talentu berriak deskubritzeko pitch saioak, egungo joerei eta sektorearen etorkizuneko perspektibei buruzko aldiak, proiektuak laguntzeko tailerrak, ko-ekoizpenei eta Fipadoceko kideei zuzenduriko topaketa espazioak, dokumentalaren eragile nagusien hitzartzeak eta Akitania Berria Eskualdeko profesionalen eguna. 2021ean 1.700 akreditazio profesional esleitu ziren⁷¹.

2021ean, FIPADOCek Europako Historia sailean Gastibeltza Filmakek ko-ekoizturiko Josu Martinezen *Caminho Longe* hautatu zuen. 2022an Marc Parramon eta Amets Arzallusen (Hendaiarra) *Altsasu* hautatu zuen. 2022ko berritasunetan eta Biarritzeko herriaren engaiamenduari esker, bi film (*Altsasu, gau hura* eta *Arzak depuis 1987*) euskaraz azpigitulatuak eskaini ziren.

Biarritz Amérique Latine

Biarritz Amérique Latine festibala latino-amerikar zinemarentzako erreferentziatzeko festibala da.

Luzemetraia, laburmetraia eta dokumentalen hiru lehiaketa proposatzen ditu. Lehian diren filmez gain, festibalak gai desberdinen inguruko focusak aurkezten ditu urtero.

Festibalak kultura latino-amerikarra beste molde batean deskubritzea proposatzen du ere, topaketa literarioekin, IHEALak (Amerika Latinarako Goi Ikerketen Institutua – fr. Institut des Hautes Etudes de l'Amérique Latine) animaturiko topaketekin, erakusketekin eta kontzertuekin. Festibalak bestalde, eskolako publikoari zuzenduriko ekintzak garatzen ditu, ibilbide tematikoen eta egitarau pertsonalizatu baten bidez zinematografia latino-amerikarraren deskubritzean laguntzeko.

Urtero⁷², 2021ean, 2020an, 2019an⁷³, 2018an, 2017an festibalak Kimuak bildumako lehiaz kanpoko film laburrak programatzen ditu. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko programa da eta honen bokazioa Euskal Autonomia Erkidegoan⁷⁴ ekoizturiko film laburren urteroko hautaketa nazioartean hedatzea da.

2018an, hizkuntzen Europako egunaren kari, festibalak, Mintzalasai el-

⁷¹ Fipadoc 2022, Biarritzeko filma dokumentalaren festibala (www.nouvelle-aquitaine.fr)

⁷² 2017az geroztik gutienez

⁷³ Charlène Favieren *Odol Gorri* laburmetraia, lehiaz kanpo (ALCA hautaketa). Filma hau Donibane Lohizuneko festibaleko egitarauan agertzen da.

⁷⁴ 2022tik geroz leihaketa Ipar Euskal Herriko ekoizpenei eta euskaraz diren orori ireki da.

kartearekin eta Biarritzeko Euskara zerbitzuarekin elkarlanean, **Mai da bai (eta ezetzik ez dago)** dokumentala aurkeztu zuen lehiaz kanpo.

2021ean Carlos Portella Nunesen **Gaicho Basko** dokumentala lehiaz kanpo programatu zuen, egileak Argentinara emigratu zuen haren osaba zaharraren bila joan zen bidaiari Kepa Etchandy jarraitu zuen.

Hendaia Film Festibala

Hendaia Film Festibala Hendaiaiko lehen film laburren festibala da. Begiradak elkartearen ekimenez 2013an sortu zenetik, festibal horrek gutiengo desberdinei (linguistikoa, kulturala, soziala) garrantzia ematen dieten filmen hedapena sustatzen du. Haren helburuak dira:

- Publikoa sentsibilizatzea, gazteak bereziki, sorkuntza zinematografikora eta irudiaren irakurketara autore eta profesionalekin eztabaidatuz eta topaketan bidez.
- Hizkuntza gutituak eta gutiengo kultural edo sozialetatik datozen adierazpideak faboratzea, Euro-eskualdearen ondare historikoa eta zinematografikoa balioan ezartzea.
- Akitania-Euskadi eskualdean laburmetraiaren sustapena, ekoizpen eta hedapen ekintza faboratzea.

Festibala nazioarteko sail ofizialak eta "Akitania/Euskadi" sail ofizialak osatzen dute baina baita focusaren baitako lehiaz kanpoko luzemetraiek, laburmetraiek eta dokumentalek, omenaldi batek eta aitzin agerraldiek edo ezohiko saioek ere.

Donibane Lohizuneko film festibala

2014an sortua, Donibane Lohizuneko nazioarteko film festibala fikziozko festibal bat da, lehen eta bigarren laburmetraiak edo luzemetraiak, frantsesak partikulariki, lehiara aurkeztuz etorkizuneko zinemaz interesatzen dena. Profesionalen arteko edo profesionalen eta publikoaren eta ikasleen arteko topaketak ere faboratzen ditu, master classen edo tailerren bidez. Festibala Saint-Jean-de-Luz Animations et Commercesek antolatzen du, Donibane Lohizuneko herriaren tutoretza pean.

2020an, Lara Izagirreraren **Nora** filma (Fidèle productionek ko-ekoiztua) hautatua izan zen. Filma Kanboko zinemaren ere hedatua izan zen festibalaren murruez kanpoko proiektzioen baitan.

Rencontres Cinévasion festibala

Lehiarik gabeko festibal hori 8 zinemageletan iragan zen (Arudy, Kanbo, Hazparne, Hendaia, Maule, Donibane Garazi, Donibane Lohizune, Donapaleu) bi urtez, 2019an eta 2021ean. Rencontres Cinévasion independenteak diren eta Cinévasioneko kide diren zinemak indar-une batean biltzen dituen festibala da. Adin eta ikusle orori zuzenduriko animazio desberdinak proposatzen ditu.

2020an Ben Sharrocken **Pikadero** fikziozko luzemetraia (2016) eta Joseba Ponceren **Lur eta Amets** animaziozko filma (Gastibeltza Filma-kek banatua) egitarauan sartu ziren. Rencontres instituzio frankok laguntzen dute, hauen artean EHEa zeinak 2.500 euroko laguntza eman zuen 2019an.

Angeluko International surf film festival

International surf film festival anbizio handi baten inguruan eraiki zen: surfaren inguruko filmen kalitate artistikoa publiko zabalari ezagutaraztea. Urteko ekoizpen eta errealizazio onenak argitan ezartzen ditu. Itsasoren parean, Amodio Ganbera gunean, pantaila erraldoiek, egun argiz, lehian diren filmak osoki eta urririk ikusteko parada ematen diote publikoari. Angeluko International surf film festivalek haren hemezortzigarren edizioa ospatuko du 2022an, lehian izanen diren 25 filmekin.

9. Tokiko telebistak eta Kanalduderen eginkizun saihestezina

Ikus-entzunezkoan telebistek duten eginkizuna ikusi dugu noski, baina baita sorkuntza eta zineman ere. Hedabide gisa, euskararen hedapenean duen eginkizuna ere azpimarratu behar da.

a) Euskara tokiko telebistetan

Tokiko edo eskualdeko lau telebista nagusi daude, euskarazko emankizunak osoki edo parte batean hedatzen dituztenak. Ondokoak dira:

- France 3 Nouvelle-Aquitaine: eskualde telebista kate hori France Télévision ikus-entzunezko taldeak kudeatzen duen France 3 Nationalen zuzendaritza pean da eta tokiko katea du, France 3 Pays Basque. France 3 sareak haren programaketan eskualde hizkuntzak erabiltzeko betebeharra du. France 3k "lurraldeen ezagutzan eta dirdiran parte hartu behar du eta, beharrez, eskualde hizkuntzen adierazpidean"⁷⁵. Halere, France 3k euskaraz guti ekoizten eta programatzen du Barne ministerioak, Kulturaren eta komunikazioaren ministerioak -Hezkuntza nazionalaren, goi mailako irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren ministerioak – 2016ko agorrilean atera zuen "Euskararen erakunde publikoaren txostena" begiratzen badugu. 2011n euskarazko hiru aldi zeuden France3 Euskal Herriko programaketan: "Txirrita" magazina, "Le magazine du Pays Basque" (batzuetan euskaraz) eta tokiko berrien edizioa "Euskal Herri Pays Basque". Ez dugu datu eguneraturik. Akitania Berria Eskualdearekin duen helburu eta bitartekoen kontratuaren bidez (COM), ekoizpenean esku hartzen duen eta film dokumentalen ko-ekoizpenean parte hartzen duen katea da ere.
- Tvpi: Sud Ouesten jabetza den TVPI tokiko kate pribatua da. 2.000 urtean hasi zen sareko hedapenarekin eta 2001ean hertziar hedapenerako frekuentzia bat eskuratu zuen 2011n TNTra pasatuz eta ondotik Internet sarbide-hornitzaile desberdinen bidezko hedatzera. Euskal Herriko eta Landetako tokiko telebista katea da. 24 orenez hedatzen dituen "magazine" erreportajeak programatzen ditu, kirolaren, kulturaren edo gastronomiaren inguruan. Oren bat egunean Kanalduderen ekoizpenak hedatzen ditu (euskaraz).

⁷⁵ France Télévision programaketa sozietate nazionalaren baldintzen bilduma finkatzen duen 2009ko ekainaren 23ko 2009-796 dekretua – NOR: MCCT0912619D – 2017ko azaroaren 29an indarturiko bertsioa.

- Eitb, Euskal irrati telebista: EITB 1982an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak eta euskal parlamentuaren zuzendaritza pean da. Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezkoen taldeak Euskal Herri osoan edukia hedatzen ditu eta mundu osora zabaltzeko satelite bidezko kate bat du (euskal diasporak ikusten du beraz). ETB1en hedapena (orotariko euskarazko katea) Ipar Euskal Herrian 1990ean hasi zen, herriko etxeak ordezkatzeko zituen Euskal Kultura Sustengatzeko Herriarteko Sindikatuaren (EKSHS - fr. SISCB) eta ETBren arteko akordioarekin. Ondotik, 2008an ETBren hedatze numerikoa gauzatu zen EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanerako hitzarmena izenpetzearekin. 2016an, Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) Ipar Euskal Herriko herriko etxe guztiak biltzen dituen lehen instituzioaren sortzearekin batera, EKSHSa eta hautetsien kontseilua desegin ziren. Testuinguru berri horrek instituzio publikoen panorama aldatu zuen eta, ondorioz, Ipar Euskal Herrian EITBren errezibitzearen antolaketa eta finantzamendua ere aldatu zen. EITBren TNT bidezko multiplex hedapena EITBren et TDFaren arteko kontratu bidez osoki kudeatzen da. EITBk EAEari eta Nafarroari eskaintzen dion ekoizpen parteari dagokion politika gero aipatuko dugu.

Azkenik, azken tokiko telebista, euskaraz soilik ari dena, Kanaldude da.

b) Kanaldude eta Aldudarrak Bideo

Aldudarrak Bideo interes publikoko kooperatiba sozietatea, 2007az geroztik Kanaldude hurbiltasuneko EbB informazio sozialeko hedabide plataformaren argitaratzailea dena, elkarte gisa sortu zen 1992an. Euskaraz lotura soziala indartzeko, baserrialdea suspertzeko eta dinamika sozial eta kultural sendo bati ikuspena emateko telebista parte hartzaile gisa definitzen du haren burua. Aldudarrak Bideok Kanaldude telebista-marka eta kanaldude.eus EbB plataforma sortu ditu beraz, denentzako eskuragarri eta doakoa da eta jario emankizunak hedatzen ditu gehienbat.

Bizkitartean, 2017an CSArekin (Ikus-entzunezkoen goi kontseilua) hitzarmen bat izenpetu zuen, Web TB gisa frantses hedatzaile estatutua emanen ziona, hedapen eskubideen aitzin erosketak egitea ahalbidetuz. Kanaldude, euskarazko emankizunak soilik hedatzen dituen WebTBa da. Kateak euskara eta euskal kultura sustatzen ditu eta ikus-entzunezkoen garapenean parte hartzen du. Emankizun batzuk Akitania-Berriko NoA eskualde kate publikoan hedatuak dira, baita Euskal Telebista zerbitzu publikoko telebistan eta TVPI, Nafarroako Xaloa edota Hamaika Telebista bezalako TNTko tokiko kateetan ere.

2019an kateak 250.000 bisita izan zituen haren webgunean, euskarazko hedabide desberdinak kudeatzen dituen Hedabideak publizitate konpainiaren arabera⁷⁶.

Kanaldude telebista kate parte hartzailea da, Fédération de l'audiovisuel participatifeko kide (Ikus-entzunezko parte hartzailearen federakuntza). Kateak gogoia duten ikusleak laguntzen eta formatzen ditu, euskarazko telebista emankizunak diseinatu eta aurkezteko gisan. Mota guzietako emankizunak hedatzen dituen orotariko katea da: erreportajeak, telebista jokoak edota

⁷⁶ Kanaldude - Culture Nouvelle Aquitaine (culture-nouvelle-aquitaine.fr)

talk-showak. Kanalduderen zuzeneko emankizunak 18ak eta 23ak artean hedatuak dira egunero, eta ondotik EbB gisa eskuragarri dira.

2017an, Kanaldudek Helburu eta Baliabide Kontratua (COM) izenpetu zuen Akitania Berria Eskualdearekin. Horrek bere anbizioak lortzeko baliabideak emanen zizkion eta fikziozko dokumental eta laburmetraien ekoizpenak laguntzeko parada emanen zion, baita autoreak laguntzeko ere.

KANALDUDEK, 2018 ETA 2020 ARTEAN COMARI ESKER LAGUNDU DITUEN DOKUMENTAL ETA FIKZIOZKO PROIEKTUEN ZERRENDA ⁷⁷.

2018

Proiektuak	Generoa	Etap	Autore-filmegile	Ekoizpena	Zenbatekoa	Industria Ekarpina Kanaldude
NORTASUNAK	dokumentala	idazketa	Elsa Oliarj-Inès (64)	Point du Jour (75)	2.000	
PROCESS	fikzioa	idazketa	Ximun Fuchs (64)	Gastibeltza Filmak (64)	2.000	
HERRIAREKIN	dokumentala	ekoizpena	Jean-Pierre Vedel (33)	TGA Prod (37)	10.400	10.608
CONSOLATION	dokumentala	ekoizpena	Itziar Lee-mans (64)	Les films du tps scellé (33)	12.000	12.190
LA DISPARITION	dokumentala	ekoizpena	Jonathan Millet (75)	Dublin Films (33)	9.000	
FAUX DÉPART	fikzioa	ekoizpena	Jean Larregaray (64)	Parsifal Films (64)	5.200	
OROTARA 2018					40.600	

2019

Proiektuak	Generoa	Etap	Autore-filmegile	Ekoizpena	Zenbatekoa	Industria Ekarpina Kanaldude
MOTS POUR MAUX	dokumentala	idazketa	Jeanne Hervieux (86)	Novanima (24)	2.000	
SUBANDILA	fikzioa	idazketa	Josu Martinez (64)	Gastibeltza Filmak (64)	2.000	
MATRIOKH-KAS LES FILLES DE LA GUERRE	dokumentala	ekoizpena	Helena Ben-goetxea (Esp)	Pyramide Prod (87)	12.000	10.318
NORTASUNAK	dokumentala	ekoizpena	Elsa Oliarj-Inès (64)	Point du Jour (75)	10.400	10.318
AMAIAREN AMA (EX-PROCESS)	fikzioa	ekoizpena	Ximun Fuchs (64)	Gastibeltza Filmak (64)	5.000	3.785
OROTARA 2019					31.400	

⁷⁷ Kanalduderen datuak

2020

Proiektuak	Generoa	Etapia	Autore-filme- gile	Ekoizpena	Zenbatekoa	Industria Ekarpena Kanaldude
LE SIMOUN (1ER FILM EN RÉGION)	dokumentala	idazketa	Edouard Beau	En cours	2.000	
CRACK SOI- NUA	dokumentala	ekoizpena	Ander Iriart (Esp)	Gastibeltza Filmak (64)	12.000	8.100
SUBANDILA	fikzioa	ekoizpena	Josu Martinez (64)	Gastibeltza Filmak (64)	5.000	6.970
THE DODGERS (NEXT STA- TION)	fikzioa	ekoizpena	Frank Harriet	La Fidèle (64)	8.600	15.000
OROTARA 2020					27.600	

OROTARA EKOIZPEN SAILA 2018-2020 99.600

COM horrekin, Kanaldudek sorkuntza sustatu eta lagundu dezake lurraldean.

Lokalki zinema garatu dadin, Kanalduderen eginkizuna zentrala da. Ikusi dugunez, galdekatu ditugun gehienek identifikatu dute eta haien aitortza jaso du (autoreak, ekoizleak, teknikariak). Loïc Legrand edo Ximun Carrere bezalako Kanaldudeko langileek ere Zukugailua elkartearen sortzea bultzatu dute, lokalki saila egituratzeko eta lurraldean gaitasun mailan goiti joateko aukera eta mementoa zela ikustean. Alde batetik, zineman hizkuntzaren hedapenerako aukera ikusten dute. Bestalde, gaitasunean fite goiti joateko beharra ikusten dute, Hego Euskal Herriko zein Akitania-Berriko trenera fite igateko, haiek jadanik maila industrialia lortua dutelarik. Euskal zinemaren gaia ekosistema baten eraikuntzan (sorkuntzatik banaketaraino) ulertzeko beharra funtsezkotzat jotzen dute. Hartara, jakitateen eta gaitasunen baltsan ezartzea gakoa dela iruditzen zaie.

» “Stratégiquement, avec le cinéma tu touches beaucoup de gens quand même et tu fais vivre la langue sans qu’il y ait besoin de se justifier. C’est la langue des films, point barre. Tu ne te poses pas de question avec un film ouzbek, c’est en ouzbèke. (...)”

» “Venant du système français classique, quand j’arrive ici, j’arrive avec un regard extérieur et déjà il y avait quand même une grosse disparité de niveau entre les structures créés ici et les structures qui venaient de Paris, Bordeaux ou d’ailleurs et donc il fallait quelque chose qui permette d’acquérir rapidement ces compétences-là”.⁷⁸

⁷⁸ “Estrategikoki, zinemarekin jende anitzengana iristen zara halere eta hizkuntza biziarazten duzu justifikatzeko beharrik izan gabe. Filmen hizkuntza da eta kito. Uzbekistandar film batekin ez diozu zure buruari galdera pausatzen, uzbekeraz da”.(...)

“Frantses sistema klasikotik heldu naizenez, honat iristean kanpoko ikuspegiarekin etorri nintzen eta jadanik maila desberdintasun handia zegoen hemen sorturiko egituren eta Parisetik, Bordeletik

» “Hor arte zen ekoizpena Ipar Euskal Herrian: ekoizpena eta hedapena. Dena elkarrekin ikusi behar zela erraiten nuen. Eta telebistaren errola gehitzen zen hor. Telebistak ahal batzuk ekartzan ahal ditu mundu hori biziarazteko erregularki: fikzio ttipiak, gauza batzu telebistarako. Baduzularik ekosistema bat gero gaitasun gehiago baduzu urrunago joaiteko eta zinemara joa”.

» “C’est parti de cette idée-là et aussi, à partir du moment qu’il y a un système ça crée des cloisonnements tv/cinéma, cloisonnement de métiers aussi mais en vrai ça n’a aucun sens. A Zukugailua, quand un réalisateur parle de son projet, les exploitants sont intéressés. C’est pouvoir créer ce contexte là nous mêmes, c’est un luxe. Là, directement, une salle est acquise”.⁷⁹

Onddoenea hirugarren gune gisa

Bidarraiko herriak, errobi bazterrean, herriaren sartzean, Kanalduderen egoitzaren ondoan kokatua den Onddoenea (Hotel du Pont de l’Enfer ohia) eraikinaren zaharberitzearen inguruan gogoeta par-tehartzailerako lana abiatu du.

2022ko urtarrilean biztanle bolondresez osaturiko lantalde batek 2021ean leku horren baliatzeko marraztu ziren pistak sakondu zituen. Taldean argiki agertzen den lanerako pistetatik bat, lekuak Aldudarrak Bideorekin (Kanaldude) eta Zukugailuarekin duen hurbiltasuna da.

Erabilera ezberdinak lituzkeen gela batzuei gogoetatzen dute: kalitate oneko proiektioentzako, publikoari harrera egiten ahal liokena, telebista emankizunak grabatzeko, audio nahasketarako, post-produkzio-rako, koloreztapenerako... Partaide ezberdinentzako lan proiektioak ere egiteko lekua litzateke: film baten ekipa batentzat baina baita ere herritarrei zuzendua den hitzaldi bat, ofizialei, laborariei, zuzenduriko proiektioak...

Proiektuan parte hartuko dutenen arteko elkar aditze lana bidean da, mota horretako gune baten alde teknikoak eta funtzionamendua ahal bezain ongi definitzeko gisan.

10. | Irudiarekiko heziketa

a) Zinemen eginkizun zentrala

Atalante eta Cinévasion, “Ecole au cinéma” eta “Collège au cinéma” baliabideen koordinatzaile gisa, baina orokorrean Euskal Herriko zinemagela independenteek, eginkizun zentrala dute Euskal Herriko irudiarekiko hezike-

edo beste nonbaitetik jiniko egituren artean eta, beraz, gaitasun horiek fite eskuratzea ahalbidetuko zuen zerbait behar zen” (...)

⁷⁹ “Ideia horretatik abiatu zen eta sistema bat baden mementotik tb/zinema bereizketa sortzen da, lanbideen bereizketa ere, baina ez du zentzurik. Zukugailuan, filmegile bat haren proiektuaz mintzo delarik, ekoizleak interesatuak dira. Testuinguru hori guhaurrek sortu ahal izateaz ari gara, luxua da. Horrekin, berehala, gela bat gureganatzen dugu”.

tan. Cinévasionek adibidez, hein handi batean Eskualdeak beregain hartzen duen bitartekari postu bat du, eta horrek zinema tailerrak (eskola denboran zein eskola denboraz kanpo) eskaintzeko parada ahalbidetzen dio baina baita sareko 8 zinemagelen animazioa koordinatzeko ere. Cinévisionek “Collège au cinéma”n, 4. euskal film opzionala proiektua koordinatzen du ere.

Atalantek ere egiteko anitz du. “Ecole au cinéma” koordinatzen du, tailerrak antolatzen ditu (bereziki euskarazko bikoizketak), René Cassin lizeoko Zinema opzioaren baitan lan egiten du eta animazioak biderkatzen ditu (eztabaida gaualdiak, topaketak etab.).

Lurraldeko beste zinema independenteek ere, inguruko ikastetxeekin lan bereziak daramatzate eta zenbaitetan eskolatik kanpoko atelierrak ere proposatzen dituzte.

b| Animazio eta tailerrak proposatzen dituzten beste egiturak

Beste egitura batzuek ere tailerrak proposatzen dituzte (eskolan edo eskolaz kanpo) haien aktibitate nagusiaz kanpo: Baionako Arte eskolaren kasua da adibidez. Kanaldudek Donibane Garaziko Frantsesenea lizeoarekin lan egiten du urtero. Haren izaera parte hartzailea eta elkartzen dituen bolondresak direla eta, Web Tbak irudiarekiko heziketan eginkizun handi du. Gainera 2021ean muntaketa, hartualdiak etab. ikasteko tailerrak eskaini zituen.

Azkenik, Zukugailua elkarteak ere gazteentzako eskolaz kanpoko formakuntzak eskaini zituen 2021ean.

c| Jomugan diren irudiarekiko heziketarako egitura / proiektu batzuk

“Egiazko historiak” (Histoires réelles) Angelun

2021ean, Angeluko liburutegiak, « Histoires réelles »-n 10 urteak ospatu zituen, 2012an Maiana Bidegain filmegilearekin abiatutako irudi heziketa programa. Garai horretan, liburutegian harpidetza zuten haur eta gazteek, film errealizazio eta sorkuntza saiatzeko aukera zuten. Urtemuga horrek, programaren bukaera iragarri zuen.

Txiki Productions – Irudi heziketarako elkarte

Txiki festibala irudiarekiko heziketan ari den elkarte batek eramaten duen eta Biarritzen gertatzen den ekimena da. Jokoaren bidez haurren kuriositatea elikatzea eta egunero ikusten dituzten irudiak deszifratzen eta fabrikatzen irakastea da haren helburua. Proiektzioak eta ondotik irudiarekiko heziketa animazioak proposatzen dituzte. 2020an festibalak sare bidezko edizioa eskaini zuen, berdintasunaren gaiaren inguruan 4 ataletan oinarritua:

- Laburmetraien sare bidezko lehiaketa ofiziala
- Txiki Radio Tour Euskal Herriko 5 herritan
- Familiar edo aisialdi zentroan egiteko desafio sortaile eta ludikoak
- Zuzeneko hitzordu interaktiboak irudiaren eta hezkuntzaren profesionalekin⁸⁰.

⁸⁰ Txiki Festibala: haurrentzako zinema festibala | Pays Basque - Pyrénées | Actualités en Aquitaine (aquitaineonline.com)

11. | Ondorioak

Nahiz eta gaur egun zaila izan Ipar Euskal Herrian ikus-entzunezko eta zinemako sektore zedarritu batez hitz egitea, ikusten da azken hamarkadan badela arloan gaitasun goratze bat, batez ere sormena eta ekoizpenaren aldetik.

Erran behar da jadanik hainbat elementu azkar badaudela aspaldian lurraldean. Alde batetik, zinema gela sare sendoa, Frantziako politika publikoei esker posible egin dena, baina baita ere lekuko profesional edo elkarteen engeiamenduari esker ere. Eskaintza anitza, proiektu kultural asko, bitartekaritza lanketa proposatzen dituzte eta euskal zinemarko borondatea erakutsi dute aspalditik. Zinema gelek lurralde mailako sare ezinobea osatzen dute eta gela horiek hurbileko zerbitzu kultural bat eskaintzen dute, lurralde orekaren alde eginez. "Zineskola", "Ecole au cinéma" eta "Collège au cinéma" dispositiboak ere haiek dituzte koordinatzen. Hala ere, gaur egun ikus-entzunezkoak ezagutzen dituen aldaketekin, haien oreka, batez ere gela bakarrak direlarik zaintzekoa da. Gela horiek beti eta gehiago eskaintza hibridoa dute la erran beharra da, haien hasierako izatea – zinema proiektzioa gela bakarra – eraldatuz. Adibidez, Getariako zinema-gela berriari behako bat ematen ahal zaio, proiektio gelaz gain, erresidentziak, tailerrak eta post-produkzioarako lekua bilakatzeko anbizioa baitu. Gaur egun, publiko gaztea hurbilaraztea da zinema gelen erronka nagusia. Egoera post-pandemikoan, oro har publikoa berriz jinaraztekoa da.

Lurraldean festibal ugari ere badaudela azpimarratzekoa da, tamaina eta helburu desberdinak dituztenak. Batzuek arras lekuko zinemari itzuliak dira (Hazparneko Zinegin festibala bezala), beste batzuek lanketa berezi bat egiten dute euskal zinemaren inguruan (Baionako Rencontres sur les Docks) eta handiagoek, nazioarteko dimentsioa dutenek, leiho txiki bat proposatzen diote: Biarritz Amérique Latine festibalak Kimuak katalogo film laburrak programatzen ditu urtero edo FIPADOCek euskal film batzuk ere programatu ditu (adibidez, Europako Historia sailean, 2021ean Josu Martinezen **Caminho Longe** edo 2022an Marc Parramon Bori eta Amets Arzallus Antiarren **Altsasu**).

Formakuntzan ere bideak badaude : ikus-entzunezko GMTB bat Ipar Euskal Herrian, zinemari edo ikus-entzunezko sorkuntzari ateak ireki ditzakeenak, baina izate teknikoa duena, telebista edo irratitari itzulia ; Arte eskola, arte bisualei itzulia, EAEko egiturekin ere harremanetan dena (Bilboko Arte Eskola edo Tabakalera bezala) ; zinema opzioa Cassin lizeoan.

Bestalde, sorkuntzarako eta ekoizpenerako aukera berriak badaude orain. Kanalduderen handitzea eta garapenak, finantzaketa eta hedapen aukera berriak sortu ditu: finantzatzaile garrantzitsu bat da eta teknikoki baliabide bazterrezina - bai lekuko labor eta dokumentalentzat, eta horrez gain, Akitania eta CNCKo laguntzak eskatzeko atea irekitzen die ekoiztetxeei. Aldi berean, hainbat filmen emisio eskubideak erosiz, filmak interneten erakusteko plataforma garrantzitsu bat bilakatu da, zinema saletatik at. Hala ere, Kanalduderen inbertsio indarra mugatua da, telebista handiek egin dezaketinari eta film bat egiteko behar denari konparatuz.

Lurraldean lan egin nahi duten egileak plazaratu dira gainera, bai hasi berriak, bai kanpotik etorriak, bai kanpoan bizi ondotik, sorlekura itzuliak. Filmegile belaunaldi honek, Iparraldean egindako filmak lehen aldiz ikusgarri jarri ditu hainbat plaza prestigiotsutan.

Azken urteetan hainbat egitura sortu dira ere, enpresak eta elkarteak, ikus-entzunezko sektore baten bizkarrezurra osatu lezaketenak. Lurraldean ekoiztetxe zenbait badela erran daiteke. Kasu batzuetan, koprodukzio arrakastatsuak lortu dituzte, beste kasu batzuetan, lurraldeari osoki lotutako lanak plazaratu, bertako aktore eta teknikarien presentzia nabarmenarekin. Hasi berriak izan arren, ekoiztetxe hauek zenbait dirulaguntza selektibo lortu dituzte haien proiektuentzat: ALCA, Euroeskualdea edota CNC ere kasu batzuetan. Honek, aipatu ohi zen euskal proiektuen "kalitate eskasa" gezurtatzen du, eta lan eginez gero, egitura horietan ere euskal produktuak konpetitiboak izan daitezkeela frogatzen. Azkenik, esperientzia azkarrago batekin diren egiturak ere agertzen ikusten ditugu lurraldean, animazioan, dokumentalgintzan, fikzioan lan egiten dutenak.

Euskal zinema banatzeko bideak ere badaude baina oraindik modu sistematikoan Hegoaldean ateratzen dena ikusteko bide iraunkorra ez da asmatu. Zinema salekin eramandako lanari esker, Hego Euskal Herrian ekoiztitako filmak, lehen aldiz, normaltasunez programatzen dira. Honek, publiko bat badela frogatu du, eta zinema ikusi eta sortzeko gosea estimulatu. Alta, merkatua ez da aski handia bere burua auto-erregulatzeko. Banatzaile hauentzat, jarduera defizitarioa da. Hala, Gabarrak aktibitatea gelditu duela dirudi eta Gastibeltzak mantentzen du, kostuak bere gain hartuz, euskal publikoarentzako filmak eskuragarri jartzea funtsezko lan bat dela ulertzen baitu. Lehen aldiz Iparraldean euskal filmak ikusten dira beraz, baina zinema salen borrodateari eta enpresa pribatu bati esker. Jarduera epe luzera bizigarria izan dadin, inplikazio publikoa baitezpadakoa agertzen da. Oro har, euskarazko eduki gehiago eskuragarri izatea beharrezkoa da hizkuntzaren normalizazio bidean. Hor ere gabezia handia dago.

Azkenik Zukugailua elkarte sarrera aipatu behar da, lurraldeko elkarte, egitura eta egileen bilgune rol ezinbestekoa betetzen hasi dena 2020etik aitzina. Sektoreko profesionalak biltzen dituen Zukugailua elkartearen sortzeak aktore ezberdinen saretzea ekarri du, bai eta ere instituzioentzat eta beste lurraldeetako sektoreen aurrean solaskide ahots bat ere. Lau ildo lantzeko asmoa du elkarteak: saretze eta egituratzea, mugaz-gaundiko koprodukzioa, sortzaileen laguntzea eta irudi heziketa. Aurten antolatu duen "Kirikoketa" idazketa egonaldiak erakutsi du, jadanik, lurraldean badirela hainbat proiektu garapenean, eta egile ezberdinek bertan lan egiteko gogoia luketela.

Mugimendu ezberdin hauek lurraldean zinema eta ikus-entzunezko arloa garatzeko momentua dela erakusten digute, lekuko sortzaile eta eragileei konfiantza erakutsiz.

IV. IKUS-ENTZUNEZKO SISTEMAREN EGITURAKETA HEGO EUSKAL HERRIAN ETA HURA SUSTATZEKO LAGUNTZA SISTEMA

Patxi Azpillaga

1. **Ikus-entzunezko sistemaren egituraketa Hego Euskal Herrian**

Ikus-entzunezko industria da Hego Euskal Herriko Kultura eta Sormen industrien ardatza, hala pisu ekonomikoagatik (fakturazio eta enplegu datuek hala erakusten dute), nola duen eragina eta irismen ahalmenagatik ere gizartean eta kulturaren.

EAEko Kulturaren Behatokiaren arabera, 2.019ko datuak aintzat hartuta, KSI sektoreak EAEn 1.055 agente biltzen ditu, 793 milioi euroko bolumena metatzen du eta 7.017 langileri ematen dio lan. Horren baitan Ikus-entzunezko sektorea hirugarrena da agente kopuruaren arabera, 129-rekin, arte eszenikoen eta musikaren atzetik, 239 eta 150-ekin hurrenez hurren, baina lehena bolumen ekonomikoagatik, 205,7 milioi euroekin, KSI sektorearen %26a, eta sortutako enpleguagatik, 1,509 langile, KSI sektoreko %21,5.

Ikus-entzunezko produkzio industriari dagozkion datu zehatzak zaharragoak dira, 2.015ekoak. Haien arabera, EAEn 91 enpresa zeuden aurreko hiru urteetan ikus-entzunezko produkzio jardura erregularra izan zutenak (gutxienez produkzio bat burututa urte horietan) eta 155,7 milioi euro fakturatu zuten guztira. Telebistarako produkzioan jarduten zutenek zuten pisurik handiena (%79,6); haien atzetik, zinemarako produkzioan jarduten zutenek %11,5arekin, dokumentalgintzakoak %1arekin eta Publizitate produkzioan espezializatutakoek, %0,5arekin. Espezializatorik gabeko produkzio etheen bolumen ekonomikoa %7,65ekoa zen. Zoritxarrez, ezin dugu Hego Euskal Herri osoko argazkia osatu ez baitugu halako datu zehatzik Nafarroa Garaiari dagokio-

nean. Baina, zalantzarik gabe, Nafarroan egon den zine edota telebistarako ikus-entzunezko produkzio profesional apurra, estuki lotuta egon da EAEko egitura eta dirulaguntzetara. Orain Nafarroako Gobernuak zabaldu dituen laguntza eta estrategia berriei esker beste dimentsio autonomoago bat hartzen ari da, batez ere animazioko zinearen arloan.

Zifrak txikiak dira Estatu espainiarreko industriaren datuekin alderatuta. Hartara eta Kulturako Ministerioaren arabera, zine eta ikus-entzunezko edukien arloaren diru-sarrerak 2.018an 4.115 milioi eurotakoak izan ziren eta 14.000 sortutako lanpostu zuzenak. Beraz, EAEko ikus-entzunezko sektorea haren %5a inguru da bolumen ekonomikoagatik, eta %10 ingurura hurbiltzen da enplegu aldetik.

Aitortu behar da, nolana ere, euskal ikus-entzunezko sektore hau gaztea dela oso. Pasa den mendeko laurogeigarren hamarkadara arte ez baita bertan ikus-entzunezko jarduera egonkorrik egon. Urte horietan EITBren sortzeak batetik eta laguntza publikoei esker jarduera zinematografikoa aktibatzeak, ireki zuten haien inguruan sortutako sortzaile, enpresa eta instituzioen artean ikus-entzunezko sektore berri bat eratu eta ehuntzen joateko aukera.

Aintzat hartu behar da, halaber, Espainiar estatuko ikus-entzunezko sektorearen norabide eta egituren oso menpekota izan dela beti Hego Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorea, alegia, Estatuan eraturako merkatuaren eta enpresa sare, produkzio eredu eta babes sistemen menpeko, zeinak honako ezaugarri nagusiak dituen:

a) Zine aretoko merkatu esanguratsua:

- 3700 zine areto (pantailak)
- 100 miloi ikusle urtero 2.015etik hona -alde batera utzita 2.020 urte pandemiko berezia-, 78 eta 100 milioi ikusle artean aurreko bosturtekoan
- 600 milioi euro inguruko errekaudazioa urtero 2.015etik hona, 660 eta 518 milioi euro bitartekoa aurreko bosturtekoan

Baina AEB-etako major eta banaketa enpresek mendean hartutako zine merkatua, non Estatuako produkzioak oso kuota txikia izan duen historikoki, %15-20 bitartekoa 2015etik hona, %10-15 bitartekoa aurreko bosturtekoan. Estatuako banaketa enpresa independenteak (Avalon, A contraccorrente, Bteam, Golem, Wanda, Caramel, Numax...) txikiak dira baina eurak dira Estatuako zine independente gehiena eta Europatik datorrena banatzen dutenak.

b) Zine produkzio maila esanguratsua, 255 eta 265 film luze urtero 2.015etik hona, 182 eta 255 bitartean aurreko bosturtean. Haien laurdena eta herena bitartean nazioarteko koprodukzio izan ohi dira.

c) Produkzio enpresa independente txiki ugari, kapitalizazio baxu eta merkatura heltzeko zailtasun handiekin eta, ondorioz, produkzio ahalmen baxukoak, hain zuzen ere, dirulaguntzak batu edota telebisten ekarpenak gehitzeko ahalmenaren araberakoa (2.020 urtean, 220 film ekoiztu ziren, haietan 340 produkzio etxek parte hartu zutelarik; haietatik 293 enpresek pelikula bakar baten produkzioan parte hartu zuten). Enpresa txiki ugari haien ondoan, zinerako zein telebistetarako produkzio erregularra egiteko kapaza den enpresa ertain multzo txikia eta (Bambu, Tornasol, El Deseo,...),

haien gainera, telebista korporazioei atxikitako produkzio etxe handi multzo are txikiagoa oraindik (Atresmedia Cine, Telecinco Cinema).

Telebista irekirako produkzioak garapen handia ezagutu du 2015 eta 2017 urteren artean, 49.000 emisio ordutik 69.000 ordura igaroz, eta maila horretan egonkor mantendu da azken urteotan. Sektore honetan, zine produkzioarekin gutxi nahasten dena, enpresa talde batzuk dira nagusi (Mediapro Studio, Banijay, Vocento, Buendia, Secuoya, BTV taldeek, emisio orduen %28 ekoiztu zituzten 2021 ean), eta haien ondoan ehundaka produkzio enpresak dihardu, askotan formatu edo programa zehatz bati lotuta.

Bereziki garrantzitsua da industriarentzat fikziozko saioen eta telesailen produkzioa. Industriaren atal honetan garapen handia gertatu azken urteotan 38 titulutik 75era igo baita telesailen produkzioa telebista klasiko (RTVE guttien gainera) zein, gero eta gehiago, plataforma digital berrietarako (HBO, Amazon, Movistar+). Produkzio hau gehiena ekoiztetxe independente gutxi batzuen esku dago (Bamboo, Globomedia, Boomerang, Plano a Plano, La competencia, Grupo Ganga).

d) Laguntza eta sustapen sistema: laguntza publikoa zinemagintzaren funtsezko ardatza izan da mundu osoko Estatuetan. Espainiar Estatuan ezarritako sistemak ez dira inoiz oso indartsuak izan, inguruko herrialdeekin alderatuta, baina hala eta guztiz ere bertako zinemagintzaren oinarri izan da.

Egun bi motako laguntzak bideratzen ditu Estatuak ikus-entzunekeotara:

* **zeharkakoak:** zerga arlokoak eta lege bidezko betebeharrak zinema aretoei (europar zinearen kuota) eta telebistei (inbertsioak europar produkzioan).

Espainiar estatuan, une honetan, honakoak dira zerga hobari orokorrak, bakkarik Espainian erregistratutako produkzio etxeek balia ditzaketanak, euren emaitza kontuetatik honako kenketak eginez:

- I. espainiar ikus-entzunezko produkzioan egindako inbertsioak: inbertitutako lehen milioiaren %30 eta hurrengoan %25 (hiru milioi euroko inbertsio kopurura arte).

Horretarako, ordea: gastuen %50a Espainian bertan egin behar da.

Kenkari honen eragina handitze aldera, kanpoko finantzaketa erraztuz, 2021etik aurrera posible dute kenketa egitea baita filmen produkzioaren finantzaketan parte hartzen duten zergadun indibidualek ere (%20) (aukera hau Nafarroan garatu zen lehenengo eta gero Estatuko araudiak ere bere egin du).

- II. Atzerriko produkzioen filmaketa zerbitzuengatik egindako gastuak: lehen milioiaren %30 eta hurrengoan %25

Horretarako: gutxienezko gastua milioi 1 eurokoa izan behar da edo 200.000 €-koa animazio produkzioen kasuetan.

Kasu bietan kenketa egiteko inbertsio edo gastu muga dago: 10 milioi euro.

Kenketa egiteko aintzat hartzen diren produkzio motak honakoak dira: film luzeak, laburrak eta serieak, fikziozkoak, animaziozkoak zein dokumentalak.

Lege bidezko betebeharrei dagokienean, zine aretoak behartuta daude euren programazioaren %25a europar zinearekin osatzera (55/2007 Legea, Zinearena) telebista irekiak, ikus-entzunezko zerbitzu publikoa hornitzen dutenak, behartuta daude euren emisio denboraren %51a europar produkzioarekin osatzera, horren %50a espainiar produkzioa izan behar delarik (gazteleraz edo Estatuko beste edozein hizkuntza ofizialetan sortua, alegia). Halaber %10 produkzio independentea izan behar da eta haren %50 azken bost urteotan ekoiztua (7/2010 Legea, Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra). Orain, duela gutxi onartu den Ikus-entzunezko Komunikazio Lege berriarekin (13/2.022 Legea, uztailearen 7koa, Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra) ez dira portzentaje haiek aldatu baina bai eskakizun berriak ezarri. Hartara, orain telebista irekiek Estatuko hizkuntza ofizialen batean sortutako programazioari eskaini beharreko denboraren %15a gutxienez, gaztelera ez bestelako hizkuntza ofizialetan eman beharko dute (Erkidego Autonomoen populazioaren pisuaren arabera, baina haietako bakoitzarena gutxienez %10ekoa izan beharko delarik nolnani ere).

Horrekin batera, orain, eskariaren araberrako telebista zerbitzu linealek ere euren eskaintza edo katalogoaren %30a europar produkzioarekin osatu beharko dute. Kuota horren %50a gutxienez Estatu espainiarreko hizkuntza ofizialean edo ofizial-kidekoetan egon beharko da eta azpikuota horren %40a berriz, hizkuntza koofizialetan, bakoitzaren biztanleriarekiko pisua aintzat hartuta beti ere baina, nolnani ere, ziurtatuz haietako bakoitzarentzat %10eko azpikuota.

Telebistak behartuta egon dira euren diru sarrerren %5a (operadore pribatuen kasuan) edo %6a (operadore publikoen kasuan) europar ikus-entzunezko obretan inbertitzera. Telebista pribatuek haren %60a, gutxienez zinean inbertitu behar dute, beste %40a telebistarako pelikuletan edo telesailetan inbertitu dezaketelarik. Telebista publikoen kasuan portzentajeak %75 eta %25 dira hurrenez hurren. Inbertsioen %60a, gutxienez, halaber Espainiar Estatuko hizkuntza ofizialen batean egina izan behar da eta %50a, bestetik, produkzio etxe independenteekin ekoiztua (7/2010 Legea, Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra). Orain, Lege berriarekin (13/2.022 Legea), portzentajeak aldatu egin dira eta inbertsio betebeharre eskariaren araberrako on-line zerbitzuei ere eragingo diete. Hartara, orain:

- telebista irekiek euren dirusarrerren %6a inbertitu beharko dute ekoizle independenteek egindako europar ikus-entzunezko produkzioan, portzentaje horretatik %70 espainiar Estatuko hizkuntza ofizial edo ofizial-kideetan egina izan beharko delarik. Halaber, haren %15 gutxienez hizkuntza ofizial-kideetan egina izan beharko da eta %30

emakumezkoek zuzendutakoa izan beharko da. Horrekin batera, %45 gutxienez zinerako filmetan inbertitu beharko da eta %12 dokumentaletan eta animaziozko filmetan.

- plataformek. aldiz betebeharrak ezberdinak izango dituzte euren negozio zifraren arabera espainiar Estatuan.
- 50 milioitik gorako fakturazioa egiten dutenek, dirusarreraren %5a inbertitu beharko dute europar ikus-entzunezko produkzio independentean, portzentaje horretatik %70 espainiar Estatuko hizkuntza ofizial edo ofizial-kideetan egina izan beharko delarik. Halaber, haren %15 gutxienez hizkuntza ofizial-kideetan egina izan beharko da eta %30 emakumezkoek zuzendutakoa izan beharko da. Horrekin batera, %40 gutxienez zinerako filmetan inbertitu beharko da.
- 50 milioitik behera baina 10 milioitik gora euro fakturatzen dutenek, ere, euren dirusarreraren %5a inbertitu beharko dute europar produkzioan modu hauetakoren batean: produkzioa zuzenean finantzatuz, ustiapen eskubideak erosiz edota diru ekarpena eginez Estatuko Zinearen Sustapenerako Fondoari. Nolanahi ere, %70a gutxienez, aurreko kasuan bezala, espainiar Estatuko hizkuntza ofizial edo ofizial-kideetan egindakoetara zuzendu beharko da.
- 10 milioitik beherako diru sarrerak dituzten plataformek ez dute inbertsio betebeharririk izango.

ARAU HONEN ARABERA HONAKO INBERTSIOAK EGIN ZIREN 2.019AN

ESPAINIAR ZINEA	EUOPAR ZINEA	TBKO PELIKULAR	ESPAINIAR TELESAILAK	EUOPAR TELESAILAK	GUZTIRA
78.422.303,49	7.678.285,62	170.282,70	236.991.131,29	36.792.778,16	360.064.781,26

Arau berriarekin pentsatzekoa da inbertsioak handitu egingo direla, bai gaztelarazko produkzioan baita Estatuko beste hizkuntza ofizialkideetakoan ere. Autonomia Erkidegoek eskubidea dute euren peko telebista zerbitzuei ere aparteko betebeharrak ezartzeko, lege-aginduen bidez edo telebistek ekoizleen elkarteekin adostutako akordioen bidez. Badirudi EAEn azken bi-dea hartu dela oraingo honetan.

*Zuzenak:

dirulaguntza zuzenak industriako eragileei. Gaur egun honako laguntza le-roak daude (2.021eko aurrekontuekin eta 55/2.007 Legearen eta hura garatu duten dekretu eta aginduen arabera):

Film luzeen produkzioarako laguntza selektiboak (proiektuen gainean): 12.000.000 €

- laguntza hauek selektiboak dira, alegia, epaimahai batek erabakitzen du modu diskrezionalean, proiektuen ezaugarrien arabera
- 2.021ean 47 proiektu lagundu ziren

- laguntza gehienak 100.000 eurotik beherakoak izan ziren (%40); 400.000 €-tik gorakoa %13

Film luzeen produkziarako laguntza orokorrak (proiektuen gainean): 40.000.000 €

- laguntza hauek automatikoak dira, baldintza batzuk betetzearen funtzioan, eta, hartara lortutako puntuazioaren arabera ekoizleek egindako inbertsioaren portzentaje bat eskuratzen dute
- 2.021ean 45 proiektu lagundu ziren
- 16 proiektuk inbertsioaren %30 baino gutxiago lortu zuten; 7 proiektuk, %30 eta %35 bitartean eta 22 proiektuk, %35etik gora

Espainiako, Europako eta Iberoamerikako film luzeen banaketarako: 4.000.000 €

Nazioarteko jaialdietara joan eta pelikulak sustatzeko: 300.000 €

Zine jaialdiak antolatzeko: 933.000 €

Film laburrak ekoizteko (proiektuaren gainean): 800.000 €

Egindako film laburrak laguntzeko: 400.000 €

Guztira: 58.433.000 €

(2.021ean, COVID-19a zela eta, 10 milioi euroko lerro berezi bat onartu zen zine aretoei laguntzeko)

Horrezaz gain Estatu Espainiarrak aparteko laguntza programa ezarri du 2.021-2.025 bosturtearteko, "Espainia, Europako Ikus-entzunezko Hub – Spain Audiovisual Hub" izenaren pean, zeinaren asmoa sektorea modernizatu eta bultzada berezia ematea izango den. Urte horietarako aurrekontua 1.603 milioi eurotakoa da eta helburu nagusia finantza eta zerga tresnak hobetzea da (1.330 milioi joango dira horretara). Horrekin batera, industriaren digitalizazioa eta nazioartekotzea eta inbertsioak erakartzea (240 milioi), talentua eta prestakuntza sustatzea (15 milioi) eta arauak sinpletu eta hobetzea (18 milioi) izango dira planaren helburuak.

Plangintza honek laguntza fondoaren handitzea ekarri du jada 2.021ean Europako Erresilientzia eta Errekuperazio Fondoaren eskutik (10 milioi euro eta erdi), nagusiki produkzioa laguntzera zuzendu direnak (3 laguntza selektiboak handitzera, 7 laguntza orokorrak)

Aipatu egitura aldatu gabe, Zine lege berri bat dago orain eztabaidan, 2.023an indarrean sartzea espero dena. Aipatzea merezi duten aldaketa nagusien artean egongo dira obra iberoamerikarrak ere aintzat hartzea zine aretoetako merkatu kuotetan, eta bereziki, pelikula zinematografikoez aparte bestelako ikus-entzunezko eduki motak ere aintzat hartzea diruz laguntzeko. Halaber, apustua egingo da, mentoretza, tutoretza edo laborategi moduko formakuntza eta garapen prozesuen alde, eta Autonomia Erkidegoetara transferitu eta eurek kudeatuko duten babes funtsa bat ere osatuko da.

Egitura horren baitan mugitzen dira EAE eta Nafarroako ikus-entzunezko industriak, honako ezaugarriekin:

a. Zine areto merkatu txikia, 2.019ko datuen arabera:

- 250 zine areto inguru (188 EAEn, 61 NFKn)
- 6,5 milioi ikusle (5 milioi EAEn, 1,5 NFK-en)
- 37 miloi euroko errekaudazioa (28,5 milioi EAEn, 8,5 NFK-en)

b. Merkatu hori Espainiar estatukoa bezala AEBetako banatzaileek menderatzen dute, han bezalako portzentajetan. Bi banaketa enpresa daude EAEn (Barton eta Atera) eta bat NFKn (Golem) engaiatuak hirurak ere bertako zinearen banaketan.

c. Zine produkzio maila esanguratsua ere. Aintzat hartuta ICAren datu barsean jasotako filmak, 2.020an 9 film luze ekoiztu ziren, 7 fikziozkoak eta 2 dokumentalak. Aurreko urtean, berriz, 2.019an, 15 film ekoiztu ziren, 8 fikziozkoak eta 7 dokumentalak, 2.018ko urteko antzeko zifrak. Film hauetako batzuk hedapen esanguratsua izan dute bai Estatuan (2.020ko **Akelarre, Ane** filmak kasu, hainbat Goya sari irabazi baitzituzten) nola nazioartean ere (2.019ko **El Hoyo** filmaren kasu, Netflix plataformaren eskutik mundu osoan erakutsia arrakasta handiarekin)

d. EAE eta NFK-eko produkzio etxeak Espainiar Estaturako deskribatu diren bezalako enpresa txikiak dira, kapitalizazio baxukoak eta merkatura heltzeko zailtasun handiekin eta, ondorioz, produkzio ahalmen baxukoak, hain zuzen ere, dirulaguntzak batu edota telebisten ekarpenak gehitzeko ahalmenaren araberakoa. Ez dago enpresa handirik eta ertainak ere, produkzio erregularra mantentzen dutenak, ETBrekiko harreman egonkorrari esker bizi dira gehienak (Irusoin, Baleuko, Txintxua, Basquefilm,...). Hain zuzen ere esperientzia horretan oinarrituta hasi dira oraintxe haietako batzuk plataforma digitalerako filmak eta telesailak ekoizten (Txintxua adibidez, **Intimidación** telesailarekin Netflix-entzat) telebista irekirako produkzioaren atalean, Euskal

e. Telebista izan da eta da merkaturik nagusia EAE eta NFK-ko produkzio etxeentzat. Hauek oso zaila izan dute beti Espainiar Estatuko telebistetarako sarbidea. Alabaina ETB-ek, oro har, Estatuko telebistek baino gehiago jo izan du inguruko produkzio etxeekin lan egitera, bere emisio denboraren %60tik gora, 2.020an. DigiTal, Baintet, Hostoil edo Baleuko bezalako enpresak dira sektore honetan jarduera erregularra mantendu dutenak azken urteotan.

f. Fikziozko telesailak eta saioen atalean ere oso zaila izan dute Euskal herriko produkzio etxeek Espainiar Estatuko telebistentzat lan egitea. Euskal Telebistak, hainbat urtetan ez du ia batere ekoiztu, Goenkale telesaila amaituz geroztik. Azken urteotan badirudi berriro hasi dela atal hau garatzen **Goazen** gazteentzako telesailarekin edota 2.019 eta 2.020 urteen artean ekoiztu eta emandako **Ihesaldia, Alardea, Altsasu** eta **Hondar ahoak** telesailarekin. Plataforma digitalen hedapenarekin, ordea, badirudi aukera berri bat zabaldu zaiela produkzio etxeei (Txintxua, Irusoin,...)

Aparteko atalak dedikatu zaizkio laguntza sistemari, horren deskribapena baita, neurri handi batean txosten honen helburu nagusia.

2. Ikus-entzunezko sektorea sustatzeko laguntza sistema Hego Euskal-Herrian

Honako azterketa egiteko aintzat hartu dira zinemarako edota telebista/sarerako ikus-entzunezko produkzioa eta banaketa sustatzeko azken bost urteotan emandako diru-laguntzak Euskadin eta Nafarroa Garaian. Horrekin batera sektorea sustatzeko sortutako programak, azpiegiturak eta instituzioak ere jaso eta aztertu dira. Alde batera utzi dira Euskadiko telebista zerbitzu publiko autonomikoa (EITB) finantzatzeko eta Euskadin zein Nafarroa Garaian tokiko telebistak diruz laguntzeko sistemak eta moduak.

Aparteko aipamena merezi dute ikus-entzunezko arloari zuzendutako berrikuntza eta **cluster** politika industrialak, zeinek, Europako hainbat adibide jarraituz, berrikuntza teknologikoa, ekintzailetasuna eta ikus-entzunezko sektoreko enpresa-ehuna osatu eta indartzea helburu duten.

Ikus-entzunezkoa ez da, jada, haren dimentsio kulturalagatik bakarrik aintzat hartzen den jarduera instituzio publikoen aldetik. Gero eta garrantzia handiagoa hartu du baita haren dimentsio ekonomikoak ere, aurreko ataletan erakutsi bezala eta horrek ekarri du, oro har, sustapen sistemak indartzea, zabaltzea eta konplexuagoak bihurtzea, subentzio eredu klasikoekin batera bestelako estrategia ekonomiko eta enpresarialak ere bideratuz sektorera. Bilakaera hau argi ikusten da Euskadiko eta Nafarroako laguntza sistemetan ondoko lerroetan erakutsiko den moduan.

» Diru-laguntzak

Funtsean bi motako laguntzak daude: zeharkakoak eta zuzenak.

a) Zeharkako diru-laguntzak

Zeharkakoak, zergen ingurukoak dira. Batez ere, ikus-entzunezko produkzioan egindako gastu eta inbertsioen araberako zerga hobariak edo kenkariak izaten dira. Halako neurrien helburu nagusiak lau dira:

- batetik, lurralde edo herrialde bateko ikus-entzunezko produkzioa laguntzea,
- bestetik, finantzaketa lortzea erraztea,
- horrez gain, kanpoko ikus-entzunezko enpresak, ikus-entzunezko produkzioa eta haiei lotutako jarduera laguntzaileak edo osagarriak erakartzea toki zehatz batera, bertan kokatuta ekitea edota bertako zerbitzu eta enpresetan gastatzea eta inbertitzea beste tokitan baino merkeago edo errentagarriago eginez, eta azkenik, eta aurrekoaren ondorio gisa, ikus-entzunezko produkzioaren eragin biderkatzaileetaz onuratzeko lurralde edo herrialdeko hainbat zerbitzutan, orokorrak zein ikus-entzunezkoen espezifikokoak, bertan egindako inbertsio eta gastuen bidez.

Baina gainera, helburu kultural zehatzak ere atxikitzen ahal zaizkie halako zergak arintzeko neurriei ere, mota jakin bateko produkzioak sustatze aldera (hala hizkuntza gutxitu batean eginikoak, adibidez, euskarazkoak, nola egile

berri edota gazteen lehen lanak), ohikoak baino hobari edo kenkari handiagoak eskainiz halakoetan egindako gastu eta inbertsioei.

Estatu gehienek dituzte mota honetako zergak arintzeko neurriak. Ohikoak izan dira urtetan lurralde askotan, ikus-entzunezko produkzioaren izaera ibiltaria dela eta, baina azken urteotan zabaldu egin dira, hain zuzen ikus-entzunezko sektorearen dimentsio ekonomikoarekiko arretaren pare.

Aurreko atalean azaldu dira **Espainiar estatuan** egun indarrean diren hobari orokorrak.

Bada, **Nafarroako Foru Erkidegoan** handiagoak dira kenketak, herrialdearen berezitasun fiskala dela eta:

I. Espainiar pelikuletan egindako inbertsioak:

- %35, oro har, produkzio guztietan, eta lehen milioiaren %40 honako kasuetan: euskaraz egindako lanak, emakumezkoek zuzendutakoak, dokumentalak, animaziozkoak edo zuzendariaren lehen lanak direnak.

II. Baldintzak:

- gastuen %40a Nafarroan bertan egin behar da.
- muga: 5 milioi
- filmen produkzioaren finantzaketan parte hartzen duten zergadun indibidualek ere praktika dezakete kenketa (%20)

III. Besteren produkzioen filmaketa zerbitzuengatik egindako gastuak:

- Nafarroan egindako gastuen %35
- gutxieneko lana: astebeteko errodajea Nafarroan
- muga: 5 milioi euro

Aintzat hartzen dira honako produkzio motak: film luzeak, laburrak eta serieak, fikziozkoak, animaziozkoak zein dokumentalak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan fiskalitatea lurraldeen eskuduntza denez, araubide ezberdinak daude:

- **Bizkaia:** espainiar ikus-entzunezko lanetan egindako inbertsioen %30, edo %40 obra euskarazkoa bada; mugarik ez.

Alabaina, berriki aurkeztu den aurreproiektu baten bidez, Bizkaiko Diputazioak 2023tik aurrera zabaldu egingo ditu kenketok eta hartara %35 eta %70 bitarteko pizgarriak izango dira indarrean, Bizkaian egindako inbertsioaren edo proiektuaren hizkuntzaren arabera, aplikagarriak izango direnak gainera gainera, bai atzerriko produkzioei eta baita formatu digital berriei ere:

- i. %35 izango da arau orokorraren araberrako gutxieneko pizgarria
- ii. %40 baldin eta Bizkaian egindako gastuak produkzio kostuen %20 eta %35 bitartekoak badira

- iii. %50 baldin eta Bizkaian egindako gastuak produkzio kostuen %35 eta %50 bitartekoak badira
- iv. %60 baldin eta Bizkaian egindako gastuak produkzio kostuen %50etik gorakoak badira
- v. aurreko portzentajeei %10 gehituko zaie baldin eta produkzioa euskaraz egiten bada

Nolanahi ere, kenkaria ez da milioi eurotik gorakoa izango produkzioko.

- **Gipuzkoa:** espainiar pelikuletan egindako inbertsioen %30, oro har, baina %40 lana euskaraz bada; nolanahi ere, inbertsioaren erdia EAEn egitea eskatzen da. Besteren produkzioen filmaketa zerbitzuen kasuan: EAEn egindako gastuen %25. Muga: 2,5 milioi euro
- **Araba:** espainiar pelikuletan egindako inbertsioen %30, oro har, baina %40 filma euskaraz bada; horretarako, ordea, inbertsioaren erdia eta bi asteko gutxieneko filmaketa egin behar dira EAEn. Besteren produkzioen filmaketa zerbitzuengatik EAEn egindako gastuen %25 (gutxieneko gastua Araban: 500.000 €). Muga: 2,5 milioi euro.

b) Diru-laguntza zuzenak

Diru-laguntza Zuzenak, une eta helburu ezberdinekin ikus-entzunezko produkzioan parte hartzen duten eragileei ematen zaizkien diru-laguntzak izaten dira.

Horretarako bide ezberdinak atzeman daitezke Hego Euskal Herrian.

Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE) zein Nafarroako Foru Erkidegoa (NFK) aspaldi hasi ziren biak ikus-entzunezko produkzioa diruz laguntzen, laurogeiko hamarkadan zehazki, zabalagoak, film luze eta laburrei zuzendutakoak EAEn, laburrei bakarrik Nafarroan. Orduetik hona gorabehera ezberdinetatik igaro dira Erkidego bietan ezarritako sistemek, baina azken urteotako ibilbideari erreparatuz behintzat, esan daiteke bietan sistemak sendotu eta dibertsifikatzera jo dela. Are gehiago, ez dira dagoeneko Erkidegoetako Gobernuak bakarrik diru laguntzak bideratzen dituztenak ikus-entzunezko sektorerara, baizik eta lurraldeak eta Udalak ere hasiak direla horretan.

Ondoren laguntza ezberdinak aztertuko dira zehaztasunez:

A) EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOA

Eusko Jaurlaritza

Esan bezala, 1982an hasi zen Eusko Jaurlaritza ikus-entzunezko produkzioa diruz laguntzen, urteroko subentzio deialdi baten bitartez. Orduetik hona diru laguntza sistema hornituagoa, konplexuagoa eta trinkoagoa egiten joan da, urtez urte, bereziki 2.000-tik aurrera. Aipatu behar da, nolanahi ere, inoiz ez dela ikus-entzunezko legerik eman EAEn. Laguntza sistema, hartara, urtetik urtera pilatzen, osatzen, eraldatzen eta zuzentzen joan diren deialdien bidez osatzen joan da.

Gaur egun honako laguntza mota bereiz daitezke:

i) Sorkuntza-lanak sustatzeko diru laguntzak: ZINEMARAKO GIDOIAK

Deialdi honetan zinemarako fikziozko zein animaziozko film luzeen gidioen idazketa laguntzen da.

Laguntza lerro honen dotazioa 2.021ean 104.000 €-koa izan zen eta egonkor mantendu da azken urteotan, baldintzetan zein zuzkiduran.

Ezaugarriak:

- 8 laguntza banatzen dira, bakoitza 13.000 €-koa
- 4 laguntza gazteleraz idatziko diren gidoietarako dira eta 4 euskarazko gidoietarako; nolana ere eta hizkuntzaren batean nahikoa eskabiderik ez edo haiek eskakizunak beteko ez balituzkete, beste hizkuntzan emandako laguntza kopurua handitzerik izango litzateke.
- laguntzetatik 1 zine areto komertzialetan filmik estreinatu gabeko eta 30 urtetik beherako gidoilarietara gordea
- 3 laguntza emakumezkoek idatzitako gidoientzat
- eskabidearekin batera gidoiaren argumentua, tratamendua eta sekuentzia baten eskaleta entregatu behar da
- onuradunek bederatzi hilabeteko epean gidoi literario oso bat entregatu behar dute

Eskatzaileak 18 urtetiko gorakoak eta EAEn jaiotakoak edo bertako udalen batean gutxienezko urtebeteko antzinasunarekin erroldatutakoak izan behar dira,

ii) Ikus-entzunezko proiektuen GARAPENA sustatzeko diru-laguntzak

Deialdi honetan edozein hedabide edo euskarritarako film luze, sail edo minisail proiektuen garapena laguntzen da, garapentzat jotzen delarik haren ekoizpenaren prestaketa eta diseinua, produkzio-fasearen beraren aurretik diren operaziotan zentratua (zehazki, eta besteak, beste, gidoia eskuratzea, produkzio diseinua eta plana egitea, lan-taldeak osatzea, lokalizazioak egitea, finantzaketa bilatzea).

Deialdi honetara pertsona fisiko edota juridiko independenteek, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideen batean egoitza dutenek eta laguntza jasoz gero Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza egonkorra izan edo hura izateko konpromisoa hartzen dutenak aurkez daitezke. Ez da beraz derrigorrezkoa Euskadin egoitza izatea eskaria egiteko. Bai ordea hura jasotzeko.

Laguntza lerro honen dotazioa 2.021ean 400.000 €-koa izan zen eta igoera garrantzitsua eman zen aurreko urteekiko (300.000 €-tako zuzkidura aurreko urte horietan). Horren arrazoia, lehen aldiz sail eta minisailen garapena sustatzeko diru partida zehatzak jarri zirela. Hain zuzen ere, aurreko urteetako deialdietan bakarrik film luzeen garapenerako diru-laguntzak eman ziren.

Ezaugarriak:

- 2 laguntza lerro:
- 250.000 € film luzeen proiektuentzat
- 150.000 € sail eta minisailentzat

Mugak:

- 25.000 € dokumental eta fikziozko filmen proiektuentzat; 40.000 € animaziozko film proiektuentzat
- 35.000 € dokumental eta fikziozko serieentzat; 45.000 € animaziozko serieentzat

Dirulaguntzak eskatutako diru-eskariaren portzentajea izan ohi dira, ebaluazioan jasotako puntuen arabera egokituta. Ebaluazioan hainbat elementuk parte hartzen dute, nagusiak direlarik proiektuaren bideragarritasuna(%40) eta gidoiaren kalitatea (%30). Euskara ez da baldintza, ebaluatzen den atal bat baizik (%5).

2.021ean, 16 film proiektu lagundu ziren, haietatik, 3 izan zirelarik euskarazkoak, eta 5 telesail-proiektu, haietatik 1 euskarazkoa.

Laguntzak, filmen kasuan, 6.000 € eta 25.000 € bitartean mugitu ziren; gehienak, nolana ere 15.000 €ren bueltakoak izan ziren. Telesailen kasuan berriz, 10.000 € eta 35.000 €-ren bitartean, baina gehienak, bostetik lau, 30.000 €tik gorakoak izan ziren.

Aurreko urteetan emandako laguntzak, esan bezala film luzeetara bakarrik zuzenduak, 18 proiektuentzako izan ziren 2.020an, haietatik 6 euskaraz, 16 proiektuentzat 2.019an, haietatik 5 euskaraz, 13 proiektuentzat 2.018an, haietatik 11 euskaraz eta 19 proiektuentzat 2.017an, haietatik 6 euskaraz.

iii) Ikus-entzunezko proiektuen PRODUKZIOA sustatzeko diru-laguntzak

Deialdi honetan, batez ere, zinema aretoetan proiektatzeko helburua duten filmen produkzioa laguntzen da, honako modalitateak bereizten direlarik: fikziozko film luzeak, aurrekontu txikiko film luzeak, animaziozko film luzeak, sorkuntzako dokumental luzeak eta film laburrak.

Lerro honen dotazioa 2.360.000 €-takoa izan zen 2021ean eta modalitate ezberdinetako kopuru zehatzak gorde ziren.

- 1.120.000 € fikziozko film luzeetarako
- 310.000 € aurrekontu txikiko film luzeetarako (gehienez 300.000 €-ko aurrekontua eta gainera euskarazkoa edo zuzendariaren lehen filmak izatea)
- 520.000 € animaziozko film luzeetarako
- 250.000 € sorkuntza dokumental luzeetarako
- 160.000 € film laburretarako

Diru-laguntza lerro honen dotazioa orokorra nahiko egonkor mantendu da azken urteotan, 2.017tik 2.020ra bitartean 2.260.000 €-takoa izan baita. Igoera, 100.000 €-koa hain zuzen, 2.021ean gertatu da. Film modalitateen arteko banaketan, ordea, gora behera dezente egon da urtetik urtera.

Hartara fikziozko film luzeena dezente hazi da urteotan, 2.017an 860.000 €-koa izan baitzen, 2.021-eko 1.120.000 €-en aldean.

Kontrako bidea egin du aurrekontu txikiko filmei zuzendutako lerroaren dotazioak, 500.000 €-tik erdira, 250.000 €-tara jaitsi baita 2.017tik 2.021era. Lerro batetik besterako diru aldaketa eman dela ematen du eta arrazoia halako proiektuak bideragarri egiteko zailtasuna.

Animazioko eta sorkuntza dokumentaletako filmetara eta film laburretara zuzendutako diru-kopurua, berriz, ia aldaketarik gabe mantendu da bost urteotan: 520.000 € animaziozkoetarako (duela bost urte 500.000 €), 250.000 € sorkuntzako dokumentaletarako (2.017an 240.000 €) eta 160.000 film laburretarako

Ezaugarriak:

Mugak:

- film luzeak: aurrekontuaren %20 edo 300.000 € (salbu euskarazko edota lehen filmentzat); ekoizlearen inbertsioa
- aurrekontu txikikoak: aurrekontuaren %50 edo 125.000 € (duela lau-bost urte 215.000 €koak izan ziren laguntzen muga); ekoizlearen inbertsioa
- animaziozkoak: 250.000 €
- orkuntza dokumentalak: 60.000 €
- film laburrak: 20.000 €

Deialdi honetara, Garapenerako diru-laguntzetara bezala, edozein pertsona fisiko edota juridiko independente aurkez daiteke, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideren batean egoitza badute eta laguntza jasoz gero Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza egonkorra izan edo izateko konpromisoa hartzen badute.

Horrezaz gain, aintzat hartu beharreko bestelako baldintzak honakoak lirateke:

- Koprodukzioei dagokienez, eskatzaileak ikus-entzunezko produkzioaren % 20ko titulartasuna izan beharko du gutxienez eta % 50ekoa izango da aurrekontu txikiko fikziozko film luzeetarako lerroan. Nazioarteko koprodukzioetan, koprodukzio-proiektua onartzen duen ebazpenaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da, Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zuzendari nagusiak emana, bai eta produktorekide guztiek sinatutako koprodukzio-kontratuaren azken bertsioren kopia konpultsatua ere.
- Gastuak lurraldean egiteko baldintza: onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenaren aurrekontuaren %32, gutxienez, erabili beharko du Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza edo

establezimendua duten pertsona fisiko edo juridikoek egindako lanetarako. Koprodukzioen kasuan, aipaturiko % 32 hori aplikatuko zaio onuradunak ikus-entzunezko ekoizpenean duen partaidetza-kuotari.

- Proiektuak guztizko kostuei aurre egiteko finantzaketaren % 50 duela egiaztatzea.

Proiektuen ebaluazioa bi fasetan egiten da honako faktoreak hartzen direlarik aintzat bakoitzean:

1. fasea: 90 puntu (30 finantzazioa, 10 nazioarteko koprodukzioa, 30 gidoia, 10 balio artistikoa, 10 marketing estrategia); gutxienez: 45

2. fasea: 60 puntu (10 kaudimen finantzarioa; 5 filmaketa EAEn; 5 EAEn egindako gastua; 10 talde teknikoa EAE; zuzendari-gidoilari-ekoizle taldearen ibilbidea; 10 emakumezkoak lantaldean; 3 zuzendari hasiberria (1); 3 proiektuaren ibilbidea; 10 j.b. euskaraz); gutxienez: 30.

2021ean honela banatu ziren laguntzak:

- Film luzeen produkzioarako: 6 laguntza, haietako 1 euskaraz. Hiru laguntza 300.000 €takoak izan ziren, bi 250.000 €takoak eta bat 130.000 €takoak. Aurreko urteetako banaketak atal honetan ere antzekoak izan dira: 4 proiektu 2020ean, haietako bat bera ere ez euskaraz, 5 proiektu 2019an, haietatik 4 euskaraz, 4 proiektu 2018an, zeinetatik 2 euskaraz eta 5 proiektu 2017an, euskarazkorik ez urte horretan. Diru laguntza gehienak urte horietan 300.000 €ren bueltakoak izan ziren, baita 350.000€takoak ere euskarazko hainbat proiekturen kasuetan ere.
- Aurrekontu txikiko filmen produkzioarako: proiektu bakarrari eman zitzaion laguntza, euskarazkoa berau, 125.000 €takoak. Aurreko urtean, 2020an, bi proiektu lagundu ziren, euskarazkorik ez orduan, 125.000 €rekin bat eta 100.000 €rekin bestea. 2019an, ere bi proiektu lagundu ziren, euskarazkorik ez, eta kopuru muga altuagoa izanik. Laguntza bat 150.000 €takoak izan zen eta bestea 60.000 €takoak. 2018an bi proiektu lagundu ziren, bat euskarazkoa, bakoitza 250.000 €rekin. 2017an, berriz, laguntza atal honen dotazioa kopuru altuenekoa izan zenean (500.000 €), bakarrik proiektu bat lagundu zen, euskarazkoa, 80.000 €rekin.
- Animaziozko filmak: lerro hau egonkorragoa izan da urtetik urtera, nahiz eta 2019an adibidez ez zen proiektu bakar bat ere lagundu. Beste urteetan gehienetan bi eta inoiz bat ere lagundu da. 2021ean hain zuzen proiektu bakarra lagundu zen, euskarazkoa, 250.000 €rekin. 2020an bi proiektu, euskarazkoak biak, bat 300.000 €rekin eta bestea 200.000 €rekin. 2018 ere bi proiektu, bat euskarazkoa, bakoitza 250.000 €rekin eta 2017an berriz bi proiektu, biak euskaraz, bat 300.000 €rekin eta bestea 200.000 €rekin.
- Dokumentalen kasuan, aldakorragoak dira bai lagundutako proiektu kopurua baita emandako dirulaguntzak ere. 2021ean 8 proiektu lagundu ziren, haietako sei euskarazkoak; emandako 3 laguntza 50.000 €koak izan ziren, beste hiru 35.000 €koak, bat 30.000 €koa eta beste bat 20.000 €koa. 2020an 7 lagundu ziren, haietatik 4 euskaraz; 2019an 6, 3 euskaraz, 2018an 5, 2 euskaraz eta 2017an 7, 2 euskaraz. Kopuruak

ere gehienetan 30.000 eta 50.000 € bitarte horretan mugitu ziren, inoiz 60.000 €etara heldu zirelarik ere.

- Film laburretan, kopuruak are aldakorragoak dira oraindik eta zailagoa da irudi orokor bat ematea. Nolanahi ere 2021ean 9 proiektu lagundu ziren, haietako 4 euskarazkoak. Dirulaguntzetatik sei 20.000 €koak izan ziren, eta beste hiruak 16.000 €, 12.000 € eta 11.000 €-koak, hurrenez hurren.

	2017		2018	
	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua
GIDOIAK IDAZTEKO	100.000	7 (3)	100.000	8 (4)
ZINEKO FILM LUZEAK (FIKZIOA)	860.000	5	860.000	4 (2)
ZINEKO FILM LUZEAK (FIKZIOA) AURREKONTU TXIRIA	500.000	1	500.000	2 (1)
ZINEKO FILM LUZE ANIMAZIOZKOAK	500.000	1 (1)	500.000	2 (1)
ZINEKO FILM LUZE DOKUMENTALAK	240.000	7 (2)	240.000	5 (2)
FILM LABURRAK	160.000	16 (49)	160.000	12 (-)
GARAPENA	300.000	19 (6)	390.000	13 (11)

2019		2020		2021	
Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua
104.000	8 (4)	104.000	8 (4)	104.000	8 (4)
1.060.000	5 (4)	1.110.000	4 (-)	1.120.000	6 (1)
300.000	2 (-)	250.000	2 (-)	310.000	1 (1)
500.000	0	500.000	2 (2)	520.000	1 (1)
240.000	6 (3)	240.000	7 (4)	250.000	8 (6)
160.000	11 (7)	160.000	10 (6)	160.000	9 (4)
300.000	16 (5)	300.000	18 (6)	400.000	21 (4)

* Parentesi artean agertzen diren zenbakiek euskaraz egindako proiektuen kopurua adierazten dute.

Diputazioak eta Udalak

Azken urteotan, EAEko Diputazioek eta zenbait Udalek ere ikus-entzunezko sorkuntza eta produkzioa diruz laguntzeko lerroak ezarri dituzte, betiere lurralde edota hiri haietan egoitza edo errola duten produkzio etxeei eta egileei zuzenduak. Aipagarrienak honakoak dira:

Arabako Foru Aldundia:

Arabako Foru Aldundia 2018an hasi zen dirulaguntzak eskaintzen Araban egoitza zuten produkzio etxeei. Urte hartan 180.000 € bideratu zituen, baina 2020 eta 2021an nabarmen igo du laguntzen dotazioa, 290.000 €-taraino. Baita osatu eta konplexuagoa egin ere sistema. Egun bost modalitatetan banatzen ditu diru laguntzak:

Garapena -filmak, telesailak, plataformetarako edukiak eta sailak-: 80.000 €

Produkzioa -film luzeak eta dokumentalak-: 80.000 €

Produkzioa -telesailak-: 50.000 €

Film Laburrak: 50.000 €

Gidoiak (film luzeak): 30.000 €

Emandako dirulaguntzak:

- garapena: 4 proiektu, 15.000 € inguruko laguntzak, batz bestea, haietako 1 euskaraz.
- produkzioa: 6 proiektu, batz bestea 20-25.000 €ko laguntzak, haietako 1 euskaraz.
- telesailen produkzioa: ez zen dirulaguntzarik eman
- film laburrak: 8 proiektu, 6.000 eta 10.000 € bitarteko laguntzak, haietako 1 euskaraz
- gidoiak: 3 laguntza, bakoitza 10.000 €koa

	2018		2019		2020		2021	
	Aurrek.	Proiektu kopurua	Aurrek.	Proiektu kopurua	Aurrek.	Proiektu kopurua	Aurrek.	Proiektu kopurua
GIDOIAK IDAZTEKO	20.000	4 (1)	20.000	2 (-)	40.000	3 (-)	30.000	3 (1)
GARAPENA	40.000	5 (1)	40.000	4 (-)	90.000	5 (-)	80.000	4 (1)
ZINERO FILM LUZEAK	80.000	5 (1)	80.000	4 (-)	80.000	3 (-)	80.000	6 (1)
TELESAILAK	-	- (-)	-	-	-	- (-)	50.000	0 (0)
FILM LABURRAK	40.000	3 (-)	40.000	4 (-)	40.000	7 (1)	50.000	9 (4)
GUZTIRA	180.000		180.000		250.000		290.000	

* Parentesi artean agertzen diren zenbakiak euskaraz egindako proiektuen kopurua adierazten dute.

Gasteizko Udala:

Gasteizko Udala Arabako Foru aldundia baino urtebete lehenago hasi zen ikus-entzunezko jardura diruz laguntzen eta esan daiteke berak eragin zuela ondorengo Foru Aldundiaren jardura.

Diru dotazioa baxuagoa da, 100.000 € eta hasieran parte bat film luzeen produkzioa bideratzen bazen ere gaur egun hiru modalitatetan bakarrik ditu laguntzak:

Garapena -50.000 €

Film Laburren produkzioa 40.000 €

Gidoien idazketa (film luzeak) 10.000 €

Esan bezala, film luzeen produkzioa sustatzeko laguntzak 2.020 deialdian kendu ziren, seguruenik zuten dimentsio ekonomiko txikiagatik ez zirelako oso eraginkorrak (20.000 €etaraino heltzen baziren ere)

Emandako laguntzak:

- garapena: 5 laguntza, 10.000 €koa bakoitza eta haietako 2 euskaraz
- film laburrak: 5 laguntza, hauek ere orokorrean 10.000 € ingurukoak eta haietako lau euskarazko proiektuak
- gidoiak: 2 laguntza, bakoitza 5.000 €koa

	2017		2018	
	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua
GIDOIAK IDAZTEKO	10.000	2 (-)	10.000	2 (-)
GARAPENA	25.000	3 (1)	25.000	3 (1)
ZINEKO FILM LUZEAK	40.000	3 (1)	40.000	2 (1)
FILM LABURRAK	25.000	4 (1)	25.000	3 (-)
GUZTIRA	100.000	-	100.000	

2019		2020		2021	
Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua
10.000	2 (-)	10.000	2 (1)	10.000	2 (1)
25.000	3 (-)	50.000	7 (-)	50.000	5 (2)
40.000	3 (2)	-	- (-)	-	-
25.000	5 (2)	40.000	5 (1)	40.000	5 (4)
100.000		100.000		100.000	

* Parentesi artean agertzen diren zenbakiak euskaraz egindako proiektuen kopurua adierazten dute.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Berau izan zen ikus-entzunezko produkzioa diru laguntzak bideratzen lehen diputazioa. Azken urteotan 150.000 € inbertitu ditu urteko eta film luzeen produkzio eta banaketa fasetan laguntzea du xede (2.017an 175.000 € eman zituen, baina urte horretatik aurrera 150.000 €-tara jaitsi da laguntza lerro honen dotazio ekonomikoa). Lanabesak izena duen deialdi honetan ez dira modalitateak bereizten eta produkzioaren zein banaketaren edozein fasetara bideratuak izan daitezke diru laguntzak. Emandako laguntza eskatutakoaren eta ebaluazio kualitatiboaren arabera erabakitzen da.

2021ean 20 proiekturi eman zitzaion laguntza, haietatik 17 euskarazkoak. Laguntza txikiak ez ziren 1.000 € heltzen eta handienak 17.000 €-koak izan ziren, tartean 4, 8, 10 eta 14.000 €koak ere. Kontrastean, 2.017an 7 proiektu lagundu ziren, laguntza txikiena 10.000 €koa eta handiena 40.000 €koa).

2017		2018		2019		2020		2021	
Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua	Aurrekontua	Proiektu kopurua
175.000	7 (4)	150.000	21 (13)	150.000	16 (11)	150.000	22 (14)	150.000	20 (17)

* Parentesi artean agertzen diren zenbakiak euskaraz egindako proiektuen kopurua adierazten dute.

Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia 2019an hasi zen ikus-entzunezko produkzioa diruz laguntzen. Urtero 100.000 €ko partida bideratu du, modalitate bakar bati zuzendua: film dokumental luzeen produkzioa.

2.021ean 5 proiektu lagundu zituen, haietako 2 euskaraz, eta 7.000 eta 24.000 € bitarteko diru-laguntza esleitu zitzaion proiektu bakoitzari.

Oharra dirulaguntzen bateragarritasunaz:

Europako araudiak (Europako Batzordearen 2013/C 332/01 Komunikazioa Estatuaren laguntzei buruz produkzio zinematografikoari eta ikus-entzunezko sektoreko beste produkzioei) zehazten du, arau orokor gisa, dirulaguntza mota ezberdinak batuta (zuzenak zein zerga bidezkoak, produkzio fase bati zuzendutakoak zein produkzioarako oro har emandakoak), haiek ezin dutela produkzio kostuaren %50a gainditu.

Arau orokor horrekiko salbuespen gisa zehazten ditu, ordea:

- nazioarteko koprodukzioak: muga %60a izango litzateke kasu hauetan
- izaera zaileko produkzioak, bertan kokatzen direlarik Estatu batean nagusi ez eta mugatuak diren hizkuntza ofizialak (populazio kopuruegatik zein lurralde hedapenagatik mugatuak, alegia). Kasu hauetarako ez da mugarik zehazten.

Telebistek ikus-entzunezko produkzioan inbertitzeko betebeharrak

Bereziki garrantzitsua da telebistak europar zine produkzioan inbertitzera behartzen dituen araudia. Neurri hau **ez da** diru-laguntza, ez zeharkakoa ezta zuzena ere, baina funtsezkoa da ziurtatzeko finantzaketa oinarri sendo bat europar ikus-entzunezkoentzat. Europar araudiak, alegia, Mugarik Gabeko Telebistaren gaineko artezarauak lehenengo eta Ikus-entzunezko zerbitzuen gainekoak ondoren, aukera ematen die Estatuari euren lurraldean europar produkzioaren sustapenerako neurriak ezartzeko, hartara telebista operadoreak behartuz euren dirusarreraren portzentaje bat zinearen produkzio independentean inbertitzera. Espainiar Estatuan, 1994.eko Lege batek (25/1994 Legea), lehenengo, eta Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrak (LGCA, 7/2010 Legea), ondoren, moldatu zituzten aipatu artezarauak. Legeok, halaber, Autonomia Erkidegoen esku uzten zuten haien kontzesio edo araupeko telebisten gaineko arauak moldatzeko aukera.

Hartara, EAEk 2007an dekretu baten bidez (215/2007 Dekretua) ezarri zituen halako moldaketak, Espainiar Estatuak finkatuko betebeharren (dirusarreraren %5 operadore pribatuek eta %6 publikoek, zeinetatik %50 Espainiako hizkuntza ofizialeren batean egindako obretan inbertitu beharko liratekeen) gaineko kontrol estuagoarekin batera, kuota linguistiko zehatzak ere ezarri bere agindupeko telebistei: Espainiako hizkuntza ofizialen batean egin beharreko inbertsio betebeharren %50a euskarazko jatorrizko produkzioetan gauzatu beharra. Halako neurriek EITBri lehenengo eta Euskalteli ere bai, gero, eragin die, honek telebista zerbitzu propioaren eragile izan den bitartean behintzat (Euskaltel MasMovil konpainiak erosi eta gutxira, TB zerbitzua AgileTV konpainiak hornitzen dio eta berau da, hortaz, inbertsio-konpromisoen erantzule.

Inbertsio betebeharrak ordenatzeko, dekretua indarrean sartu baino urte batzuk lehenago EITB-ek euskal ekoizleen elkarteekin adostutako hitzarmena erabili zen, hura 2008an moldatu eta berriro zehaztu zelarik, baldintza berrietara egokituz. Ondoko urteetan hitzarmen hura aldatzen eta egokitzen joan da zine eta telebistaren errealitate legal eta ekonomiko berrietara, baina funtsezko elementuetan bere horretan mantendu da. Hartara EITBk urtero Euskadiko ekoizle independenteek sustatutako hainbat film luze (irudi errealeko fikziozkoak, animaziozkoak, dokumentalak), labur eta telebistako dokumentalen produkzioan inbertitzeko konpromisoa hartu izan du, baldintza jakin batzuetan:

- film luzeen, animaziokoen eta zineko dokumentalen produkzio aurrekontuaren %16 eta %23 bitartea estaltzea, 480.000 € inguruko mugarekin film luzeen kasuan eta 140.000 €koarekin dokumentaletan
- euskarazko irudi errealeko film luzeen kasuan aurrekontuaren %35 eta %45eko bitarteraino igotzea inbertsioa, 800.000 €tik gorako mugarekin
- telebistako dokumentalak ere ekoiztea, aurrekontuaren %25 arte estaliz, 50.000 €ko mugarekin
- film laburrak, minutuko prezio jakin bat ezarriz (egun 150 €/min -200 euskaraz bada-, 2.250 €ko mugarekin -3.000 €koa, euskaraz izanez gero)
- proiektuek EITBren ekoizpen batzordearen onarpena jaso behar dute, ez baitira automatikoak. Nolanahi ere, inbertsioa modu efektiboan gauzatzeko betebeharrak agintzen du ekoizleak gutxienez aurrekontuaren %80a estaltzeko adina finantza baliabide lortutakoan.

Horrezaz gaiz, inbertsio betebeharren marko berean, EITBek bestelako produkzio batzuetan ere inbertitu izan du, ez bakarrik Euskadiko produkzio etxeekin, hala nola fikziozko mini-sailak (*Hondar ahoak*, *Altsasu*, *Alardea*, *Ihesa*), telesailak (*Goazen*) eta dokusailak ere (*Una Historia de Vasconia*).

Haiek guztiak aintzat hartuta, azken urteetan EITBren inbertsioak pasatu dira 2.016ko 5 milioi eurotik 2.020ko 7,4 milioitara (ez ditugu oraindik 2021ko datuak), aipatu bezala, modalitatea ezberdinetan: zineko film luzeak eta dokumentalak; minisailak eta telebistako dokumentalak; telesailak eta dokusailak; film laburrak.

Hartara, 2.020ean, kopuru hartatik 3,6 milioi euro inbertitu ziren zinemagintzako genero ezberdinetan (film luzeak -fikziozkoak, animaziozkoak eta dokumentalak- eta laburrak).

Film luzetan fikziozkoek hartzen dute parterik handiena eta 2.020an 3,1 milioi euro inbertitu ziren 8 proiektutan, haietatik 5 gaztelerazkoak, zeinetan 2,1 milioi euro jarri ziren, eta 3 euskarazkoak, zeinetan milioi bat euro inbertitu zen. Film bakoitzean inbertitutako dirua aldarorra da eta bakoitzaren aurrekontuaren funtzioan dago. Euskarazkoetan, hartara ohikoak dira 800.000 €-ko inbertsioak eta gaztelerazkoetan 400.000 €koak ere.

Animaziozkoetan era antzekoa gertatzen da, ohikoak dira 400.000 € inguru-ko esku hartzeak pelikulako.

	2016		2017		2018		2019		2020	
	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA
ZINEKO FILM LUZEAK (FIRZIOA) GAZTELERAZ	2.079.494	5	1.578.902	5	1.496.468	4	2.476.597	7	2.099.374	5
ZINEKO FILM LUZEAK (FIRZIOA) EUSKARAZ	1.351.397	2	1.412.713	2	1.408.082	3	1.257.331	2	1.006.112	3
ZINEKO FILM LUZEAK	3.430.891	7	2.991.615	7	2.904.550	7	3.733.928	9	3.105.486	8
ZINEKO DOKUMENTALAK GAZTELERAZ	284.282	5	199.698	4	51.322	1	-	0	217.294	3
ZINEKO DOKUMENTALAK EUSKARAZ	93.865	1	190.837	3	301.373	3	10.210	1	101.531	4
ZINEKO DOKUMENTALAK	378.147	6	390.535	7	352.695	4	10.210	1	318.825	7
ANIMAZIOZKO FILMAK GAZTELERAZ	-	0	-	0	-	0	-	0	-	-
ANIMAZIOZKO FILMAK EUSKARAZ	-	0	982.236	2	-	0	783.623	2	188.965	1
ANIMAZIOZKO FILMAK	-	0	982.236	2	-	0	783.623	2	188.965	1
FILM LABURRAK GAZTELERAZ	24.549	13	27.453	13	10.780	5	34.533	18	13.635	-
FILM LABURRAK EUSKARAZ	19.619	9	8.613	5	5.287	3	35.581	18	18.283	10
FILM LABURRAK	44.168	22	36.066	18	16.067	8	70.114	36	31.918	16
INBERTSIOA ZINEAN	3.853.206		4.400.452		3.273.312		4.597.875		3.645.194	

	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA	INBERTSIOA	PROIEKTU KOPURUA
Telebistako dokumentalak	599.902		421.299		655.161		386.674		181.519	5
Minisailak	-		-		-		736.779		1.853.944	3
TELESAILAK	619.540		1.219.480		2.157.907	5	34.533	18	13.635	-
DOKUSAILAK	-		429.146		-		351.529		184.880	1
GUZTIRA	5.072.648		6.470.377		6.086.380		7.361.769		7.367.867	

Berriki, 2.022ko ekainaren 13an hain zuzen, hitzarmen berri bat sinatu dute EAEko ekoizleen elkarteek (Ibaia, EPE/APV eta Apika) eta EITB Media korporazioak. Haren arabera, aldatu egin dira EITB Mediak ikus-entzunezko produkzioetan parte hartzeko moduak eta konprometitutako kopuruak, hemendik aurrera honako kategoria eta kopuruaren arabera egingo direlarik:

* **Euskaraz egindako irudi errealeko eta fikziozko filmak:**

- komunikazio eskubideak: euskarazko bertsioa bakarrik, 39.000 € eta 80.000 € bitartean, aurrekontuaren arabera (600.000 € eta 2.000.000 € bitartean); euskarazko eta gaztelarazko bertsio bienak, 54.000 et 100.000 € bitartean

- esplotazio eskubideak:
 - I. kopuru finkoa: aurrekontuaren %31; gehienez 435.000 €
 - II. kopuru aldagarria: %8 gehiago; gehienez 120.000 € kopuru aldagarria erabakiko da hainbat aldagaien arabera: emakumezkoen parte hartzea, zuzendari berria, errodajeen %90etik gora EAEn egitea, sortzaile taldea EAeko %55etik gora
 - III. publizitatea: 50.000 €

- * **Euskaraz egindako animaziozko filmak:**
 - komunikazio eskubideak: euskarazko bertsioa bakarrik, 39.000 € eta 75.000 € bitartean, aurrekontuaren arabera (600.000 € eta 2.000.000 € bitartean); euskarazko eta gaztelerazko bertsio bienak, 54.000 et 100.000 € bitartean
 - esplotazio eskubideak:
 - I. kopuru finkoa: aurrekontuaren %13; gehienez 243.750 €
 - II. kopuru aldagarria: %6 gehiago; gehienez 112.500 € kopuru aldagarria erabakiko da hainbat aldagaien arabera: emakumezkoen parte hartzea, zuzendari berria, errodajeen %90etik gora EAEn egitea, sortzaile taldea EAeko %55etik gora
 - III. publizitatea: 50.000 €

- * **Gazteleraz egindako irudi errealeko zein animaziozko fikziozko filmak:**
 - komunikazio eskubideak: 42.000 € eta 95.000 € bitartean, aurrekontuaren arabera (600.000 € eta 2.000.000 € bitartean)
 - esplotazio eskubideak:
 - I. kopuru finkoa: aurrekontuaren %13; gehienez 243.750 €
 - II. kopuru aldagarria: %5 gehiago; gehienez 93.750 € kopuru aldagarria erabakiko da hainbat aldagaien arabera: emakumezkoen parte hartzea, zuzendari berria, errodajeen %90etik gora EAEn egitea, sortzaile taldea EAeko %55etik gora
 - III. publizitatea: 33.000 €

- * **Zinerako autore-dokumentalak:**
 - komunikazio eskubideak: 20.000 € eta 25.000 € bitartean jaotzizko bertsioa eta 30.000 € eta 35.000 € bitartean euskara eta gaztelerazko bertsio biak, aurrekontuaren arabera (300.000 €-tik behera edo gora)
 - esplotazio eskubideak:
 - I. kopuru finkoa: aurrekontuaren %13; gehienez 52.000 €

- II. kopuru aldagarria: %5 gehiago; gehienez 20.000 € kopuru aldagarria erabakiko da hainbat aldagairen arabera: emakumezkoen parte hartzea, zuzendari berria, errodajeen %90etik gora EAEn egitea, sortzaile taldea EAEkoa %55etik gora
- III. publizitatea: 15.000 €

* **Telebistarako sormen-dokumentalak**

- libreria eta komunikazio eskubideak: 10.000 €
- esplotazio eskubideak: aurrekontuaren %22; gehienez, 45.000 €

* **Film laburrak:**

- gaztelera-koak: 17 €/min; gehienez, 2.620 €
- euskarazkoak: 23 €/min; gehienez, 3.500 €

Aparteko sariak filma zenbait nazioarteko jaialditan aukeratua edo Goya zein Oscar sarietarako izendatua izanez gero.

B) NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAN

Nafarroako Foru Erkidegoa ere 80. hamarkadan hasi zen ikus-entzunezko produkziarako diru laguntzak ematen urteroko deialdien bitartez, kasu honetan bakarrik film laburren produkzioari zuzenduak. Diru-laguntza hauek gora behera ezberdinekin bere horretan mantendu izan dira 2.016 arte. Urte horretan 90.000 € bideratu ziren helburu honetara.

Baina 2.017tik aurrera aldaketa garrantzitsuak ematen hasten dira Nafarroako Gobernuaren politikan ikus-entzunezkoarekiko, hain zuzen ere industria kreatiboak eta digitalak, orokorrean, eta zehazki ikus-entzunezko sektorea, estrategikoak eta lehentasunezkoak kontsideratzen hasten direnean Nafarroako Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren 2016ko eguneratzean.

Sektorearen kontsiderazio berri honek ekarriko du ordura arteko baina baliabide gehiago bideratzea sektorerara eta diru-laguntzetara mugatutako neurriak beste mota batzuetako interbentzioekin osatzea. Zehazki, mezenasgoa sustatzeko zerga politika berria, jada aipatua izan den txosten honetan, enpresak eta ikus-entzunezko jardura erakartzeko estrategiak, batez ere animazioaren sektorean, zerbitzuen eskaintza (film commission, elkarteak eta klusterra) eta abar. Haietako batzuk aurrerago aipatuko dira.

Diru laguntzei dagokionean, beraz, programa zabaldu egingo da eta urtez urte hazten joango den dotazio ekonomiko berria ezartzen da. Hartara, 2.017an bertan 134.000 € bideratuko dira film laburren produkziara eta, horrekin batera, film luzeen proiektuen garapena sustatzeko lerro berria irekiko da, 20.000 €rekin. Deialdiak izendapen berria jasoko du eta GENERAZINEMA deitzera igaroko da. Hurrengo urtean, 2.018an, film luzeen produkziarako diru laguntzak eskainiko dira lehenengo aldiz, 390.000 €ko dotazioarekin. Dirulaguntzak, guztira, 520.000 €taraino igoko dira, hartara, 90.000 € film laburren produkziara eta 30.000 € film luzeen garapenera zuzentzen zaizkielarik. Hurrengo bi urtetan ez da aldaketa handirik izango (510.000 € eta 542.000 € orotara, hurrenez hurren 2.019 eta 2.020 urteetan), harik eta 2.021ena jauzi garrantzitsua ematen den arte bai laguntza programaren dotazio ekonomikoak, baita haren konplexutasunean ere.

Urte horretan, hain zuzen, laguntzetarako dotazio ekonomikoa 1.187.500 €taraino igo zen, 2.022an zertxobait apaldu bada ere, 990.960 €tara jaitzita.

Gaur egun beraz, honakoak dira modalitateak eta dotazio ekonomikoak:

	2020	2021	Proiektuak (2021)
FILM LUZEEN PRODUKZIORAKO LAGUNTZA OROKORRAK	480.000	500.000	6 (-)
FILM LUZEEN PRODUKZIOA: AURREKONTU TXIKIA (<500.000 €)	220.000	242.000	4 (1)
FILM LABURRAK: FIKZIOA EDO DOKUMENTALA	50.000	75.500	7 (2)
FILM LABURRAK. ANIMAZIOA	90.965	120.000	1
GARAPENA	150.000	195.500	12

* Parentesi artean agertzen diren zenbakiak euskaraz egindako proiektuen kopurua adierazten dute.

Produkziorako laguntzen ezaugarriak:

- filmaren zuzendaria Nafarroan jaioa edo bertan erroldatua izan behar da
- produkzio etxeak Nafarroan izatea egoitza fiskala, produkzioak irauten duen bitartean
- produkzio gastuen %40a Nafarroan egitea
- proiektuaren finantzaketaren %20a ziurtatuta egon beha da.
- dirulaguntzen mugak:
 - a. 100.000 € film luze orokorrak, 60.000 € aurrekontu txikikoak, 40.000 € animazioko film laburrak, 25.000 beste film laburrak
 - b. kostuaren %50, intentsifikazio aukerak: film laburrak (%85); dokumentalak (%75) euskarazkoak (%80); animaziozkoak + aurrekontua < 2.500.000 € (%75); zuzendari berriak + aurrekontua < 1.500.000 € (%80); zuzendaria emakumezkoa (%75)

Ebaluazioa:

- film luze orokorrak: %53 proiektuaren eta enpresaren solbentzia (elementu objektiboetan oinarritua: kaudimena, ibilbidea, gastua Nafarroan egitea, finantzazio maila, zuzendari berria edota emakumezkoa,...) eta %47 proiektuaren kalitatea (20 kalitate artistikoa; 27 bideragarritasuna)
- aurrekontu txikikoak eta film laburrak: %43 solbentzia; %57 kalitatea (22 kalitate artistikoa, 5 balio soziala, 5 banaketa plana, 25 bideragarritasuna)

2.021ean emandako laguntzen azterketa:

- film luze orokorrak: 6 proiektu lagundu ziren eta emandako laguntzak izan ziren bost 100.000 €koak eta seigarrena 90.000 €koa
- aurrekontu txikikoak: 4 proiektu lagundu ziren eta emandako laguntzak izan ziren hiru 60.000 €koak eta bat 28.000 €koa
- animaziozko film laburrak: bakarra lagundu zen 18.000 €rekin
- beste film laburrak: 7 proiektu lagundu ziren eta emandako laguntzak 7.000 eta 25.000 € artekoak izan ziren. Gehienak, hain zuzen, 14.000 eta 25.000 €koak

Garapenerako dirulaguntzen ezaugarriak:

- bi modalitate: film luze edo telesailak fikziozkoak edo dokumentalak eta (50.000 € 2.022ean; 60.000 € 2.021ean) eta animaziozko film luzeak edo telesailak (100.000 € 2.022ean, 190.000 2.021ean)
- eskakizunak, oro har, produkziokoak bezalakoak, baina finantzaketa %15ean ziurtatuta izatea eskatzen da (beti ere, garapenekoa)
- mugak: aurrekontuaren %60 oro har, baina 20.000 € fikziozko eta dokumentalen proiektuentzat eta 40.000 animaziozkoentzat.

Ebaluazioa: %45 solbentzia, %55 kalitatea (35) eta bideragarritasuna (20)

2.021ean emandako laguntzen azterketa: 12 laguntza eman ziren, haietatik hiru animaziozko proiektuentzat. Diru kopuruak goiko mugetara hurbildu ziren: bi laguntza 40.000 €koak eta bat 33.000 €koa animaziozkoentzat eta bost laguntza 20.000 €ko, hiru 10.000 €ko eta bat 6.000 €ko bestelakoentzat.

» Beste laguntzak

A) EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOIA

1. **ZINEUSKADI** elkartearen bidez, Eusko Jaurlaritzak sustatua ikus-entzunezko ekoizle eta enpresen elkarrekin batera, zinemagintzarako beste dirulaguntzak ere bideratzen dira:

- **Film luzeak sustatu eta publizitatea egiteko diru laguntzak**

Laguntza-lerro honen zuzkidura 150.000 €tako izan da azken urteotan eta haietarik 45.000 € euskarazko filmentzat gordetzen dira. Laguntzaren gehienezko kopurua proiektu baterako xede horretarako aurreikusitako gastuen %50a edo 35.000 € da (12.000 € dokumentalen kasuan), nahiz eta euskarazkoetan gaindi daitekeen aipatu kopurua.

Laguntzaren %25a modu berdinean banatzen da proiektuek balorazio irizpideetan zehaztutako baldintzen arabera gutxienez %50eko (edo %35ekoa dokumentalen kasuan) puntuazioa lortzen duten proiektuen artean. Beste %75a, lortutako ponderazioaren arabera, beti ere aipatu gutxienekoa lortutako proiektuen artean.

2.021.en urtean 8 proiektuk jaso zuten dirulaguntza, batek 30.000 €koa, bostek 20.000 €koa eta bik 10.000 €koa bakoitzak. Aurreko urteetan ere 8 proiekturi eman izan zaio dirulaguntza (2.017an 7ri), antzeko kopuruekin.

- **Merkatuetera joateko dirulaguntzak**

45.000 € gorde izan dira urteko helburu honetarako. Laguntzak xumeak dira, gehienez, 3.000 €koak, eta jaialdietako akreditazioak, bidai eta mantenu gastuak eta stand bat alokatzearenak estaltzea edo arintzea du helburu.

- **Zine aretoetan film iberoamerikarrak ematea sustatzeko diru-laguntzak**

Diru laguntza mota hau zine aretoetara zuzenduta dago. Lerro honen dotazioa 160.000 €koa izan da azken urteotan baina 2.021 urtean 240.000 €tara igo zen laguntza eta 2.022an 210.000 €tara jaitsi den berriro: 150.000 € hiru pantaila baino gutxiago dituzten zine aretoetara, 50.000 € hiru pantailatik gora dituztenentzat eta 10.000 Zinema euskaraz programan parte hartzen dutenentzat. Urtero 30 eta 35 zine aretok jasotzen dute dirulaguntza, hiru aretok inguru 15.000 €ren buletakoak, beste gutxi batzuk 10.000 €koak baina gehienek 2.000 eta 5.000 € bitartekoak

- **Filmak euskaraz bikoiztu eta azpidatzita banatzeko dirulaguntzak**

Diru laguntza mota hau berriz, banatzaileei zuzendua da, euskarara bikoiztu eta azpidatzeko gastuak estaliz. Filmek, halaber, publizitate kanpaina instituzionalaren onura ere jasotzen dute.

2. ERRESIDENTZIAK ETA MENTORETZAK

- **Ikusmira berriak**

Autoreei zuzendutako erresidentzia programa bat da, 2015an abiatu zena Tabakalera Nazioarteko Kultura Garaikideko Zentroan, Donostian, bertako Zinemaldia jaialdiarekin eta Elias Querejeta Zine Eskolarekin lankidetzan.

Egungo formatuan:

- 8 asteko erresidentzia (6 aste udaberrian edo uda aurretik + 2 aste udazkenean, Zinemaldiarekin batera); gastuak ordainduta.
- aholkularitza: programako adituek eskainia
- aurkezpena eta aholkularitza Zinemaldian
- 5.000 €ko diru laguntza garapenerako

Hautatzen diren proiektuak formalki berritzaileak izan behar dira bai narratiba aldetik baita ikus-entzunezko proposamenaren aldetik ere. Ez dira zertan iraupen luzeak izan, baina gehienetan hala dira

Sei laguntza ematen dira, honela banatuta:

- 2 nazioartekoak
- 1 Espainiakoa
- 1 EAEkoa
- 1 EQZEkoa
- 1 NEST, Zinemaldian ospatzen den Nazioarteko Zine eskolen jaialdian parte hartzen duten eskoletakoa

Ez dago euskarazko proiektuetarako erreserba espezifikorik.

- **NOKA**

Mentoretza programa hau 2019an abiatu zen. Egun Tabakalera zentroan garatzen da.

Proiektu honen ezaugarri berezitua emakumezko zine zuzendariei zuzenduta dagoela da. Hautagaiak EAEn edo Nafarroa Garaian jaioak edota bertan errolatutak izan behar dira. Ez dago inongo erreserbarik euskarari dagokionean.

Adituen aholkularitza eta garapenerako 4.000 € eskaintzen ditu programak.

- **Aukera**

Programa hau 2.201ean abiatu da, (H)emen Elkartearen eskutik, euskadiko emakumezko zinegileak batzen dituen elkarte bat.

Film laburrak egiteko mentoretza programa bat da, emakumezko zinegileei zuzendua.

Urtero bost proiektu aukeratzen dira eta haien gainean gidoigintza, errealizazio eta produkzioaren inguruko aholkularitza eta formazioa eskaintzen da.

Bost proiektuak Zinebi jaialdian aurkezten dira pitching saio batean eta haien artean 3 sari banatzen dira, bakoitza 3.000 €koa, haietako bat gutxienez euskarazko proiektu bati zuzenduko zaiolarik.

- **Oihua**

San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission agentziak sustatutako programa da euskarazko eta generoko film labur bat ekoizteko. Tutoretza profesionala, baliabide teknikoak (Larrotxene Bideo) eta produkzioarako diru-poltsa (7.000 € artekoa). Filma Donostiako Berldurreko Zine astean estreinatzen da. Bi urtetan deitu oraingoz, 2019an eta 2021ean

- **Geuretik Sortuak**

Udalbiltza Euskal Herriko Udal elkarteak bideratutako erresidentzia artistiko-kulturaleko programa da honakoa. Biurteko programa da, orain arte 2021/22 bakarrik burutu delarik. Zinemagintzari dagokionean, 5 zinegilek Udalbiltzako 5 Udaletan erresidentzia burutu dute zenbait astetan, bakoitzak film labur bat burutu duelarik bertako kulturaren testuinguruan sortua, beti ere euskaraz. Bost film labur haiek film luze bakar batean batu dira, Bost Teilatu izaena hartu duena, orain Udalbiltzako herrietatik zabaldu eta erakutsiko dena.

- **2deo**

2deo Tabakalera Zentroan martxan jarri den laborategia da. Produkzio, edizio eta postprodukzio azpiegiturak eskaintzen ditu, Tabakalerako Mediatekak eskaintzen dituen beste azpiegiturekin ere bateragarriak direnak.

Laborategiak mentoretza eta laguntza programa ezberdinak abiatu ditu:

- Deialdi irekia: sarerako euskarazko ikus-entzunezko proiektuak ekoizteko. Eskaintzen dira: 3 aholkularitza saio,

baliabide materialak eta ekipoak eta 1.500 €. Programaren urteko dotazioa diru laguntzetarako 45.000 €tako da

- 2de serieak: telesailen proiektuak garatzeko aholkularitza/mentoretza programa da. 2021an abiatu zen, hiru proiektuekin, bakoitzari 6.000 €ko diru-laguntza ere eman zitzaionetik garapenerako. 2022an ere abian da programa. Urtero hautatzen diren proiektuetatik bat gutxienez esukarazkoa izan behar da.
- Talde esperimentalak: programa hau 2022an abiatu dda eta helburua du gazte taldeak terbatzea sare sozialetarako euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntzan eta produkzioan terbatzea.
- **Gela bat norberarena**

Emakume zinegileei eskainitako erresidentzia-mentoretza-laguntza programa film luzeen proiektuak garatzeko. Urria eta ekaina bitarteko erresidentzia, Bilbon, 15.000 €ko dirulaguntza eta zuzendaritza, gidioa, ekoizpena, soinua, zuzendaritza artistikoa, jatorrizko musika eta argazki-zuzendaritza arloetan aholkularitza eta mentoretza.
- **Dirdira Lab**

Formakuntza-erresidentzia-laguntza programa film luze abangoardista eta esperimentalen proiektuak garatzeko. Ordaindutako astebeteko bi egonaldi Arabako AZALA espazioan non formakuntza emango den (zuzendaria eta ekoizlearentzat). Aukeratutako film guztiek 1.500 €ko saria jasoko dute.
- **Zine jaialdiak**

Zinema jaialdiak ere zinemaren produkzioa sustatzeko guneak ari dira bihurtzen, ez jada bakarrik egile, ekoizle eta instituzioen arteko harremanen sustapenaren bidez baizik eta laguntza ekonomikoen bidez ere.

Zinemaldia

Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroa

IBAIA; Euskal Ekoizle Independenteen Elkarteak kudeatzen du programa hau. Foroa dokumental proiektuen pitching/aurkezpen saio bat da, hainbat telebistetako ekoizle-ordezkarien aurrean. Hamazazpi edizio izan ditu dagoeneko. Aurkeztutako proiektuen artean aukeratutakoek (15 proiektu, gutxi gora behera azken urteetan) pitching-a prestatzeko aholkularitza eta formakuntza jasotzen dute.

Gainera, duela urte batzuetatik hona sariak ere banatzen dira haien artean, diruzkoak (3.000 €ko sari nagusi bat 2.017tik 2.021era; 2.022an saria 5.000 €koa izango da) edo aholkularitza eta beste jaialdietako pitching saioetarako gonbidapena.

Izen ematea irekia da eta ez dago ez lurraldeko ez euskarazko proiektuen inguruko erreserbarik.

Zinebi

Zinebi Networking Dokumentalen Sorgunea

Honakoa ere film luze dokumentalen garapen eta aurkezpen foro bat da, adituek gidatua.

4 edizio egin dira 2021 urtera arte eta honakoa eta EPE/APV Euskadiko Ekoizle Independenteen Elkartearekin, ETBrekin eta Europa Creativa Media Euskadi programarekin elkarlanean burutzen da. Aholkularitzaz gain, bi Sari esakintzen ditu proiektuen garapenerako: 10.000 €ko Sari Nagusi bat eta 5.000 €ko beste bat, ETBren eskutik honakoa, Euskal proiektu onenarentzat

Mendifilm

MendiFilm Bizkaia Ternua

Honakoa menidarekin zerikusia duten proiektuen produktiorako deialdia da. Bertara 18 eta 35 urte bitarteko zinegile gazteak aurkez daitezke 3 film labur eta luze bat baino gehiago zuzendu ez dituztenak. Proiektuak film laburrak izan daitezke. Aholkularitza eta 10.000 €ko diru-laguntza eskaintzen dira, baita filma jaialdiaren barruan erakusteko aukera ere.

Lekeitioko Zine Bilera

Lekeitioko Zine Bilerak Euskaltzaleen Topagunearekin batera Benito Ansola beka eskaintzen du urtero euskarazko film laburrak

3. KIMUAK PROGRAMA

KIMUAK programa euskal produkzio etxeek ekoiztutako film laburren aukeraketa jaialdietan banatzeko programa izan da, lehena ezarri zean Estatu espainiarrean, 1.998.ean eta ondoren Estatuak berak eta Autonomia Erkidego gehienek kopia dutena.

Urtero 8 film aukeraten dira. Orain arte EAEn egoitza edo errolda zuten zuzendari eta produkzio etxeak bakarrik aurkez zitezkeen. 2.022tik aurrera, ordea, baita Nafarroakoak eta Euskal Hirigune Elkartekoak ere, baina bakarrik filma euskaraz eginga badute.

Aukeratutako filmekin katalogoa sortzen da, eta hainbat hizkuntzetako azpi-datziak erantsita nazioarteko jaialdietara bidaltzen da katalogoa. Programa hau Euskadiko Filmategian integratuta egonda 2.021era arte. 2.022tik aurrera Etxepare Institutuaren baitara igaro da, nahiz eta ZINEUSKADI elkartearen bidez egiten haren kudeaketa.

4. MUGIKORTASUN LAGUNTZAK ATZERRIKO JAIALDIETARA JOATEKO

Honako laguntza lerroa Etxepare Institutuak kudeatzen du, zinegile eta idazleentzat. Dotazio orokorra: 18.000 €

5. FILM COMMISSION

Hiru Film Commission daude EAEn, bulego bana lurralde edo hiriburu bakoitzean:

- San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission (<https://sansebastian-gipuzkoafilmcommission.eus>)
- Bilbao-Bizkaia Film Commission (<https://www.bifilmcommission.com>)
- Vitoria-Gasteiz Film Office (www.vitoria-gasteiz.org/filmoffice)

Hirurak, Udalaren eta Diputazioen arteko elkarlanean sortutako bulegoak dira, Kultura Sailen eta Ekonomiaren Sustapeneko Sail eta agentzien artean.

Horrezaz gain koordinazio eta kanpo hedapenerako marka bateratua sortu dute, FILM BASQUE COUNTRY (<https://www.zineuskadi.eu/eu/film-basque-country/co-17/>) izenarekin.

Film Commissionen zeregina nahikoa estandarizatuta daude eta demostratua da haien eraginkortasuna eta garrantzia ikus-entzunezko produktioa sustatzeko orduan: baimenak erraztu eta bideratu, informazioa eskaini produktio etxeei hainbat gairen inguruan (zergak, inguruko zerbitzuak eta profesionalak, izapide ezberdinak, harremanak,...), lurraldea ikus-entzunezko produktiorako leku egoki gisa sustatu.

Bilbao-Bizkaia Film Commissionaren datuen arabera, 2.021ean 161 errodateje/filmaketa burutu ziren Bizkaian, eta haiei lotuta 1.186 kontratazio burutu ziren. Eragin ekonomikoa, 13,85 milioi eurotako izan zen. Grabazioak honela sailkatu ziren: 48 publizitateko iragarki, 35 film labur, 21 bideo klip, 20 telebista saio, 16 dokumental, 9 film, 7 argazki saio, 4 telesail eta websail bat. (albistea:

San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-aren arabera, berriz, 2.021ean 66 proiektu grabatu ziren Gipuzkoan. Inbertsio zuzena 6,9 milioi eurotako izan zen, haietatik 4,2 Donostian bertan, eta eragin ekonomikoa 11,4 milioi eurotako izan zen. Grabazio gehieneak web eta sare sozioletarako izan ziren (%36), nahiz eta esanguratsuak izan ziren baita ere telebistarakoak (%30), zinekoak (%20) eta streaming plataformetarakoak (%9) (Albistea: <https://www.audiovisual451.com/gipuzkoa-registro-en-2021-66-rodajes-audio-visuales-gestionados-por-san-sebastian-gipuzkoa-film-commission/>)

6. FILMAZPIT

Zineuskadi Elkarteak finantzatu eta Donostia Kultura, Donostiako Kultura bulegoan kudeatutako programa da. Programak filmen katalogo bat kudeatzen du, bera arduratzen delarik eskubideak lortzeaz, eta euskara azpidatzia, edozein elkarteri doan eskaintzen zaiona irabazi asmorik gabeko emanaldiak egiteko.

7. AZPIEGITURAK

Ez da ohikoa izan EAEko industria politiketan kultur industrietarako azpiegituren hornikuntza. Bai ordea kultur politiketan, demokrazia kulturalaren ikusmoldeak bultzatuta. Haren xedea litzateke jendearen esku uztea hark

sortzeko behar dituen baliabideak, bera izan dadin eragile zuzen eta aktiboa Kulturgintzan eta ez bakarrik hartzaile pasibo. Hainbat dira, hartara, ikus-entzunezko baliabideak herritar eta erabiltzaileen esku uzten dituzten zentroak, helburu profesional edo industrialik gabe, beraz.

- **ZINEALDEA** da lehenengoaren adibide nagusia: Oiartzunen kokatutako estudio profesionalak dira, bi plato handiekin, 1.800m²-koa bata eta 820m²-koa bestea. Horrezaz gain biltegiak, bulegoak, bestelako espazio irekiak eta estudio txikiagoak ere baditu. Oarsoaldea Garapen Agentziak babestuta egin zen proiektua, nahiz eta ekimen pribatuak sustatua, harena zen industri poligono batean. Inbertsio handia egin eta gero, 2011.ean amaitu ziren lanak (24 milioi euro inguru albiste ezberdinen arabera). Baina errealitatea, ez da enpresarik kokatu bertan eta oso jarduera gutxi lortu biltzea haren baitara (Agur Etxebeste edo Handia filmen grabaziotarako erabili da, baina geiago biltegi bezala lantoki modura baino). Une honetan ikus-entzunezko ekipamendurik gabe jarraitzen du.
- **CHROMA KEY ESTUDIOA;** Arabako Parke Teknologikoan ezarritako estudio bat da, Chroman errodatzeko prestatua. Errementari filma errodatzeko prestatu zen 2016an eta ordutik ikus-entzunezko produkzio profesionalerako Arabako Diputazioak eskaintzen duen azpiegitura da.
- **TABAKALERAko MEDIALAB,** aldiz, bigarrenarena: edozeinen eskura uzten ditu ikus-entzunezko baliabideak eta espazioak, nork bere proiektua eta egitasmoak burutzeko.
- **DK LARROTXENE,** Donostiako auzo/kultur etxe bat da, ikus-entzunezkoetan espezializatua. Ikastaroak ematen ditu, baita baliabideak utzi eta proiektuen aholkularitza egin ere.
- **DINAMOA,** Azpeitiko sormen gunea, pixkanaka-pixkanaka osatzen ari dena, gaur egun hitza, gorputza eta soinuaren inguruan baina laster irudiaren eta ikus-entzunezkoaren inguruko baliabideak ere eskainiko dituena. Dinamoak sorkuntzarako bekak eta egonaldiak ere sustatzen ditu.

8. BERRIKUNTZA ETA ESPEZIALIZAZIO POLITIKAK: KLUSTERRAK ETA DISTRITO KULTURALAK (EIKEN, KSIGUNE, BIDC, BDCC)

Berrikuntza eta espezializazio estrategiak lurralde politiketako atal garrantzitsu bihurtu dira azken urteotan. Helburua lurraldeko etorkizuneko garapen ekonomiko eta sozialaren ardatz izan daitezken sektoreen identifikazioa egin eta haiei zuzendutako sustapen, berrikuntza eta nazioarteko dinamika ezartzea da sektore haietan jarduten duten enpresen arteko elkarlana eta kolaborazioa sustatuz.

Halako politiken hedatzea RIS3 Europan zeharreko erregioetan ezartzen joan diren Espezializazio Estrategien eskutik etorri zen, Europako Batasunak ezarritako Europa 2020 garapen estrategia orokorraren markoan. Eta egitura ezberdinetan gauzatu dira, hala klusterrak nola, kultura eta sorkuntzaren arloan, kultur distritoak ere.

Kluster politiken oinarrian, zehaztutako sektorean parte hartzen duten enpresen arteko elkar-eragutza, hausnarketa estrategikoa, formakuntza, berrikuntza eta nazioartekotzea sustatzea bezalako printzipioak daude.

Antzekoa da kultur distritoen ikuspegia ere. Kultura eta Sormen industriaren izaera zeharkakoa eta sare motako harreman eta egituretan oinarritua, normalean lokalizatua edo tokiari ainguratua, balio haiek sustatzera bideratutako tresnak dira, elkarezagutza, formakuntza eta berrikuntzaren bidez.

Euskadiko RIS3 estrategiaren lehen definizioek, 3 lehentasunezko espezializazio arloekin batera (fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak-osasuna) lurraldeari atxikitako hainbat aukera nitxo ere identifikatu zituen, haien artean aisialdia eta entretenimendua. Kultur industriak, batez ere digitalak haien baitan kokatzen ziren. Ondorengo zehaztapenetan, ordea, aisialdia eta entretenimenduari ordez, Kultura eta Sormen Industriak (KSI) sektorea identifikatu da da zehazki aukerako arlo gisa eta 2020tik aurrera RIS3 EUSKADI SORTZAILEA delako estrategia abiatzen da, eta harekin lotuta KSIgune eta BASQUE DISTRICT OF CULTURE AND CREATIVITY klusterrak.

Nolanahi ere, Kluster politiken ezarpena ikus-entzunezko sektorean lehenagotik dator. EAEn 2.003an argitaratutako Ikus-entzunezko Sektoreko Liburu Zuriaren ondorio gisa EIKEN klusterra eratu zen. Eta urte batzuk geroago, 2.013an, Bizkaiko Aldundia eta Bilboko Udalaren artean Bilbao-Bizkaia Design&Creativity Council (BIDC) foroa eratu zen, diseinuarekin eta sorkuntzarekin zerikusia duten jarduerak elkartu eta sustatzeko eta Bilbora eta Bizkaira erakartzeko. Zehazki sektore honetako jarduerak eta ebentoenak sustatzen ditu bertako enpresek elkarlanean: arkitektura, ikus-entzunezkoak, komunikazioa, eskulangintza, diseinua, eduki digitalak, moda, barne-diseinua eta bideo-jokoak.

RIS3 Euskadi Sortzaile estrategiaren baitan berriki eratu dira:

- KSIgune (www.ksigune.eus): kultura eta sorkuntza arloan Unibertsitate eta formazio zentroak biltzen dituen klusterra
- Basque District of Culture and Creativity (BDCC) (basquedcc.euskadi.eus): kultura eta sorkuntza arloko enpresentako informazioa, tresnak eta formakuntza.

Hauekin batera KSI BERRITZAILE laguntza programa ere abiatu zen 2017an, bi ardatz nagusiren inguruan (hasieran finantzen inguruko ahaldunduntze ardatze ere abiatu zen, baina hirugarren urtean alde batera utzi zen):

- berrikuntza eta transferentzia teknologikoa
- berrikuntza antolamendu ereduan eta enpresa egituretan

Parte hartu nahi duten enpresek euren egitasmoa aurkeztu eta aholkularitza eta laguntza jasotzen dute Zentro Teknologikoen partetik (Tecnalia, Vicomtech) edo Euskaliten aldetik.

9. INSTITUZIOAK: ZINEUSKADI, MEDIA EUSKADI, FILMOTEKA, TABAKALERA, ZINEMA JAIALDIAK

Aipatu laguntza sistemaz aparte merezi du baita ikus-entzunezko sistema-ren inguruan antolatutako instituzio sarea ere.

- ZINEUSKADI irabazi asmorik gabeko elkarte bat da Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Ikus-entzunezko ekoizle elkarteen artean sortua. 2.014tik aurrera EITB, Euskadiko Filmoteka eta Donostiako Zinemaldia ere batu zaizkie aurrekoei. Elkartearen helburua ikus-entzunezko politikari oinarri estrategikoa ematea bada ere, horrekin batera hainbat programaren gestio zuzena ere bereganatu du, hala nola Zinema Euskaraz, Zinema Aretoentzako dirulaguntzak edo filmen merkataritzarakoak. 2.022etik aurrera baita Kimuak programa ere. Zineuskadik kudeatzen du, halaber BASQUE AUDIOVISUAL marka berria (www.basqueaudiovisual.eus), Etxepare Institutuaren bidez sustatu den Basque. izeneko euskal kultura nazioartekotze estrategiaren ikus-entzunezko adarra. Haren bitartez euskal ikus-entzunezko produzioak nazioarteko ikusgarritasuna lortu eta merkatu garrantzitsuetan lekua izatea du helburu.
- EUROPA CREATIVA DESK MEDIA EUSKADI, Europako laguntza programaren bulegoa Euskadin
- EUSKADIKO FILMATEGIA, Euskal Herriko ikus-entzunezko ondarea zaintzeko asmoarekin sortutako erakundea, 2.004an Fundazio bihurtua (Eusko Jaurlaritza eta hiru lurraldetako Foru Aldundiak dira Patronatoko partaideak) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatua. Ondarea kudeatzeaz gain, argitalpenak eta programazioak burutzen ditu Filmategiak.
- TABAKALERA, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa. Bertan biltzen dira aurreko instituzio guztiak, Donostiako Zinemaldia eta Elias Querejeta Zine Eskolarekin batera
- ZINEMA JAIALDIAK, Donostiako ZINEMALDIA; ZINEBI, Bilboko Zine Dokumental eta Laburraren Nazioarteko Jaialdia, biak FIAPF kategoriadunak. Haien ondoan Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia edo Fantasiatzko eta Beldurrezko Zine Astea, Bilboko ZINEGOAK, Gayles-bitrans nazioarteko zinema jaialdia edo FANT, Zinema Fantastikoko Jaialdia eta Gasteizko Euskal Zinearen Astea. Eta hainbat eta hainbat jaialdi herrietan zehar, gehienak film laburrei eskainiak. Aipatzekoa ere Topaguneak kudeatzen duen Laburbira, herriz herri erakusten den euskarazko film laburren katalogoa, urtero berritzen dena.

B) NAFARROAN

- **Publiziterako eta Jaialdietan parte hartzeko dirulaguntzak**

Nafarroan ere film luzeen marketinerako eta jaialdietan parte hartzeko dirulaguntzak daude. Hauek ere GENERAZINEMA delako aterkipean kokatzen dira, zehazki GENERAZINEMA SUSTAPENA izenarenpean.

2.021etik aurrera nabarmen igo dotazioa, 66.000 €-taraino, aurreko urtetan 15.000 eta 18.000 € bitartekoa izan baitzen. Urte

horretatik aurrera bi modalitateak laguntzen dira, lehen bakarra, jaialdietara joatea laguntzen zen bitartean:

- jaialdietan parte hartzea: 16.000 €-ko dotazioa, laguntzak gehienez 3.000 € artekoak
- publizitatea egiteko laguntza: 50.000 €-ko dotazioa, laguntzak gehienez 20.000 € artekoak

- **Filmak erakusteko diru-laguntzak (zinema-aretoak)**

GENERAZINEMA ERAKUSTALDIA deitzen da laguntza lerro hau eta 2.020ra arte film iberoamerikarren erakusketea laguntzen zuen modu orkorrean, dotazio ekonomiko txikiarekin, 20.000 €. 2.021etatik aurrera 100.000 €-ko dotazioa du eta bi lerrotan banatzen da:

- A. programazio zinematografiko orokorrak (50.000 €)
- B. interes kultural bereziko programazio zinematografikoak (50.000 €) laguntzen mugak ezberdinak dira aretoen pantaila kopuruaren arabera: 10.000 € artekoa hiru pantailatik behera dituztenentzat eta 15.000 artekoak hiru pantailatik gora dituztenentzat.

- **Nafarroako Film Laburren Katalogoa (NAVARRA SHORTZINEMA)**

2.022-tik aurrera Nafarroan ere bertan ekoiztutako film labur onenen katalogo bat osatuko da hura Estatuko eta nazioarteko jaialdietara bidaltzeko eta film laburren hedapena sustatzeko. Aukeraketan sartu ahal dira Nafarroan jaio edo erroldatutako pertsonak zuzendutako filmak, Nafarroan egoitza duten produkzio etxeek ekoiztutakoak (gehieneko parte hartzearekin, beti ere) eta euskaraz egindako filmak ere (baldin eta Nafarroari aipamena egiten badiote edota parte batean behintzat Nafarroan errodatuta badaude)

- **Jaialdiak: Punto de Vista eta X Films**

Punto de Vista Jaialdia 2.002 urtean sortu zen, ordura arte eta ia hamar urtez Bideokreazioari dedikatua zen jaialdiari segida emanaz. Sorkuntzako dokumentalean dago espezializatua eta erreferentziazko jaialdia da Estatu mailan eta nazioartean ere egile zinemaren barruan.

2.010ean **X FILMS** Proiektua sortu zuen: urtero hiru egile ezberdinei eskatzen zaie dokumental proiektu bana aurkezteko. Espainiar estatuko egile gazteak hobesten dira eta arloan izandako ibilbideagatik aukeratzen dira. Ez dute zertan nafarrak izan, baina proiektuak bai zerikusirik izan behar dute moduren batean edo bestean Nafarroarekin.

Epaimahaiak proiektu bat aukeratzen du hiru proiektuen artean eta irabazleari produkziarako diru-funtsa bat eta produkzio-laguntza eskaintzen zaio proiektua aurrera eramateko. Hamar urtetan katalogo esanguratsua osatu da eta proiektuak ospea irabazi du egile-zinema dokumentalaren sektorearen baitan.

- **Berrikuntza politikak**

Nafarroan ere ikus-entzunezko industria berrikuntza politiken parte da, are modu garrantzitsuagoan EAEn baino. Izan ere, bertako espezializazio adimentsuko estrategien 2.016ko aktualizazioan (NS3 izenekoa), lehen definizioz (Moderna Plana) sei urtera, Sormen Industria Digitalak lehentasunezko sektore gisa identifikatzen baitira, autogintza, elikadura, energia berriztagarriak, osasungintza eta turismoarekin batera. Eta Sormen Industria Digitalak zehazten hasita, Ikus-entzunezko industria aipatzen da zehazki haren ardatzetako modura. Harago, Estrategia honen 2.021eko aktualizazio berrian (NS4), 2.021-27 aldirako, jada Ikus-entzunezko Industria bera, eta haren baitan nitxo gisa animazioa eta bidejokoak, agertzen da zuzenean lehentasunezko sektore gisa, Sormen Industrien definizio orokorragoaren orde.

Hartara, Ikus-entzunezko Sektorearen garapena lehentasuna bihurtu da Nafarroako industria eta berrikuntza politiketan, justifikatuz azken urteotan eman den jauzi kualitatiboa arlo ezberdinetan: diru-laguntza publikoak, estrategia fiskala (jada aipatu direnak txosten honetan), bai eta kanpoko enpresen erakarpina (diru-laguntzen bidez edo parte hartze indutrialen bidez), batez ere animazio sektorean. Aipatzekoa da, hartara, hainbat estudioen kokapena Iruñean, Nafarroako Gobernuak SODENA enpresa publikoaren laguntzarekin, Europako Inbertsio Bankuaren fondoak erabiliz, hala Apolo Films, Espainiar Estatuan ibilbide luzea izen duen Claudio Biern ekoizlearen enpresa (890.000 €-ko laguntzarekin, "D'Artacan y los tres mosqueperros" animaziozko filma egiteko), nola The ThinkLab estudioa, oraintsu arte Madrilan jardun duena (milioi bat euroko laguntzarekin "Inspector Sun y la maldición de la Viuda negra" filma garatzeko), edota DPMW estudioa ere (210.000 €-ko laguntzarekin "Dinogames" filma merkaturatzeko). Nafarroan kokatu dira baita Arcadia Pictures produkzio etxea Robot Dreams pelikula ekoizteko eta Demiranda estudioa, I wish filma garatzen ari dena une honetan.

SODENA enpresak, halaber, hitzarmena sinatu du Wallimage Flandriako ikus-entzunezko fondo erregionalarekin, elkarlana sustatzeko.

CLAVNA klusterra (www.clavna.com) ere politika ildo honen emaitza da, bertatik bideratzen direlarik arloaren ikuspegi estrategikoa eta enpresen berrikuntza eta formakuntza estrategiak. Berak kudeatzen du Nafarroako ikus-entzunezko jarduera hedatzeko sortutako web orria NFI – Navarra Film Industry (<https://www.navarrafilmindustry.com>), NAPAR ikus-entzunezko ekoizleen elkartearekin eta eta Navarra Film Commissionekin batera. Web orriaren parte esangurastua Nafarroan diren prestakuntza eta formazio programa eta erakundeak ezagutaraztera dago zuzenduta. CLAVNAREN proiektu estrategikoen artean dago Euroeskualdean ikus-entzunezko produkzioarako atal berezitua sortzea.

- **Film Commission**

Navarra Film Commission (www.navarrafilm.com) 2.009an ezarri zen eta halako entitateen ohiko funtzioa betetzen du: informazioa zabaldu eta ekoizpenak lagundu tramitazioa administratiboetan eta kokapenetan, dezenteko arrakastarekin Nafarroan aniztasun eta aberastasun geografikoari esker. 2.021ean, besteak beste, 18 film luze errodatu ziren bertan eta

- **Azpiegiturak: Meliton Estudioak**

Ikus-entzunezko industria sustatzeko estrategia honen baitan azpiegiturak ere lekua hartu dute, MELITON Estudioaren bidez, Baztanen kokatuak, zehazki, Lekarozen. 2.019 urtean inauguratu ziren Estudioak bi plato ditu, 700m²-koa bata eta 100m²-koa bestea. Ekimen pribatukoak badira ere, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza esanguratsua jaso dute orain arte, SODENA enpresaren bitartez.

Meliton Estudioak, halaber, Navarra International Film Festival zine jaialdia sustatzen du 2019etik hona eta haren baitan prestakuntza ikastaro berezituak eskaintzen ditu zine zuzendari ezagunen eskutik.

Beste proiektu bat ere garatu zen, Navarra Film Estudios delakoa, soinu eta irudi postprodukzioan espezializatua, baina ez da gaur gaurkoz gauzatu.

- **FILMOTeka**

Nafarroako Filmoteka 2.011 urtean sortu zuen Nafarroako Gobernuak. Bere eginkizu nagusia nafarroako ondare zinematografikoa gordetzea da, alegia, Nafarroarekin edo Nafarroako pertsonekin zerikusia duten zinema-funts guztiak berreskuratzea, zaintzea, zaharberritzea, dokumentatzea, katalogatzea eta digitalizatzea. Horretarako, besteak beste eta adibide gisa, Nafarroako liburutegi sarearekin elkarlanean, herrietako dokumentu fotografiko eta ikus-entzunezkoak jasotzeko kanpaina sortu du.

Horrekin batera programa zinematografiko berezituak ere eskaintzen ditu bere egoitzan.

V. FINANTZAMENDU PUBLIKOEN EGINKIZUNA FRANTZIAN TOKIKO ETA EUSKARAZKO EKOIZPENETAN

Graxi Irigarai

Erakunde publikoek beraz, Frantziako ikus-entzunezkoen eta zinematografiaren sektoreak arlo gehienetan laguntzen dituztela ikusi dugu (formakuntza, irudiarekiko heziketa, idazketa, ekoizpena, filmaketa, hedapena, banaketa, festibalak).

Laguntza horren koadroa finkatua dugunez eta lurraldeko sektoreko autore desberdinak identifikatuak, ondoko lerroetan ekintza publikoak ikus-entzunezkoen eta zinema mailan lurraldean dituen ondorioak aztertuko ditugu.

Jomugatzat harturiko instituzio desberdinengandik eta, partikularki, Hitzar-menaren izenpetzaile direnengandik eskuraturiko datuek, ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea lokalki nola lagundua den ikusteko parada ematen digute eta baita laguntza horien indarguneak, eskasiak eta erronkak non diren ikusteko ere.

1. Zinemaren Zentro Nazionalaren (CNC) laguntzak

Lehenago ikusi dugu, CNCak arlo osoan esku hartzen du, genero, euskarri eta formatu desberdinetako gidioen idazketara, ekoizpenera, banaketara, ustiaketara, industria teknikoetara, esportaketara eta bideo edo hedabide berrietara bideraturiko laguntza anitzen bidez. Automatikoki edo molde selektiboan onarturiko laguntzak dira⁸¹.

“Euskal zinema 2015 eta 2021 urteen artean” gure ikerketan berriz zentratzeko, tokiko proiektuek edo azken urteetan lokalki finkaturiko egiturek edo euskaraz diren proiektuek xurgatzen dituzten CNCaren laguntza desberdinak zerrenda genitzake. Gisa horretan, batzuek CNCaren laguntza eskuratu zuten 2015 eta 2021 urteen artean. Zehatza ez den zerrenda da, baina abiatuak diren proiektu batzuk argitan ezartzea ahalbidetzen du eta baita zinema eta ikus-entzunezkoei dagokionez tokiko autore eta egitura batzuen gaitasunak ere.

Gidoien idazketari dagokionez euskarazko titulua duten bi proiektuk eskuratu dute idazketarako laguntza. Ondokoak dira:

- Ximun Fuchsek eta Thomas Bidegainek idatziriko **Baratze bat**, Ximun Fuchsek errealizatuko du, Six-cent-quatre-vingt-septek (687) ekoiztua. “Gidoiarentzako sustengua, idazketarako laguntza” laguntza 2021ean onartu zitzaion.
- Eugène Greenek idatzi duen eta Eugène Greenek errealizatuko duen **Koartza**. “Gidoiarentzako sustengua, idazketarako laguntza” laguntza 2020an onartu zitzaion.
- Baionako Disnonsc ekoiztetxearen sortzaile den Nathan Otañok ere CNCaren laguntza bat eskuratu zuen **Les figures bleues** proiektuarentzako, esperientzia digitaletarako laguntza funtsetik (2020).

Azken bi proiektuak Eskualdeko idazketarako laguntzetan ere agertzen dira.

Euskarazko filmen ekoizpenari eta banaketari dagokionez, CNCaren laguntzak onartu dira ere, besteak beste Eugène Greenen **Atarrabi eta Mikelats** filmarentzat errealizazio aitzineko diru sartzeen aurrerakin laguntza (2018ko ekainaren 18ko batzordea) eta, filma UFO Distributionek banatzen zuenez, Banaketarako laguntza selektiboa (programarentzako laguntza) eskuratu zituen.

Pablo Agueroren **Akelarre** filmak berriz (erdia euskaraz den filma eta Frantzia finkatuak diren La Fidèle productionek eta Tita productionek ko-ekoizturiko nazioarteko ekoizpena) errealizazio aitzineko diru sartzeen aurrerakin laguntza (2020ko batzordeak) eta, filma UFO Distributionek banatzen zuenez, Banaketarako laguntza (programarentzako laguntza) eskuratu zituen.

Dokumental-magazinetan, tokiko proiektu batzuk (Ipar Euskal Herriko ekoizpen sozietateek eramana), zeinetatik euskarazko batzuek laguntza selektiboa eskuratu zuten:

Restu productionen **Kantuen kontrabandistaren** kasua da adibidez, 2020ko uztailaren 21eko batzordearen ondotik 60.000 euroko laguntza eskuratu baitzuen. Euskarazko magazine bat da.

⁸¹ Ikus I – ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK FRANTZIAN : ULERMENERAKO GAKO BATZUK

Bolante baten historia (Histoire d'un volant) dokumentalaren kasua da ere, Vraivrai films ekoiztetxe neo-akitaniarrak EAEarekin ko-ekoiztu duena eta CNCaren eskutik 35.000 euro eskuratu dituena.

Betiere Dokumental-magazine sailean, Gastibeltza Filmakek 25.000 euroko laguntza selektiboa eskuratu zuen **Krask soinua (Le son du crack)** filmarentzako, orain **Karpeta urdina (Les dossiers bleus)** izena duena. Film hori EAEko Irusoin eta Mirokatua ekoizpen sozietateekin ko-ekoiztua da.

Kanaldudek hiru dokumental horien ekoizpenean parte hartzen duela azpimarratu behar da.

Jadanik aipatu ditugun Tell me films eta Damned sozietateek aldiz CNCaren laguntzak erregulariki eskuratzen dituzte. Hara hemen batzuk:

- Tell me filmsek behin baino gehiagotan dokumental-magazineentzako laguntzak eskuratu ditu: 30.000 euro **Debout!** proiektuarentzako 2021ean, 25.000 euro **Les vies à capella d'une femme soumise**entzako 2020an, 30.000 euro **La saison des tourteaux**entzako 2019an, 25.000 euro **Comme Xavier**entzako eta 40.000 euro **Derrière la ligne noire**entzako 2018an, 30.000 euro **Les meilleurs poètes ne gagnent jamais**entzako 2017an eta 15.000 euro **Gens des blés**entzako 2015ean.
- Damned sozietateari dagokionez, ekoizpen eta banaketarako laguntzak eskuratu zituen behin baino gehiagotan, ekoizpenean **Anatomy of timentzako** 2018an, **Domingo**entzako 2017an edota **Gabriel et la montagnentzako** 2016an. 2021ean banaketarako laguntzak filmaz filma eskuratu zituen, Aleksandre Koberidzeren **Sous le ciel de Joutaïssire**entzako (33.000 €) eta Shahram Mokriren **Careless crim**entzako (12.000 €). 2021ean bideo fisikoen argitaratzerako laguntza eskuratu zuen **Exit / Mère et fille** filmarentzako. 2019, 2020 eta 2021ean egiturarentzako laguntza bat eskuratu zuen.

Azkenik, Disnosc animaziozko filmen ekoizpen sozietateak, haren Synosc proiektu berriztagarriagatik industria teknikoentzako 135.812 euroko laguntza eskuratu zuela azpimarratu behar da.

Ondorioz, azken urteetan tokiko ekoizpenek (eta/edo Euskarazkoek) CNCaren laguntzak eskuratzea lortzen dutela ohartzen gara, bereziki eta batez ere dokumentalentzako. Laguntza selektiboak dira hauek.

Lurraldean banaketa sozietate bat bada (gaur egun ekoizpenean ere ari dena), Damned, banaketarako laguntzak ere hartzen dituena.

2. | DRAC Akitania Berria

DRACaren egitekoa da estatu mailako ikus-entzunezkoen Eskualde politika deklinatzea eta, gure kasuan, Akitania Berria Eskualdean. CNCarekin lan egiten du eta haren funtzioa CNCaren eta eskualdetako partzuerren (instituzional eta profesional) arteko erraztaile lana egitea da. Partzuergo hori Estatua- ren, CNCaren eta tokiko instituzio desberdinen arteko hiru urteko hitzarmen gisa agertzen da. Gaur egun 2020-2022 epealdirako den zinema eta irudi animatuarentzako elkarlanerako Hitzarmen hori Estatuak (DRAC Akitania Berriak beraz), CNCak eta Akitania Berria Eskualdeak izenpetzen dute, bai-

na baita Charente, Charente-Maritime, Dordoina, Gironda, Landak eta Lot et Garonako departamenduek ere.

DRAC Akitania Berriak ez du CNCak onartzen dituen sorkuntzara, ekoizpena edo ustiaketara bideraturiko aitzinkontua zuzenean kudeatzen, baina eskualdean erraztaile lana egiten du, errelebo lana.

Haatik, 1.503.512 euroko aitzinkontua du (2021ean) sorkuntzara (idazketa erresidentziak; 5.500 euro), festibaletara (335.900 euro) baina batez ere irudiarekiko heziketara (irudiarekiko heziketa poloa, lizeoko ikasle eta zinema apendizak, "Collège au cinéma" eta "Ecole au cinéma", Passeurs d'images, arte eta entsegu sareak, ondarea) bideratzen dena.

DRACaren solaskide pribilegiatuak Ipar Euskal Herrian "Collège au cinéma" (Cinévasion) eta "Ecole au cinéma" (Atalante) baliabidetako koordinatzaileak dira. Pauen Cumamovi elkarteak dago, irudiarekiko heziketa lan gisa identifikaturiko lana egiten duena (elkartek Euskal Herrian ere esku hartzen du) baina, Euskal Herrian, eskolek bultzaturiko proiektu isolatuak izan ohi dira gehienetan. Gertatzen da adibidez Baionako Arte Eskolak eskoletan esku hartzea. Kanalduderekin ere gertatzen da. Landetan ere eskusiboki zinemarekiko heziketan lan egiten duen elkarte bat bada, "Du Cinéma Plein Mon Cartable" elkarteak. Batzuetan Euskal Herrian esku hartzen du.

Estatuak (DRAC + CNC) zinemarentzako (hedapen, irudiarekiko heziketa eta ustiaketa partearentzat) ondoko moldean banatzen du Euskal Herrian (2020/2021):

- 215.287 € Arte eta Entseguarentzat
- 460.750 € festibalentzat
- 26.500 € hedapen ekintzen, kultura animazioen eta irudiarekiko heziketa ekintzen parte handienarentzat (batzuk departamendu guzira hunkitzen dute)
- 24.47 € hurbiltasuneko hedabideentzat

3. **Eskualde finantzamenduen tokia Frantzian eta Liburuaren, Zinemaren eta Ikus-entzunezkoen Agentzia (ALCA) Akitania Berrian**

Akitania Berria Eskualdea (2016an Akitania, Limousin eta Poitou-Charente bildu zituena) Frantziako Eskualde handiena da eta hirugarren jendetsuena 6 milioi biztanlerekin. 84.100 km²-ko lurraldea da eta haren baitan 12 departamendu hartzen ditu, hauen artean Pirinio-Atlantikoak.

Akitania-Berriko Zinema eta ikus-entzunezkoetako eragileen partzuer den ALCAk obrak, hauen autoreak, ekoizleak eta fabrikatzaileak laguntzen ditu, idazketatik hasi eta publikoarengana iristeraino.

ALCAren egitekoa lurraldearen agerpena, sorkuntza aniztasuna eta kultura antolaketa ondokoaren bidez laboratzea da:

- **Sustengu funtsa** bidez, 7 milioi euroko aitzinkontuarekin: ALCAk luzemetraientzako, TB fikzioentzako, animaziorako, dokumentalentzako eta laburmetraientzako laguntza galdeen bideratzea bermatzen du.

- **Agerpena eta sorkuntza** lagunduz, bereziki sorkuntza sustengurako estrategia **Akitania-Berriko lurralde osoko zinema erresidentzien** artikulazioaren eta indartzearen baitan finkatuz, ondokoak garatzearekin: autore eta proiektuen bulegoa (fr. BAP), agerpenari loturiko baliabideak (lehen filmentzako pitchak, La Ruche Gindou partzuergoa...), festibalak, Akitania-Berriko garapen eta merkatu laborategiak, mugaz haraindiko partzuergo berriak, partzuergo franko-fonoak eta generoan oinarriturikoak – dokumental eta animazioan bereziki (Berlinale Market, Euskadi, Kanada/Quebec, Marokoko Souss Massa lankidetzaren eremua Agadirreko Fidadocekin...).
- **Sailaren laguntza** bidez: Akitania Berriaren sailaren behatokia plantan ezartzearekin, formakuntza planaren ekintzekin (2020an AFADASarekin finkatuak), profesionalak harremanetan ezartzearekin eta profesionalen elkarteekin lan egitearekin, Festibaletako presentziarekin, Filmaketen Harrera Bulegoan (fr. BAT) eskualde sarearen koordinatzearekin...
- Transmisioaren inguruko laguntza bidez eta, bereziki, eskualdeko **irudiarekiko heziketa** baliabide nazionalen koordinazioaren bidez: Lycéens et apprentis au cinéma, Passeurs d'images, Des ciné, la vie!, tallerrentzako Mashup mahai baten erostea...
- Profesionalen eta formakuntza jardunaldien bultzatzaile da ere eta irudiarekiko heziketa eskualde poloaren egitekoaren eramaile da.
- Conecta Fiction bezalako nazioarteko lankidetzako ekintzak. Conecta Fiction serieak garatzeko nazioarteko plataforma da (Conecta Fiction eta, Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak osatzen duten Euro-eskualdea eta hauen operadore diren ALCA – Akitania Berria eta Zineuskadi (fr. NAEN) elkartzen dira, hiru eskualde horietan ikus-entzunezkoen industria laguntzeko eta Europa eta Amerikako ikus-entzunezkoen eragile nagusien aitzinean haien proiektuak balioan ezartzeko), programaren ardatz zentral gisa "Pitch Euroregion NAEN Series" proiektu deialdia duena (ikus ere Euro-eskualdearen ekintza).
- Hedapenaren inguruko lana CINArekin (Akitania Berriko Zinema independenteak⁸²) den lankidetzaren baitan.

Sustengu Funtsei buruzko zenbaki batzuk (2020)

Sustengu Funtsak

- 2020an aurkezturiko proiektu kopurua: 727
- Idazketarako eta garapenerako laguntza: 221 proiektu aurkeztuak, 61 sustengatuak
- Laburmetraien ekoizpenerako laguntza: 291 proiektu aurkeztuak, 36 sustengatuak
- Luzemetraien ekoizpenerako laguntza: 71 proiektu aurkeztuak, 16 sustengatuak
- Ikus-entzunezko proiektuen ekoizpenerako laguntzak: 144 proiektu aurkeztuak, 36 sustengatuak
- Eskualde sustengu funtsak: 6.236.000 €

⁸² 2020an Euskal Herriko zinema gehienak CINAko kide dira (Hendaia, Urruña, Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Donapaleu, Cinémavisión)

SUSTENGU FUNTSAREN PROIEKTUAK ETA LAGUNTZAK (ALCA) 2020


ANIMAZIOA	Aurkezturiko proiektuak	Sustengaturiko proiektuak	Selektibitatea	Laguntzen zenbatekoa
ZINEMA EKOIZPENA	27	16	59 %	517.000 €
IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENA	57	35	59 %	1.403.000,00 €
ANIMAZIORAKO SOSA OROTARA	84	51	61 %	1.920.000,00 €

FIKZIOA	Aurkezturiko proiektuak	Sustengaturiko proiektuak	Selektibitatea	Laguntzen zenbatekoa
ZINEMA EKOIZPENA	319	31	10%	1.982.000,00 €
Ikus-entzunezko ekoizpena	40	14	35%	999.000,00 €
DISEINUA	87	17	20%	195.000,00 €
FIKZIORAKO SOSA OROTARA	446	62	14%	3.176.000,00 €

DOKUMENTALA	Aurkezturiko proiektuak	Sustengaturiko proiektuak	Selektibitatea	Laguntzen zenbatekoa
ZINEMA EKOIZPENA	16	5	31%	181.000,00 €
IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENA	82	30	37%	843.000,00 €
DISEINUA	98	22	22%	181.000,00 €
DOKUMENTALERAKO SOSA OROTARA	196	57	29%	1.205.500,00 €

TOTAUX GENERAUX	726	170	23,5%	6.301.000 €
------------------------	------------	------------	--------------	--------------------

Akitania Berria Eskualdean Akitania-Berriko ekoiztetxei edo autoreei zuzentzen zaizkien Filmek Funtsekin gertatzen ez bezala, sustengu funtsera jatorri guzietako proiektuak aurkez daitezke. ALCAk, 2020an lagunduak izan diren proiektu eramaileen jatorri geografikoaren mapa bat eta hauek jaso dituzten laguntzak aurkezten ditu.



a) ALCaK euskal Herrian laguntzen dituen proiektuak

Azpimarraturik, Euskal Herriarekin lotura duten proiektuak (gaia, ekoiztetxea, autorearen bizilekua)

* izar batekin euskaraz diren proiektuak

Akitania Berria Eskualdeak zuzenean kudeatzen dituen Film Funtsak lagunduriko proiektuak zerrenda honen parte dira. Zerrenda honek 2020 eta 2021 urteetan onarturiko laguntzak baizik ez ditu biltzen.

2020

LAGUNTZA MOTA	GENEROA	IZENBURUA	LAGUNTZEN ZENBATEKOA	AURREZTURIKO PROIEKTUAK	SELEKTIBITATEA	LAGUNTZEN ZENBATEKOA	AURREZTURIKO PROIEKTUAK
IDAZKETA	DOK	WILFRID	LÉO LAGRAFEUILLE	PAUE	LÉO LAGRAFEUILLE		5.000 €
IDAZKETA	DOK	<u>SUR LES TRACES DE TELESFORO</u>	<u>ANNE DE GALZAIN</u>	<u>AZKAINÉ</u>	ANNE DE GALZAIN		5.000 €
GARAPENA	LZM DOK	LA PHOTO RETROUVÉE	PIERRE PRIMETENS		NIGHT LIGHT	PAUE	12.000 €
EKOIZPENA	DOK	<u>LE SON DU CRACK*</u>	<u>ANDER IRIARTE</u>		<u>GASTIBELTZA FILMAK</u>	<u>SENPÉRE</u>	17.000 €
EKOIZPENA	MAG SERIE EUSKARAZ	<u>KANTUEN KONTRABANDISTA*</u>	<u>YVAN RUSINOL</u>		<u>KESTU</u>	<u>AZKAINÉ</u>	46.000 €

2021

LAGUNTZA MOTA	GENEROA	IZENBURUA	LAGUNTZEN ZENBATEKOA	AURREZTURIKO PROIEKTUAK	SELEKTIBITATEA	LAGUNTZEN ZENBATEKOA	AURREZTURIKO PROIEKTUAK
IDAZKETA	LZM DOK	LES VIES IMPRÉVUES, PAULINE E - VERS D'AUTRES PROMESSES...	LÉO LAGRAFEUILLE	PAUE			5.000 €
IDAZKETA	LZM FIRZIOA	LE CYCLE DE LA BOUTEILLE	LOIC LEGRAND	<u>LARRESORO</u>			5.000 €
IDAZKETA	DOK	EMMA	<u>PRUNE PERROMAT</u>	<u>URRUÑA</u>			4.000 €
IDAZKETA	LZM ANIMAZIOA	JIM QUEEN	<u>SIMON BALTEAUX</u>	<u>BAIONA</u>	BOBBYPILLS	PARIS	9.000 €
IDAZKETA	LZM DOK	UN PAYS EN FLAMMES	<u>MONA CONVERT</u>	<u>BIARRITZ</u>	TRIPTYQUE FILMS	PARIS	12.000 €
IDAZKETA ETA GARAPENA	ANIMAZIO SERIEA	FIGURES BLEUES	<u>NATHAN OTANO</u>		<u>DISNOSC</u>	<u>BIARRITZ</u>	35.000 €
GARAPENA	LZM FIRZIOA	AGURRA*	<u>ITZIAR LEEMANS</u>		<u>GASTIBELTZA</u>	<u>SENPÉRE</u>	15.000 €
GARAPENA	LZM ANIMAZIOA	BUSH DOG, CHIEN DES BUISSONS	GUSTAVO STEINBERG		<u>DAMNED</u>	<u>BAIONA</u>	15.000 €
GARAPENA	LZM FIRZIOA	<u>KARMELE*</u>	<u>ASIER ALTUNA IZA</u>		<u>GASTIBELTZA FILMAK</u>	<u>SENPÉRE</u>	14.000 €
GARAPENA	LZM FIRZIOA	KOARTZA*	EUGÈNE GREEN		LE PLEIN DE SUPER	SAINT CYR SUR LOIRE	14.000 €
EKOIZPENA	DOK	LA COLO	MARINE GAUTIER		<u>TELL ME FILMS</u>		28.000 €
EKOIZPENA	SERIE DOK	HORIZON VERTICAL (VERTICAL REPUBLIC OF SKATEBOARD)	<u>ROMAIN MOUNIER & ALEX PENEAU</u>	<u>GETARIA</u>	FELIZ FILMS	PARIS	27.000 €

Eskualdeak zuzenean kudeatzen duen film funtsak lagundu ditu ere:

- La Fidèle production 2018an, 22.500 euroko garapenerako laguntzarekin Joe Louisen *La main gauche* filmarentzako.
- Damned Films: 2021ean, 15.000 euroko garapenerako laguntzarekin *Bush dog, Chien des buissons* filmarentzako.

Aldi berean, Kulturaren eta Ondarearen Zuzendaritzak koordinatzen duen beste Eskualde laguntzarik bada, bereziki ikus-entzunezko eta zinematografiako ekoizpen egituren aktibitatearako Programarentzako laguntza, obra zinematografiko eta ikus-entzunezkoen ekoizleei egituraketa eta eredu eko-

nomiko iraunkorrago bati buruz joatea ahalbidetzeko helburua duena. Hara hemen 2018az geroztik laguntza eskuratu duten lurraldeko ekoizpen sozietateen zerrenda:

2018an	2020an	2021ean
GASTIBELTZA FILMAK	DAMNED FILMS	DISNOSC
LA FIDELE PRODUCTION	GASTIBELTZA FILMAK	GASTIBELTZA FILMAK

Eskualdeak festibalak edo elkarteak haien ekintzetan laguntzen ditu:

- Cinévasion elkarteko bitartekari postua 2017az geroztik (urteko 22.500 euro)
- Biarritz eta Amerika Latinako Ko-ekoizpenen topaketarako Biarritz-Amérique Latine LAB festibala – urteko 3.000 euro 2019az geroztik.

Pirinio Atlantikoetako departamenduan “ondoko proiektua” idazketarako 3 laguntza onartuak izan zaizkie ondokoei:

- Laetitia Miklesi fikziozko *La nageuse* luzemetraiarentzako, 5.000 € 2020an.
- Léo Lagraveuilleri *Les vies imprévues, Pauline E. vers d'autres promesses...* dokumental luzearentzat, 5.000 € 2021ean.
- Loïc Legrandi *Le cycle de la bouteille* fikziozko luzearentzat, 5.000 € 2021ean.

4.

Euro-eskualdea (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euro-eskualdea Lurralde Lankidetzarako Europar Elkarte LLEE, fr.GECT) zineman eta ikus-entzunezkoetan

Euskadi / Nafarroa / Akitania Berria Euro-eskualdeak Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euro- eskualdea LLEEaren 2021-2027 plan estrategiakoa jakinarazten du.

Haren 1.2 strategiaren helburua gisa honetan finkatzen du: “Euroeskualdeko kultur sektorea eta ondarea lurraldeko gizartea eta ekonomia garatzeko motore gisa ezartzea, mugaz gaindiko kulturaren ekoizpena sustatzea, kultura-sorkuntzaren elkar ezagutza indartzea eta haren kontsumoa bultzatzea”.

Euro-eskualdeko sare kulturalaren sustapenean, Euro-eskualdeak ekosistema aberatsa duela, kultura espazioek bultzatzen dituzten kultura tradizionala eta sorkuntza elkarrekin bizi baitira, eta eskaintza berezi horrek hedatzen segitu behar duela azpimarratzen du. LLEEak, eskaintza kultural komun baten ekoizpenerako eta artikulaziorako babes instituzionala erronka gisa eta aldi berean aukera gisa agertzen dela estimatzen du.

Kulturaren eta ondare kulturalaren sustapeneko sektore ekonomiko estrategiko gisa, kultura eta ondare kulturalak euro-eskualdearen identitatearekiko ekarpenaz harago doan garrantzia duela azpimarratzen du. Akitania Berriak, Euskadik, eta Nafarroak, haien espezializazio adimentsuaren strategiaren baitan, industria sortzaile eta kulturalak zinezko sektore ekonomiko gisa identifikatu dituzte. Horrek, aldi berean lurraldeentzako aberastasunak

sortzeko, bakoitzaren interesak sustatzeko eta gaitasunak baltsan ezartzeko gai den etorkizuneko sektore honentzako hartu duten engaiamendua finkatzen du. Gisa horretan, LLEEak helburu horien gauzatzean parte hartu behar du, euro-eskualdeen sinergiak sustatzeko eskura dituen baliabideak baliatzeko aukera emanez.

Mugaz haraindiko lankidetzan, ikus-entzunezkoen sektorea ardatz nagusi gisa identifikatzen du, partikularki hiru lurraldeen espezializazio adimentsuaren estrategietan duen pertinentziagatik. Akitania-Berriko, Euskadiko eta Nafarroako espezializazio adimenduneko estrategien (RIS3), sormen industriaren sektorea ongi identifikatua da. LLEEak euro-eskualdeko lankidetzaren ikus-entzunezkoen sektorean (ko-ekoizpena, banaketa, hedapena etab.) sustengatzea erabaki zuen.

IKUS-ENTZUNEZKO KO-EKOIZPENEKO PROIEKTUAK EURO-ESKUALDEKO HERRITARTASUN PDAREN (PROIEKTU DEIALDIA) BAITAN FINANTZATUA (2017-2021)

* (IZAR BATEKIN) IPAR EUSKAL HERRIAN KOKATURIKO EGITURAK (GORRIZ) TALDEBURU

PROIEKTUAK	PARTZUERRAK			AITZINKONTUA	DIRU LAGUNTZA
	Akitania Berria	NAFARROA	EUSKADI		
	Partzuer / Taldeburu	Partzuer / Taldeburu	Partzuer / Taldeburu		
PD 2021					
Black is beltza	* Gastibeltza	Katakrak	Biba Ainhoa AIE	60.000 €	27.270 €
Zinema zubuiak	* Zukugailua	Napar	Ibaia	66.900 €	27.270 €
Mira	Le nouveau studio Prismédia TV7	601 Producciones	Txintua Films	60.000 €	27.270 €
2020					
Mira	Le nouveau studio Prismédia TV7	601 Producciones	Txintua Films	60.760 €	26.242 €
Influx	Novamina	Arena Communication	Esope Marmoka	200.000 €	29.575 €
Nora	* La fidèle production	Nueve Cartas	Gariza films	70.000 €	30.800 €
Txac planet	* Aldudarrak bideo	Nafarroako ikastolen elkartea	Gaia Azaroa films	58.235 €	25.623 €
Heraldabide	* Aldudarrak bideo Antxeta irratia	Nafar ikus entzunezkoak	Euskal editorea		
2019					
Next station	* La fidèle production	Cluster audioivisual Navarra	Eiken cluster	234.500 €	22.500 €
Matriochkas	Pyramide	Haburu	Sincro	280.830 €	31.500 €
2018					
9 ipuin	* Jakinola	Ane Ablandedo	Etzegiroan	30.000 €	13.800 €
Ainarak	* Aldudarrak bideo	601 Producciones	Zinea Sortzen Etzegiroan	79.940 €	35.973 €
Influx	Novamina	Arena Communication	Esope Marmoka	100.000 €	27.000 €
2017					
Ane eta Pierren bila	* La fidèle production		Gariza films	79.000 €	21.000 €
Ainarak	* Aldudarrak bideo	601 Producciones	Zinea Sortzen	51.192 €	21.726 €

Haren plan estrategikoan, euro-eskualdeko garapen ekonomiko lehiakor eta numeriko baten aldeko ekarpenari dagokion 2.1 helburuetan, eskura dituen diru mailako tresnei eta sektore horietan dauden proiektu espezifikoek garapenari esker sustengatzen segitu nahi dituen sormen-industriak sektore estrategiko bezala identifikatzen ditu, sektore estrategikoen eguneratzea zainduz hauen garapena estimulatzeko gisan (ekintza 2.1.2.2). Sormen-industriak euro-eskualdeko merkataritza harremanen sustapenerako erronka gisa ere agertzen dira.

Euro-eskualdeak, tokiko agentziekin batera, sektorea eremu anitzetan laguntzen du. Nabarmendu genitzake adibidez, ALCArekin, Basque audiovisual (Zineuskadi) eta Navarra film industryrekin batera argitaratzen duen eta lurraldeko laguntza, baliabide, helburu eta eragile nagusiak zerrendatzen dituen "ko-ekoizpenaren gida" edo nazioartekorako bokazio handia duten serie, serie txiki eta doku-fikzioentzako "Pitch Euroregion NAEN Series" proiektu deialdia. 2021ean izan zen honen lehen edizioan sari franko eman zen: France 3 Nouvelle-Aquitaine saria (10.000 €), EiTB saria (10.000 €), Acorde Music Library saria (1.500 €), Navarra Television saria (grabaketa eta hedapena) eta euroregion NAEN saria (6.000 €).

5. Departamenduen eginkizuna Frantzian eta Pirinio Atlantikoetan

a) Pirinio Atlantikoetako departamendu mailako ekintza ikus-entzunezkoen eta zinema gaitan

Akitania-Berriko departamendu gehienek ekoizpen zinematografikoa sustengatzeko funtsa bat dute. Pirinio-Atlantikoena 2015-2017 artean desagertu zen.

Sustengu funts horiek, 2013an finkaturiko arte plastikaren, ikus-entzunezkoen eta zinemaren arloan eramaten ziren ekintzak kontuan hartzen zituen ikusmen-artearen departamenduko eskemaren baitan sartzen ziren.

2011tik aitzina beraz, ekonomia sortzaileari eskainiriko egitekoaren baitan, Departamendua ikus-entzunezkoen eta zinemaren eremuan inplikatu zen ikus-entzunezko eta zinematografia obren diseinu eta ekoizpenerako sustengu funtsa plantan ezartzearekin.

2011 eta 2015 urteen artean, Pirinio-Atlantikoetako departamenduko ekonomia sortzailea sustengatzeko funtsak 1.484.400 €-ko zenbatekoarekin lagundu zuen sektorea. Besteak beste, lagundu zuen:

- 56.000 € idazketarako – 9/19 proiektu lagunduak (luzemetraia, animazio emankizun eta dokumental sorkuntza proiektuak)
- 12.000 € garapenerako – 2/6 proiektu lagunduak (sorkuntza luzemetraia eta dokumentalak)
- 1.263.000 € zinema eta ikus-entzunezko ekoizpenentzako laguntza – 42/78 proiektu lagunduak

(fikziozko luzemetraia eta laburmetraiak, animazioa, dokumentalak)

- 143.100 € orotariko laguntzetan (bereziki ECLAr))

Sustengu funtsa hori CNC, DRAC, Eskualdea eta Departamenduarekin egiten zen hiru urteko lankidetzaren hitzarmenaren baitan sartzen zen, baita CNCaren "un euro pour deux euros" baliabidean ere.

2016an laguntza funtsa hori izoztua izan zen.

Zinema eta ikus-entzunezkoen arloan aldiz departamenduko ekintzak aitzina segitu zuen, 2013ko eskeman finkatu ziren beste sartze batzuen bidez. Sailaren egituraketa laguntzeko logikaren baitan, Departamenduak profesionalak, festibalak, zinemagelak eta bitartekaritza ekintzak eta irudiarekiko heziketa ekintzak laguntzen zituen. Eskemak eskualde hizkuntza aipatzen dituela azpimarratu behar da.

Ekintza horrek festibalen, zinemagelen eta irudiarekiko heziketaren mailan berean segitzen du. Eskema berri bat idazketa bidean da.

2018 eta 2021 urteen artean, departamenduak ondoko egiturak lagundu zituen:

Egitura	Laguntza	Proiektua
Cinéma et Cultures L'Atalante elkarte	24.400 €	Funtzionamendua / hedapena: "arte eta entsegua" eta "ikerkuntza eta publiko gaztea" programaketa... / euskal zinemaren banaketa, tailerrak gaualdiak... / Irudiarekiko heziketa: 3 baliabideen abian ematea, Zineskola, ikasgelan esku hartzea, erretoretzarekin adosturik antolaturiko formakuntza ikastaldiak. / Ekitaldiak : "Rencontres sur les docks"
Ciné ma passion elkarte Le Méliès (Pau)	24.400 €	Funtzionamendua / Hedapena / Irudiarekiko heziketa / Ekimenak
Cinévasion	2.000 €	Topaketa profesionalen antolaketa – film hautaketa baten proiektatzea kide diren zinemagela guzietan, profesionalen esku hartzea, tailerrak, konferentziak
Objectif ciné 64 (Béarn)	8.000 €	Saretzea / Gelen egituraketa / Hedapena / Irudiarekiko heziketa
Le Saleys zinema (Béarn)	1.800 €	Irudiarekiko heziketa, publiko gaztea
Itsas Mendi zinema	2.000 €	Arte eta Entsegu zinemaren defentsarako politika baten garapena: "Arte eta Entsegu" programaketa zinematografikoaren defentsa anbiziotsua mugalderako eremuetan.
Begirada elkarte	8.000 € (2019 arte)	Hendaia Festival
Txiki production	2.000 € (2019 arte)	Txiki festival
Biarritz Festival (Biarritz Amérique Latine festibala)	19.000 €	Biarritz Amérique Latine Festibala
Nazioarteko ikus-entzunezko programen festibala	21.000 €	FIPADOC
Angelu	2.800 €	Histoiresréelles
Collège au cinéma	22.000 €	Garraioa
Zukugailua	8.000 € diru laguntzetan + 4.000 € Ospitalea eskura ematean + 5.000 € komunikazioan (liburuxka + bideo laburra).	Kirikoketa idazketa erresidentzia

2017an, Departamenduko kontseiluak filmaketen harreraren egitekoa Era-kargarrtasun eta garapen turistikoaren agentzia 64ren esku utzi zuen eta horrek Biarnoko eta Euskal Herriko Filmaren Agentziaren sortzeari bide eman zion 2018an. Erronka lurraldea filmaketa gune gisa sustatzen segitzea zen. Agentzia, Film France filmaren batzordearen sarearen baitakoa da (filmaketen harrerarako bulegoa). Ondorioz ALCArekin elkarlanean ari da eta 15.000 €-ko aitzinkontua du.

Agentziaren egiteko nagusiak dira:

- Lurraldearen baliabideak balioztatzea (giza baliabideak: ikus-entzunezkoetako profesionalak eta ondare naturalak: filmaketa dekoratuak...);
- Tokiko filmaketa taldeak laguntzea (luze eta laburmetraiak, TB fikzioak, dokumentalak, serieak, iragarkiak eta klipak).

2021eko bilanean, tokiko 152 profesional identifikatu zituen, 23 casting eta 25 filmaketa lagundu eta 5 festibaletan presente izan zela azpimarratu zuen.

b) "Collège au cinéma" dispositiboa eta 4. euskal filmaren esperimentazioa

Ikerketa honetan jadanik aipatu dugun "Collège au cinéma" programak, zinemageletan ikasleentzako espreski antolaturiko emanaldietan obra zinematografikoak deskubritzeko parada ematen die kolegioko ikasleei eta, irakasleek eta baita kultura partzuerrek gidaturiko lan pedagogikoari esker, kultura zinematografikoaren oinarriak eraikitzea ere. Departamendua, kolegioen eskumena duenez, baliabide horretan partzuerra da eta, besteak beste, kolegioko ikasleen garraio guzia haren gain hartzen du (urteko 20.000 €-ko aitzinkontuarekin). Irudiarekiko heziketa ere ikastetxeen eta kultura eragilearen arteko lankidetzak laguntzen duen departamenduaren eskumenetan da, 15 oreneko bitartekaritzara irits daitekeen tailerren ardura hartzen du.

"Collège au cinéma" ondoko helburuak ditu:

- Behatzaile den ikaslearen zaletasuna formatzea eta kuriositatea piztea obra zinematografikoak ezagutzera emanez, bereziki jatorrizko bertsoan;
- Luzatze pedagogikoak eta formakuntzak eskaintzea;
- Lurralde osoan ahal bezainbat ikasleri kultura zinematografikoaren eskuragarritasuna erraztea;
- Kalitatezko kultura praktikaren garapenean parte hartzea, gazteen eta zinemagelen arteko lotura erregularren garapena faboratuz;
- Irakasleei, eskola programaren baitan diren erreferentziatzko helburuak garatzeko eta hauetan sakontzeko parada emanen dien aktibitate osagarri bat ekartzea.

Pirinio Atlantikoetako departamenduan Cinévasion elkarteak koordinatzen du.

2021/2022 ikasturtean "Collège au cinéma" baliabidearen baitan 4. Filma euskaraz sartzeko esperimentazioa sustatu du.

Proiektu pilotu horren helburuak ondokoak dira:

- Lurraldeko hizkuntzen inguruan sentsibilizatzea, hauek eskuragarri bilakatzea eta erabilpena garatzea, eskolatik ateraz (eskolako testuingurutik kanpo hizkuntza gutituaren baliatzea eta gizarteratzea), azpitituluen hautuari leku zentrala ematearekin filma horiek eskuragarri bilakaraziz eta gaiak sakonduz (proiektzio emendatuen formatua to-paketa eta tailerrak antolatzeko ahalarekin);
- CNCak finkaturiko helburuen ildoan lurraldeko sorkuntza zinematografikoa deskubritzea, aski garatua den mugaz haraindiko industriak bideratzen duen euskarazko hautuarekin filmak jatorrizko bertsioan deskubriarazten segituz.

Baliabide hori departamenduko eskola eredu guzietako ikasle guziei zuzendua da (frantses, elebidun, murgiltze ereduak).

2021/2022 ikasturterako, ikasleen adinaren arabera bi film proposatu dira: Donostiako Lotura Films ekoizpen sozietateak ekoizturiko **Lur eta Amets** animaziozko filma, 2020an zinemageletan atera zena, eta Garriza Filmek (Bilbo) eta La Fidèle productionek elkarrekin ekoizturiko Lara Izagirreraren **Nora** luzemetraia, 2021ean zinemageletan atera zena. Biak Gastibeltza Filmakek banatzen ditu.

24 ikastetxetik 13k ekimen horretan parte hartu zuten, 1731 ikaslerekin.

c| Zinema eta Ikus-entzunezkoen gaietarako beste balizko diru sartzeak

Departamenduak eskariak nabarmentzen ditu haren mugaz haraindiko egitekoaren baitan. Horren bidez, bereziki gazteentzako diren euskarazko filmen programaketa zabalagoa izan dadin, Departamenduak Atalanten eta Gasteizko Kalakalab SCren arteko lankidetzak lagundu du mugaz haraindiko proiektu dinamiko baten baitan, zinema eta bikoizte tailerretan gazteak aktiboki parte harraraziz (5.000 €-ko heinean).

Departamenduaren laguntza mugatua izanik ere, hirugarren partean aipatu ditugun beste proiektu edo operadoreetan eskaerak izan dira (laburmetraia proiektuak, Next Station, MediaATTACK, Kanaldude, Cluster Eiken, Cluster Navarre...).

6. Tokiko instituzioak: Euskal Hirigune Elkargoa, Euskal Kultur Erakunde eta Euskararen Erakunde Publikoa

Ipar Euskal Herrian 312.218 biztanle bada, 158 herri, eta biztanleria eta aktibitate ekonomikoa kostan azkarki kontzentratzen da bereziki, 128.826 biz-

tanle dituzten Baiona, Biarritz, Angelu, Bokale eta Bidarte hiri eremuetan⁸³.

Orokorki, tokiko instituzioek guti esku hartu dute zuzenean ikus-entzunezkoen eta zinemaren sormenaren eremuan (Aldudarrak Bideo salbuespen bezala hartuz, hedabide bezala lagundua baita alde batetik baina baita ere Euskaldearekin duen COMera iristeko teknikoki lagundua izan baita). Haatik urte batzuk dira EKEk eta EEPk hausnarketa bat abian eman zutela.

a) Euskal Hirigune Elkargoa

Euskal Hirigune Elkargoa 2017ko urtarrilaren 1ean sortu zen, lurralde poloak bilakatu ziren lurraldeko 10 herriartekoen bateratzetik.

Lurralde antolaketa eta bizimolde estrategiaren baitako haren eskumenak dira:

- Europa eta mugaz haraindiko lankidetzak
- Ekonomia
- Hizkuntza eta kultura politika
- Trantsizio ekologiko eta energetikoa
- Ura, itsas bazterra eta eremu naturala
- Euskal mendia
- Gizarte kohesioa
- Mugikortasuna
- Hondakinen prebentzioa, bilketa eta balioztatzea

Orotara; EHEako 2022ko aitzinkontua 689 milioi eurokoa da, hauetarik 407 milioi funtzionamendurako dira eta 282 milioi inbertsiorako.

Hélène Bourguignonen (Euskal Hirigune Elkargoko Kultura zuzendaritzakoa) ekimenez martxoaren 1ean kulturaren, euskararen, garapen ekonomikoaren, mugaz haraindikoaren, arte eskolaren zuzendaritzen eta NOR ikerketa taldearen (Josu Martinez eta Graxi Irigaray) artean antolaturiko bilkuran, presente ziren hirigune elkargoko teknikari desberdinek eta arte eskolako zuzendariak ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektoreko hirigune elkargoaren esku hartzea aipatu zuten.

- Garapen ekonomikoaren zuzendaritzak sektoreari dagokion hausnarketa abian eman du berriki. Disnosc eta Kestu ekoizpen sozietateek (lehenago aipatu ditugunak) ere egoitzak xerkatzen lagundu dituen EHEarengana jo dute.

Ikus-entzunezkoak eta zinema hirigune elkargoaren zerbitzuek eza gutzen ez duen sektorea da. Azken hauek sektore honek ekonomiko ki konfigurazio partikularra duela ohartzen dira, bereziki proiektuaren arabera beharrak desberdinak direlako eta lana usu aldizkatzen diren lanbide desberdinen inguruan egituratzen delako. Valencera proiektuak (La Cartouchière – Irudi animatuaren Poloa) eta Angoulemera animazio estudio bat ikustera joan dira teknikariak, lanbidearen berezitasunak ulertzeko. Erronka ekonomikoaz harago, tokiko sorkuntza sustatzeko beharra azpimarratu da.

- Arte eskola: Rocailleseko Goi Mailako Arte Eskolaren eta Euskal Hirigune Elkargoko Arte Eskolaren arteko bilkura baten ondotik sortua, Euskal Herriko Goi Mailako Arte Eskola (fr. ESAPB) kultura lankidetzako antolakunde publikoa da, Kultura ministerioaren tutoretza pean den Euskal Hirigune Elkargoaren zerbitzua da.
- Goi mailako arte irakaskuntzako sare nazionalaren onespena duten formakuntzak eskaintzen ditu:
 - Arte Diploma Nazionalera (Arte opzioa) daraman 1. arte ziklo bat, Baxoa+3 lizentzia gradua ematen duena;
 - Goi mailako arte eskolarako prestakuntza klaseak.

Bestalde, publiko guzientzako irekia den eta arte eta kultura heziketako baliabideen baitan engaiatuak diren arte plastika amaturretarako tailerrak proposatzen ditu: PAC (Proiektu Artistiko eta Kulturala) kurtsoak eta "Ecole et cinéma" zeinarentzat departamenduko koordinazioa egin duen Cinéma et Cultures elkartearen (Atalante zinema, Baiona) esku utzi aitzin. Biarritzeko ikus-entzunezkoen GMTBarekin proiektu batzuetan elkarlanean ari dira baina baita Peio Aguirrerekin (Elias Querejeta zinema eskola) ere. Bilboko arte eskolarekin harremanetan dira eta Tabakalera, Bilbo Arte, Gasteizko arte eskola... bezalako erresidentzia egiturekin ere lan egiten dute.

Delphine Etchepare zuzendariak estimatzen du, lokalki aukerak agertuz gero eskolak egokitzeko bokazioa duela.

- Iduriz, Kultura Zuzendaritzak guti esku hartu du ikus-entzunezkoen eta zinemaren arloan. 2018an adierazi zuen ez zuela ikus-entzunezkoen eta zinemaren arloa haren kultura politikan sartuko. Hastapen batean Zineginentzat bideratzen zen Hazparneko Lurraldearen laguntza eskuratu zuen baina laguntza hori 2021ean bertan behera gelditu zen. Bitartekaritza ekintzak (Cinévasion eta Fipadoc nomada) lagundu zituen eta, berriki, Irisarrin Zukugailua elkarteak antolatu zuen Kirikoketa gidoi idazketarako erresidentzia lagundu du, 6.000 €-ko zenbatekoarekin.
- Mugaz Haraindiko Trukaketarako zuzendaritza: zinema eta ikus-entzunezkoen sektorea ez da zuzendaritzak aipatzen duen gaia. Halere, sormen-industriaren inguruan Euskampusekin batera eramaten den proiektu bat bada, agerpenaren eta sorkuntzaren ingurukoa den KSI-gune izenekoa. Euskadin kultura sailaren diagnostikoa abiatua da, gai horien kluster batekin.
- Euskara zuzendaritza: udal alorreko eskumena, hots, tokiko zerbitzu publikoetan euskaraz sartzear arduratzen dena. Gehien bat EEPren eskumenekoa den euskarazko sorkuntza eta euskararen hedapena ikus-entzunezkoen eta zinemaren bidez egiteko interes jakin bat bada halere. Haatik, hirigune elkargoko beste zuzendaritza batzuek bide desberdinetatik gaia haienganatzen badute (garapen ekonomikoa, goi-mailako irakaskuntza, Kultura egituraketa esku hartzean...), orduan zuzendaritzak esku hartzen ahalko du. Plantan emaniko balizko tresnak euskarazko zinemari ireki beharko zaizkio.

EHEAK KULTURA ZERBITZUAREN BIDEZ ZINEMARAKO ONARTURIKO LAGUNTZAK (2018-2021):

2018	Cinévasion	2.500 €
2019	Eihartzea (Zinegin festibala)	6.000 €
2019	Atalante	5.000 €
2020	Atalante	5.000 €
2020	Fipadoc Nomada	11.000 €
2020	Kanaldude	6.000 €
2021	Zukugailua	6.000 €

Disnosc ekoizpen sozietateak ere berrikuntzaren saria eskuratu zuen Synosc proiektuarentzako.

Disnosc Angeluko Akinova gunean kokatua da.

b) Euskal Kultur Erakundea

EKE 1990ean sortu zen kultura elkarteek bultzaturik, Estatuaren, Akitaniako Eskualde Kontseiluaren (gaur egungo Akitania-Berriko Eskualde Kontseilua), Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorren (gaur egungo Pirinio-atlantikoetako departamendu Kontseilua) eta euskal kulturaren sustengurako herriarteko sindikatuaren (2017an eskumenak Euskal Hirigune Elkargoaren esku gelditu zirelarik desegin zena) borondate politikoari esker.

Sorkuntzaren aldeko ekimenak sustatzen ditu bereziki. Haren estatutuen arabera, EKEren esku hartzeko lehentasuna euskal adierazpideko ekintzei eskainia zaio.

Euskal Kultur Erakundeak ikusgarri bizien, literaturaren, ondarearen edo ikus-entzunezkoen sektoreak animatzen dituzten kultura elkarteak egunerokoan laguntzen ditu. 2015az geroztik, laguntza eta ekimenak garatzen ditu eremu horretan. Urte batzuk dira Euskal zinema hedapenean zentratua den Euskal Kultur Erakundearen engaiamendu berezituaren hartzaile dela.

2013az geroztik sektoreko eta bereziki zinema independenteetako profesionalen artean partekaturiko hausnarketa Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizturiko euskal zinema gaiaren ingurukoa zen. Zinemagelek ez zuten euskal filmak bide klasikoetatik programatzea lortzen, hau da, haien egitarauan filmak bisa zenbaki batekin sartzen. Aski fite agertu zen frantses lurralde administratiboan film horien banatzaile eskasiari buru egiteaz egitura bat arduratu behar zela.

2013tik aitzina, EKE, Cinémas et Culturesekin (ordu hartan Baionako Atalante eta L'autre zinemak biltzen zituena) elkartuz, zinema horren hedapena sustatzen hasi zen, eta horrek Gabarra Filmsen sorrera ekarriko zuen 2017an (ik. banaketa gorago).

Banaketaren laguntza hedapenaren laguntza bilakaturik:

Banaketarako laguntza hori, Gabarrari filmen eskubideak erostea eta plazaratzea ahalbidetzen ziona, 2019an aldatu zen zinemagelentzako laguntza bilakatzeko. Zehazki, eremu horretan burutzen zuen ekintza festibaletan edo zinemageletan antolaturiko une garrantzitsuetan hedatzeko laguntza da gaur egun, filmetako taldeen eta publikoaren arteko bitartekaritza ekintzak erraztuz bereziki. Euskal filmen zinema-
-eztabaidetarako eta aitzin agerraldietarako filmegileen edo filmeta-
ko taldearen etorrera diruztatzen dute, eta baita itzultzailearena ere (euskaratik frantsesera).

Zineskola Baliabidea, Ecole au cinémaren baliabide paraleloa euskarazko zinemaren alde:

Zineskola baliabideak euskaraz eskolatuak diren lehen mailako ikasleei euskarazko animaziozko filmak deskubritzea eskaintzen die, lurraldeko zinemageletan haientzako espreski antolaturiko proiektzioen bidez. Ikasleek, irakasleek gidaturiko lan pedagogiko gehigarriari esker, euskarazko (eta eskola eremutik kanpo) zinema deskubritzen dute.

Proiektu horren jatorrian Uda Leku elkarteak dago, zeinak zinemetan euskarazko filmak proposatzen zituen haren euskarazko animazioaren egitekoaren baitan eta hedapen sistema klasikotik kanpo (hedapen eskubideak erosi gabe eta, beraz, ustiapen bisarik gabe). EKEk, proiektua harengain hartu zuen eta, Cinémas et Culturesekin, Cinvésionekin, Zineuskadirekin, IKAS zentro pedagogikoarekin eta Hezkunde Nazionalarekin lankidetzan, eskola orduetan eta zinemagelen hedapen sistemaren baitan sartzen zen proiektu pedagogikoa garatu zuen. Lehen mailako eskoletako irakasle euskaldunei euskarazko animaziozko zinemaren inguruko ibilbide batean engaia daitezten proposatzeko xedea du.

Gisa horretan, 2017az geroztik, urtero euskarazko bi edo hiru film proposatzen zaizkie ikusle gazteei eta haien irakasleei. Filma bakoi-tzak aholkulari talde batek diseinatu duen ustiaketa pedagogikorako proposamen bat du berekin. Proposamen hori haientzat antolaturiko filmen ikuskatze saioetan aurkezten zaie irakasleei, ikasleekin saioa aitzin eta ondotik lanketa berezia egitea ahalbidetuko diena.

Gaur egun animaziozko filmak euskarara bikoiztea Zineuskadik haren gain hartzen duela nabarmendu behar da.

Baliabidea zenbakitan (2018-2019 ikasturtea)

- 3 film 10 zinemagelatan
- 95 saio
- Berrogei herri ingurutik heldu diren 60 ikastetxe
- 3 irakaskuntza sailetatik heldu diren 3.641 ikasle
- Irakasleentzat antolaturiko ikusketa saioetan parte hartu duten 25 eskola

Iparr Euskal Herriko soinu eta ikus-entzunezkoen artxiboen tratamendu intelektuala

Urte anitz dira partikularrek, elkarteek eta tokiko irratiek soinu eta ikus-entzunezko edukiak biltzen dituztela. Artxibo horiek, kultura ondarearen transmisio bektore, ondare interes handikoak dira. Halere, ondare hori desagertu daiteke ez bada babesteko behar dena egiten.

Halaber, 2009an, EKEk artxibo zahar horien egoeraren azterketa egin zuen Pirinio Atlantikoetako departamendu Kontseiluaren kondu. 2011z geroztik, funtsen babesteko eta balioztatzeko hainbat urtetarako programaren baitan, Departamendu Kontseiluak digitalizatzearen eta publikoaren esku uztearen ardura hartzen du, bilaketarako tresnen ekoizpen normalizatu bidezko dokumentatze eta artxibatze tratamenduan datzan tratamendu intelektualaren obratzea, hots, inbentarioa eta indexazioa, EKEren esku utziz. 2008 eta 2021 urteen artean, hamahiru funtsa balioztatu ziren.

EKEK 2015-2021 ARTEAN ONARTURIKO DIRU LAGUNTZAK

2015			
Cinéma & Cultures elkarteak	Euskal zinemaren hedapena	Pablo Maloren Lasa eta Zabala eta Asier Altunaren Amama filmen banaketa	7.000 €
Udaleku elkarteak	Publiko gaztearentzako zinema hedapena	Euskal zinemaren hamabostaldia Seaskako ikasleekin. Pim eta Pom - Bram Barrabas filmak	2.500 €
Lurraldeko gelak ekoizpen enpresak	Euskal Herrian filmaturiko zinemaren hedapen eta bitartekaritza	Lurraldearekin lotura duten errepertorioko filmen hedapena / Chez les basques zikloa	8.420 €
Eihartzea elkarteak	Zinegin festibala	Topaketak eta formakuntzak	1.000 €
			18.920,00 €
2016			
Cinéma & Cultures elkarteak	Publiko gaztearentzako zinema hedapena	Jai Alai Blues filmaren banaketa	3.000 €
Udaleku elkarteak	Publiko gaztearentzako zinema hedapena	Euskal zinemaren hamabostaldia Seaskako ikasleekin. Films Prop eta Berta - Jelly T filmak	2.500 €
Cinéma & Cultures elkarteak	Euskal zinemaren hedapena	Banaketa proiektuaren egituraketa (lankidetzaz Zineuskadi)	6.000 €
Eihartzea elkarteak	Zinegin festibala	Tailerrak	1.000 €
			12.500,00 €
2017			
Cinéma & Cultures elkarteak	Euskal zinemaren hedapena	Handia - Kalebegiak filmen banaketa	6.000 €
Cinéma & Cultures elkarteak	Chez les basques zikloa 2	Euskadi - Basker - Bonde i Baskerland filmen proiektatzea	450 €
Udaleku elkarteak	Irudiarekiko heziketa	Zineskolaren koordinaketa Seaskako ikasleekin / Ernest & Célestine - Phantom Boy filmak	2.500 €
Eihartzea elkarteak	Zinegin festibala	Tailerrak	1.000 €
			9.950,00 €

2018			
Zaldaina elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Obratze kolektiboaren argitaratzea: Euskal zinema: hiru zinegile belaunaldi	5.527 €
Cinéma & Cultures elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Oreina de Koldo Almandoz filmen banaketa	3.000 €
Cinéma & Cultures elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Oihaneko zühainetan Oihan eta Elsa Oljar-Inès gaurdia	500 €
Cinéma & Cultures elkarte	Irudiarekiko heziketa	Zineskola baliabidearen koordinaketa / Harri Zopa - Teresa eta Galtzagorri filmak	3.000 €
Eihartzea elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Zinegin festibala	2.000 €
Udaleku elkarte	Udaleku elkarte	Bideo tailerra Udaleku aisialdi zentroetako hurrekin	1.500 €
			15.527,00 €

2019			
Cinéma & Cultures elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Fermin Muguruzaren Black is Beltza eta Telmo Esnalen Dantza filmen banaketa.	6.000 €
Cinéma & Cultures elkarte	Irudiarekiko heziketa	Zineskola baliabidearen koordinaketa / Grufalao - Harpetarra - Zarafa filmak	3.000 €
Eihartzea elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Zinegin festibala	2.000 €
Axut elkarte	Laburmetraiaren ekoizpena	Josu Martinezen Anti	2.000 €
Udaleku elkarte	Udaleku elkarte	Bideo tailerra Udaleku aisialdi zentroetako hurrekin	1.000 €
			14.000,00 €

2020			
Cinéma & Cultures elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Jon Garañoren La trinchera infinita, Lander Garroren Bi urte, lau hilabete, egun bat, Oskar Alegriaren Zumirikiren banaketa	1.200 €
Cinéma & Cultures elkarte	Irudiarekiko heziketa	Zineskola irudiarekiko heziketa baliabidearen koordinaketa tekniko	1.000 €
Cinévasion elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Lara Izagirreraren Nora, Lander Garroren Bi urte, lau hilabete, egun bat filmen hedapena	1.465 €
Eihartzea elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Zinegin festibala	2.000 €
			5.665,00 €

2021			
Cinéma & Cultures elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Akelarre, Atarrabi eta Mikelats, Caminho Longe, Non dago Mikel, Nora, Irrintzi, Hemendiken hedapena	3.000 €
Cinéma & Cultures elkarte	Irudiarekiko heziketa	Zineskola irudiarekiko heziketa baliabidearen koordinaketa tekniko.	1.000 €
Cinéma & Cultures elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Zinema Kanpoan ekintza - Dantza eta Amama filmen emanaldia Biriatur, Azkainen Bastidan eta Ortaizen.	1.266 €
Cinévasion elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Pablo Agüeroren Akelarre, Eugène Greenen Atarrabi eta Mikelats, de Josu Martinezen Caminho Longe, Oskar Alegriaren Zumiriki, Miguel Angel Llamasen Non dago Mikel? filmen emanaldia.	3.000 €
Eihartzea elkarte	Euskal zinemaren hedapena	Zinegin festibala	2.000 €
Utopia Bordeaux zinema	Euskal zinema focusa	Euskal zinema obratze kolektiboaren aurkezpena: 3 belaunaldi (Joxean Fernandez), Oreina (Koldo Almandoz), Zumiriki Oskar Alegria filmen emanaldia.	1.632 €
			11.898,00 €

c) Euskararen Erakunde Publikoa

Euskararen Erakunde Publikoa Interes Publikoko Elkargo (IPE) gisa eraiki zen. Euskararen erabilpenaren garapenaren aldeko hizkuntza politika finkatzea eta plantan ematea da haren egitekoa.

Estatuak, Akitania Berria Eskualdeak, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduak eta Euskal Hirigune Elkargoak sorturiko interes publikoko elkargoak, EEPk, "Hiztun osoak helburu – Haur eta gazteak lehentasun" lemarekin definitu zuen 2006ko abenduko Administrazio Kontseiluko kideek onartu zuten hizkuntza politika. 2018-2022 epealdirako berriua izan da.

IPEa 12 pertsonen ordezkatzen dute

- 3 Estatuaren ordezkarari
- 3 Akitania Berria Eskualdearen ordezkarari
- 3 Pirinio-Atlantikoetako Departamenduaren ordezkarari
- 3 Euskal Hirigune Elkargoaren ordezkarari

Estatutuen arabera, Euskararen Erakunde Publikoaren aitzinkontua haren kideek esleitzen dute ondoko heinean:

- % 25 Estatuak
- % 25 Akitania Berria Eskualdeak
- % 25 Pirinio-Atlantikoetako Departamenduak
- % 25 Euskal Hirigune Elkargoak

2018ko apirilaren 24ko biltzar nagusiak Euskararen Erakunde Publikoaren 2018 urteko jatorrizko aitzinkontua onartu zuen.

Onarturiko aitzinkontua 4.186.000 €-koa zen

EEPk 4 erronka finkatu ditu haren araudian: transmisioa, erabilpena, (aisialdi, kirol aktibitate, heziketa artistiko edo kulturala), euskarari gizartean zinezko tokia emanen dioten inguramenak (hedabideak, inguramen numerikoa, lana eta enpresa, bideo jokoak, liburuak) eta euskara ikasteko eta baliatzeko motibapenean eragin zuzeneko eta iraunkorra duten proiektuen sustengua.

Testuinguru horretan, filmen ekoizpen eta banaketa ezin dira zuzenean sustengatuak izan. Haatik, hedabideak sustengatzen dituela ikus dezakegu eta, ondorioz, euskal hedabideekin lankidetzan lan egiten duela.

Araudiak zehazten duenez, haien ekintzak heziketa artistikoan edo kulturean eragin dezake. Gisa horretan, irudiarekiko heziketarekin eta transmisio zinematografikoarekin lotura duten aktibitateak plantan ematean parte hartzen du.

EEPREN 2015 ETA 2021 URTEEN ARTEKO PROIEKTU DEIALDIAREN BAITAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN EKOIZPEN PROIEKTUEN FINANTZAMENDURAKO GALDEAK, DELIBEROAK ETA EMAITZAK

2015 urtea

GALDEGILEA	PROIEKTUAREN IZENA	AURKEZPENA	GALDEGIN LAGUNTZA	ONARTURIKO AITZINKONT.
SCIC Aldudarrak Bideo	Kanaldude 2015	Euskarazko tokiko telebista parte hartzaile proiektuaren indartzea	80.000 €	67.200 €
TVPI	TVPI au coté de l'Euskara	Ondoko baliabidearen mantentzea: euskarazko eta frantsesez azpitolaturiko asteroko erreportaje magazinearen ekoizpen eta hedapena	35.000 €	32.000 €
Xibero TV	Web TV	Web Tb parte hartzailearen sortzea	4.000 €	2.000 €
Baxter and Rojos United	Sagarra jo!	Frantsesezko filmaren azpitolu bidezko itzulpenarako finantzamendu galdea.	2.310 €	0 €
2015ean orotara onartua			101.200 €	

2016 urtea

GALDEGILEA	PROIEKTUAREN IZENA	AURKEZPENA	GALDEGIN LAGUNTZA	ONARTURIKO AITZINKONT.
SCIC Aldudarrak Bideo	Kanaldude 2016	Euskarazko tokiko telebista parte hartzaile proiektuaren indartzea	80.000 €	70.000 €
TVPI	TVPI au coté de l'Euskara	Ondoko baliabidearen mantentzea: euskarazko eta frantsesez azpitolaturiko asteroko erreportaje magazinearen ekoizpen eta hedapena	36.000 €	32.000 €
Xibero TV	Web TV	Web Tb parte hartzailea	10.000 €	2.000 €
Baxter and Rojos United	Inguma zinema tailerra	Euskarazko zinema tailerra 15 eta 20 urte arteko hamar bat gazterentzat Hendaian.	6.783 €	0 €
2016an orotara onartua			104.000 €	

2017 urtea

GALDEGILEA	PROIEKTUAREN IZENA	AURKEZPENA	GALDEGIN LAGUNTZA	ONARTURIKO AITZINKONT.
SCIC Aldudarrak Bideo	Kanaldude 2017	Euskarazko tokiko telebista parte hartzaile proiektuaren indartzea	80.000 €	80.000 €
TVPI	TVPI au coté de l'Euskara	Ondoko baliabidearen mantentzea: euskarazko eta frantsesez azpitolaturiko asteroko erreportaje magazinearen ekoizpen eta hedapena	36.000 €	35.000 €
Xibero TV	Web TV	Web Tb parte hartzailea	1.000 €	2.000 €
Gastibeltza Filmak	Euskal zineman murgiltzea	Elkarteak antolatzen dituen zine- eztabaidetan aldibereko itzulpen sistema plantan emateko finantzamendu galdea, eta baita film emanaldiak baino lehen baliatzekoak diren irakasleei zuzenduriko euskarri pedagogikoen ekoizpenerako ere	7.790 €	0 €
Indianoak Ibaialde	Ternua 2017	Besteak beste Bonobo productionsek ekoizturiko 52'ko dokumentala azpitolatzeko itzulpen lanaren kostuak ordaintzeko finantzamendu galdea	3.500 €	0 €
2017an orotara onartua			117.000 €	

2018 urtea

GALDEGILEA	PROIEKTUAREN IZENA	AURKEZPENA	GALDEGIN LAGUNTZA	ONARTURIKO AITZINKONT.
SCIC Aldudarrak Bideo	Kanaldude 2018	Euskarazko tokiko telebista parte hartzaile proiektuaren indartzea	80.000 €	80.000 €
TVPI	TVPI au coté de l'Euskara	Ondoko baliabidearen mantentzea: euskarazko eta frantsesez azp titulaturiko asteroko erreportaje magazinearen ekoizpen eta hedapena	35.000 €	32.000 €
Xibero TV	Web TV	Web Tb parte hartzailea	10.000 €	2.000 €
2018an orotara onartua			114.000 €	

2019 urtea

GALDEGILEA	PROIEKTUAREN IZENA	AURKEZPENA	GALDEGIN LAGUNTZA	ONARTURIKO AITZINKONT.
SCIC Aldudarrak Bideo	Kanaldude 2019	Euskarazko tokiko telebista parte hartzaile proiektuaren indartzea	80.000 €	80.000 €
TVPI	TVPI au coté de l'Euskara	Ondoko baliabidearen mantentzea: euskarazko eta frantsesez azp titulaturiko asteroko erreportaje magazinearen ekoizpen eta hedapena	35.000 €	32.000 €
Xibero TV	Web TV	Web Tb parte hartzailea		2.000 €
Gastibeltza Filmak	Euskal zinean murgilduz	Bapateko itzulpena sistema plantan emateko, zine-debateetan eta pedagogia materialak sortzeko	7.790 €	0 €
2019an orotara onartua			114.000 €	

2020 urtea

GALDEGILEA	PROIEKTUAREN IZENA	AURKEZPENA	GALDEGIN LAGUNTZA	ONARTURIKO AITZINKONT.
SCIC Aldudarrak Bideo	Kanaldude 2020	Euskarazko tokiko telebista parte hartzaile proiektuaren indartzea	80.000 €	80.000 €
TVPI	TVPI au coté de l'Euskara	Ondoko baliabidearen mantentzea: euskarazko eta frantsesez azp titulaturiko asteroko erreportaje magazinearen ekoizpen eta hedapena	35.000 €	32.000 €
Xibero TV	Web TV	Web Tb parte hartzailea	2.000 €	2.000 €
Gastibeltza Filmak	"Subandila" J.Martinezzen film laburra	*euskara gaitzat duen filmaren filmaketa *zinemari buruzko baliabide pedagogikoen sormena, kolegio eta lizeoentzako	5.000 €	2.000 €
Xofaldia produkzioak	Bañolet seriea	4 kapituluzko Bañolet serie proiektua	5.000 €	0 €
2020an orotara onartua			118.000 €	

2021 urtea

GALDEGILEA	PROIEKTUAREN IZENA	AURKEZPENA	GALDEGIN LAGUNTZA	ONARTURIKO AITZINKONT.
SCIC Aldudarrak Bideo	Kanaldude 2021	Euskarazko tokiko telebista parte hartzaile proiektuaren indartzea	80.000 €	80.000 €
TVPI	TVPI au coté de l'Euskara	Ondoko baliabidearen mantentzea: euskarazko eta frantsesez azpitolaturiko asteroko erreportaje magazinearen ekoizpen eta hedapena	35.000 €	32.000 €
Xibero TV	Web TV	Web Tb parte hartzailea	2.000 €	0 €
Zukugailua	Zineman mugaizgandiko harremanak laguntzeko tresnak	Ikus-entzunezkoen eta zinema arloen ekoizpeneko kontratuak lantzeko tresnak, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez, Espainiako eta Frantziako araudiak errespetatuko lituzkeenak	5.000 €	2.000 €
Gastibeltza Filmak	Bi film laburren dossier pedagogikoen sormena	J.Martinez eta E.Castagneten filmen dossier pedagogikoen sormena	4.000 €	2.000 €
Laukit at	Bitxi bila	Bideo erreportai pilotoa, euskararen erabileraz	4.000 €	2.000 €
2021an orotara onartua			118.000 €	

IKASTETXEEK BERMATZEN DUTEN PROIEKTU LINGUISTIKOEN GARAPENAREKIN LOTURIKO BALIABIDEENTZAKO PROIEKTU DEIALDI BIDEZKO IRUDIAREKIKO HEZIKETARAKO LAGUNTZA

2016-17

Ikastetxearen izena	Herria	Proiektuaren izendapena	Bozkaturiko laguntzaren zenbatekoa
Pays de Soule lizeoa	Sohüta	Euskal mitologiari buruzko ikus-entzunezko ekoizpena	591,00 €
Xalbador kolegioa	Kanbo	Euskal zinemaren deskubritzera	612,00 €
San Josepe lizeoa	Uztaritze	Telebista plato baten egitea	1.393,20 €
OROTARA 2016-2017			2.596,20 €

2017-18

Ikastetxearen izena	Herria	Proiektuaren izendapena	Bozkaturiko laguntzaren zenbatekoa
Saint-François Xavier ESKOLA	Urruña	Itsasoari buruzko animaziozko filma	465,10 €
OROTARA 2017-2018			465,10 €

2018-19

Ikastetxearen izena	Herria	Proiektuaren izendapena	Bozkaturiko laguntzaren zenbatekoa
OROTARA 2018-2019			

2019-2020-2021

Ikastetxearen izena	Herria	Proiektuaren izendapena	Bozkaturiko laguntzaren zenbatekoa
Paul Bert lehen mailako eskola publikoa	Biarritz	Euskal dantzak Dantza filmaren inguruan	857,00 €
Ursuya kolegioa	Hazparne	Zuzenean emankizuna	1.059,00 €
Bernat Etxepare lizeoa	Baiona	Gustuko ditudan lanbideak filmatzen ditut	603,00 €
Saint-François-Xavier eskola	Urruña	Animaziozko filma	165,75 €
Bernat Etxepare lizeoa	Baiona	Laburmetraia	1.890,00 €
OROTARA 2020-2021			4.574,75 €

2021-2022

Ikastetxearen izena	Herria	Proiektuaren izendapena	Bozkaturiko laguntzaren zenbatekoa
Albert Larrousset eskola publikoa	Getaria	Ipuinak filmatu lehen mailako hirugarren, laugarren eta bostgarren urtekoekin	413,60 €
Albert Larrousset eskola publikoa	Getaria	Ipuinak filmatu lehen mailako lehen eta bigarren urtekoekin	413,60 €
Albert Camus	Baiona	Ikus-entzunezkoak	48,00 €
Bernat Etxepare lizeoa	Baiona	Laburmetraia	576,00 €
Xalbador kolegioa	Kanbo	elkarbizitza – rap klipa	547,76 €
Piarres Larzabal kolegioa	Ziburu	laburmetraia (antzerkia)	230,50 €
OROTARA 2021-2022			2.229,46 €
OROTARA 2014-2022			14.029,11 €

Gisa horretan, dagozkion egitekoen baitan, EEPk eskolek luzatzen dituzten irudiarekiko heziketa gaietako galdeei erantzuten die, baita hedabideen galdeei ere (Kanaldude, TVPI, XibetoTV). Haatik, ikus-entzunezkoen eta zinematografia arloko galdeei ezin die baikorki erantzun.

7. | Ondorioak

Erakunde ezberdinen datuak bildurik, ikus daiteke Ipar Euskal Herrian zinema arloan eragiten dutela erakunde ezberdinek, bakoitzak bere eskumenen arabera. Ikus-entzunezkoan eta zineman jarduten erakunde klasikoek Ipar Euskal Herriko eragile ezberdinak laguntzen dituzte. CNC, DRAC, ALCAk edota Akitania-Berriko eskualdeak lerro zehatzak dituzte idazketa, ekoizpena, irudi heziketa, hedapena, festibala edo ustiapenari lotuak eta bide horietatik, lurraldeko hainbat eragile lagunduak dira beraz, zineman dituzten proiektu ezberdinen arabera, jadanik aipatu ditugun koadro arautu baten bitartez, modu antolatu batean, lurraldeko berezitasunak (hizkuntza barne), erronkak eta garapeneko aukerak guti begiratu.

Besteek (Euroeskualdea, Departamendua, Hirigune Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa edo Euskal Kultur Erakundeak) beste bide batzuen bitartez laguntzen dute arloa: mugazgandiko kooperazioa, herritartasuna, kultur heziketa, kultur hedapena, garapen ekonomikoa, hedabideak, euskal kultura...

Zinema arloa eta ikus-entzunezkoaren eskumena zehaztua ez duten lekuko eragileek beraz, lurraldetik hurbilago direnak, zeharka laguntzen dute arloa: proiektuka, irudi heziketaren bitartez, hedapena noizean behin... baina arloaren muinean, ekoizpenean esate baterako, eragin gabe. Ondorioz, desorekak ere badira lagunduak diren egituren artean. Zukugailua elkartearen sorrerarekin haatik, sormena ere laguntzen hasi dira.

Lurraldean ikus-entzunezko eta zinemako eskumena argiki hartzen duen politika bat falta da, helburu eta irizpide zehatzak lituzkeenak, eskala instituzional goragokoekin harremana lukeena eta lekuko berezitasunak identifikatzeko litzakeena. Ipar Euskal Herrian ikus-entzunezkoa eta zinema garatu nahi baldin badira, epe luzera pentsatu behar da. Produktorako diru-laguntza fondo bat sortzea baino ikuspegi zabalagoa hartu behar da. Ohiko laguntzak eskaintzea beharrezkoa izango baldin bada ere, inportantea da lanketa errotik eramatea: ikuspegi kulturalaz gain lurraldearen garapen ekonomikoa zein lurralde berrikuntzan kokatuz. Arloa modu iraunkorrean garatzeko beraz, ekosistema oso bat pentsatu beharra dago, hizkuntza erdigunean koka litzakeena.

VI. KULTURA INDUSTRIEN GARAPENA

Graxi Irigarai, Ramon Zallo

EHU eragile instituzionalekin lotzen dituen Hitzarmenak garbiki adierazten duen bezala, NOR ikerketa taldeak jarraian adieraziko ditu ikertua den sektorearen aldeko balizko politika publiko bati buruz bideratzeko gomendioak, lehenetsuneko eremuak, espazioak, dauden egitura eta aukerak, tresna teknikoak eta sortu behar diren baliabideak identifikatuz, alde desberdinen arteko elkarlanari esker sektorea lokalki garatu dadin.

Neurri zehatzen proposamenera iritsi aitzin, ikertua den gaia osotasunean eta konplexutasunean ulertzea garrantzitsua da. Izan ere, ikus-entzunezkoen izaera anitzak behartzen gaitu gaia ulertu eta jorrazteko sarbide desberdinak perspektiban ezartzera: kultura, ikus-entzunezkoak, sormen-industriak, lurralde garapena, komunikazioa, azpiegiturak, hezkuntza.

Ramon Zalloren oharrei esker, ondoko lerroek Ipar Euskal Herriko zinema eta ikus-entzunezkoen aldeko politika publiko egokia diseinatzeko kontuan hartu behar diren elementu desberdinen ikuspegi orokorra ukaitea ahalbidetuko dute.

1. **Ikus-entzunezkoak: kultura, ekonomia, digitalizazioa eta komunikazioa**

a) **Inguramen kultural modernoa eta digitalaren eta Interneten lekua**

Kulturaren kontzeptuak bi dimentsio ditu: politika sozialek edo *habitusak* (sinboloak, ezagutza funtsak, munduaren ikuskera osatzen dute baloreak, nortasuna, bestearen aitortza...) irudikatzen duten dimentsio subjektiboa eta dimentsio gauzatuak (ondasunak, zerbitzuak eta kultura instituzioak), zeinak gehienetan baina ez eskusiboki, identifikatzen, sinbolizatzen eta desberdintzen duten lurralde baten baitan sartuak diren.

Kultura, zentzu zabalean ulertua, kultura aktibitate sozialak, komunikazioa (hedabideak, kultura adierazpideak eta pertsonen arteko harremanak), identitate komunitarioa, zentzu eta baloreen sormen eta ekoizpena, harreman sozialen artikulazioa, arte amatur eta profesionalak eta kultura industriak biltzen dituen ekosistema da. Garapen ekonomiko eta sozialerako elementua dela ere gehitu behar da.

Izan ere, oinordetzan harturiko kulturak (ondarea, jakitatea, bizimoldea, instituzioak...), arte klasiko eta tradizionalak, kultura industrietan (edizioa, argazkilaritza, zinema, bideoa) eta idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideek sektore ekonomiko garrantzitsua osatzen dute aspalditik, baina haren eragin sozialak (kultura kolektiboa, iritzi publikoa, transmisioa, eliteen adierazpidea) neurri ekonomiko oro aise gaingitzen du. Kultura horrek, giza baliabideen eta baliabide materialen bidez, prozesu berritzaileekin zuzeneko lotura duela azpimarratu behar da ere: eduki eta komunikazio tresnak – Internet bidezko digitalak barne – eta etxeko ekipamenduen parkearen (streaming, TNT, smartphoneak, ordenagailuak) zaharberritzea. Kulturaren eta komunikazioaren arloak aldaketa betearen dira mundu osoan. Adierazpide klasikoak (eleberriak, ikus-entzunezko fikzioak, musika pasarteak, egunkariak, irati eta telebista emankizunak...), euskarria edozein izanik ere, erabilpen eta iruditegi kolektiboan behin betiko sartuak diren produktuak dira. Baina kultura industrietan, haien balio-kate guzien digitalizazioarekin eta haien euskarrien aldaketarekin (ebook, telekargatzeak, trukaketak, sare bidezko irakurketa, cross media telefono, ordenagailu eta telebistaren artean...), aldaketa sakona pairatzen dute gaur egun. Halaber, adierazpenaren mugak lausoak dira.

Internet edukien eremu berria da, zeinean informazioak eta eduki kulturelek, sinbolikoek eta aisialdikoek, garrantzia handia hartzen duten. Bestalde, interesatzen zaizkigun eremu horietatik harago doazen beste zerbitzu anitz bada. Batzuk aipatzekotan: erabilpen etxetiar edo profesionalerako informazio dokumental, bibliografiko edo instituzionalak, datu baseen eskakizunak, erosketak, jokoak, banku eskakizunak, lana xerkatzea, posta elektronikoa bidezko komunikazioa, fitxategien eskualdatzeak. Interneten eta digitalaren baliatzea beraz eremu guzietan dagokie.

Doako telebistaz – orotarikoa edo tematikoa – eta ordainpeko telebistaz (Orange, Canal+...), "OTT" (Over-The-Top) zerbitzu plataformez, izan streaming bidezkoa, ordainik gabea edo publizitadeduna (YouTube), Premium bertsioez eta abonamenduzko zerbitzuez (Video On Demand harpidetzak) eta ikus-entzunezko ekoizle eta banatzaile diren aldizkako isurtze sarikoez (Netflix, amazon Prime Video, HBO, Filmin...) osatua den etxetiar erabilpeneko ikus-entzunezkoen sistema ere barne hartzen duela azpimarra dezagun.

b| Kultura adierazpideen ikuspegi ekonomikoa eta soziala

Kulturaren mundializazioak *ekosistema sinboliko* berria ekartzen du (“hiper-kultura globalizatailea”), zeinean, sorkuntza ekoizpena, banaketa, kulturaren eta komunikazioaren eragin sozialak zein mobilizaturiko hauen eragileak, egiturak eta interakzioak posizio horretatik begiratuz, kulturaren eta komunikazioaren ekonomia ikertu dezakegun.

Begi bistakoa da kulturaren egiazko balioa ezingo dela sekulan ere haren ekonomian islatu. Horretarako antropologia edo soziologia bezalako beste diziplinak badaude adibidez. Egiaztatu behar da ekonomiak ezin duela engeiatzen diren eta kontuan hartuak ez diren zaletasuna, borondatezko lana, ekintza soziala, praktikak, ondasun komunak, zerbitzu publikoak, erabiltzaileek sorturiko ekoizpenak, elkarrekintzak... bezalako giza baliabideen handitasunaz kontu eman.

Horri, profesionalen ekarpenaren balio erreala ere gaizki neurtua dela gehitu behar zaio, lan prekarioa, akidura, ordaindu gabeko itzaleko lana, eskaintzan bilakatzen ez den ekoizpen handia edo kaudimendun galderik gabeko eskaintza –kulturan hain ugaria – mikro eta makro zifren ekonomia konbentzionaletik at baitaude. Ekonomia konbentzional horrek ez du icebergaren punta baizik agertzen eta, gainera, ez du murgildua den parte erakusten. Horrek kulturaren errealitatea hobe islatuko duen beste ekonomia agerian hobe utziko duen askotariko ikerketa beharresten du.

Nolanahi ere, ekosistema kulturala aldaketa betean da eta, haren dimentsio soziala nagusitzen bada ere, kultura, ekonomiaren baitan, baliabide gisa eta beste berariazko instantzia batzuekin bat egiten duen sektore gisa hartu behar da.

Aniztasunaren, jakitatearen, digitalizazioaren eta mundializazioaren aroan kultura eta komunikazioa gizarte osoaren berariazko estrategia eremu gisa kontsideratu behar dira, are gehiago identitate historiko azkarra duten lurralde kulturen kasuan.

Gisa horretan, kultura, gizarte baten ehun soziala, nortasuna eta kohesioa zimentatzen duen baliabide global eta territoriala da. Sormena estimulatzeko baldintza ezin hobeak sortzea administrazioen esku da ere.

2. | Ikus-entzunezkoak tokiko sektore kultural eta linguistikoan

a| Zein dira erronkak?

(a) Ikus-entzunezkoen sektorea kultura, gizarte eta ekonomia ikuspegitik

Ikus-entzunezkoen sektorea kulturaren eta gizarte komunikazioaren motore da eta, ondorioz, arrazoi kultural eta ekonomikoengatik lehentasuneko sektore gisa hartu behar da. Alde batetik, jakitateaz, modernitateaz eta

identitateaz mintzo gara⁸⁴ (usu beste batzuek gure kontsumorako ekoizten dituztenak) eta, bestetik, eskaera emendatze bidean duen eta merkatua handitzen ikusten ari den sektoreaz. Bi gaiak elkartzen dira, gaur egun kultura moderno gisa eraikitzeak edukien ekoizpena (kultura eta ikus-entzunezkoena) berekin ekartzen duela kontuan hartzen badugu.

Lurralde kultura modernoek haien etorkizunaren parte handi bat soinu eta irudiak ekoizteko duten gaitasunean pariatzen dute. Ekoizpenak berak, sentimenduak, baloreak eta zaletasunak islatzeaz gain, bilakaera kolektiboa laguntzen du. Estrategia horretan bide onetik joateko baliabideak behar dira baina, lehenik eta behin, ideia argi bat, babesaren eta garapeneraren konbinaziotik abiatu norberaren kultura propioa sustatzea eta egokitzea. Norberaren kultura adierazpide eta formatu desberdinetan oinarriturik aktibatu beharko da beraz. Behar dena da:

- kalitatezko irizpideekin ekoiztu,
- sorkuntza ikus-entzunezkoen ekoizpenean berezitu, eta norberaren kultura eta ekonomia propioa eraikitze bide gisa pentsatu,
- norberaren idiosinkrasia propioaren eraginei ireki (herrialde nordikoek egin bezala), hots, ezaugarri kultural eta sozial propioei.

Iragan hamarkadan mundu mailako ikus-entzunezkoen ekoizpena eta kontsumoa azkarki emendatu ziren. "Azken hamar urteetan ikus-entzunezkoen ekoizpena %50ez emendatu da, bereziki merkatu berriek ezagutzen duten hazkuntzagatik. Urteko 8.200 ekoizpenetatik %20 Indian eginak izan dira. Ondotik Europa heldu da %13arekin eta gibeletik Txina eta Amerikako Estatu Batuak bakoitza %9arekin" (Sanchez Fernandez-Bernal, 2021⁸⁵). Europar kultura ttipi batentzako tartea bada hor, baina baita merkatu lehiakorren tzako ere.

Lurralde bateko kulturarentzako, ikus-entzunezkoen sektorea, baloreak eta nortasuna proiektatu eta elikatzeaz gain garapen ekonomikorako aukera sortzaile den ezaugarri estrategikoko sektorea da, lurraldeak agertu nahi duen eginkizunarekin eta irudiarekin bat egin behar duena. Euskal kulturaren eta nortasunaren garapenerako egokia da, zeinarentzat Ikus-entzunezkoak adierazpide diren eta baita kultura industriarentzat, zeina horien funtsezko parte den.

Ikus-entzunezkoen industria – zinema, bideoa, telebista, diskoa, irratia eta beste adierazpideak – eragin handikoa da, handia eta egunerokoa den galde sozialagatik, inpaktu sensorial eta emozionalagatik, edukien ekoizpen eta hedapenerako duen sistema indartsuagatik eta beste adierazpide formekin duen polibalentziagatik. Horregatik, herrialde anitzetan irrati-difusio sisteman esku hartze publiko garrantzitsua eta osagarria existitzen da.

Ez da berdintasun eremu bat, ez herrien artean, ez balore-katearen kate-mailen artean ez eta generoen artean ere. Nazioarte mailan emazteak ikus-entzunezkoetan duen lekua begira dezagun. Adibidez, Hollywooden errea-

⁸⁴ Ikus-entzunezkoena kultura kontsumoari dagokionez handituz doan sektorea da, informazio-alfabetatzea pantailetak irakurketak anitz estimulatzearekin bateragarria da, nahiz eta idazketa digitalizazioak aldatzen duen. Ez da hain literarioa, laburragoa da, galdera-erantzunean eta ideien elkarketan oinarritua, irekiagoa, praktikoagoa, logikoagoa eta ez hain testuinguruan emana eta ez hain erretorikoa.

⁸⁵ Zallo R. (2022) Notas para informe « Sector audiovisual y cultura »

lizazioan edo kamera atzean emazteen proportzioa ez da %10era iristen. Zinegile onenaren Oscarra adibidez bi emaztek bakarrik irabazi dute: Kathryn Bigelow eta Chloé Zhao. Serieetan, egiletasun femeninoa ere arraroa izan ohi da. Espainiaren kasuan serieen ekoizpenen 2/3a gizonak eginikoak dira. Haatik, Emazte Zinemagileen eta Ikus-entzunezko Hedabideen Elkartearen (Espainian) 2019ko txostenaren arabera beste "laguntzaile" lanbideetan emazteen nagusitasuna erabatekoa da: makillatzaile, ile apaintzaile, arropategi eta dekorazio postuen % 61a emazteek betetzen dute eta % 8,3a soilik ardura nagusietan da. Frantzian eskema sozial berak daude: SACDaren ikerketa batek agertzen duenez, 2017an, Frantzian, emazteek zinema autoreen %29a soilik ordezkatzeko zuten⁸⁶.

Ikus-entzunezkoen sektoreari dagokionez komeni da azpimarratzea:

- Kultura identitateen eraikuntzan duen pisua.
- Adierazpen forma aniztasuna, sorkuntza artistikorako eremu onuragarrian bilakatzen baitu eta edozein aktibitatean integratzeko gaitasuna ematen baitio.
- Haren nahiagotasuna populakuntzaren kultura ohitura, praktika, exigentzia eta kontsumoan, belaunaldi gaztearengan eragin bereziarekin.
- Haren kanpo proiektiorako gaitasuna, bereziki izaera bisualagatik beste hizkuntza batera itzulia izateko erraztasunagatik eta hizkuntza unibertsal gisa.

Beraz, ikus-entzunezkoena sektore ekonomiko garrantzitsua da, baina haren proiektio sozial eta kulturalagatik zorrotasun handia behar da, komunitateen eta gizartearen parte handi batean eragina baitu. Halaber, perspektiba ekonomikoaz gain haren egikizun sozial estrategikoa kontuan hartu behar da.

Euskal kultura bezalako kultura gutitu batentzat, arlo guzietan trebea izatea baitezpadakoa da (zinema, telebista, diskoa, irratia, Internet), eta agian horietako batzuetan molde produktiboan berezitzea ere, norberarentzat zein besteentzat ekoizteko gisan. Aldi berean, euskararen normalizazioa ikus-entzunezkoen adierazpide guzietan sartzeko eta onartua izateko gaitasun mailaren menpe da ere. Haren biziraupenaren eta hazkuntzaren baldintzetako bat da segurki.

Maila ekonomikoan, munduan zehar ikus-entzunezkoen sektorea hazkuntza betean dela gogoan atxiki behar da, balio erantsi handia duen ekoizpenarekin eta sormen handiarekin. Eskaintza galde zabalekiko gero eta zatikatuago, berezituago, pertsonalizatuago eta arretatsuagoa da, etxeko kontsumoan hedatuz doana, baina biziki aldakorra eta moda efektuaren menpe dena.

Sektorearen inbertsioak berez berritzaileak dira, baita produktuei dagokionez ere. Sektoreak beste sektore batzueganako zeharkako eragin biziki markatuak ditu sormenari, formakuntzari, ekoizpenari eta turismoari dagokionez. Biziki zorrotza da etengabeko egokitzeko gaitasunen eta, gehiengotan, lanbide biziki kualifikatuaren beharra baitu. Produktuei loturiko enplegu-hobi kualifikatuak, polibalente baina prekarioak, sortzen ditu.

⁸⁶ Filmen eta serieen idazketa Frantzian, SACD-CBC, 2019

Produktuen zaharkitze azeleratuarekin, emendatzen diren eta, sormen-ekoizpen prozesuaren atal batzuetan, lana kapitalaren bidez ordezkatzeari buru egiten dioten kostuekin eta teknologiaren etengabeko bilakaeraren ondoriozko aktiboen lurrunkortasun handiarekin, aldaketa zaluak bizi dituen merkatuaren gorabeherei ere zaugarria da

Formakuntza teknologikoaren eta sortzailearen kostuak, lehenik eta behin instituzio publikoengan eragiten du (diru-laguntzak, laguntzak, hezkuntza sistema, formakuntza profesional eta jarraikia).

Merkatuan ontzea luzea da, produktu bakarrak diren urteko ekoizpenak baitira, ordainketa leiho aski geldotik joaten direnak (2 edo 5 urte), merkatu edo hedapen leiho bakoitzetik pasatzea biziki fite egiten delarik.

Merkatuak biziki desberdinak dira eta etekinari, kultura mailari, identitateari eta garapenari lotuak dira.

Birzentralizatzeko geografikorako joerak egiaztatu dira, diru mailako arriskua mugatzeko arrazoiengatik ere.

(b) Gure lurraldearen berariazko zeharkako erronkak

Ikus-entzunezkoek zentzu kultural, sozial eta ekonomikoan kultura modernoengan duten pisu eta eragina finkatu dugu, baita kultura eta hizkuntza gutitu baten balioztatze eta biziraupenerako duten garrantzia ere. Sektorearen tokiko garapenerako erronka desberdinak kontuan hartu behar dira eta garapena ahalbidetzeko sortu behar diren egoerak finkatu.

Gure kasuan, ikus-entzunezkoen sektorearen garapenak beharko du:

- Izaera desberdineko galdeei erantzunen dien ikus-entzunezkoen ekoizpen sistema aski zabal eta dibertsifikatuaren sustapena (merkatuaren baitan sartzen ahalko dena).
- Lurraldeko talde sozial, kultural eta politiko desberdinen arteko koherentsia eta elkarrizketa erraztuko duen sistema propioaren garapena.
- Kanpoko emankizun eta ekoizpenen gehiegizko pisua konpentsatuz eta Euskal Herriak entitate kultural gisa berezkoa duen bereizketa administratiboaren eragin desegituratzailea ahal bezain bat gaindituz, haren espazioa sendotzea eta merkatu eskala nahikoa ukatea helburu duen Euskal Herriko lurralde desberdinen arteko interrelazio kulturala. Puntu hori bereziki zentrala da euskarazko edukiei dagokionez.
- Euskararen suspertze mediatikoa, aldi berean lurraldearengatik eta merkatu berriengatik, baina baita elebitasun mediatikoaren bidean joateko ere.
- Zuzeneko komunikazioa kanpoarekin, norberaren errealitatetik, ikuspegitik eta esperientziaz abiatuz. Helburua lokalki sorkuntza ahalbidetzea eta mundu mailako komunikazio kanalen baitan sartzea da.
- Hedabideen kalitatea, aniztasuna eta etika eta gehiegizko kontzentrazio prozesuen mugatzea, bereziki irrati eta prentsarena.
- Tokiko hedabideen, ekoizleen, programatzaileen, enpresa berritzaileen, telekomunikazio enpresen... arteko harreman sinergikoak

b) Tokiko politika publikoen eginkizuna ikus-entzunezkoen sektorean:

(a) Lurraldeak bizi eremu gisa

Tokiko garapenerako politikek, konpentsazio funtzio handia dute mundializazioaren aitzinean. Baliabide endogenoen balioa emendatzea xerkatzen dute, lurraldea besteekin lehian eta harremanetan izanen den ekonomia-unitate gisa diseinatuz (Cantarero eta Calvo 2013⁸⁷). Elkarte eta elkartasun fenomenoak ere lurraldeetan garatzen dira eta horrek ekonomia sozialeko ekimenak faboratzen ditu.

Garapen estrategia batek, ikuspegi produktiboak kontuan hartzen ditu, (engaiaturiko dirutza, giza baliabideak, baliabide konpetitiboen mobilizatzea, aldaketa teknologikorako egokitzea, etekinen jarioa) baina dimentsio sozialei (onarpen soziala, populakuntzaren parte hartzea), dimentsio kulturaleri (identitatea, belaunaldi arteko loturak, hiri eta kultura sistema) eta dimentsio instituzionalei (esparru instituzional funtzionala eta enpresa klase politikoa) ere balioa ematen die. Lurraldeetan interesgarriena eta baikorrena, aniztasun sozialaren agerpena da, bereziki identitate komunitateen, generoen eta etorkin komunitateen aniztasuna. Institutioek halere, Estatuaren baitako komunitate kultural eta politikoak aitortzeko zailtasunak dituzte usu, eta horrek ikusezin bilakatzen ditu.

Lurraldeek, alde batetik mundu mailako ekonomiaren azkeneko puntua izatearen eta bestetik bizitza, elkarbizitza, ekonomia, kudeaketa eta partekatze sinbolikoko eremu izatearen kontraesana bizi dute. Lurraldeak historia eta memoriako ondare kolektibo, kultura identitate, ekonomia artikulatu eta kidesun guneak dira. Lurraldeen baitan eskualdeek eta hiriek funtzio desberdinak betetzen dituzte eta biak dira beharrezko. Hiria baliabideen metatze eta mobilizatzerako, gizarte eta ekonomia dinamismorako, elkarrekintza handietarako, antolakuntza funtzionalerako eta lidergorako eremua da. Tokikoaren garrantzia eta berezitasuna biziaren, elkarbizitzaren, lanaren, ugalketaren eta jendetasunaren eremu geografiko naturala izatea da eta, ondorioz, integrazioaren, kudeaketa kolektiboaren... eta gatazken gunea.

Sistema deszentralizatueta eskualde eta lurraldeek kultura mailako eskumen handiak dituztela azpimarratu behar da, haatik ez da ahantzi behar ikus-entzunezkoen medioak Parisen kontzentratzen direla eta Estatuak interesatzen zaigun sektorean eginkizun handia duela.

Azkenik, lurraldeek barne mailan haien merkatu propioarako sarbidea ukateko zailtasunak badituzte ere – kulturaren internazionalizazioa eta haien ekoizpen propioaren informazioa aipatu gabe –, digitalaren aroak berrikuntza kulturala kultura historiakoaren balioztatzearekin konbinatzeko edo sektore kultural propioa garatzeko aukera ematen du.

(b) Kultura politikak lurraldean, parte hartzearen garrantzia

Lurralde baten engaiamendu kulturala, zentzu kalifikatzailean, inplikazio kolektiboa bermatuko duten dinamikarik gabe pentsaezina da. Ezin da elite politiko baten erabaki deliberatu baten emaitza izan, bereziki lurralde batez

ari garenean. Ikusi dugu, kulturak nagusiki lurralde loturak ukaiten segitzen du eta, horrek, lurralde estrategia argi eta globalera eramaten du. Instantzia guzietan presente izan behar da: hezkuntzan, industrian, lurralde antolaketan, berrikuntzan... Gauza bera, eta molde jariakorragoan, ikus-entzunezkoen politikarentzat. Halaber, kultura eta ikus-entzunezkoak politika publiko guzien arreta handiaren pean izan behar dira: hezkuntza, industria, finantza, zerga, berrikuntza politikak etab. Hauen tokiko, lurralde kudeaketak laguntzarako tresnak ukan behar ditu eta kultura, komunikazioa, berrikuntza, iraunkortasuna eta parte hartzea biltzen dituzten lurralde kudeaketa eredu berriak kontuan har ditzakete.

Ez dezagun ahantz sormen lanaren prekaritatearen faktoreak sektorearen erreproduktzioerako eta talentuen erakartzeko oztopo direla, bokazioaren osagai indartsuak prekaritate hori hein batean konpentsatzen badu ere. Beraz, kultura eta komunikazio politikak ekimenekin eta eragile sortzaile, emankor eta kulturalekin konbinatzea erabakigarria da. Publikoan eta pribatuan esku hartzeko eredu klasikoarekin ez bezala, tratu desberdin, orekatu eta ahokatu batera iristea da gaia.

(c) Eskualde eta tokiko kultura eta ikus-entzunezkoen politiken erronkak

*** Kultura ekosistema sortu:**

Tokiko kultura ekosistemaz mintzatzeak honen baliabideetara, tokiko kulturaren adierazpidera, sormenera, kultura ekoizpenera, hedabideetara, praktika sozialetara, aniztasunera, hizkuntzetara, komunikatzeko gaitasunera, etorkizuna begiratzera, zerbitzu kolektiboetara, esperientzia kulturaletara... eramaten gaitu. Afera auto-erreproduktzioerako gaitasuna duen kultura eta komunikazio ekosistema bat sortzea da, emaitza gisa haren oinarritzko kultura, industriak eta kultura eta sormen muntadurak molde harmoniatsuan elkartuko dituen ehuna ukanen duena. Kontuan hartu behar da:

- hezkuntza: kultura mailak elkarbizitzari, sormenari, aniztasunaren aitortzari, estetikari, arteei... ekartzen diena kontuan hartuz
- muntadurak: muntadurak osatzea da gaia
- balioztatzea: egiten dena eta egina izan dena erakutsi (ondarea ere balioztatu)
- praktika kulturala: eskaintza sustatuz eta indartuz, baina baita zinezko erabilpena eta xede publikoa neurtu ere
- transmisioa: trebetasunak transmititu
- lurraldearen egoera diglosikoa: euskarak ekosistema horretan tokia ukan dezan egoera hori gainditzea

- * **Eskuragarritasuna eta trukaketa aniztasun**, berdintasun eta garapen parametroetan faboratu haren politikaren baitan genero berdintasuna eta kultura adierazpide desberdinak kontuan hartuz, gutiengo batzuen ghettoizatzea saihestuz, gizarte zibilaren kultura aktibitate eta praktikak akuilatuz, formatuz, etorkinei bereziki zuzenduriko ekintzak burutuz...

- * **Berrikuntzaren eta dinamismoaren eta baita jadanik existitzen diren medioen parioa egin:** xede sektorearen aktualitatearekin bat etortzeaz ari gara baina baita jadanik plantan emanak izan diren medioak ezagutzeaz ere.
- * **Gobernantza kolektiboari pentsatu** formakuntzaren eta azpiegituren esparruetako estrategia komun bezala (eta gure kasuan mugaz haraindikoa) eta eskuragarri diren baliabide gisa ulertu. Kudeaketa partekatuko antolakunde bitartekoekin, maila anitzeko gobernantzarekin eta barne, eskualde eta estatu mailako beste instantzia batzuen bitartekaritzarekin ekimen bateratu, publiko, pribatu eta sozialak garatu behar dira, laguntzak eta diru-laguntzak eskuratzeko bidea errazteko gisan. Enpresa mintegiak, enpresak aholkatzeko sistema bat edo inkubagailuak, sareak edo espazioak bezalako neurri dinamikoak ere gogoan izan behar dira.

3. | Ondorioak

Hots, *babesturiko demokrazia kulturalaz* eta haren antonimo den *merkatuan zentratutako kultura ekonomiaz* haratago, kultura partekatzeko aukerak bidea egin du: "kultura partekatua" kultura politiken paradigma berria da.

Horrek, aurreikuspen, estrategia, sustapen eta animatzaile eginkizunetik kultura politikak berriz definitzera behartzen gaitu eskaintzan zentratuak diren politikak pentsatzera baino. Biztanleen kultura eskuragarri ukateko eskubiak kultura praktikatutako, zerbitzuetarako, hezkuntzarako... eskuragarritasuna erraztea eskatzen du.

Egoeraren azterketa eta ikus-entzunezkoen eta kultura politikaren helburu orokorrak aurkezturik, ondoko lerroek sektorearen garapenerako beharrezkoak diren neurriak, diru laguntzak eta laguntza publikoak diseinatzea ahalbidetuko dute.

Egoeraren azterketa eta baita lurralde kulturaren eta ikus-entzunezkoen politika globalen erronkak ere gisa honetan aurkezturik, lan honen azken atalak ikerketa honen bilana egingen eta ondorioak emanen ditu, eta Ipar Euskal Herriko zinemaren eta ikus-entzunezkoen sektorea garatzeko gomendioak proposatuko ditu. Ondotik eragile sozial, ekonomiko, kultural eta politikoak gidoi beraren inguruan ados ezarri beharko dira. Partekaturiko proiektu parte hartzaileak gabe ez da aldatetarik.

Galdera batzuei erantzun beharko zaie oraindik

- * Ikus-entzunezkoetako enpresak nola elkartu zentzu berean joan daitezten, jakinez ttipienek gutieneko neurri bat lortu behar dutela sektorean aitzina egiteko? Hemen, tokiko egituren eta finantziera heldu direnen arteko oreka bermatua izan beharko da.

Inbertsio publiko eta pribatuak nola optimizatu, jakinez digitalizazioa atzerazina den prozesua dela eta zinema, bideoa, telebista edo Internet bezalako eremuak isolatzea akatsa litzatekeela?

- * Zer kudeatu behar du politika publiko batek? Kultura aniztasunaren babesa industria kulturalaren sustapenetik bereizi beharko litzateke, politika publikoen helburu, tresna eta aitzinkontu mailako pieza desberdin bezala. Baina lehia ekonomikoaren gaia kultura zerbitzuetatik ateratzeak bere arriskua du, sektorea beste edozein sektore bezala kudeatuko lukeen zerbitzu ekonomiko baten esku utzia izateko arriskua dagoen bezala. Bestalde, dirua irabazteko xedea duten eta ez duten sektoreak banatzea zaila da, lehena laguntza sisteman proiektu lehiakorretara soilik mugatzeko arriskua bailegoke.

VII. IPAR EUSKAL HERRIKO ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKO ARLOKO DIAGNOSTIKOAREN BILAN OROKORRA ETA GARAPENERAKO GOMENDIOAK

1. | Bilan orokorra

1.1 | Zinema eta ikus-entzunezkoak, erronka kulturala eta aukera ekonomikoa: Kultura berrikuntza gisa ulertzeko proposamen bat.

Gaur egun, ikus-entzunezkoen sektorea edozein kulturaren motor nagusia da, eta, beraz, sektore pribilegiatutzat hartu behar da, arrazoi kultural zein ekonomikoengatik. Azken hamarkadan, mundu osoan ikus-entzunezko produkzioak eta kontsumoak garapen-eztanda izugarria izan dute, eta hementik aurrera, lurralde-kultura modernoek, soinu eta irudi propioak ekoizteko gaitasunaren arabera etorkizuna izango dutela aurreikus daiteke. Gero eta gizarte gehiagok ulertu dute mezua: bizirauteko, ikus-entzunezko kultura propioa sustatu eta egokitu behar da, babesa eta garapena konbinatuz, adierazpen eta formatu desberdinetatik abiatuta.

Euskal kultura bezalako kultura minorizatu batentzat, ezinbestekoa da ikus-entzunezko esparru guztietan (zinema, telebista, musika, irratia, internet) presentzia indartsua izatea, arlo horietako batzuetan produktiboki espezializatuz. Euskal Herrian, zinema eta ikus-entzunezkoak izan daiteke horietako bat; rol zentrala dutelako. Izan ere, euskara bezalako hizkuntza txikientzat, beste inorentzat baino gehiago, bere biziraupena eta garapena, filmetan, serieetan, dokumentaletan, podcastetan, multimedia produkzioan, tb-formatuetan eta interneten merkatuan izango duen sartzeko eta onarpen mailaren arabera izango da.

Baloreak eta nortasuna proiektatu eta elikatzeaz gain, aldi berean, ikus-entzunezkoa sektore estrategikoa izan daiteke ekonomikoki ere, lurralde baten garapen ekonomikoa bultzatzeko ematen dituen aukerengatik. Bi arloentzat baita garrantzitsua ikus-entzunezkoa: kultura eta nortasuna biziarazteko, eta industria kulturala elikatzeke. Mundu osoan gorantz doan sektorea da, balio erantsi handia eta kreatibitate dosi altuak dituen, bere inbertsioak berritzaileak dira *per se*, baita produktuak direnean ere, eskualdeko ekonomietan eragina duten prototipoak baitira beti. Aldi berean, transbertsalitate efektu argiak ditu beste sektore batzuetan eta enplegu kualifikatuko nitxoak sortzen ditu. Oro har eta laburbilduz, sektore egoki bat izan daiteke ekonomia deszentralizatu batentzat, eta eskari sozial, publiko eta enpresarial handia duten lurralde txikiek sakondu dezaketen esparrua da. Baina bere garapena, erabaki ekonomiko instituzionalei lotuta dago.

Instituzio batzuek, kultura, garrantzia ekonomiko txikiko subentzio nitxo gisa ulertzen dute: prestigiozko baina intzidentzia gutxiko gastu behartu bat baltz bezala. Beste batzuek, kultura ekonomia konbentzionaletik baino ez dute ikusten, lurraldeen garapenerako medio gisa ulertuz, forma instrumental soil batean. Alta, ikuspegia asko zabalduko litzateke, kultur sorkuntza beti berrikuntza dela hartuko bagenu oinarritzko ideiatzat. *Desideratum* bat baino, berrikuntzaren ikuspegi holistikoa, funtzional eta integral bat apuntatuko lukeen perspektiba bat litzateke.

Mugaz gaindiko harremanak, sakonki aldatu dira azken hogeitun urteotan, bai maila kulturean, bai ekonomikoan eta bai sozialean. Ikus-entzunezkoen arloa, ordea, garai berrietara egokitzeke dago oraindik.

1.2 | Ipar Euskal Herria eta ikus-entzunezkoak: historia emankorra baina asimetrikoa

Historian zehar eta gaur egunera, ikus-entzunezkoekin harreman emankorra izan duen lurraldea da Ipar Euskal Herria. Lurralde gutxi egongo dira munduan, hain txikiak izanik, hainbeste zinemagile handi erakarri dituztenak. Lumière anaiak, Louis Delluc, Maurice Champreux, Herbest Brieger, Orson Welles, Walt Disney, Otar Loselliani... XX. mende osoan zehar, lurraldea mila eta bat aldiz filmatua izan da, mundu osoko egileen begiradatik. Hainbatean, gainera, plato huts baino gehiago izan da Ipar Euskal Herria: dozenaka filmaren gaitzat hartu izan dira euskal kultura eta euskaldunak.

Aldi berean, lurraldean produkzio propio normalizatu bat garatzea ezinezkoa izan den arren, Ipar Euskal Herria aitzindaria izan da ikus-entzunezkoetan euskara sartzen: historiako lehen esperientziak, bai zineman, bai telebistan mugaren alde honetan eginak izan dira. Euskarazko lehen filma (*Gure Sor Lekua*), Hazparneko André Madré-k zuzendu zuen eta lurralde osoko zinema saletan proiektatu zen, 1956-57 urteetan. Euskarazko lehen telebista saioak, France3-erako Maite Barnetxek zuzendu zituen (*Eskual Herria orai eta gero*, 1971), hegoaldeko ETB sortu baino hamaika urte lehenago.

Hala ere, urte luzeetan zehar, Ipar Euskal Herriko testuinguruak ez du ikus-entzunezko sektorea garatzeko egoera egoki bat eskaini. Herri mugimenduetatik ez da zinema egiteko indarririk bildu eta instituzio publikoek ez dute sektorea sortu eta garatzen lagundu, ez baitzen aski elementu argi horren bultzatzeko eta aurkeztutako proiektuek ez baitzituzten Frantziako deialdiek galdetutako kalitate heinak betetzen. Aldi berean, laguntza publikorik ezean,

Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorea ez zen aski garatua Frantses estatuko diru funtsen legediak inposatzen zituen ezaugarriak kausitzeko, eta honek, bukaerarik gabeko sorgin-gurpil bat sortzen zuen:

- a) Ez zen "euskal erreferentziarik", Hegoaldeko filmak ez baitziren ikusten Iparraldeko zinemetan.
- b) Egitura profesionalik ez zen sortzen, euskal sektore bat eta euskal produkzioak ezinezkoak zirelakoan.
- c) Teknikari, artista eta profesionalak Bordele edo Parisera joaten ziren lan bila.
- d) Instituzioek ez zuten gaia mahai-gaineratzen, sektorerik ez baitzen existitzen.

Gaur egun, XX. mende osoan bezala, lurraldeak kanpotarrak erakartzen segitzen du. Batetik, kanpoko ekoiztetxeek hainbat filmaketa egiten dituzte bertan. Berebiziko filmaketa kopurua du Ipar Euskal Herriak, nahiz eta ekoizpenerako laguntzarik ez den bideratua eremu horretan. Bestetik, pandemiaren ondotik, iduri luke hainbat lanen deszentralizatzea gertatzen ari dela, eta Pariseko hainbat egitura handik, Ipar Euskal Herrian plantatu nahi luketela.

Haatik, paraleloki, historian lehen aldiz, sorkuntza leku izateko anbizioa ere agertzen dute lekuko hainbat profesionalak. Kanpoko egituren harrera leku izatearen eta bertako produkzio bat garatzearen artean, oreka bat bilatu beharra inposatzen da, lekuko zein euskarazko sorkuntzari aukerak emanaz eta lortzeko behar dituen baliabideak sortuz eta eskainiz.

1.3 | **Euskal zinema eta ikus-entzunezkoak: aukera historikoa lurraldearentzat**

Azken hamarkadan, gero eta boz gehiago entzuten dira Ipar Euskal Herrian euskal ikus-entzunezkoak sustatu beharraz. Eztabaida luzeak eraman dira urteetan, bai aktoreen artean, bai eta ere instituzio batzuekin egituraketa posibleez. Aldi berean, urrats eta gertakari garrantzitsuak eman dira hainbat arlotan. Hala, gaur euskal ikus-entzunezko sektore ekonomiko eta kultural bat posible bilakatzeko baldintzak sekula baino errealagoak dira. Egoera desblokeatu dezaketen zazpi faktoreak hauek dira:

-a. Lurraldean lan egin nahi duten egileak plazaratu dira

Bai hasi berriak, bai kanpotik etorriak, bai kanpoan bizi ondotik, sorlekura itzuliak. Filmegile belaunaldi honek, iparraldean egindako filmak lehen aldiz ikusgarri jarri ditu hainbat plaza prestigiotsutan. Mugarri batzuk, honakoak: 2017an, lehen aldiz Ipar Euskal Herriko film luze bat estreinatu zen Donostia-ko Zinemaldian (**Non**, Ximun Fuchs eta Eñaut Castagnetena). 2018an, film labur bat Kimuak katalogo prestigiotsuan aukeratu zen (**Ama**, Josu Martinezena) eta nazioarteko 60 festibal baino gehiagotan pasa zen. Ondoko urteetan, hainbat film labur eta dokumental estreinatu ziren nazioarteko festibaletan (Fipadoc, Zinebi, Zinemaldia, Festival international des films de Femmes de Créteil...)

-b. Lurraldean lan egin nahi duten egiturak sortu dira

Azken urteetan hainbat egitura sortu dira, enpresak eta elkarteak, ikus-entzunezko sektore baten bizkarrezurra osatu lezaketenak, genero, formatu,

hizkuntza eta lurraldearekiko harreman ezberdinetako proiektuak garatzen eta ekoizten dituztenak.

Ekoiztetxeak: (La Fidèle, Gastibeltza, Kestu, Disnosc, Tell me films, Damned...).

- a) Kasu batzuetan, ko-produkzio arrakastatsuak lortu dituzte (Adib: **Akelarre** filma, La Fidelek ko-ekoitzia, eta 5 Goya sari eskuratu zituena). Beste kasu batzuetan, lurraldeari osoki lotutako lanak plazaratu dituzte, bertako aktore eta teknikarien presentzia nabarmenarekin (Adib: **Anti** film laburra, Gastibeltzak ekoitzia, nazioarteko festibaletan dozena bat sari eskuratutakoa).
- b) Hasi berriak izanik ere, ekoiztetxe hauek zenbait dirulaguntza selektibo lortu dituzte haien proiektuentzat: ALCA, Euroeskualdea edota CNC ere kasu batzuetan. Honek, aipatu ohi zen euskal proiektuen "kalitate eskasa" gezurtatzen du, eta lan eginez gero, egitura horietan ere euskal produktuak konpetitiboak izan daitezkeela frogatzen.
- c) Disnosc bezalako egitura batekin, orain arte lurraldean existitzen ez zen animaziozko gaitasuna ere plantatzen ikusten da.

Banatzaileak: (*Gastibeltza, Gabarra elkarte*)

Zinema salekin eramandako lanari esker, Hego Euskal Herrian ekoiztiko filmak, lehen aldiz, normaltasunez programatzen dira Ipar Euskal Herrian. Honek, publiko bat badela frogatu du, eta zinema ikusi eta sortzeko gosea estimulatua. Alta, merkatua ez da aski handia bere burua auto-erregulatzeko. Banatzaile hauentzat, jarduera defizitariora da. Hala, Gabarrak banaketa aktibitatea gelditu duela dirudi eta Gastibeltzak, bere bizkar mantentzen du lana, euskal publikoarentzako filmak eskuragarri jartzea funtsezko lan bat dela ulertzen baitu. Lehen aldiz iparraldean euskal filmak ikusten dira beraz, baina zinema salen borondateari eta enpresa pribatu bati eskerrak. Jarduera epe luzera bizigarria izan dadin, inplikazio publikoa baitezpadakoa agertzen da.

Zukugailua elkarte: (*lurraldeko elkarte, egitura eta egileen bilgunea.*)

Sektoreko profesionalak biltzen dituen Zukugailua elkartearen sortzeak aktore ezberdinen saretzea ekarri du, bai eta ere instituzioentzat eta beste lurraldeetako sektoreen aurrean solaskide ahots bat ere. Lau ildo lantzeko asmoa du elkarteak: saretze eta egituratzea, mugaz-gaindiko koprodukzioa, sortzaileen laguntzea eta irudi heziketa. Aurten antolatu duen "Kirikoketa" idazketa egonaldiak erakutsi du, jadanik, lurraldean badirela hainbat proiektu garapenean, eta egile ezberdinek bertan eta euskaraz lan egiteko gogoia luketela.

-c. Kanaldude-ren handitzea eta garapenak, finantzaketa eta zabalpen aukera berriak sortu ditu.

CSAk 2017ko uztailean Kanaldude web telebista ofizializatu zuen hitzarmen bitartez. Pausu garrantzitsua da, Kanaldude hedapen eskubideak erosi ditza-keen lehen euskarazko hedatzailea bilakatu baita horren bitartez. Akitania Berria eskualdearekin izenpetu duen “Contrat d’Objectifs et de Moyens” de- lakoarekin, aurrekontua handitu du eta, barne ekoizpena indartzeaz gain, ekoizpenean sartzeko posibilitatea ireki zaio. Gaur egun Kanaldude finan- tzatzaile garrantzitsu bat da bai lekuko film laburrentzat eta bai dokumenta- lentzat, eta horrez gain, Akitania Berria eta CNCko laguntzak eskatzeko atea irekitzen die ekoiztetxei. Aldi berean, hainbat filmen emisio eskubideak erosiz, filmak interneten erakusteko plataforma garrantzitsu bat bilakatu da, zinema saletatik at. Nahiz eta Kanalduderen garapenak aukera berriak ire- ki, bere ahalak oraindik mugatuak dira beste tamaineko telebista batzuen ekarpenei konparatuz.

-d. Azpiegitura, aldeko ingurune eta inizatibak badaude Ipar Euskal Herrian

Zinema gela sare sendoa da Ipar Euskal Herrian, Frantziako politika publi- koei esker posible egin dena alde batetik, baina baita ere lekuko profesional edo elkarteei esker ere : eskaintza anitza proposatzen dute, proiektu kultu- ral asko, bitartekaritza lanketa eta euskal zinemarekiko borondatea erakutsi dute aspalditik. Zinema gelek lurralde mailako sare indartsua osatzen dute, hurbileko zerbitzu kultural bat eskaini eta lurralde orekaren alde eginez. Ge- lek beti eta gehiago eskaintza hibridoa dute, haien hasierako izatea – zinema proiektzio gela bakarra - eraldatuz. Adibidez, Getariako zinema-gela berriak, proiektzio gelaz gain, erresidentziak, tailerrak eta post-produkziorako lekua bilakatzeko anbizioa du. Gaur egun, publiko gazte eta berria hurbilaraztea da zinema gelen erronka nagusia eta eskaintzaren aniztasuna bermatzea.

Lurraldean festibal ugari daude, tamaina eta helburu desberdinak dituzte- nak. Batzuk lekuko zinemari itzuliak dira (Hazparneko Zinegin festibala beza- la), beste batzuek lanketa berezi bat egiten dute euskal zinemaren inguruan (Baionako Rencontres sur les Docks) eta handiagoek, nazioarteko dimen- tsioa dutenek, leiho txiki bat proposatzen diote: Biarritz Amérique Latine festibalak Kimuak katalogoko film laburrak programatzen ditu urtero edo FIPADOCek euskal film batzuk ere programatu ditu (baita euskarazko azpi- datziekin proposatzen hasi)

-e. Ikus-entzunezko BTS bat, Arte eskola bat eta goi mailako hezkuntzarako inguru-ko unibertsitateekin lankidetzak aukerak daude Ipar Euskal Herrian

Biarritzeko BTS-a formakuntza zentro garrantzitsua da lurraldearentzat, zi- nemari edo ikus-entzunezko sorkuntzari ateak ireki diezazkiokeena, baina izate teknikoa duena, telebista edo irratitari itzulia.

Arte eskola bat ere badago, arte bisualei itzulia, EAEko egiturekin ere harre- manetan dena (Bilboko Arte Eskola edo Tabakalera bezala). Luzaz “Ecole au cinéma” dispositiboa kudeatu izan du ere eskolak.

Ikus-entzunezkoei lotutako goi mailako hezkuntzarik ez den arren, azken urte hauetan, iparraldeko beharrei erantzuteko beste arlo batzuetan mar- txan jarri diren mugaz gaindiko formakuntza programa inter-unibertsita-

rioek (kazetaritza memento honetan UPPA, Bordeaux Montaigne IJBA eta EHU diseinatzen ari diren "euskarazko kazetaritza" unibertsitate diploma eta hezkuntza "eskola futura" proiektua) aukera interesanteak irekitzen dituzte.

-f. Hego Euskal Herriko zinema eta ikus-entzunezko sektorearen puxantzak eta telebista operadore potenteen aldeko apustuak, mugaz gaindiko lankidetzarako ateak irekitzen dituzte, aldi berean, sektorearen lehen produkzioentzat trakzio lana eginez.

2005etik gaur arte, Hego Euskal Herrian zinema eta ikus-entzunezko industria puxant bat garatu da, EAE eta NFK ikus-entzunezkoak sektore estrategiko gisa identifikatuz geroz. Politika publiko horien fruituak argigarriak dira: 2005etik, dozenaka dokumental eta film labur eta bi edo hiru film luze ekoitzi dira urte guzietan. Horietako bat, gutxienez, euskaraz. Haietako batzuk, nazioarte mailako sona eskuratu dute (Cannes, Venezia, Donostia edo Locarnoko festibalean hautatuak izan dira, edo eta Oscar sarietarako hautagaiak). Hainbat ekoiztetxe, bestalde, Netflix bezalako plataforma digitalendako lanean hasiak dira. Guzti honek frogatu du, euskara ez dela inondik ere muga bat ikus-entzunezkoak sortu eta kontsumitzerako garaian. Alderantziz, edukiak gero eta gehiago azpitolatuta ikusten diren garai honetan, dibertsitatea prima bilakatzen da, ezberdintze marka gisa balioa irabaziz. Zentzu horretan, Hegoaldearekiko lotura linguistiko eta kulturek, aukera ugari zabaltzen ahal dizkiote Ipar Euskal Herriari ikus-entzunezkoetan espezializatuz gero, hainbat alorretan:

- ***Iparraldeko egile eta egituren euskarazko proiektuek, hegoaldeko deialdietan parte hartzeko aukera baitute*** .
 Horrek, jadanik, ateak zabaltzen dizkie mugaren alde honetako hainbat egileri (X. Fuchs eta I. Leemans-ek Eusko Jaurlaritzako idazketa diru-laguntza bana jaso zuten; Eñaut Castagnet-ek Udalbiltzaren deialdi bati esker burutu du bere azken film laburra, Kimuak programan ere aurkez daitezke iparraldeko proiektuak, baldin eta euskaraz badira...). ETBk ere, iparraldeko euskarazko proiektuetan parte hartzeko aukera zabalik dago, eta hori, finantzabide aukera paregabea izan liteke. Gogoratu, 2020an ETBk 3,6 milioi euro inbertitu zituela zinema independentean, euskarazko film batean, 800.000 euro arte inbertitu ahal dituelarik legez.
- ***Hegoaldeko enpresek, gero eta interes handiagoa agertzen baitute ipar Euskal Herriko egiturekin lankidetzara garatzeko.***
 Hegoaldearentzat ere, Frantziar ko-ekoizle bat izatea aukeraz betetako leihotzat da, bai finantzabide berriak irekitzen dizkien neurrian, bai publiko eta merkatu berriak irekitzen dizkielako. Zentzu horretan, azken urteetan ugartu egin dira Hegoaldeko filmek iparraldeko enpresa sortu berriekin egindako ko-produkzioak (**Nora** eta **Akelarre** filmak ko-produzitu ditu La Fidèle ekoiztetxeak, Asier Altuna ekoizten ari den **Karmele** filmaren ko-produktore da Gastibeltza...). Aldi berean, beren pelikulak iparraldean eta Frantzian erakutsiak izan daitezten, interes berezia agertzen dute hegoaldeko enpresek. Horri esker, Gabarra eta Gastibeltza banatzaileek, hainbat film estreinatu dituzte iparraldeko zinema saletan azken urteotan.
- ***Mugaz gaindiko lankidetzak, efektu positiboak izan ditza-ke teknikari, aktore eta egituren formazioan ere.***
 Hegoaldean metatutako esperientzia, proiektuak eta azpiegiturak,

Iparraldeko sektorea osatu lezaketan aktoreei lanean hasteko aukerak eskaintzen dizkie, ikasteko eta formatzeko aukerak eskainiz. Adibidez: iparraldeko zenbait aktorek, hegoaldeko film luzeetan izan dute beren lehen parte hartzea zineman. Gastibeltza Filmak ekoizte-txeak Baigorri filmatutako lau film laburretan, berriz, ekipa teknikoa espresuki osatua da Hegoaldeko eta iparraldeko teknikariz, nahasian. Modu honetan, hegoaldeko goi mailako teknikariek beren jakitatea transmititzen diete iparraldekoei, eta batzuetan, beste proiektu batzuetarako deitzen diete ondotik.

- ***Europar Batasuneko Media programak, aukera ugari zabal litzake mugaz gaindiko lankidetzan.*** Ez da ahanztekoa Donostian bulegoa duela Europa Creativa Desk MEDIA-k, hots, kultur eta sormen sektoretarako Europar Batasunaren programak. Mugaz gaindiko lankidetzarako tresna traktore garrantzitsua izan liteke, estrategia bide horretan enfokatuz gero.

-g. Ipar Euskal Herriak historian lehen aldiz instituzio propio bat izateak, erraztu egin lezake ikus-entzunezko sektorearen egituraketa, instituzioen arteko motore lana hartuz eta, lehen aldiz, politika publiko bat garatuz, kultur politika konbentzionaletik haratago, lurraldearen garapenaren berrikuntzaren ikuspegitik

Lekuko erakunde publikoek ez dute orain arte ikus-entzunezkoa edota zinema leku estrategiko bezala identifikatu. Pirinio Atlantikoetako departamenduak 2015ean sostengu fondoa desagertaraztea erabaki zuen eta hirigune elkargoak 2018an ikus-entzunezkoa ez zuela hartuko jakinarazi zuen.

Gaur egun, ikus-entzunezkoa eta zinemaren eskumena duen eskala instituzional hurbilena Akitania Berria da. Noizbehinka eta koordinaziorik gabe, instituzio ezberdinek ikus-entzunezko sektoreko alderdi puntualak laguntzeko parada izan badute ere (EKE, EEP, Departamendua, Hirigune Elkargoa...), lekuko ikus-entzunezko sormenaren gaia ez da politika publiko deliberatu batean tratatua izan gaur arte, zeharka baizik, irudi heziketa edo hedapenaren zentzutik (zentzu horretan hedabide bezala hartuz baita ere) ala muturretik, turismoari lotuz. Ikuspegi kulturala edo industrialak ez zaizkio gaineratu gaiari. Lerro argirik ez izatearen ondorioz, irizpide ezagunik gabe banatzen dira dirulaguntzak, dirua modu desorekatuan partekatuz eragileen artean, eta deialdi publikorik gabe. Emandako laguntzen datuak eskuratze hutsa, zaila izan da kasu askotan.

Gaur, alta, Hirigune Elkargoaren sorrerak eta instituzio guziak mahai baten bueltan jarri izanak, aukera historiko baten aurrean gaudela erakutsi lezake. Aldeak alde, Iparraldea, egun, Hego Euskal Herria 1980ko hamarkada hasieran zegoen egoeran dela esan liteke. Badira sortzaileak, badira egiturak, bada publiko potentzial bat, bada aukera ekonomiko eta lehen aldiz, bada ere lurraldea ordezkatzeko duen instituzio bat.

Gaur egun, konpetitibo izateko aukerak eskaintzen dizkieten arlo ekonomikoetan espezializatu ohi dira lurraldeak, gero eta gehiago. Berrikuntza eta espezializazio estrategiak lurralde politikatako atal garrantzitsu bihurtu dira, garapen ekonomiko eta sozialaren ardatz izan daitezkeen sektoreak identifikatu eta haiei zuzendutako sustapen, berrikuntza eta nazioarteko dinamikak ezarri. Kontestu horretan, EAEk eta Nafarroak Kultur eta Sormen Industriak (RSI) aukera estrategiko bezala identifikatu dituzte. Nafarroaren kasuan,

adibidez, NS3 dokumentu estrategikoan, Kultur eta Sormen Industriak lurraldearen sei lerro estrategiko sektorialetako bat izendatu dute (besteak izanez automozioa, elikadura, energiak, osasuna eta turismoa). EAEn kasuan berriz, "aukera alor" bezala izendatzen dira, eta 2020an RIS3 EUSKADI SORTZAILEA delako estrategia abiatzen da, eta harekin lotuta KSI Gune eta BASQUE DISTRICT OF CULTURE AND CREATIVITY klusterrak.

Hau guztia kontuan izanik, bistakoa da Kultur eta sormen industriena goraka doan sektore estrategikotzat hartzen dela inguruko lurraldeetan, bereziki bere alderdi digitalean eta ikus-entzunezkoetan, eta egokia dela lurraldea, tradizioa eta ondarearen balorizazioan baita etorkizunean hazkundean duen sektore teknologikoa izateagatik ere.

1.4 | **Erronka handidun testuinguru globala**

Aurreko guziarekin batean, kontziente izan behar da bizi dugun hau ez dela garai erraza kulturarentzat. Azken krisi ekonomikoak eta konfinamendu pandemikoek kulturaren hatsa laburtu dute, eta gizartearen eskaera kulturala polarizatu egin da, nagusiki zentratuz ikus-entzunezko edukien kontsumo domestikoan (urririk edo pagatuz), profil transnasionaleko fikziozko serieek gaina hartu dutelarik.

Zentzu horretan, ez dira garai errazak ere kultura nazional eta lokalentzat. Ikus-entzunezko industria transnasionalean ber-kokatu beharrea aurkitzen dira, desposesio sinboliko prozesuei aurre eginez, kultura handien, hizkuntza zentralen eta enpresa transnasionaleen sistema berrian leku bat bilatuz. Egoera berriak, erronka zaila planteatzen die enpresa kultural eta komunikatibo nazional eta lokal gehienei (ikus-entzunezkoen gain, prentsari, irratiei, interneti, aplikazioei...), eta aldi berean, murriztuz doa espazio ez-merkantilaren bisibilitatea, komunikazio soziala, interkanbio kolaboratiboak, eta jakintza kolektibo askea. Genero, arraza, klase eta belaunaldi haustura digitalak, aldiz, handituz doaz.

Kulturaren eta komunikazioaren arloan, kapital kognitiboak eta plataformek ihes egiten diete, neurri handi batean, kudeaketa publiko nazionaleri. Hala eta guztiz ere, badira zenbait ekimen, hala nola Zerbitzu Digitalen Zuzentzaraua -gaur egun Europako Parlamentuan eztabaidatzen ari dira-, ikus-entzunezko edukien banaketa operadore unibertsal gutxi batzuegan hiper-kontzentratzea mugatu nahi dutenak. Nolanahi, oraindik ere europar politikak oso ahulak dira Netflix, Google, HBO, Facebook- Metak duten boterearen aurrean.

Komunikazio globala bateragarria da hurbileko komunikazioarekin, baina kultura, komunikazio eta telekomunikazio-politiken nahitaezko sinbiosiak kontraesan hau du: eskumenei eta telekomunikazioan eragiteko gaitasunak, askotan ihes egiten diete tokikoari, lurraldeari, eta, batzuetan baita estatuei ere, nazioz gairik ere eremuan kokatzeko. Beraz, hainbat kultur-erabakiren eremua murriztua da. Laburbilduz, mundu mailan, segurtasun gutxi eta galdera askoko etapa bat bizi gara. Eta aldi berean, denek bistakoa bilakatzen da, ikus-entzunezkoa erronka zentrala bilakatzen dela kultura guzientzat.

1.5 | **Laburbilduz**

Ipar Euskal Herrian, zinema eta ikus-entzunezkoen arloan dena da egiteko. Ipar Euskal Herria kanpoko egiturendako filmaketa lurraldea baldin bada

ere, eta sorkuntza inizatiba amateur edo isolatuak izan badira ere, gaurdaino ez da industria egituraturik garatu. "Ikus-entzunezkoak Euskal Herrian" asko izan da eta bada. Baina "Euskal Herriko ikus-entzunezkoak" egiteko aukerarik ez da sortu gaur arte. Orain, iduri luke, historian lehen aldiz baldintzak eman daitezkeela ikus-entzunezko sektore bat garatzeko, profesionala, lurraldeari lotua, eta mugaz gairik harreman pribilegiatuak izanen dituen. Alta, horretarako, politika kultural anbiziotsu batzuk plantan ematea beharrezkoa da, ikus-entzunezkoa kultur eta ekonomia mailan sektore estrategiko gisa definituz, eta sorkuntza kulturala, berrikuntza gisa ulertuz.

Ikus-entzunezko politika kultural integral baterako Iparraldean dagoen arazo nagusietako bat da instituzio, entitate eta "geografia" aniztasuna. Orain arte, bakoitza bere aldetik ibili da, ekintza tipiak eramanez, eta askotan, elkarren berri jakin gabe. Gainera, dispositibo eta dirulaguntza programa askotan, hautaketa irizpideak edo eskaerak egiteko bideak ez dira argiak eta objektibak izan. Dirulaguntzen bideratzearen irakurketa zaila izan da hainbat alorretan, eta horren lekuko da txosten hau burutzeko beharrezkoak genituen datuak eskuratzeko izandako arazoak. Politika publiko berrien ardatza, argitasuna, irizpideen zehaztasuna, aukera berdintasuna eta gardentasuna izatea nahitaezkoa da. Hortik ere etorriko baita kalitatea.

Ipar Euskal Herrian ikus-entzunezkoa eta zinema garatu nahi baldin badira, epe luzera pentsatu behar da. Produktorako diru-laguntza fondo bat sortzea baino ikuspegi zabalagoa hartu behar da. Ohiko laguntzak eskaintzea beharrezkoa izango baldin bada ere, inportantea da lanketa errotik eramatea: ikuspegi kulturalaz gain lurraldearen garapen ekonomikoan zein lurralde berrikuntzan kokatuz. Arloa modu iraunkorrean garatzeko, beraz, ekosistema oso bat pentsatu beharra dago, zentzu sozialen zein azpiegituren zentzuan, euskarari zentraltasuna emanez (aukera bezala ikusiz, muga bezala ikusi ordez), eta lurraldearen barneko desorekak saihestuz.

2. | **Gomendio estrategikoak. Epe luzerako proiektu baten beharra.**

Informe honen helburu nagusia Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorearen egoeraren eta aukeren diagnostiko deskriptibo bat burutzea da. Ez da lan honen xedeetan sartzen arloak dudarik gabe beharrezkoa duen estrategia integral bat diseinatzea. Nolanahi, bide posible bat erakutsi lezaketen zenbait proposamen orokor eta konkretu egitea interesgarria izan daiteke.

Lehenik eta behin, ondorio orokor gisa: iduritzen zaigu inportantea litzatekeela ikus-entzunezko sektorea kultura- eta hizkuntza-politikaren erdigunean jartzea, eta politika hori bere ezaugarrietara egokitutako lurralde-garapen eta berrikuntza politikara konektatzea.

Inportantea iduritzen zaigu baita ere zinema eta ikus-entzunezko eskumena baina oro har kultura eskumena duten egiturek politika integratzailea eta parte hartzailea garatu dezaten Frantziako lurraldeko bazterreko kulturei begira zein hizkuntza gutxituei begira, eskualdetako hizkuntzetarik hasiz. Minoritateen ikuspegiak oraindik gutxiegi irudikatuak dira gure pantailan eta maila instituzional guztietan kontutan hartzekoa den datua da. Anizta-

sunaren berme izan behar da beraz eramaten den politika eta ez bakarrik lekuko politika publikoen bitartez, baina eskala administratibo goragoetan ere, Eskualdean zein Kultur ministeritzan edo ondorioz, gure kasuan, ALCA edo CNC bezalako egituretan ere. Kalitatearen izenean, bestelako ikuspegiak, maiz eredu hegemonikoetatik kanpo egoten direnak – egoera diglosikoan edo kultur minoritarioetan – baztertuak dira oraindik ere. Laguntzeta-rik erabat baztertzeko ordez, garrantzitsua da beraz, proiektu hauek besteek baino gehiagoko arreta eskuratzea eta ez baditu dirulaguntzak eskuratzeko beharrezko kalitate irizpideak, mentoring saioak edo esperimenterako guneak proposatuz, alternatiba bezala adibidez. Lekuko sortzaileei konfiantza, laguntza eta ahal gehiago eman behar zaizkie.

2.1 | Bulegoa, edo zinema eta ikus-entzunezkoetarako koordinadora interinstituzional eta sektoriala

Agerikoa da, ikus-entzunezko politika kultural integral bat inplementatzeko zailtasunik handienetakoa, lurraldean operatzen duten instituzio aniztasuna dela, bakoitzak bere eskumenak, bere dispositiboak eta bere lan ildoak dituelarik. Hala ere, aldi berean, aukera bat ere bada hori, norabide amankomun baten bidean instituzio bakoitzetik errekurtsio anitzak ber-erabiltzeko.

Beste zailtasuna epe luzerako ikus-entzunezko proiektu baten gabezia da: euskal lurralde osorako erakundeen garapen kultural eta ekonomikoaren hariak amankomunean eta perspektiba berdinarekin josiko dituen proiektu bat, ikus-entzunezkoa eta zinema epizentro gisa hartuz.

2015a arte Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Eskualdea, Estatuak, CNC eta departamenduak lotzen dituen hiru urterako Zinema eta ikus-entzunezkoetarako lankidetzak hitzarmenaren izenpetzaile zen. Hitzarmen horren partaide bilakatu behar du Ipar Euskal Herriak, Departamendua eta Hirigune elkargoaren bitartez.

Zentzu horretan, bi bide posible ikusten ditugu:

a) Aniztasun instituzionala mantentzea:

- Orain arte bezala, instituzio bakoitzak bere aldetik segitzea, bakoitzak ikus-entzunezko eta zinema sektorearen arlo baten sustapena bere gain hartuz, eta arlo horretan dispositibo espezifikoak plantan emanez.
- Bide hau hautatuko balitz, nolana, instituzioen arteko koordinazio motaren bat beharko litzateke. Instituzioarteko batzorde kontsultiboren bat, politika ezberdinak koordinatu eta sinergiak bilatuko litzateke.

b) Instituzio ezberdinen artean, bulego-erakunde bat sortzea, zinema eta ikus-entzunezkoetarako koordinadora interinstituzional eta sektorial bat, sektorearen trinkotzea eta koordinazio lana egingo lukeena.

- Polo bakar batetik eramango litzateke aurrera instituzio ezberdinek elkarrekin definitutako politika publikoa.
- Bulego honetatik bideratzen ahalko lirateke sektoreak garatzeko beharrezko dituen adar ezberdinak; egitura eta egileen akonpainamendua, azpiegiturei laguntzak, aholkularitza

eta jarraipena, irudi heziketa, merkatuaren dinamizazioa, ondarearen zaintza etabar.

Gure iduriko, bi aukeren artean, bulego berri baten sortzea litzateke interesgarriena, organismo publiko baten rola lukeena, osaketa mixto batekin. Sektoreren katalizatzaile gisa potentzialitate handiagoa lukeela iduritzen zaigu, atomizazioa saihestuz, eta bai lurraldean bai mugaz gaindi, erreferente argi eta legitimo gisa identifikatuz.

2.2 | Bulegoaren ardatz nagusiak, antolaketa mailan

Ikus-entzunezko eta zinema bulego konpartituak funtzio ejekutiboak izango lituzke politika kulturaletan, eta aholkularitza funtzioak politika ekonomikoetan. Hala, bere ardatz nagusiak honakoak izan beharko lirateke, antolaketa mailan:

- a| Bulegoak gaitasun juridiko, pertsonal eta aurrekontu propioa luke, eta ikus-entzunezko eta zinema sektoreari Ipar Euskal Herriko lurraldean zuzenduriko politika kulturalen kudeaketa bere gain luke; beti ere, egun konpetenteak diren instituzioek, beren borondatez esleitutako arloetan, eta hauek, misio jakin batzuk kudeatzeko transferitutako fondoen bidez.
 - b| Bulegoak, ikus-entzunezkoei laguntza-sistema konbentzionaleraino gain, sektorearen laguntza industrial eta finantzarioa ere pilotatu beharko luke, modu kontsultibo eta propositiboan. Laguntza mota horiek beste arlo instituzional batzuen ardurapean egon arren, prozesuaren ikuspegi globala Bulegoak zuzendu beharko luke, enfoke kulturala bidean galdu ez dadin.
 - c| Bulegoaren gobernantza modu partekatuan eraman beharko litzateke, instituzio ezberdinen inplikazioa segurtatuz, baina baita ere, administrazio kontseilu baten bidez, gizarte zibilaren parte hartzea. Sektoreren ordezkariak (Zukugailua elkarte, Kanaldude, zinema gelak, festibalak, elkarte mundua...) beren lekua izan beharko lukete erabaki guneetan, gobernantza partekatu bat diseinatuz, eta ez balitz erabakimenean, gutxienez aholkularitza batzorde permanente gisa .
 - d| Hizkuntza politikaren trataeraren ikuspegitik lau eremu berezi beharko lirateke bulegoaren egitekoetan, arlo kulturala, arlo industrial-berrikuntzazkoa, koordinaketa arloa, eta mugaz gaindikoa.
- Arlo kulturean, zinema, ikus-entzunezko, telebista, internet... politika eta laguntzetan, kasu guztietan euskararen presentzia minimo bat segurtatu beharko litzateke, dela, emandako laguntza edo hautatutako proiektu kopuruaren gainean kuota bat ezarriz euskarazko proiektuentzat, edo dela, puntuazio sistema baten bidez, euskarazkoak sariztatuz.
 - Ezin dira bereizi kultura eta berrikuntza, kultura baita berrikuntzaren motorretako bat. Horregatik, euskara eta hizkuntza hasieratik txeratu beharko lirateke berrikuntza politiketan eta aprobetxatu berezko hizkuntza izateak berrikuntzarako eskaintzen dituen aukerak

- Koordinaketa arloan, bulegoaren jarduna elebitan garatu beharko litzateke, hizkuntza politika orokorraren ildoak segituz.
- Mugaz gaindiko arloan, berdin, elebitan funtzionatu beharko litzateke, baina baliabideak ukanez, beharrez ere, espainolez eta ingelesez komunikatzeko.

2.3 | Erakundeek ziurtatu beharko dituzten funtzioak

Lan ildo ezberdinak egongo liriateke kudeatzeko, bulegoa izan ala ez, ikus-entzunezko sektorearen alor garrantzitsuenak koordinatu eta dinamizatzeko helburuarekin. Arlo guzietan, euskararen presentzia eta sustapena modu transbertsalean txertatu beharko litzateke, balio erantsi gisa, eta ez apaingarri huts bezala.

Nolanahi, egokia izan liteke bulegoaren egitekoetatik kanpo uztea ikus-entzunezko produkzioaren finantzazioa. Bulegoari lotutako ikus-entzunezko sustengu-fondo bat baino, uste dugu egokiagoa dela jadanik existitzen diren bi fondo ber-pentsatzea, aktibatzea eta zabaltzea (Departamenduak 2015an bertan behera utzitakoa + Euroeskualdearena). Modu honetan, ezberdinu egingo liriateke sektorearen sustapenez eta koordinaketaz arduratzen den bulegoa, eta finantzazio iturri "konbentzionalak", aldi berean, botere metaketa ekidinez.

Horiek horrela, erakundeen betebeharrak nagusiak honakoak liriateke:

a. *Instituzio eta lurraldeen arteko koordinazio lana egitea*

- Instituzioen arteko koordinazioa eta elkarlana antolatzea. Interes eta lan ildo ezberdinen artean denek irabazteko moduko lan lerro eta modu komunak bilatu eta antolatuz.
- Hego Euskal Herriarekiko harremanak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea.
- Frantziako ikus-entzunezko politikak ipar Euskal Herrian kanalizatzea.
- Ikus-entzunezkoa I+D politikekin konektatzearen aldeko apustua egitea.

b. *Egile eta egiturei laguntza, aholkularitza eta baliabideak eskaintzea*

-Sorkuntza mailan:

Sorkuntza mailan identifikatu den behar handiena da autoreak akonpainatu eta beren proiektuak hazten lagundu beharra. Honako laguntza lerroak garatuz egin liteke:

- Mentoretza programa bat sortuz
- Zukugailuaren "Kirikoketa" idazketa egonaldia egonkortu eta indartuz.
- Urtero, gidoi-sorkuntzarako laguntzak eskainiz (bat bederen euskarazko proiektu batentzat atxikiz)
- TB programa eta formatuak, ikus-entzunezko programak, podcastak eta interneteko edukiak sortzeko laguntza lerro bat eskainiz (beti ere euskarazkoak ziurtatuz)

-Banaketa, hedapen eta promozio mailan:

Identifikatu da argiki, lurraldeko banatzaileek nekeziak dituztela beren aktibitatea errentagarri egiteko. Haien lanik gabe ez da izango pantailetan euskarazko filmerik, beraz, estrategikoa eta behar-beharrezkoa da instituzioek ardura hartzea gai honetan. Izan liteke arlo ezberdinetan:

- Euskarazko (edo eskualdetako hizkuntzetan diren) filmen distribuziorako laguntza lerro bat irekiz. Frantzia CNC da banaketa etxeak laguntzen dituen egitura bakarra (automatikoki eta selektiboki, baina baita ere enpresen aktibitate programak lagunduz). Hortik beraz eskualdeko hizkuntzetan diren filmak banatzeko laguntzak bideratu litezke, aktibitate hori daramaten enpresei zuzenduriko laguntza bat sortuz. Filmek ateratzeari loturiko irizpideak malgutu litezke, hunkitzen duen lurraldearen berezitasun kulturala eta linguistikoari gehiago begiratuaz. CNCtik banaketari zuzendua litzaiokeen lerroari, hedapenaren komunikazio eta promozio gastuak kubrituko lituzkeen laguntzalerro bat ireki liteke lokaki, euskarazko filmentzat eta lekuko ekoizpenentzat.
- Interneteko plataformetan (Netflix, Amazon...) euskararen presentzia handitzeko bideak ibiliz, Hegoaldeko instituzioekin eta herri ekimenetik sortutako ekimenekin elkarlanean (Pantailak euskaraz, Disney euskaraz...)

- Mugaz gaindiko proiektuak garatzeko baliabide mailan.

Mugaz gaindiko ko-produkzioak aukera estrategikoa dira lurraldearentzat. Haatik, proiektuak aurrera ateratzeko egiturek hainbat tresna behar dituzte, bai intelokuzio mailan, aholkularitza mailan eta bai baliabide mailan. Zentzu horretan, honako ekintzak pentsa litezke:

- Hegoaldeko egitura eta instituzioekin interlokuzioa mantentzea, akordio eta protokolo posibilitateak esploratuz (ETB, Zineuskadi, Nafarroa...)
- Lurraldeko egiturak mugaz gaindiko deialdi, eta beharizanen inguruan orientatzea. Lurraldeko egiturek, hainbat programa interesgarri hunki ditzakete haien proiektuak euskaraz baldin badira (film labur bat KIMUAK edo Navarra Short Zinema katalogoetan aurkeztea, film luze zein dokumentaletan ETBren finantzazio eskuzabala...).
- Laguntza lerro bat irekitzea, itzulpenak ordaintzeko. (Diru asko gastatzen dute egiturek gidoi eta dosierrak hizkuntza batetik bestera itzuli eta deialdi bakoitzak eskatzen duenaren arabera moldatzen)
- Zinema Zubiak proiektuari segipena ematea.
- Hegoaldeko "Zinema euskaraz" programarekin eta Europa Media Creativa Euskadi bulegoarekin harreman iraunkor bat ezartzea, beharbada obserbatzaile ezpartehartzaile gisa.

-Azpiegitura mailan:

Informe honetatik ondoriozta litekeenik, lurraldea osagarri onean da azpiegitura aldetik. Ez da gabeziarik ez beharizan larririk, beraz, ez litzateke lehen-tasuna izan behar azpiegitura berriak eraikitzea. Gainera, halakoak apustu garestiak izaten dira, eta emaitza zalantzakorrak ematen dituzte askotan. Hala ere, sortzen edota garatzen diren egiturek, lekua behar dute. Bakoi-tzaren proiektuen arabera beharrak ezberdinak dira. Elkarrekin gogoetatu beharko litzateke, molde erangikorrean erantzuteko behar horiei, egituren arteko trataeran zein lurralde mailako orekari pentsatuz.

Salbuespena da Bidarrain, Kanalduderen ondoko hotelean, herriko etxeak burutu nahi duen "poloa", formakuntzarako espazioak, plato bat, post-produkziarako gelak, ikus-entzunezko artxibo bat eta Zukugailua elkartearen bulegoa izanen litzakeena, adibidez (dagoeneko, izan ere, Zukugailuak Bidarrain dauka bere egoitza soziala). Interesgarria izan liteke halako ekosistema bat bilduko litzuzkeen espazioak, Donostiako Tabakalera-k erakusten duenez, sinergia argiak sortzen baitira. Are gehiago, Kanaldude ondoan egonda. Lurralde orekaren ikuspegitik ere, Bidarra ikus-entzunezko sektorearen epizentroetako bat izatea interesgarria izan liteke.

Bidarraiko proiektutik landa, azpiegitura mailan, jadanik existitzen diren azpiegiturak lagundu eta sustengatzea izan beharko litzateke ekintza-lerro nagusia (festibalak, zinema aretoak...) batez ere "*Tiers-lieu*" bezala pentsatuz (proiektzio gune, post-produkzioko eremu, tailer lekuak uztartuz). Nolanahi, irizpide argiak beharko dira hemen ere, gardentasuna eta oreka beti aurrean ezarriz.

Pentsa liteke ere, Ipar Euskal Herriko "Film Commission" bat sortzea merezi lukeen Departamentuaren "Agence du Film 64"ren misioak indartuz, ahal den heinean, turismo hutsezkoa baino ikuspegi zabalago batera bideratuz.

Materialaren aldetik, Zukugailuko kideek abiatutako mutualizazio proiektuak bideratzen segitu behar da.

c. Irudi heziketa, mediazioa eta formakuntza profesionala bultzatzea

Irudi heziketa mailan:

Ongi funtzionatzen duten dispositiboak martxan dira, baina haien eremuetan sakontzea komeni da:

- Zineskola edo "Collège au cinéma" dispositiboari jarraipen bat eman behar litzateke, ikastetxe eta maila gehiagori irekiz ("Lycéen et apprentis au cinéma"). Nolanahi, hautatutako filmetan euskararen presentzia handitzea komeniko litzateke, bai bikoizketaren bidez (animaziozko filmentzako) edo bai azpitolaketaren bidez.
- Filmen txosten pedagogikoak egiteko laguntza lerro iraunkor bat ireki edo indartzea komeni litzateke, bai eta ere itzulpenak segurtatzeko laguntza ere.
- Lurraldeko Festibalekin lana sakondu beharko litzateke. Gaur egun publiko gaztea erronka nagusia da zinemarako eta ekitaldi hauek gazteak zinemari lotzeko erabili behar dira, festibalek lurraldean errotzeko baita ere.

- Publiko berrien erronkari begira, zinema gelek mediazioan duten laguntza areagotu behar liteke. Pandemiak asko eragin du jendeen kultur kontsumoan eta zinemak ikusleen berreskuratzeke zailtasunean dira. Hurbiletik zaintzekoa da egitura horien bilakaera.

Formakuntza arloan:

Azpiegiturak badira, baina sendotu behar lirateke, beste egitura batzuekin zubiak eta elkarlana sortuz, bai maila teknikoko ikasketetan bai goi-mailako irakaskuntzan. Aldi berean, lurraldeko biztanleei prestigiozko eskoletan ikas-tera joateko baliabideak ematea pentsatu liteke.

- Biarritzeko BTS-a indartzea eta hedatzea komeni litzateke, eta bertako ikasketa-planetan integratu euskal filmen eta ikus-entzunezko egituren ezagutza.
- Arte eskolan sail bat sortu liteke, ikus-entzunezkoetan zentratua. Eskolak Donostiako Elias Querejeta Zinema Eskolarekin (EHUren zentro atxikia dena) hasitako kolaborazio bidea indartzea interesgarria liteke.
- Goi mailako ikasketetan, Euskal Herriko Unibertsitateko ikus-entzunezko komunikazio gradua (euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen duena) promozionatu liteke, lizentzia mailako formakuntza integral bat eskaintzen duena, Arte Ederretako Fakultateko Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa Masterra edota Mondragon, Deustu eta Nafarroako Unibertsitateko graduak (oro har KSI gunen biltzen diren guziak).
- Goi mailako ikasketetan, lurraldeko unibertsitateen eta EHUren artean, ikus-entzunezko diploma berezi bat sortzea pentsatu liteke. Ez litzateke gauza berria: jadanik eginak izan dira horrelako esperientziak, Iparraldean formazio beharrak eta Hegoaldean formazio aukerak detektatu direnean. Adibidez, hezkuntza arloan (Eskola Futura programa, Bordeleko Unibertsitatea, Bordeaux Montaigne Unibertsitatea, EHU, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Toulouseko Jean Jaurès Unibertsitatea, Montpellierreko Paul Valéry Unibertsitatea eta Lleidako Unibertsitatearen artean kudeatua) eta kazetaritza arloan (UPPA, Bordele Montaigneko IJBA eta EHUren arteko "Euskarazko kazetaritza diploma, 2023-2024 ikasturtean inplantatuko dena).

d. Lurraldeko egituren garapen ekonomikoa laguntzea

Ikus-entzunezkoen sorkuntza berrikuntza gisa ulertuz, beste arlo batzuekin lankidetzan, sustapen industrialeko neurri sorta bat inplementatzeko aholkularitza eta proposamenak egitea, dagokion erakunde edo sailei zuzenduz. Egun eskumenak dituzten erakundeentzat, bulegoa (edo Erakundearteko Koordinakundea) laguntzea eta orientatzea, egokitasun-zigilu eta norabide onean joatearen seinale izanen da funtzio batzuk harengan delegatzearekin batera, erakunde horrek prestigioa lortu beharko baitu laster.

Ildo honetako proposamenak izan litezke:

- Enpresa independenteen lehiakortasuna sustatzea aldi baterako laguntza industrialen eta finantzazio abantailatsuen bidez.
- Administrazio publikoek bultzatutako elkarte pre-klusterrak eratzea, proiektuak eta koprodukzioak sustatzeko haztegi eta polo gisa.
- Finantzaketa sistema itzulgarri bat diseinatzea, mikroenpresa sortu berriek, beren aktibitateerako behar dituzten baliabideak erosteko egindako inbertsioentzako. Adibidez, euribor interes tipoan egindako kredituak izan litezke, 5 urteren buruan itzuli beharrekoak.
- Enpresak garatzeko ildo estrategikoetarako interesik gabeko kreditu itzulgarriak martxan jar litezke.
- Enpresen proiektu kultural konkretuetarako kreditu itzulgarriak pentsatu litezke.
- Pentsa liteke finantza-kostuen bonifikatzea, proiektuak epe luzeko maileguekin eta diruzaintzako maileguekin finantzatzeko banku pribatuan lortutako kredituetan

e. Ikus-entzunezko behatoki bat sortzea, ikus-entzunezko ondarearen zaintza, sektorearen aktibitatearen segipena eta politika kulturalen ebaluazioa egingo duena

Lurraldean ez da egiturarik ikus-entzunezko ondarea babesten duenik. Are eta gutxiago, sektorearen segimendua egiten duen egiturarik. Ikerlan honetarako datuak lortzeko aurkitutako zailtasunek erakusten dute, gabezia handiak daudela arlo horretan, eta beharrezkoa agertzen da, ondarearen eta datuen kontrol bat eramatea, aldi berean, politika publikoen gardentasuna eta praktika onak zainduz. Horretarako, komenigarria litzateke bulegoak, ikus-entzunezko behatoki edo obserbatorio bat sortzea.

- Ondare arloan, ikus-entzunezko lanen eta bestelako materialen artxibategi gisa funtzionatuko lukeena, ikerlariendako eta publiko orokorrendako ikus-entzunezko ondarea eskuragarri jarritz.
Horretarako:
 - Ipar Euskal Herriko ikus-entzunezko irudi historikoen bilduma bat egingo liteke, urtero haziz joango litzatekeena. Adibidez, horretarako, diru-publikoa hunkitzen duten proiektu guztiak behartuz, kopia bat behategian uztera, bederen (+ nahi izanez gero, bestelako materialak: txostenak, argazkiak, eszenarioak etabar)
 - Euskadiko Filmategiarekin protokolo bat adostu liteke, iparraldeko funtsak han kontserbatu daitezzen, eta aldi berean, Euskadiko Filmategian kontserbatzen diren Ipar Euskal Herriko irudiak, behategi honetan eskuragai egon

daitezen. Azpimarratzeko da, gaur egun Euskadiko Filmategia eta Limoges -eko zinematekaren artean ere harremanak hasi direla (Ipar Euskal Herriko fondoak, amankomunean dituzten interes gune direlako).

- Datu bilketaren arloan, behatokiaren egitekoa litzateke, produkzio, egitura eta dispositibo guzien erreperitorio bat eguneratua mantentzea, eta aldi berean, ad hoc diseinatutako indikadore sistema bat plantan ematea, politika kulturalen segimendua egingo lukeena, urtez urte, datu bilketa hutsetik haratago, urtero informe bat burutuz.

Behatokia martxan jartzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Behatokiaren aholkularitza eta lankidetzat bilatu liteke. Behatoki honek, 15 urte daramatza lan hau egiten, eta Ipar Euskal Herrian lan egin izan du hainbat proiektutan jadanik, bertako instituzio batzuekin elkarlanean.

2.4 | Bi sustengu fondo existente, handitu eta moldatuak

Lehenago esan bezala, planteatzen dugu bulegoaren aktibitate kanpo uztea produkzioaren finantzazioa. Bulegoak sustengu fondo propio bat kudeatzea baino, egokiago deritzogu jadanik existitzen diren edo existitu diren sustengu fondoak arramoldatzea, bakoitzari nortasun propio bat emanaz eta gaur eguneko beharretara egokituz.

a) Departamentuaren "ekonomia kreatibo" fondoak (2015ean desagertua), Hirigune elkargoaren parte hartzearekin

Fondo hau berriz ere martxan jarri liteke, gaurko egoerari egokituz, Departamentua/Estatua/CNC/Eskualdea eta orain Hirigune Elkargoa hiru urteroko hitzarmena berriz integratuz alde batetik, eta "Departamentua-Hirigune Elkargoa" fondo partekatua bilakatuz, berriz lurraldetik 2 euro emanaz CNCtik 1 euro gehitzera iristera bilatuz.

Epe ertainean eta egitura ezberdinen arteko inbertsioak adostuz (baita kultura zerbitzuetatik at arloan esku hartuz) lekuko sorkuntza eta ekoizpenaren aldeko inbertsio azkar batera iritsi beharko litzateke, bertako begirada artistikoak lehenetsiz eta euskarazkoa ahalbidetuz. Hemen lehentasuna lekuko eta euskarazko sorrerari emateko irizpide argiak definitu beharko lirateke. Arabako diputazioa (eta horrekin batera Gasteiz bezalako hiri baten ekarpena) edo Nafarroako modeloek erakusten digute nolako inpaktoa izan dezakeen aldeko estrategia azkar batek.

- a)** Pentsa liteke beraz hasieratik, 2015a arte Departamenduan existitzen zen fondoak baino dotazioa indartsuagoa sor daitekeela, Hirigune Elkargoarekin batera eramanik.
- b)** Existitzen zenean bezala, mantendu beharko litzateke laguntza arlo ezberdinetara bideratzea. Idazketa / Garapena / Laburren produkzioa / Dokumentalen produkzioa / Fikzio luzeen produkzioa. Pentsa liteke post-produkzioarako laguntza lerro berri baten irekitzea ere.

- c| Laguntzak ematerakoan balorazio irizpideak publikoak izan beharko lirateke, puntuazioa xeheki azalduz. Zentzu horretan, lurraldeko hizkuntzetan egindako proiektuek, puntuazio estra bat izatea pentsatu liteke, Eusko Jaurlaritzak egiten duen bezala.

Lehen urteetan fondo horien eragina neurtzeko saiakerak egitea aholkatzen bada ere (batez ere ziurtatzeko lekuko egitura eta sorkuntza dituela laguntzen), aski fite fondo azkarra sortzea hartu behar litzateke helburu bezala, EAE eta NFKrekin batera aitzinatzeko ahalak emateko.

b) NAEN euroeskualdeko fondo bat ikus-entzunezkoetan espezializatzea, ko-produkzioetarako

Euroeskualdea gero eta gehiago ari da, ikus-entzunezko proiektuak laguntzen, mugaz gaindiko errealitate gero eta sendoagoa delako. Zentzu horretan, pentsatu liteke EURIMAGES bezalako diru funtsa, NAENen eskutik:

- a| Akitania Berria-Nafarroa-EAE koprodukzioentzako funtsa liteke. Hiru lurraldeen oreka mantentzen duten proiektuak lehenetsiko lituzkeena. Bide hortatik euskal koprodukzioentzako POCTEFA programa batetara iristea ere bide interesgarriak dirudi.
- b| Proiektu minimoen kuota bat edo puntuazio sisteman leku bat aurkitu beharko litzateke euskarazko proiektuei.

3. Epe motzeko gomendioak. Lehentasunezko lau ekintza

Epe luzeko estrategia finkatu eta politika publiko koherente eta bateratuak inplementatzeko, beharrezkoa izango da trantsizio epe bat.

Komenigarria litzateke sektorea aktibatzeke eta dinamika positibo bat abiarazteko neurri batzuk berehalakoan eta urgentziaz martxan jartzea, egun existitzen diren errealitateetatik abiatuta. Ekintza konkretuak izan beharko dira, emaitza konkretuak emango dituztenak.

Esan gabe doa, domaia litzatekeela instituzioen engaiamendua, ororen buru, ekintza konkretu hauetara mugatzea. Inportantea iduritzen zaigu go-goeta bururaino eramatea, eta erakundeen partetik, garapen kultural eta ekonomikoaren hariak amankomunean eta perspektiba berdinarekin josiko dituen proiektu bat lantzea, ikus-entzunezkoa epizentro gisa hartuz. Baina proiektu hori gauzatu aitzin, trantsizio epe bezala (hiru-lau urte baino gehiago luzatu behar ez lukeen trantsizio epea) posible eta desiragarri lirateke berehalako neurri batzuk.

Azterketa honen ondorioetatik, honako lau arloak inposatzen dira premia-koenak. Lehentasunez martxan jarri beharko liratekeen lau ekintzak, honakoak dira.

3.1 | Erakundearteko koordinazio mahaia eta lehen ekintzak pilotatuko dituen lidergo instituzional bat adostea

Instituzio bakoitzak gaur egun dituen politikari eutsiz, beharrezkoa ikusten dugu egitura ezberdinen arteko koordinazioa eragiteko bat antolatzea. Horretarako, mahaian ordezkaturik dauden instituzio guztiek, adostasunez, lidergoa instituzioetako batengan delegatu beharko lukete. Horrek ez luke suposatuko norberaren eskumenei eta erabakimenari uko egitea, erabaki guzietan kolegiatuak izaten segituko lukete, baina lidergoa hartuko lukeen eragileari zuzenotasuna aitortuko litzaioke koordinazio lanak egiteko, sektoreko eragileekin eta Frantzia mailako instituzioekin interlokuzioa mantentzeko eta planteatuko diren ondoko hiru ekintzak pilotatzeko.

Erronkaren tamaina kontuan hartuz, gomendagarria izan liteke lidergo instituzional bat aitortuz batera, lana teknikoki aurrera eramateko pertsona konkretu bat izendatzea. Izan liteke jadanik instituzio bateko langile den teknikari bati misioa enkargatuz, edo izan daiteke pertsona berri bat kontratatuz. Nolanahi, orai arteko dinamika ezagututa, ebidentea dirudi dedikazioa, inizatiba eta jarraikortasuna eskatuko duela lanak, eta horretarako medioak jartzea beharrezkoa dela.

Erakundeen eta lurraldeko profesionalen arteko harremana eta informazio truketzea segurtatzea eta zentralizatzea ere luke helburu.

3.2 | Produktorako fondo bat aktibatzea

Orrialde hauetan hainbat aldiz esan dugu, fondo bat sortzea ez dela izango arazo guztien soluzioa, eta lurraldearen ikus-entzunezko estrategiak ez duela bakarrik fondo baten inguruan pibotatu behar. Alta, argi da ere eragile eta aktoreen eskakizun nabarmenen artean dagoela fondoarena, behin eta berriz errepikatzen den galdea dela lurraldeko produktioak laguntzeko finantzamendu iturri bat sortzea, eta ekintza honek, epe laburrean ikus-entzunezko proiektu konkretuak gauzatzeko posible egiteaz gain, beste politika batzuk aktibatzeke lehen neurri abiarazle bezala funtziona lezake. Horregatik, lehentasunezko ekintza bezala ikusten dugu Departamenduak 2015 arte indarrean zuten sostengu fondoak berriz martxan jartzea, Hirigune elkargorekin sorrera aintzat hartuz, "Departamentua-Hirigune Elkargoa" fondo partekatua bilakatuz.

Fondo berriak lekuko sorkuntza eta ekoizpenaren aldeko parioa ardatz izan behar luke, bertako begirada artistikoak lehenetsiz eta euskarazko produktioa ahalbidetuz.

Aldi berean, ekoizpen hutsetik haratago, laguntza arlo ezberdinak sustengatzea komeni litzateke, 2015era arte egiten zen bezala. Hala, **Idazketa** eta **Garapena** laguntzak lehenbailehen aktibatzea gomendatzen da, epe ertainean **ekoizpena** zein **post-produkzio** laguntzetara ere iritsi litekeena.

Praktika onekin hasteko eta epe luzeko begirada erakusteko, laguntzak ematerakoan balorazio irizpideak publikoak izan beharko liriateke, puntuazioa xeheki azalduz. Zentzu horretan, lurraldeko hizkuntzetan egindako proiektuek, puntuazio estra bat izatea pentsatu liteke.

3.3 | Ikus-entzunezkoen banaketa estabilizatzeke sistema bat aurkitzea

Alferrik da Euskal Herrian ikus-entzunezkoak garatzeko sistema oso bat pentsatzea, gero ez baldin badago lurraldean bertan ikus-entzunezko horiek ikusteko aukerarik. Kontsumoa, kontsumitzeko ohiturak sortzen du, eta ez badago modurik Ipar Euskal Herrian euskal ekoizpenak normaltasunez eta jarraikortasunez ikusteko, ez da sekula garatuko sektore indartsu bat.

Euskal Herrian sortutako ikus-entzunezkoen erakusketa ezin da “urtean bi aldiz” edo “gaualdi berezietan” emanaldi puntual batzuk antolatzerara mugatu. Euskal ikus-entzunezkoek, parametro industrialetan, munduko beste ikus-entzunezkoen baldintza berdinetan erakutsiak baldin badira bakarrik lortuko dute publiko zabalaren arreta, eta horren ondorioz, onarpena. Horretarako, banaketa zinematografikoa sustatu behar da, lurraldean **gako** den aktibitate gisa. Baina, mementoko, laguntzarik gabe jarduten direnez, aktibitate hori defizitarioa suertatzen da lurraldean operatzen duten banatzaileentzat. Egoera honek, instituzioen aldetik berehala eragin beharra dagoela argi erakusten du. Horregatik, estrategikoa eta behar-beharrezkoa da instituzioek beren ardura hartzea gai honetan.

Alta, banaketaren aferak badu zailtasun partikularrik. Banaketak, Frantzian, aktibitate komertzial baten kontsiderazioa duenez, CNC da, printzipioz, banaketa etxeei laguntza eskaini diezaiekeen egitura bakarra. Horregatik, egoera desblokeatzeko ekintza interesgarriena da, lurraldeko instituzioek interlokuzio bat abiatzea CNCekin, Frantziako banaketa-etxeak laguntzeko dauzkan lerroen baitan, salbuespeneko lerro bat sortu dezan, eskualde-hizkuntzetan diren filmak banatzeaz okupatzen diren egiturentzat. Banaketa enpresen laguntzeko irizpideetan, filmen ateratzeari loturiko irizpideak malgutu litzake CNCn, eskualdetako hizkuntzetan diren filmak kontuan hartuz, hunkitzen duen lurraldearen berezitasun kulturala eta linguistikoari gehiago begiratu. Ipar Euskal Herriko instituzioek interlokuzio bat abiatu behar lukete horretarako CNCekin, lurraldearekiko nahikeria eta proiektu sendo bat daukala erakutsiz. Ikerlan hau egiterakoan izan ditugun harremanek erakutsi digute, bide hau posible dela, eta desiragarria.

Nolanahi, hori ez da aski izanen euskal ikus-entzunezkoek lurraldeko pantailetan leku bat irabazteko. Pertsonal gastuak estaltzeaz gain, banaketaren aktibitateak, baitezpada galdegiten du gastu handi bat egitea promozioan eta publizitatean.

Horregatik, CNCtik banaketari zuzendua litzaioken laguntzaz gain, lurraldeko instituzioek euskarazko filmentzat eta lekuko ekoizpenentzat hedapenaren komunikazio eta promozio gastuak estaliko litzuzkeen laguntza-lerro bat irekitzea komenigarria da. Publizitatea, afitxak, esku-orriak, soinu deiak... horiek guztiak finantzatzeko modurik ez daukate euskal ekoizpenek, eta jadanik minoritate egoera batetik abiatzen direlarik, baitezpadakoa agertzen da laguntza publiko bat ukan dezaten, merkatuan “ikusgarri” izateko.

3.4 | Ikus-entzunezko behategi bat martxan jartzea

Ikerlan honetarako datuak lortzeko aurkitutako zailtasunek argi erakusten dute beharrezkoa dela ikus-entzunezko ondarearen, sektorearen eragileen eta politika publikoen jarraipena egitea, datuak eguneratuak mantenduz eta funtzionamendu egokia zainduz; horrela, eragile eta instituzioen prestigioa, gardentasuna eta praktika onak aitzinean emanez.

Ondarearen arloan, aipatua dugun bezala, oso egokia izan liteke Euskadiko Filmategiarekin koordinatuko litzatekeen artxibategi bat sortzea; baina hori aurreragorako utziz, hemen lehentasunezko ekintza premiatsuez ari garenez gero, lehen urrats batean, indarrak jarri beharko lirateke ikus-entzunezko sektorearen jarraipen eguneratu bat eginen duen behatoki baten sortzean.

Ikus-entzunezko behatoki horren egitekoa litzateke, produkzio, egitura eta dispositibo guzien erreperitorio bat eguneratua mantentzea, eta aldi berean, **ad hoc** diseinatutako indikadore sistema bat plantan ematea, politika kulturalen segimendua egingo lukeena, urtez urte, datu bilketa hutsetik haratago, urtero informe bat burutuz. Behatokia martxan jartzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Behatokiaren aholkularitza eta lankidetzat bilatu liteke. Behatoki honek, 15 urte daramatza lan hau egiten, eta Ipar Euskal Herrian lan egin izan du hainbat proiektutan jadanik, bertako instituzio batzuekin elkarlanean. Beste aukera bat, lan hau "Euskal Hedabideen Behategia"-ri enkargatzea izan liteke. "Behategia" Euskal Herriko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Udako Euskal Unibertsitateak Hekimen elkartearekin kudeatzen duten behatokia da. Urtero, euskarazko komunikabide sistemaren inguruko informeak publikatzen ditu, Iparraldeko euskarazko komunikabideak ere aintzat hartuz. Ipar Euskal Herriko instituzioek azterketak finantzatzeko medioak jarritz gero, akordio bat bilatu liteke Behategiarekin, lan hori aurrera eramanez, datozen urteetan bederen.

4. | Azken hitza

Kultura oro har eta ikus-entzunezkoa zehazki sustatzeko lurralde politikek helburu kulturalak (identitatea, gizarte komunikazioa, dinamismoa, elkarrizketa, demokrazia, parte hartzea, integrazioa eta kohesioa) eta ekonomikoak (enplegua, aberastasuna, garapena, dibertsifikazioa, berrikuntza) batzen joan dira denborarekin.

Politikak eta neurriak, hartara, gero eta konplexuagoak eta anitzagoak dira eta ikuspegi klasikoekin batera, oinarrituak azpiegitura eta baliabideen hornikuntzarekin (formakuntza, baliabide finantzarioak, materialak eta ekipamenduak, zerbitzuak) eta haiei lotutako instituzioekin (instituzio, entitate, agentzia eta zerbitzu publikoak), tresna eta ikuspegi berriak ere barneratzen dituzte, eragileen arteko lankidetzat eta berrikuntza teknologikoari begira jarrita.

Hemen planteatzen diren ondorioak eta proposamenak, etorkizuneko ildo horren baitan ulertu behar dira. Aukera ederra dauka ipar Euskal Herriak ikus-entzunezkoen arloan. Erronka ez da txikiagoa. Anbizioz eta epe luzerako ikusmiraz jokatzeko garaia dela pentsatzen dugu.

VIII. ITURRIAK

Lehen ataleko iturriak

- Aguirre, A. (2017, agorrilak 2). Elkarrizketa pertsonala.
- Amezaga, J. (1996). *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Leioa: UPV/EHU.
- Arbelbide, X. (2002): *Maite Barnetxe*. Bidegileak saila, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- B. D. (1955). Parisetik. *Elgar : journal mensuel des basques de Paris*.
- Borau, 1 (1990). *El caballero D'Arrast*. Donostia: Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.
- Cachenaut, P. (2017, agorrilak 3). Elkarrizketa pertsonala.
- Carrere, X. (2017, agorrilak 30). Elkarrizketa pertsonala.
- Cheval, JJ. (2005). "Medias audiovisuels français et langues regionales minorisées. Contexte national et exemples aquitains", *Langues d'Aquitaine, dynamiques institutionnelles et patrimoine linguistique*, Editions de la Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine, Bordele.
- Duhour, P. (1956, uztailak 12). «Zinema Miresgarria». *Herria: journal basque-français hebdomadaire*.
- Etxaluz, K. (2017, abuztuak 25). Elkarrizketa pertsonala.
- "Euskara telebixtan". *Herria: journal hebdomadaire basque-français*, 1971-10-17, Baiona.
- Ezeiza, A. (1985) Reflexiones para un debate sobre el cine vasco. In Intxausti, J. (zuz). *Euskal Herria. Realidad y proyecto*. Donostia: Caja Laboral Popular.
- Ezkerro, M. (2015, urtarrilak 5). Elkarrizketa pertsonala.
- Ferro, M. (1974). *Analyse de film, analyse de sociétés: Une source nouvelle pour l'histoire*. Paris: Hachette.
- Filma berri bat. (1957, abuztuak 15). *Herria*: Baiona.
- Fuchs, X. (2017, abuztuak 3). Elkarrizketa pertsonala.
- Izagirre, K. (1996). *Gure zinemaren historia petrala*. Donostia: Susa.
- Gasteiz, X. (1979): "Baionako irrati telebistak", *Jakin*, 10. zk (bigarren aldia), 61-64.
- Gozillon-Fronsacq, O. (2003) *L'Alsace et le Cinema, strategies cinematographiques*. Paris: Association Française de recherche sur l'Histoire du Cinema.
- Gutierrez, J. (2014, ekainak 3) Elkarrizketa pertsonala.
- Guzman, P (2013). *Filmar lo que no se ve*. Madrid: Docma
- Kantero, A. (2017, agorrilak 10). Elkarrizketa pertsonala.
- Lahina, E. (1956). «Sor Lekua». *Gure herria : bulletin de l'Association «Gure Herria»* (XXV), 247-252.
- Lopez Echevarrieta, A. (1998). *Julian Ajuria: una vida de cine*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Madré, A (1953, ekainak 13). "Cher monsieur le cure". Jean Elissalde "Zerbitzari"-ri idatzitako gutuna.
- Martinez, J. (2015). *Gure zinemaren sor lekua: euskarazko lehen filmaren aurkikuntza, historia eta analisisa*. Leioa: EHU.
- Martinez, J. (2016). Searching for Ramuntcho: foreign filmmakers in the French Basque Country. *Communication & Society* 29(3), 16-31.
- Mattei, JP. (2008) *La Corse, les corses et le cinema*. Ajaccio: La cinématique corse.
- Oliarj-Ines, E. (2017, agorrilak 15). Elkarrizketa pertsonala.
- Premiere Mondiale du film Sor-lekua entierement en basque (1956, uztailak 7). *Basque-Eclair*. Baiona.

- Recalt, T. (2017, agorrikak 2). Elkarrizketa pertsonala.
- Rekalde, M. (2014, maiatzak 2). Elkarrizketa pertsonala.
- Roldán Larreta, C (2003). *Los vascos y el séptimo arte. Diccionario enciclopédico de cineastas vascos*, Donostia: Euskadiko Filmategia.
- Stone, R. & Rodriguez, M. P. (2015). *Basque Cinema. A cultural and political history*. London: I.B.Tauris.
- Torrado, S. (2008). *El cine vasco en la bibliografía cinematográfica (1968-2007)*. Donostia: Universidad de Deusto.
- Un film de asuntos vascos será exhibido en el teatro San Martin. (1924, uz-tailak 31). *Nación Vasca*: Buenos Aires.
- Unsain, J. M. (1985). *El cine y los vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Ynchausti, A. (2015, abuztuak 28). Elkarrizketa pertsonala.
- Zulaika, J. (1996). *Del Cromañon al Carnaval: los vascos como museo antropológico*. Donostia: Erein.
- Zunzunegui, S. (1985). *El cine en el País Vasco*. Bilbao: Diputación de Bizkaia.

Beste ataletako iturriak

Erreferentzia bibliografikoak

- Choukroun, J. (2004). Aux origines de « l'exception culturelle française » ? Des études d'experts au « Rapport Petsche » (1933-1935). 1895. Mille huit cent quatre-vingt-quinze, 44, 5-27.
- Collard F, Goethals J, Pitseys M, Wunderle, (2016). LA PRODUCTION CINÉMATOGRAPHIQUE. CRISP | « Dossiers du CRISP » 86, de 9 à 33.
- Benedetti Valentini, F., & Madelaine, N. (2021, décembre 9). Comment les plateformes vont devoir dépenser jusqu'à 300 millions d'euros dans la création française. Les Echos. <https://www.lesechos.fr/tech-medias/medias/comment-les-plateformes-vont-devoir-dépenser-jusqua-300-millions-deuros-dans-la-creation-francaise-1371264>
- Delaporte, C. & Mazel, Q. (2021). Des publics « à la demande » : Penser les usages des plateformes audiovisuelles. *Communiquer : revue de communication sociale et publique*, 31. <https://www.erudit.org/en/journals/com-muniquer/1900-v1-n1-1-1-1-com-muniquer06495/1082886ar/abstract/>
- Farchy, J. (2011). Et pourtant ils tournent... Économie du cinéma à l'ère numérique (INA éditions).
- Le Diberder, A. (2019). La nouvelle économie de l'audiovisuel. (La Découverte).
- Pinto, A. & Mary, P. (2021). Sociologie du cinéma. La Découverte. <https://doi.org/10.3917/dec.pinto.2021.02>
- Tardif, J. (2008). Mondialisation et culture : Un nouvel écosystème symbolique. *Questions de communication*, 13, 197-223. <https://doi.org/10.4000/questionsdecommunication.1764>
- Zallo R. (2022) Notas para informe « Sector audiovisual y cultura »

Erakunde ezberdinek eraman edo manaturiko ikerketak

- « AVIS PRÉSENTÉ au nom de la commission de la culture, de l'éducation et de la communication (1) sur le projet de loi de finances, ADOPTÉ PAR L'ASSEMBLÉE NATIONALE, pour 2019, TOME IV Fascicule 3 MÉDIAS, LIVRE ET INDUSTRIES CULTURELLES : LIVRE ET INDUSTRIES CULTURELLES » Par Mme Françoise LABORDE, Sénatrice
- Garbisu R. (2014) «Existence(s) du cinéma basque en Pays Basque, et au-delà (II) : Modélisation économique d'une structure de distribution en Pays Basque nord»
- « L'audiovisuel en France : un portrait statistique inédit des entreprises, des salariés et des métiers Afdas » Données Observatoire des métiers de l'audiovisuel – CPNEF de l'audiovisuel / Afdas / Audiens.
- « L'écriture des films et séries en France », SACD-CNC, 2019
- Oscaby C. (2014). « La distribution du cinéma basque en France: besoins et perspectives » Mission d'étude-Rapport Final EKE/ICB.
- Racine B. (2020) « L'auteur et l'acte de création », Rapport pour le Ministère de la Culture

Webguneak

AFDASeko webgunea : www.afdas.com
Akitalia-Berriko webgunea : www.culture-nouvelle-aquitaine.fr
Baionako René Cassin lizeoko webgunea : <http://www.audiovisuel-cassin.com/>
Bourgogne-Franche-Comtéko prefeturaren webgunea « Quelles sont les missions d'une DRAC ? » | La préfecture et les services de l'État en région Bourgogne-Franche-Comté (prefectures-regions.gouv.fr)
CINA : www.cinemas-na.fr
CNCko webgunea www.cnc.fr
CSAren webgunea : www.csa.fr
Film Comission-eko webgunea : www.filmfrance.net eta www.filmfrance-talents.com
Kultur Ministeritzaren webgunea : www.culture.gouv.fr
La femis-eko webgunea : www.femis.fr
Passeurs d'images-en webgunea: www.passeursdimages.fr "Ma classe au cinéma. Ecole au cinéma. Collège au cinéma. Lycéens et apprentis au cinéma"
Senatuaren webgunea : www.senat.fr

Erakunde partaideen webguneak:

www.euroregion-naen.eu ;
www.alca-nouvelle-aquitaine.fr ;
www.le64.fr ;
www.communaute-paysbasque.fr ;
www.mintzaira.fr ;
www.eke.eus

Lehen mailako iturriak

Elkarrizketak par Euskal Herriko zinema eta ikus-entzunezko arloetako profesionalekin

Ximun Carrere, Kanaldude, 2020/11/05, bideokonferentziaz
Simon Blondeau, L'Atalante zinema eta Gabarra, 2020/07/21, Baionan
Loïc Legrand, Kanaldude 2021/01/18, Kanaldude, Bidarrain
Laurent Dufreche, muntatzailea, 2021/07/06, Pasaian
Jean Larregaray, gidoilari eta film-egile 2021/07/15, Kanbon
Itziar Leemans, gidoilari eta film-egile, 2021/07/21, Itsasun
Loïc Villot, soinu hartzaile eta muntatzaile, 2021eko uztaila, bideokonferentziaz
Myriam Aycaguer, muntatzaile, 2021/08/26, Hendaian
Elsa Oliarj-Ines, gidoilari eta film-egile, 2021/09/16, Alozen
Eñaut Castagnet, gidoilari eta film-egile, 2021/09/21, Biarritzen
Marjory Ott, ekoizle, Kestu Production, 2021/11/05, bideokonferentziaz
Maia Iribarne, gidoilari eta film-egile, 2021/11/10, Bidarrain
Sylvie Larroque, L'Atalanteko zuzendaria, 2021/11/15, l'Atalanten, Baionan
Jokin Etcheverria, ekoizle, La Fidèle Production 2021/11/16, Ziburun
Jérôme Alkhat, zinema gela kudeatzaile, 2021/11/17, Complexe Saint Louis, Donapaleun
Maé Thomas, mediatzaile, 2021/11/17, Complexe Saint Louis, Donapaleun
Xabi Garat, zinema gela kudeatzaile, 2021/11/24, Le Sélect, Donibane Lohitzunen
Katti Pochelu, ekoizle, Gastibeltza Filmak 2021/11/26, Larraldean, Senperen
Ximun Fuchs, gidoilari eta film-egile, 2022/05/23, bideokonferentziaz
Carmen Echeverria, gidoilari eta film-egile, 2022/05/23, bideokonferentziaz
Christelle Vassot, zinema gela kudeatzaile, 2022/03/04, Getarienean, Getarian

Beste profesional batzuekin elkarrizketa eta topaketak

Milena Poylo, TS Production, 2022/01/10, bideokonferentziaz
Miguel Courtois, film-egile eta ekoizle, 2022/01/17, Donibane Lohitzunen
Beñat Lagoarde, René Cassin lizeoko erakasle, Irudi eta Soinu Poloaren arduraduna 2022/01/19, Biarritzen
Laurent Alary, ekoizle, TS Production, 2022/04/01, bideokonferentziaz
Nathan eta Fabrice Otaño, animaziozko film egile eta ekoizle, Disnosc, 2022/05/23, Angelun
Yohann Cornu, banatzaile eta ekoizle, Damned Distribution, 2021/02/11 eta 2022/06/05

Elkarrizketak eta bilkurak erakunde ezberdinen teknikariek

*DRAC Nouvelle-Aquitaine, Yves LePannerer-ekin elkarrizketa, 2022/06/02, bideokonferentziaz / Ipar Euskal Herriko zinemen ikusle datuak eta DRACak zinema arloan lurraldean banatutako laguntzen zerrenda
*Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa Euroeskualdea, Marie Héguyren eskutik : Euroeskualdeak, ikus-entzunezko proiektuei zuzenduriko laguntzak, Euroeskualdeko hiritartasunari loturiko deialdian (2017-2021) eta 2021-2027 plano estrategikoa
*Akitania Berriarentzako Pierre Da Sylvarekin elkarrizketa, 2022/04/24, bideokonferentziaz / Akitania Berriko eskualdetik, Ipar Euskal Herriko zinema arloko proiektuei esleituriko dirulaguntzen zerrenda 2017tik geroz
*Sandrine Dos Santos, Région Nouvelle-Aquitaine, 2022/05/24, telefonoz
*ALCAren datuak, Emmanuel Feuliéren eskutik : 2020ko aktibitate txostena, 2021eko perspektiba eta ekintza programa, lurraldean identifikaturiko ekoiztetxeen zerrenda
*Pirinio Atlantikoen Departamenduarentzako, Anatole Aristeguy eta Aurélie Hivetekin bilkura, 2022/05/20, Departamenduan, Baionan / Departamenduak zinema arloan daraman politikari buruzko datu kuantitatibo eta kualitatiboak, 2015 aitzin eta geroztik
*Euskal Herriko Hirigune Elkargoa : Kultura, ekonomia, hizkuntza, mugazgaindiko zerbitzu buru ezberdinekin bilkura, 2021/03/01, Baionan / Kultura zerbitzuetik, ikus-entzunezkoa eta zinema arloari esleituriko laguntzen zerrenda.
*Euskararen Erakunde Publikoaren datuak, Ibai Agirrebarrenaren eskutik : Ikastetxeen proiektu deialdiaren baitan ikus entzunezkoaren arloarekin zerikusia duten proiektuei emandako dirulaguntzak eta EEP eta Jaur-laritzaren lankidetzaren fondotan ikus entzunezkoaren arloarekin zerikusia duten proiektuei emandako edo ez emandako dirulaguntzak
*Euskal Kultur Erakundea, Frank Suarez, Johaño Etchebestekin bilkura, 2022/03/22, Uztaritzen / Zinemari itzulitako laguntzen inguruko datuak (2015-2021)
*Biarritzeko Herriko Etxetik, Thomas Habas eta Matthieu Bardiaux-rekin bilkura, 2022/02/22, bideokonferentziaz

Beste iturri batzuk

CNC-ko bilanak
Cinévasion zinema sarea
Gastibeltza Filmak, ekoiztetxe eta banaketa etxea
Kanaldude telebista
L'Atalante zinema-gela/ Gabarra banaketa elkarteak,
Le Royal zinema gela, Biarritz
Lumière datu basea: <https://lumiere.obs.coe.int>

IKUS-ENTZUNEZKOAK
eta
ZINEMA
IPAR EUSKAL HERRIAN

Leioa, 2022ko urria